

Aginaga

Errioko jarduerak eta
bertako hiztegia

Jabier
Pikabea
Aizpurua



37

colección
Lankidetzan
bilduma

Aginaga

Errioko jarduerak eta bertako hiztegia

Laburpena / Resumen / Résumé	13
Udalaren agurra	15
Sarrerako hitz bi	17
Ataritik	19
Joxe Mari Aranalde (hilotz)	23
Aingireta	25
Alagintza	35
Anguleta	43
Estropadak	67
Gobadaharriak	93
Izkireta	99
Hondarreta	105
Ujalak	123
Errioko pasadizoak	141
Errioko Hiztegia	157
Esamoldeak, esapide bereziak	247
Bibliographic Section	277

Liburu hau hiru burutan banatu da: Lehen buruan, erriko jarduerak azaltzen dira, Aginagako gizajendeak erriorekiko zituen harreman estuak agertuz: bertatik bizi eta bera bizi izan zuenekoa. Bigarrenean, hiztegi jatorra bezain aberatsaren bilduma ematen da: leku, landare, arrain eta hegazti-izenak ere barnesartuz. Eta azkenekoan, esamolde bereziak: mendez mende eta ahoz aho osatu eta transmititutako esapide argi eta egokiak.

Giltza-Hitzak: Errioa. Arrantzak. Hondarreta. Gobadaharriak. Estropak. Alagintza. Alunea. Pasadizoak. Hiztegia.

El presente libro se ha dividido en tres partes. En la primera se dan a conocer las actividades del río y se muestran las estrechas relaciones que la gente de Aginaga mantenía con él, en un tiempo en que vivían de él y lo hacían vivir. En la segunda se proporciona un vocabulario tan castizo como rico que nombres de lugares, plantas, peces y aves. Y finalmente, expresiones peculiares, claras y apropiadas que de siglo en siglo han sido transmitidas de forma oral.

Palabras Clave: Río.: Pescas. Acarreo de arena. Piedras de colada. Regatas. Construcción de barcas. Embarcadero. Sucesos. Vocabulario.

Ce livre a été divisé en trois parties. La première partie fait connaître les activités de la rivière et montre l'étroite relation des gens de Aginaga avec elle, à une époque où l'on vivait de cette rivière et où on la faisait vivre. La seconde partie fournit un vocabulaire aussi pur que riche de noms de lieux, de plantes, de poissons et d'oiseaux. Et finalement on y trouve des expressions particulières, claires et appropriées qui ont été transmises oralement de siècle en siècle.

Mots Clés: Rivière. Pêche. Transport de sable. Pierres à lessive. Régates. Construction de bateaux. Embarcadère. Événements. Vocabulaire.

Agiñar baten liburua dugu eskuartean (Eusko Ikaskuntza elkartearekin partaidetzan argitaratua). Udal ordezkari bezala poz handia ematen dit liburu hau eskuartean izateak. Jakin badakit eta, lan hau esfortzu askoren fruitua dela, ordu asko bata bestearen atzetik, egunak motz, gauak luze baina ideia eta asmo bat buruan. Bejondeizula!

Gaur elkarriketa Juanitori, bihar Patxirengana, arratsaldean... baina lan guzti horrek pena merezi izan duenaren ustea dut. Bada liburu honetan zer ikasia Erriyoko bizimoduari buruz; bai bizipen pertsonalak, bai angularen inguruko bitxikeriak, bai arraun kontuak... gozatzeko moduko lana alegia.

Agiñarren hizkera bitxia eta erriyoaren hiztegia salbu ditugu, idatzita eta ondo gordeta etorkizunerako ere. Besterik gabe idazlea zoriendu eta guztiok animatzen zaituztet euskeraz idaztera.

Har ezazue agur bero bat.

Ibon Beristain
Soziokultura zinegotzia
Usurbilgo Udala

Sarrerako hitz bi

Aginaga ez da udalerria; baina herria da, eta politta. Badu bere elizaldea. Baditu auzo edo etxetaldeak. Badu bere mendi –Agiñamendi– zoragarria. Baditu baserri gozo eta etxe bakan amesgarriak. Badu bere parrokia eta hilerria. Eta, azkenik, badu berari aparteko nortasuna eman izan dion eta ematen dion zera bat: ERRIOA.

Bitxi ederra eta oparoa dugu aginagarrok Oria errioa deritzan hau. Gaur bestela bagaude ere, bazen garai bat berrogeitaka arrain mota bertan bizi izandakoa. Eta honek arrantzarako zaletasun handia sortu zuen, eta eskutik eskura bezala etorri dira guganaino bertako jarduerak. Eskutik eskura bezala geureganatu, hain ospetsu egin gaituen txitxardina. Eta eskutik eskura bezala jaso, beste hainbat arrantza-jarduerak, esateko: aingireta, izkireta, lupita... Antzinatik erriolari lotua eta bertan murgildua bizi izan da ia oraintsu arte Aginagako jendea. Eguneroko bizimainarako lagungarri edo osagarri gertatu zitzaion, eta, neurri handi batean, bera izan zuen bizibide eta elikabide.

Baina Aginagak izan ditu errioaren hegalean bi jarduera aipatu beharrekoak: itsasontzigintza eta alagintza. Ez dagokit niri, orain, bakoitzaren historia hemen ematea edo azaltzea, baina bai esan XVI. mendean jada bertako jendea barkugile zela: Aginaga zen indartsuen eta nagusien inguruko itsasontzigintzan, antzina batean; eta aginagarren artean, Soroa etxeakoak, diotenez. Alagintza, berriz, gure begietan itzali zaigu. Duela berrogoei urte inguru, artean bizi-bizirik zirauen jarduera honek; eta gerora azkar batean galdu zen: errioaren kutsadura eta Oriotik hondarra ekartzeari uztea, besteak beste, izan ziren bi arrazoi nagusi.

Ikus daitekeenez, Aginagako jendeak, gaur ez bezala, errioa izan zuen bere elikagai edo bizibide. Beraren sabeletik eta sabelean bizi izan zen, eta berari hitz egiten zion goizetik gaueraino: errioa izan zuten mintzagai nagusi. Eguneroko errio-bizatztatik eta errioa bizitzetik atera eta sortu zuen bere mintzaera propioa, jatorra eta aberatsa. Lehorrekoak ez bezala dakizki adierazten eta bereizten, esateko, korronte desberdinak: tiraina, ur-haizea, uresilla edo erresola, urausilla, majuba... Eta horrela, bertako beste hainbat eragin eta fenomeno. Lehorrekoek baino hitz eta esapide askoz gehiago erabiltzen dituzte ur-giroan: baserritarrek lurgintzan bezala, urgizonak erriotan.

Baina, esan dugunez, mintzaera-altxor hau eguneroko bizitzatik eta bizitzetik atera edo egin ohi da, eta, hortaz, bere biziraupena ere horretan datza: bizitzatik eta bizitzetik; bestela, hiltzera dateke.

Ez dago esan beharrik gaurko aginagarron bizimaina bestelakoa dena. Garai bateko ohiturak eta erriko tresneriak ahaztuxeak dauzkagu aspalditxo. Gauzak horretara, egungo egunean gazteek zaharrek alderatuta, errio-hizkera erdira jetxi dute: bizitzan bizitzen ez dena baztertu egin ohi da; eta ber gauza gertatzen ari zaio Aginagako errio-hizketari; eta, denbora laburrera, herioa izango du nagusi.

Hona hemen, hortaz, liburu honen goielburu nagusia, irakurle: menderik mende eta tantaka-tantaka eta arimaren arimaz osatutako erriko aho-altxor hau jasotzea, sekulako gal ez dadin.

Hizkuntza batek ispilatzen ditu herri baten ezaugarriak: beraren izana, beraren nortasuna eta beraren ohiturak, liburu honetako hiztegiak ederki asko erakusten digun bezelaxe. Eta hau guztia, errio bizi izandako ur-gizonei esker jaso dugu; eta horregatik beraiei eskaintzen diet, berezeki, liburu hau, ohore handienez.

Eta bukatzeko, baita nire esker ona azaldu, lagundu didaten guztiei, batez ere Daldagorriko Juanito Galarragari. Inor gutxik izan dezake, nik Juanitorekin izan dudan zoria; eta beronen borondatea eta laguntza izan ez banu, ezin izango nuen, gainera, liburu hau burutu: ederki asko bete nau.

Eta zuri, aginagar zaren horri, agur t'erdi! Zeure izaera –neurri handi batean, behintzat– errioan datza: errio bizi izan zutenetik zatoz, eta haiek dituzu sustrai nagusi. Heldu errio-kulturari! Eutsi errio-hizkerari! Animo!, herri izateari: Aginagari!

Jabier Pikabea Aizpurua

Ataritik

Bai, adiskide, ataritik ari natzaizu. Lerro hauen bukaeran ageri diren izen-abizen horiekin munduan nabilen hau, ataritik bakarrik mintzo natzaizuke, eskuetan duzun liburu honek darabilzkien kontuetaz.

“AMETS ZELAIETAN” izeneko hartarako ni aukeratzea Jabier Pikabeak, ez zen hain harrigarri. Neroni poesizale edo olerkizale betikoa nintzela bazekien, eta sail horretan zerbait egina nintzela ere bai. Bazekien, gainera, zenbait olerkari handi eta paregaberen adiskide eta ikasle eta miresle nintzela ere. Beraz, hari “SARBIDE BAT” egiteko aukeratzea, tira. Baina lan berri honetarako?

Arrotz zait nire liburu honetan ageri den mundua. “AINGIRETA” eta “ANGULETA” eta “ALAGINTZA” eta horrelako gauzarik ezagutu gabea da gazteluar erdipurdiko hau. Handiagoa esango dizut, irakurle: ez naizela angula zalea ere. Ez diet muzinik egiten, baina ez dira nire gutzi. Zer nahi duzu! Horrelakoxe aldrebes bat hautatu du egileak aurkezpen hau egiteko.

Eta, hala ere, gusto guztiz egingo dut hitz Jabier Pikabea jaunaren liburu berri honetaz. Sar gaitezen barrura.

Har ezazu “ESAMOLDEAK, ESAPIDE BEREZIAK” izenez deitzen duen saila. Beha iezaiezu esapide eta esamolde horiek beren aurrean dakartzten numeroei. Bata eta bia eta hirua dira, ikusten duzun bezala. Zer adierazteko edo erakusteko? Irakur dezagun egileak berak zer esaten digun banaketa eta sailketa horretaz: “...esamolde edo esapidearen aurretik berauen izaera edo egoera agertzen da, mota desberdinetako bilketa eginez:

- (1) Galtzorian dauden esapideak, gutxitan entzuten diranak eta jende helduei soilik entzuten zaizkienak.
- (2) Esapide guztiz bereziak, batez ere errioaren baitan erabiltzen direnak.
- (3) Jende helduak, barra-barra, baina gazteak gero eta gutxiago erabiltzen dituenak”.

Egileak ematen dituen esplikazio horietan, irakurle, ez al duzu zahar-hots handi xamarra entzuten? “Heldu” esaten du berak jendetasunez; baina zahar ere esan zezakeen gezur handirik gabe. Nolanahi dela ere, ezpain zimur xamarretan dabilela hizketa hori eta iraupen luzeegirik ez ote dezakeen izan.

Hori da beldur izatekoa eta horretxek eragin dio Jabier Pikabea jaunari lan hau hartzera. Hona nola mintzo den “SARRERAKO HITZ BI” delako zati horretan:

“Hona hemen, hortaz, liburu honen goihelburu nagusia, irakurle: menderik mende eta tantaka-tantaka eta arimaren arimaz osatutako erriko aho-altxorra hau jasotzea, sekulako gal ez dadin” (Azken-hirugarren parrafoa duzu).

Ederra “goihelburua”! Eta eskertzekoa, “Agiña”rren” espirituak sortutako altxor hau jasotzea! Bejondeizula, Jabier Pikabea jauna.

Ba al dakizu, irakurle, zer zetorkidan burura behin eta berriz, liburu hau ikusten eta irakurtzen ari nintzen bitartean? Museo bat egin beharko litzatekeela liburu honen fruitua osatzeko. Hartara konpletatuko litzateke ederki Pikabea jaunak liburu honekin hasi duen lana. Udalak eta abarrek modurik balute, hori litzateke hurrengo urratsa, Oria erria eta Agiñaren arteko ezkontza horren historia osatzeko. Eta... museo horretan edo beraren bueltan angulak modu-xarrean jateko aukera eskaini ezker, baluke Agiñak bisitaririk.

Beste lan polit bat, “ESAMOLDE, ESAPIDE BEREZIAK” direlako horiek, nola sortuak dauden aztertzea eta erakustea litzateke. Mamirik gehienekoenak, dudarik gabe, “(2)” zenbakiarekin markatzen direnak dira. Nahiz bizi-filosofiari dagokionez, nahiz hizkuntzaren manejoari dagokionez, hor bai dagoela altxorra.

Adibide bat nahi duenak, beha bezaie “begi”rekin hasten diren “(2)” dun horiei. “Zira-trajia” nola arretaz zaintzen zuten esateko, non aurki zitekeen konparazio adierazgarriagorik diruaren hori baino?. Dirua behar eta hura amets eta bera falta zuen jende harek, haur jaioberri bat bezala har zitzakeen eta zain bere sos apurrak. Zenbat aldiz igurtzitzen ote zituzten zillarrezko txapontxo haiek! Horrela eta areago zaintzen zuten, nonbait, errioko lanean aritzen ziren agiñarrek beren zira-trajia. Dirua ezezki, beharrezkoa izango zen hura ere. Eta bai ederki adierazi ere, garai bateko agiñarrek, esamolde horretan.

Eta hori bezala, “artaldia” hitza ere, bere esapide osoan sartua: “ARTARDIA ZABILLEK ITXAS GAÑIAN”. Zeinen konparazio polita itsas kizkurtua eta pinportua adierazteko!

Ez dira aginagarriak bakarrik, mintzen hasitako itsasoak artalde gogorazten dienak. Badituzte lagunak. Eta ez edozein! Homero ezagunarena daukat nik entzuna, neronek ez baitut irakurri, nola konparatzen omen duen itsasoaren mugimenduren bat artaldearekin. Nik Orixerena ezagutzen dut:

“EZTAIONDO” du izena kantuak. EUSKALDUNAK poemako azkenengoa da. Kantu horretan, “ESTROPADAK” izenarekin dator zati bat. Norgehiagoka horrekin hasi aurretik, itsasoarekin ari da; eta hona zer dion besteak beste:

“Lurraren mugak esirik ez du;
zelai eta apur, ondarra;
ark ezitzen du, Jaunak aginduz,
ur aundi aren bularra;
ARTALDE XEA BEZELA, AURRERA,
milla kosketan aparra;
irakin-otsa isiltzen zaio
iragazirik indarra”. (EUSKALDUNAK, 511 orrialdea).


Horra Orixe itsasoaren joanera plaian artalde “xea”rekin konparatzen. Ez dituzte agiñarrek bakarrik itsasoa eta “artaldia” konparatu.

“ERRIOKO HIZTEGIA” izenarekin datorren sailak ere eskaintzen du aukerarik lan politak egiteko. Zenbat buelta ematen zaizkion hitz berari eta nola baliatzen dugun bera mila adierazpen ezberdin eginarazteko. Ikus bitza nahi duenak, esate batera: UR, ANGULA, MARIA ETA ABAR.

Lan hauek ikasle-jendearentzat lirateke politak. Gaia badaukate hor edozein irakasle arduratsu pozteko eta eskuratzeko nota handi baten billa. Ia gazteak, osa Jabier jaunaren lana, eta egin Agiña den baino ederrago.

Eta nik ere neretxo bat eskainiko banu? “Salabardo” delako hori nik ez nuen ezagutzen. “Xalaarda” bai, irakurria nion napar idazle bati. Guk ezagutzen duguna, “zala-baderoa” da. Hamaika aldiz esana diogu elkarri. Baldarra edo aldrebesa esan nahi du guretzat. “Hau demonio zalabarderoa” esaten duenak, “hau demonio baldarretxe” esan nahi du gure artean. Ez du gehiegi edertzen pertsona izenlagun horrek. Ni ez al nauzue halakotzat hartuko.

Joxe Mari Aranalde



**Joxe Mari Aranalde
(hilotz)**

Gizon,
gizon buru-jantzi
gerri bete gizon;
oihaneko sustrai
zuhaitz sendo tantai;
begitarte itzal
itzal handiko gizon.

Gizon,
gogo altxagarri
bihotz-horma zabal
eskuzabal leial;
gaztelu altu
gaztelu barru
barru-barruko gizon.

Gizon,
apaiz urrunbegi
LARTE gailur antzo
zabal ikuskari:
olerkari,
euskaltzain urgazle,
bertsolari...
Ernalbegi gizon.

Gizon,
loak zaitu hartu,
baina ez zara gau;
zure irudiak
dir-dir dirau:
goi zilar,
su-pindar
gau-izar.

“ODOLAREN MINTZOA”
oleska ari zuri,
estu besarka zaitzan
bertsotan kantari.

Agur, ohore-gizon!
Agur, Joxe Mari!
Bekizu EGUN HANDI.

Jabier Pikabea Aizpurua

Aingireta





Joxe Juan Bereziartua

Inor baldin bada Aginagako errioa ondotxo ezagutzen duenik, Mutiozabaleko Joxe Juan Bereziartua da. Ondo gaztetik egin zen erriozale; eta beste erremediorik ezean eta zahartzaroak aginduta utzi behar izan zion bertara joateri. Arrantza guztietan saiatua izan zen, baina bere-berea egindakoa, haxe: AINGIRETA.

- **Joxe Juan, Aginagako errioa guztiz aberatsa izan omen da. Zergatik? Arrantza asko ezagutu al duzu zuk hor? Zein arrain mota, zure oroimean? Gainera, nik entzuna dut, Joxe Juan, frantziar batek esanda entzuna nago, Oria errio hau Europako aberatsenetako bat izana zela arrain aldetik. Kontaiguzu zein arrain mota zeuden hor.**
- Or, auskalo! Arrai asko: aingira, lupiya, ixkira, txirlak, angula, almejak, amarrak, barbua, lolina, lupiya, izukiya...
- **Muskuilurik ba al zen hemen, Aginagan?**
- Muskulluikan emen, ez.
- **Eta txirlarik ezagutu al duzu zuk errio honetan?**
- Txirlak... Oriyo aldetikan: bein Ortzaika ezkeo aste zian aliak or, baztar oitan'e. Bazian emakumiak beste'i'pe bizi zianak Agiñatikan jundakuak: Maria-ta, Etxebestetikan jundakuak. Aik, "kontinuamente", Oriyoko Aitzondoko bajada artan, ondarra ekartzen gendun tokitikan ara bitar-

tian –ezkerreko barrank’oi, Oribazar playatikan gora Aitzondo bitartian–, danian oitan ibiltze zian.

- **Joxe Juan, Aginagan bati baino gehiagori entzuna diot, zu izan omen zarela “errio-zakurra”...**

- Ja!

- **...horko maisu edo gehien ibilitakoa. Zuk nolaz zaletasun hori? Zaletasun hori nondik edo nola etorri zitzaizun? Etxean dirupremia zegoelako edo zerk eraginda?**

- Prueba asko inda ikaste’a arrantzan’e, eta batek prueba inda zeozte differentia zeatze baldi’mau, arek bestiak baztarrian uzte’ttu. Konprenditzen? Eta ordun arek iya seuratuba’ka euneroko bizimouba erriyuan. Oaiñ’e –ni sasoikua eonda– or beste lanik in be, nik jango nuke ortikan.

Nei arrantza klase guztik gustatu itten xitxaixkian. “En kanbio, esto”... baserrin lan ittia etzitzaian gustatzen bat’e. Nik tankera emate niyon nee burubai, alegiya: “Ok atxurrakin baño geyo nok ni urakin”. Ala atea zen, e? Baatzako ta lanak utzi, ta ni beti arrantza jotze nun. Gue ama’re neekin gustoa. Beti aparteko txanpona...

- **Txanpon berria, ezta?**

- Bai; txanpon berriya emate niyon nik.

- **Baina orduan dirupremia ere izango zen, ezta? Familia behartsuak izango ziren iritsi ezinik eta.**

- Biarra, bai. Laneza sortu zan asko, makinayik etzeon-da. Ni neoni Mitxelindikan libre utzi niñuen kamiyo baztarretan-da lana itteko. Saikolan’e desbiaziyua in gendun. Leno bajubotikan zan orko biri oi; ta geo, gora altxa; zeatik eze, Saikolako erre’oi ur askoku’a: presa’u goyen –Kuskulluko urak–, da ur asko. Bazan or fabrika’t. Apreta-zoluak eta arpillerak-eta itte zian or. Aurrian baatzu zun bertako langillientzako; ta ebi-golpe aundiya zanian, beeko zulua itxi itte zan; da an attu giñan lanian.

- **Orduan, zu, Joxe Juan, ibili zinen ez bakarrik aingiretan. Zu ibili zinen ixkiretan, anguletan, hondarretan eta abarretan: mila gauzatan ibilia zara zu. Baina zure berezitasuna edo aparteko doaia omen zen aingireta. Aingiraketarako joera hau noiztikakoa da Aginagan? Zure aurrekoak ere ibiltzen al ziren?**

- Bakarren bat bai; bakarren bat. Asko ez, e? Zeatikan’e, ordun mundu guztiyak uste izate zun baserrin lanik in be etzeola eze, ta ortan deskuiratuta zen. Izan leike nee inizatiba o bestetikan –anaitikan– differentia nintzalako o “reboluzionayua” igual. Batzuk bie’ue, egiya esan. Eta nik, leno’re esan det, baatzako lanak utzi ta arrantza jotze nun.

- **Kontaiguzu aingira nondik datorren. Nondik dator aingira?**
- Aingirak itxasuan arraultzak jartze'ttu, ta ortik aingula ateatze'a, ta angula azitakua da aingira.
- **Erreka asko eta askotan izaten da aingira. Nola iristen da aingira hainbat erreketara?**
- Zu jartzen bazea Orbeldin eo Errotaberriko presa oitan... Sekoaldiya don garayian nik ezautu'et, umedadia baldi'maka, angula beltzak baula abildaria atzeaka gora iyotzeko bertako petrilla're. Ordun presan lanian aitze zianak-eta zakuk jartze zittuen: zakuk umeduak jartzen zittuen errenkan, eta aita jute zian.
- **Nola harrapatzen da aingira? Aingira harrapatzeko zer behar izaten da? Amua, txitxarea edo... Zer sistema erabiltzen zenuten?**
- Seuruna, lan puskat ba'u baño, txitxaria: txitxaria ariyian sartu –algotzko ariyian– orrelakoa't. Beno!, doble, e?: metro'at. Eta metro ua, geo ola bi doblan tiatze'a; ta emen puntan (**listaren puntan**) ogei zenti-metroko lista txitxarei'pe do bi erata (**bi puntetan**), ta aik biyak alkarre-kin bat in; da goiko ariya (**txitxarerik gabe dagoen hariaren punta**) kañaberei puntan lotu biar tzayo.
- **Orduan kainaberari muturrean kordela lotu eta...**
- ...Ua sartu in biar da ondoa; ta oserbatze zunian ttak! jo'ula ondua, orrelaku'at iyo biez: sei-sortzi'at zentimetro-eo iyo bie'zu. Aingirak eltze'yonian itte baitu ta-ta-ta-ta!, e?, ta ua ikusteko; bestela, onduan loitan sartuta jartze m'ezu, eztezu ikusiko noiz eldu'yon.
- **Eta kordel hori nolakoa izaten da? Gogorra? Fiña?**
- Emen bakat armayuan. Au da algadoya. Beste'at au baño're fuerteua'-re ba'a: nailon; baño ua, goorraua; eta aingirak eltze'yonian, ari goor-rrakin indako kordai geyo eltze'yo, ta txitxare geyo biar du; biunakin geyo auantatze'u.
- **Eta horri nola deitzen zaio, txitxare zera horri, metroko zera horri?**
- Korda eo txitxare-korda: txitxariakin osatutako korda.
- **Nola moldatzen zineten hainbeste txitxare biltzeko?**
- Ori, klaro!: emen, ya, gu bakarritsu ibiltzen giñan ordun, eta auzoko baserritan etziun galaazten inork. Baita jun izandu giñan Hipodromoa zaldik etortzen zian garayian. Ain azpik itteko orbela botatze'ue; eta ango ximorra ateatze'uen garayian, ua usteltzen ai den bezela txitxaria sortze'a; eta baita erriko basura botatze'an lekuba're ona'a: aitan'e txitxaria sortze'a. Oi da onena: txitxare gorriya.

- **Ea orain, aingiratokiak. Hasi Oriotik eta Aginagaino egingo dugu aurrena, gero Aginagatik Usurbila, eta azkenik Lasarte aldera joko dugu. Zein toki ziren garrantzitsuenak?**
- Emen, Oriyoko errin, bertan'e ia onentxonak.
- **Bai. Hor muskilarriak baziren ezta?**
- Muskillarrik erriya baño gooro daude. Oitan lupiya geyo izate'a: oik arri-ta biltze'ia. Bai; kaakol txikiya're izate'a or orko arrin, da oitan jan itte'u geyo; eta, bestela, "desagueak" eo ganaua iltzen den lekuk eta orrelako zeak... beste erriko desagueak...
- **Usainak biltzen al ditu?**
- Bai... usaya; baño usayikan inportanteena txitxaria'u.
- Oriyon, an, erriko kofradia esate'yoten zean... arrantzalien zea artan-da oso lekuba ona.
- **Eta Altxarriko erreka-muturrian, errioa sartzen den horretan, ez al zen aingirarik?**
- An barrenen'e bai. An bai, barrenen ibiltze giñen; baita oitan ixkira're.
- **Eta gero muskilarritik gora gatoztela, zein toki esango zenuke?**
- Muskillarritikan, an, barran sartuta, bado beste erreka't Aya aldea itte'una, ta ua're ona'a. An amorroya're asko zan.
- **Eta Sarikola aldean?**
- Saikolan da beste aldetik'e bai: oitan danian. Kurba pasata, -ezkerrea-oso ona lekuba, Itzau aldea.
- **Eta Intxorreta aldean ba al zen aingiratokirik?**
- Intxorretan, aldi ortan, garai'atian gabarra eote zan ganauk ibiltzeko-ta. Xebastian da lengo zaar ayek-eta, an baratza mutturra bazuen, da an azpiko alde artan-eta, leku oso ona; eta gora pixkat jota, lisasi aldetik, Isosteikuak beak alak ibiltze zuen lekutikan beste berrogei metroa eo, oso ona.
- **Mapil aldera etorrita, zer?**
- Mapil aldea, Isosteitik gora learra baño leno -lisasi aldetikan learren azpikaldeko oi-, bastante ona. Gora, berriz, Mapillerrekako altokiya: Mapildikan gora, ezkerreta.

- **Eta Mapildik gorago?**
- Goro junda, Aitzokerreko presa bezela itte'un eta zakarra geatze'an leku'boi, oso ona.
- **Hori non, ordea? Zein aldetan dago hori?**
- Ementxe: Lertxundiko erreka... errekan unuzkaldetikan; da bestaldetikan lisasitik jeixte'ana.
- **Orduan, Lertxundi parean edo hor?**
- Bai.
- **Goragoxeo, Lastola aldean, ba al zen tokirik aingiraketarako?**
- Lastola aldian, or Lertxundiko aldekotik gora, ur mia'ia; aik-eta Enaluze esate'youna ta beraxio Gobarrita dia ur gexiokin; eta oitan baño, berriz, profundidade geyo don lekuba, Txokoaldia.
- **Nonbait hor muskilarrik ere badira, ezta?**
- Muskilarrik an, antxe: Enaluzen.
- **Muskilarria zeri deitzen diozue, muskuiluk dituen harriari? Muskuilutik al dator izen hori?**
- Ez, ez; izena jarria. Ola'u izena, baño ez muskuilutik.
- **Goragoxeo joanda, Txokoalde edo Galardi aldean ibiltzen al zineten?**
- Txorkoako kurba pasa eta Illunbe pare bitartian, bintzat, leku polittak. Geo, ortikan gora, ya ur naastubauak Agiñako zubitikan beera. Muskuilarrik bazian or San Esteban aldetikan; eta oitan baño leku obiak, zubiya pasata: andikan Permindei aldea.
- **Horko islan? (irlan)**
- Or ur-aizia da: ur-aizian ezto aingirik. Laxau aldian bai; San Esteban aldetik, or urak lodiya'ia.
- **Hortik gora goazela, bada hor toki bat Intxospe izenekoa, orain aspaldi hodarra hustutzeko tokia izandakoa. Hori aingiratokia al zen?**
- Bai; oitan piska't naastuxeua gorako Kapotzeko terrenuak asi arte; emen profundidade pixkat geyo'a-ta. Geo Kapotzeko zean... baratzen gaiñaldeko fabrika ortan –Ucin eo pare ortan–, oso ona; aik eta zeako... urrungo presa arte bitartian: Arozena enpresa bitartian eta ezkerreko aldea erri aldetik. Or, alako arrizuluak! Eta toki ona da.

Geo ortik dexente gora junda –Troyan–, erreka oso garrantzitsuba do, ta or’e ibiltze giñan.

– **Eta Zubietako zerratoki inguru horretan?**

- Or danian; eta erriyo onek “esto”... Eztakit seuru-seuru esateko baño... Nik erriyo ontan arrapatu dean profundidadeik aundina, Aizpuru parian.

Aizpuruko parian bazan, gabarra izandako ur aundi orren gañeko aldian, kabliakin jendia ibiltzeko. Gu, azpiko aldian, Bortolo (koñadua) ta biyok giñan. An bota nun pondua. Ba... Eskerrak fuerte nijuan! Ondua jo be geatu nintzan ala baño luziagoko ponduakin. Jobe!, au dek ondua au!

– **Hori ere aingiratokia, orduan?**

- Erruz, aingira! Askoi!

– **Lasarte aldean, ba al zen tokirik?**

- Lasarten, “Brunet y Cia” ortan. Onek ariya’re itte zun, da toki’yoi oso inportantia.

– **Hor alakin ibiltzen al zinen?**

- Bai; ala berta eamaten gendun.

– **Eta beste tokirik Lasarten?**

- Lasarten, ba, Ipodromoko zea pasata otela Txartelen parian, lekuba oso ona. An bat –eztakit zenbatekua izango zan baño– aundiya atea nun.

– **Zenbatekoa gutxi gora-behara?**

- Zenbat izango zan, ba, ua? Aundiya esate’you guk; zeatik eze, oitako aingira librakua izan ezkeo, oso ona; baño ua izango zan kiloa’t baño geyo.

– **Saiatu al zineten gorago Andoain aldera?**

- Bai; proatu in genun Abalozko leku’boi-ta. Abalozko erreka ura –dana– kanalian artuba zakaten fabriketako.

– **Zuek egindako golperik handiena zein izan zen?**

- Zenbat kilo esango’izu-pa nik! Geyenekua indakua nik ua jotze’t: Santi-xabel igandian, Florentino eaman nun; da igarri niyon botia zuela ingrientia; goitik ikusi bainittun eriyuan, da esan niyon: “Goazemak erreka! Gaur aingira ateako’iu lasai!”. Ta ara jun giñan.

Santixabel igandia, ta eztakit seuru oi ala izango zan; baño santixabel igandia baizan Saltxipiko Xantik miña artu zuna: besua moztu zun.

– **Zenbat kilo, orduan?**

- Zenbat kilo? Furgonetakin anaya eamanazi nun nik, eta ez bat'e arrittu eunda berrotamar (150) kilo izatia're.

Bestia nik gouan artutakua, ni Mitxeliñen lanea asi ezkeo. Borttolo gue seme zarrenakin ibili zan bastante aingiretan da ixkiretan'e bai; da ordun, bakit seuru, jorna'tian eamateatik astua altokia bee sestua-kin eaman zula; ta irurogeita amabost (75) kilo.

– **Baina, Joxe Juan, zuk lehenago adierazi duzu aingiratokia zulotokia dela. Hala al da?**

- Aingirak defendittu in biar du. Ondo gorrin –ur ttikitan– ezta korrientan eongo. Urausilletan da oitan gelditze'a: zurrumulluan, urresolan... Uja-lak damazkinian arbolen batzuk, sastrakak eo baztarrian arrapatze'ttunak, kurbetan trabatuta utzi itte'ttu, eta oitan defentsa billatze'u.

Geo, mariak fuerte xamarak datozen garayian, ibilli in bier jango bau'e; ta beera'ijuanian, usaya jartze zaye dauden lekua, ta arta atea itte'ia.

– **Eguraldiak zerbait esan nahi al du aingiretako?**

- Emen gabez'e esan nai du. Beti lañotua obia, izarrak bistan eztiala; ze, izarrak alunbratu ite'u ur gañea bee dibujua. Konprenditzen? Eta illun bado, aingiretako obia.

– **Bai; eta euria izan edo ur arreak izan, ba al dago diferentziarik? Entzun izan da ur arretan gehiago harrapatzen dela aingira.**

- Nik uste't, garai'atian, trumonada eo arria eo golpia billatzen zala. Geo, emengo gerra-denboa etorri zan garayian, Franko denboan asi zian, ba, papelerak beetik (**beretik**) botatzen, eta oyek kolore bat ematen ziyoten urai illunaua: beltz illuna eo, ze esango'et?: kolere illunaua. Ordun iya ur arriakin baño, esan nai nuke trumoi-golpiakin baño, seuruaua izate zala aingira-arrapaketa. Urak zikin pixka't bia'u.

– **Aingira jateko izaten da. Nola maneatzan da? Aingira aurrez larrutu behar izaten al da?**

- Leno zian olako kontuk, baño guk beiñ'e ez: tonteiya'a. Larruba kendu biarrik ezto; beakin iya egokiyo, sanidade geyo emate'yo.

Jartze zan leno gixauban, da illar batzut gañian da zeoze naastuta. Sosiedade ta oitan, oso goxua geatze'a aingira koxkor xamur oi: eaman kortiak inda, ta an momentun raaaaa! pixka't gorrittu zartayan pasata, eta jendiak kuadrillan gustua jaten aitze zan.

– **Beste zerbait esateko aingirari buruz?**

- Aingira, esan bezela, oso goxu'a jateko, ta errexia maniatzen; da arrapatzeko ba'ttu bee sekretuak; baño ibillin-ibillin, beste gauzak bezala, ikasi itte'a; ta koxka or do: ibilli in biar!

Ni oain eno ibiltzeko: urteak eta ajeak gallen; da kontentu, ala're, naizen naizenian.

Agiñarra naizen aldetik, maite det Agiña: beti maite izan det. Ta eman agiñarrai, danai, eskumiñak nee partetik.

Aginaga, 1997

Alagintza





Martzelino Bereziartua

Garai'atian, Agiñan barkuk itte zian. Ala guztiz'e, nik enun ezautu barkuk itten, baño indako'at bai, ezautu nun. Guk ez giñun barkuk iñ, gabarrak itte'i-ñun: bi in giñun atta ta biyok.

Gabarra ondarra atezteko ibiltze zuen batik bat. Goatze naiz nola aitze zian Donostiko Santa Catalina zubin –Urumeako erriyuan– gerriño uetan sartu ta palakin ondarra kargatzen, geo Loyola eamateko. An aitze zian negu ta udara: jela baldin ba zan'e, antxe aitze zian.

Alagintzan, berriz, gue etxian atta ta osaba aitze zian: alak, karruak eta beste zenbait gauza're itte zittuen. Ala itten Miel Antonen launtzakin ikasiko zun gue attak. Miel Antonen aita, Joxe Manuel, itxasontzi egillia zan, da ortik ikasi zuen.

Ze garaitik ote'atorren alagintza Agiñan? Auskalo!

Atta Galdagorri baserrin jayo zan. Galdagorri, gaur bi bizitzakua bezela, ordun irukua zan; da irugarrengua ortan jayua izan biar tzun attak.

Bee izena: Joxe Antonio Bereziartua Atxega.

Emazia: Modesta Maioz Balerdi.

Matrimoniyo ortatik zapi sema-alaba jayo giñen: zazpi seme-alaba ekarri zittuen mundu onta.

Attak osaba Klaudiogandik jaso zun arotzako apiziyua. Osaba zan aurrena, gue familitik, Etxeberri baserriya artu zuna; ta ezkondu bezin laster, baserri ortan jarri zian bizitzen gue gurasoak. Etxeberrik saardoteya're bazun; beaz, saardotegitik eta alak ittetik-eta, konpondu zian bee bizitzak aurea ateatzan. Alak ittea Mapilko istillaua jute zian.

Osabaren izen apelliduak: Klaudia Atxaga Errazkin.

Barkuk Miel Antonek itte zittun. Ua zerra ta guzi aitze zan barkuk itten. Gerra aurretik itte zian barkuk eta ordun saldu're ondo itte zian, baita gerra garayian'e; baño gerra bukatu zanian, barku-eskiak'e bajatu in tzian, eta etzan saltzen. Gouan dakat nola eondu zan bat gerra ondoenian, eta ua ezin salduik eo geatu zan puska'tian. Eztakit seguru zeatik.

Miel Anton kanpuan asko ibiltze zan, baño bee attagandik ikasiko zun opiziyu oi: bee aitta're barku-egillia zun.

Gouan dakat, baita're, nola Miel Antoni bertsoa ta guzti atera ziyen San Juan eskian kantatze ziyena:

Miel Antonek daka
orrelako abilidadia:
egun bi dira jayo zala-ta,
oi dek barku paria!

Miel Anton Agiñan jayo zan: 1853ko eneruen amazapin; da Uriberrin bizi izan zan.

Bee atta: Joxe Manuel Mutiozabal, usubildarra.

Bee ama: Dominga Arrillaga, usurbildarra.

Iru seme zittun da alaba bat: Don Pablo –meikua– Lasarten jardute zana; Joxe Manuel, Kuba jun zitzayona; bestia, Antonio; eta alaba, berriz, Andrea.

Joxe Manuel “Kubatik” gerra baño bi urte lentxio etorri zan: 34uan-eo. Arek granja't jarri zun Sooko Joxe Manuelekin batuta, ta esnia pasteurizatze-ko leen makina're bai. Donostiko ospitalea ta pasteleita partitze zun esnia. Gerra-denboan Ameriketa jun tzan, danak utzita berriz. Geo, Kubatik etorri zanian, saldu in zittun granja ta Uriberrin: Xanti Ezpaldikuak eta Joxe Manuel Sookuak eosi ziyoten Uriberrin.

Gue familitik aparte bazian Agiñan beste al(a)-egilliak'e: Kandido Mante-rola: Lastolako attona –onek'e in tzun beetzat ala't–; Sooko Dionisio, bee etxeko karrerran, Irontxoko lñaxiokin: ez kontinuo, baño zerbait aitze zian; gañentzekuan, gu attuko'iñan alak itten: Arturtxeneko Diburtxio, Ezpaldiko Rito, Mapilko Baleri ta beste'atzuk gukin zialaik. Agiñako jendientzat eta Ori-yokuentzat itte'iñun. Ordun ala asko itte'iñun. Famili bakoitzeko ala't baño geyo izate zan: bi-iru, eta gue etxian lau're izan tzian.



Bein bukatuta zeonian, alai galipota emate zitzayon: galipotatu itte zan

Geo gue atta Mapilko Kandido Mayoz eta Mitxerkoneko Luis Mayozeekin batea, Tortosa (Tarragona) jun tzian gabarrak ittea; ta an ibili zian orko lane-tan urtebete baño geyo.

Alak neurri'at baño geyokuak izate zian. Nai zan neurrikua izate zan: eskatze zuen tamañakuak itte'iñun.

Normalian, anguletako alak izate zian. Beste'atzutan, berriz, ondarrretako, segun.

Ondarretako ala aundiya obeto izate zan. Eostunak nayo zun ala aundiya; zeatik, alaka ondar bakoitza zortzi peztetan saltze zan gerra aurretik; eta ordun -garai artan- diru piskat'e bazan. Tonel erdi eo geyo eskatze zizayon, da ortako ala aundiya baliyo izate zun. Geroa alaka ondarra eun (100) peza ordaintzea etorri zan.

Oriyoko barratik atea ta kargatze zuen ondarra, ta Mapillaño ekartze zuen geyenetan; beste'atzutan, Laxautik Kapotz bitartian (Intxospen) bazan muella't arriz indakua, ta arañño eamate zan ondarra Usurbilkuentzat berto izateatik.

Leen esan deanez, nai zan neurriko alak itte giñun; baño, normalian, ala baten neurrik o'zian:

- Luzian: 7 metro t’erdi.
- Zabalian: metro’at eta oitabost zentimetro.
- Altura: 50 zentimetro, aldeik altunian –alak aldeik altuna erdi parekaldian izate’u–.

Ala itteko, aurrena ondua itte zan. Ondua bi pusketetakua izate zan: atzeko partia ta beste parte’at ari aurrian joste zitzayona. Aurreko partia zaplan izate zun.

Ordun, aurrena, lau’at eo sei ool prepatzen zian ixkiñetan jartzeko; ta aurreko parteako, aleiya, zaplan izate zan parteako’re bai: zaplako parti au estuxio izate zan. Biyak –atzeko partia eta aurrekoa, zapla– alkarrekin lotu: iltzez josi bata bestiai.

Alak izate zun: atze-atzian metro’at eta zapla parian metro’at eta ogei eo oita bost zentimetro. Geo ool oik bee bueltakin prepaatze zian, da iru trabesiña joste zitzaixkiyon zulokerrak jungo etzian tokin; da muturrekuai, –aurrekuai– berriz, bi; ta ola, alan onduan forma iña gelditze zan. Geo, ondoren, kantoika jarri (tenteka), ta zulokerrak josi. Muturra’re ordun easte zitzayon. Zulokerrak 50 zentimetrotik 50 zentimetroa joste zian. Geo tenteka zeon tokitik eatsi (**jetxi**) lurra ala uretan eongo zan bezala, ta muturrak biar tzun altura kalkulata jarri.

Auzpez jira. Zulokerrai “erdin” ur-biriak in, da erdiko olak josi; ta ola, erdiko zuluia itxita gelditze zan; ordun azpiko ondua raso jarri; egalai josi; azpiya neurrin jarri, olakin josiz; atzeko ondalkiña jarri ta kalapetatu, juntetan da pitzauretan soka eo estopa jarriz; geo argollak –burnizko aruak– jarri: atzian lau, amarrak eamateko; ta aurrian bat o bi, balizai eo erriyo baztarreko pos-tiai lotzeko.

Bein bukatuta zeonian, alai galipota emate zitzayon danian: galipotatu itte zan.

Alak Mapillen itte’iñun. Da bukatze zanian, antxe, Mapilko “Ima”tik ureta-tze’iñun: “Ima” zan arranpla’t, ezkerreko aldiian paeta batekin.

Alan azpin eurrezko rolluak jarri, ta aikin botatze zian enbarkaziyuak. Maria aundiya biar izate zan enbarkaziyua ureta botatzeko.

Mapillen baño leno, barkuik geyenak Etxe Maite parian zeon istillauan itte omen tzian. Geo ua desaertu in tzan. Bosteun bat urte igual izango zittun istillau arek.

Zian: Ima, Mapillen; goraxio, berriz, Kalatoki –Uriberri baño lentxio–; ta Aitzaundi eta esan dean Istillaua (**astillero**).

Ordun aluniak asko izate zian. Pentsa!: etxe bakoitzeko ala bat o bat baño geyo. Aluniak’e asko biar!

Alunia izate zan eskillera't eta bi baliza. Oain kotxiak de etxe bakoitzian. Ordun, berriz, alak; emen, bintzat!

Ara zenbat denboa biar izate zan ala't itteko: aurrena aizkoakin itte gendunian, bi launen artian itte gendun da amarren bat eun pasatze'iñun; geo, berriz, zerrakin asi'iñanian, iru eunian itte'enun da bi launen artian baita're.

Oain ala asko gutxitu'a: lengo ala-soñuk aspaldi jun tzian. Alde'atetik ondarreta aspaldi geatu zan; bestetik erriyuan ur zikiñak eta arrayik ez... Gauz au dana aldatu'a. Nee goantzin, nik indako azkeneko ala Benito Ezkerrenikuarena izango zan. Izago'ia oita sei'at urte.

Zulokerrak aurrena pieza batekoak izate zian. Geo asi giñan espigatu ta kolatuta itten: azken aldian.

Muarruak izate zuten okerra: muarrotik itte zian pieza bakarreko zuloke-rak geyena. Baño zalla jarri zan billatzen. Ordun asi giñan espigatu -alkarri peatu- ta kolakaskuakin (umedadeako kola, umedadiak libratze etzun kola) kolokatzen.

Zulokerrak menditikan arbola botata ekarrita egite zianian, aitzakin itte zian. Espigatuta itten asi giñanian, berriz, arkaziyakin; arkaziyakin obeto gelditze zan. Arkazia zan obena: ezta usteltzen, da geyena auantatzeko, bea onena. Arkazi okerrak milagros billatze zian pieza bakarreko zulokerrak itteko.

Alak azpin arrapatutako bat'e izan tzan: Diburtxio Pikabea. Ala tenteka jartzeko txarantxak jarri zittuen. Aik etzauden ondo jarrita, nunbait, eta ala gañea eroi zitzayon: azpin arrapatuta il tzan.


Bukatzeko onekintxe bukatu nai dek. Aurrez aipatu'ek ala kontuba'u asko jetxi'ala. Gaur eun Agiñan dauden alak, nik dakiala biñipin, gutxi-geyo oxek: Urruzmendiko Kandidona, Ezkerrreneko Benitona, Itsaizko Joxe Peñarena, eta etxekoren batenak dia. Beste'atzuk-e izango'ue, baño eztakit bestenik.

Beste garai'atian sartuta gaude, ta geroak ai du itza artzen. Gue aleiñak baliyoko al tzun! Ala espero'et!

Aginaga, 1997

Anguleta





Joxelontxoneko Imanol

Joxelontxoneko Imanol, nahiz eta gaur Orioko Ortzaika auzoan bizi, gizonen “agiñarra” dugu. Ez dauka ahazteko bere jaioterria. Urterik gehienak errikoan emanak ditu. Erretiratu ere bertatik egin zen, bere lanbidea hondarretaz zuelarik. Bestalde, ospe handiko arraunlaria bere garaian, eta egun ere badu horretan itzalik: badu zer kontatua! Aginagako beste jende asko bezala, arrantzale aparta izan da, eta ondotxo ezagutzen ditu erriko sekretuak; baina oraingoan, Imanolek txitxardin edo angulari buruz hitz egingo digu. Gaur-gaur –bere hirurogeita zortzi urterekin– anguletan jarraitzen du, eta jakin badaki zeregin horretan.

- **Imanol, nondik dator angula eta zergatik sartzen duk errioretara?**
- Angula, nik attu deanez, itxasotik etortzen dek, eta ur gezen billa; eta geo, zaartuta, ikusiu aingira itte’ala: aingira itten dek. Eta aingira itte’an garayian, berriz istori bea: ateatze’k itxasoa arrautzak ittea. Arrautzak in, da andik etortzen dek berriz’e angula.
- **Orduan, hik esaten duk angula itxasotik datorrela: aingira egitean itsasora joaten dela errutea, eta arrautza horietatik sortzen dela angula, ezta?**
- Bai. Nik dakianez, bintzat, bai.
- **Eta gero bere senak aginduta ur gezetara jotzen duela: erreka eta errioretara jotzen duela.**

- Bai jauna, bai!
- **Zenbat urterekin hasi hintzen anguletan?**
 - Ni, amabi urtekin. Nik amabi urte, geyena jota: gazte-gaztia nitzala, ttiki-ttikiya nitzala, asi niñun attakin anguleta joten eta osabakiñ'e bai; eta neonen gain asi nintzanian, amalau urte: amalau-amabost nittun garayian, asi niñun ni ala artu ta neonen kontua.
- **Noiztik zetorkiok Aginagako jendeari anguletako zaletasun hau?**
 - Nik ezautu'et nee osaba Mapilkua, Patxin da atta, ni ttikiya nitzala ua angulatik eo artatik il tzala, jelak pasata ill uan-da. Ordun kotxeik etzin kalefaziyoik eta besteik; eta angulakin Valentzitik datorrela, jelak. Kris-talak garbitu bier, da pulmoniya arrapatuta il tzan osaba gaztia.
Attu izandu ziot Perretzeneko Raimundoi: leendabiziko angula ekartzea jun tzanian, trena artuta Valentzia jun tzala angula-billa. Oi gertatu'an oain dala larogei... Zenbat izango'ixkik? Larogeita iru bat izago'ixkik, ez? Ba, gaztia zala Valentzin erriyo bat ikusi zun garayian, nola atea zan trenetikan. Trenetik atea, ta zerbait gosaltzea sartu zala taberna batea; ta emakume bat marmitakin nola etorri zan erriyotikan, da esan tzula: “¡No se puede traer agua, porque està lleno de gusanos!”.
- **Zer iruditu zitzaioan, angulak harrak zirela?**
 - Aik etxixakiyen angula zer tzan.
“Eta gusanos? Onek angulak izan biar lixkikek!”. Eta nola erriyoa jun tzan, da erriyua dana angulez betia. Eta o'dittuk oain dala... ttikik giña-neko kontuk.
- **Eta Aginagan, esaterako, zuen atta, Mapillerrekako Erramon, Ezpaldiberriko Joxe Antonio, Joxe Juan Mutiozabalekoa, Borttolo eta beste asko eta asko ibiliko zituan, ba, garai haietan angulak harrapatzen?**
 - Esateko, danak jutte'ttuan ordun anguleta, danak ibiltze'ttuan; eta danetan geyena jute zana, berriz, uste'it zala Lastolako Kandido: seguru asko anguleta biajeik geyena indakua Lastolako Kandido izan-go zan. Ua, erriyoa jute baitzan, an billatuko uan; da geo semiak'e martxa iguala eaman tziyen: Lastolako Joxe-ta... Beti erriyuan, beti erriyuan!
- **Aizak, Imanol, entzun izan diagu Aginagako errioa anguletako oso aberatsa izan zela. Zuen attaren garaiko markarik ezagutzen al duk kilotan?**
 - Nik attai attu izandu niyon: jai bat zala -jaya-. Mapillerrekako Ebaristo aspaldi ill uban, ta arek esan ziyola, mutikoxkorra etorrita: “Emilio, anguleta jun biar deu!”

Anguleta jun bier deu... Eta, beno!, “jungo’atxi-pa anguleta!”. Eta nola bete zittun askak eta baldiak. Eta arrapatu, baatza botatzeko aña.

Nik attai, attai entzun ezandu nitxon; baño nei etzaiak tokatu olakoik. Gu giñan garai artan –ordun– urak zikintzen asik xitxen dexente, eta angula beti gutxiyo arrapatze’uban.

- **Bazirudik, garai batean, angula erruz zela errio honetan; baina hi hasi hintzanean, hamalau urterekin hasi hintzanean, ba al zuan angularik?**
- Geo in ittuban... urak zikindu in ittuban: danak beltz-beltz-beltz etor-tze’ttuban; ta geo bai, primabera azaltze zan angula, zea... aingira itten asita, ta ola; baño negun ezin arrapatu angulik. Ordun arrapatze giñin, urte askotan, karnabaletan: karnabaletan nola pepelerak itxi itte zian –illargiyakin izate’ttuk karnabalak beti–, eta nola itxi itte zian fabrikak, urak garbitze zian garayian, ordun etxian jateko ta gaña angula: iya urtero, karnabal-marietan, bate giroik itte bazun, bintzat; baño, bes-tela, ur zikiñak eta urte askotan ezta azaldu’re angulik. Nik emen gabar-rakin ondarretan pasako nixkin... ogei urte gau t’egun? Eta or gabian angulero bat etzan ikusten.
- **Nola bizi izan huen anguleta joan hintzeneko estrainaldiko gau hura? Zer-nolako inpresioak bizi izan hituen?**
- Bueno, gu geen denboa guztiya erriyuan, da baintxakin nundikan noa ta nundikan nola asi; ta, oain, abildare asko etxitxon. Nola esango’i-pa... intentziyua bai. Guk baintxakin nundik noa puntuk, anguletako puntuk: eztaki zer... baki zer... Joxe Juan an eote uan... eztaki zein an eote uan... Da oi danak geo gouan eamate’ttut; urrungo urteako-ta pixkana-ka-pixkanaka ikasten jute aiz. Angulak bee puntuk dixkik: angula igual Mapillen arrapatuko’ek... uran korrenta nola don-da... eztaki zer-da...
- **Baina ilusioz beteta joango hintzen?**
- Ooo! Ta, gaña, desiatzen juteko.
- **Baina oso neketsua izango duk, ezta?: jelak, hotzak eta...**
- Bai, bai. Anguleta goorra dek; baño aste aiz eta sartze zaik alako tentsi-yua eo griña eo inbiriya eo etzakit zer dan, etzakit zer dan; eta geo bi pezta’re irabazi ite’ttuk, e? Eta amak istimatu itte zin angulen diruba.
- **Angula-dirua beste soldata baten osagarri, hortaz?**
- Oooxe, ooixe! Eta ordun noabatt’e jun bierra zeon.
- **Angula, hire ustez, noiz izan duk gehiago, orain ala lehenago?**
- Nik esan biar banu, angula geyo ordun. Oain, arrapatu geyo oain.

– **Eta zergatik?**

- Zergatik? Eztialako arrapatzeko tresna berdiñak leenguak eta oain-guak. Alakin puntu batian jarri ta geldik eon biar dek angula arrapatzen, ez?: botatze'ttuk ponduak, gelditze'k ala, ta atoyakin da antxe; ta oain, berriz, arrastan motorrakin dana pasatze'k erriyua, danak pasatze'ttuk; eta nik esan biar banu, arrapatu geyo orreatik izate'k; ez geyo dolako. Oain angula oso gutxi do.

– **Beraz, garai bateko sistemak baino hobeak direla gaurkoak adirazten ari haiz?**

- Oi entenditzen errexak dek: alak zazpi metro dixkik o zazpi metro t'erdia. Ordun, eon biar dek zazpi metro t'erdin, ta ara etortze zaikena arrapatu biar dek alakin ai ai zekenian; baño arrastan, zazpi ez, kilometro t'erdia pasatze'k; eta beti segi, eta erriyo guztiya pasatze'k –dana–; eta normala dek geyo billatzia ta arrapatzia.

Leenbiziko arrasterua gouan zakat: otza uan gau artan; eta Errastiko Eleuterio ikusi nin nik “fuerabordakin”. Enbarkaziyo bati jarri xitxon, eta guk esate'iñin: “Orrek ze arrapatu biar du orrekin?” Beti oi esate'iñin: “Ze arrapatu biar, orrekin?” Baño ze ikusiko, ta guk ez gendula kilo'at arrapatu; ta arek baldeka't arrapatu zula.

Ua dek nik aurrena ezaututako arrasterua.

- **Baina angula gutxitze honekin, ba al zaukak zer ikusirik Orioko barrak? Lehenago Orioko barramuturra zuzena zuan, eta orain, aldiz, zeharkatua. Honek guztiak ba al zaukak zer ikusirik?**

- Nik esan biar banu, ez. Nik esan biar banu, ezta esanayik orrek; eta, gaña, geyo esango'it: danok geyo arrapatzeko, mejora.

– **Baina angula sartzeko?**

- Sartzeko... Etortze'an guztiya sartuko'ek or. Baño geo barrenen arrapatzeko, mejora. Tirañak dittuk angula arrapatzeko dian txarrenak: jelak eta tirañak. Eta tiraña eztek etortzen oain amarretatik bat; eta nik esan biar banu, angula arrapatzeko, barrakin, mejora; eta sartu, etortze'an guztiya. Gutxi sartzen dek Oriyon, baño baita beste tokitan'e: eztolako mundun angulik; aitzen ai dalako.

- **Hire ustetan, orduan, mundu osoan angula gutxitzen ari duk. Bai hemen, bai Frantzian, bai beste hainbat lekutan ez duk angulik, gero eta gutxiago sortzen delako?**

- Ba al dakik gue anayak zenbat angula jaso zun batian? Anayak angulak eosten Frantzian eote'ttuan leno, e?: Iñaxito eta Xebaxtian. Xebaxtian eun batian ba al dakik zenbat jasua don angula?: berroita zazpi milla kilo eosita zek eun bateko angula. Oain urte guztin, bost mila ez

dixikiyek arrapatuko Frantzin danian. Eun batian, berroita zazpi mila kilo angula eosita (**erosita**) zek; eta gaba artan bertan, beste erriyo batian, iya amairu milla kilo esate'yek eosi zittula. Urte guztin amabi mila kilo Frantzin eztittuk arrapatzen oain guk dakiunez. Ordun, beste tokitan ezpaldi'ma, Oriyoa ezin litekeket etorri angulik: eztana etortzen, eztek sartzen; ez barrangatik.

– **Eta ur zikinak ba al dik zer esanik?**

- Ur-zikiñak bai baula zer esana! Garai bateko ur-zikiñakin angula arrapatze zuna, Mapilko Patxi bea bakarrik uan azkeneako: Patxik zin ala prepatuba –beste danok galdu gñixkin–, ta Mapilko Patxik karnabaletan naikua jateko aña arrapatze zin. Leno esan dean bezela, Karnabaletan itxi ite'ttuan papelerak jai itteko, eta orduntxe muite uan angula ur garbiyauak zelako; eta orreatik arrapatze xixkin. Nik'e arrapatu izandu nixkin, Patxik naikua arrapatuta ta geo, aren alakin. Angula ur garbiyakin sartze uan, baño ez uan muitzen; eta, geo, anguloi dana primaberan azaltze uan aingira inda eo aingira itten asita-eo, erreketan da ola.

– **Errio honetan egindako angula-arrantzarik handina ezagutzen al duk?**

- Emen arrapatutako nik attu'eten markik aundina: anaya andriakin eta Julian Pikabeak. Gau batian irurogeita iru kilo arrapatu xixkiyen; eta gaua eta illargi betia; eta golpeik aundinak illargi betian izate'iala nik esate'it. Bein arrapatu nixkin nik'e bai, illargi betian: illargi batian, bete-betian; eta golpe aundinak illargi betian itte'ttuk.

Ta aundina aik irurak in tziyen gau batian. Anayen andria anguleta jun biar dula jarri uan, eta esan anayai: "Anguleta jun biar deu! Anguleta jun biar deu!". Ta illargiya, gau artan. Julian Pikabeai esan, da irurak jun, da Salmastei parian arrapatu xixkiyen; eta geyo arrapatu bear zue-nak: bete xixkiyen trastiak –bete xixkiyen ontzik–, eta geldik.

– **Baina toki mugatu batean, nolaz hainbeste angula? Ez al duk, ba, angula errio guztira banatzen, batez ere, hego-haizearekin?**

- Bueno, baño ordun nik eztakit korrentak nola izango zian. Jeneralian, korrenta gutxi dan garayian angulak baztarrea itte'ik. Igual etzeon korrentaik. Eztakit nola izango zan, eztakat gouan; baño angula baxtar-baxtarretik esate'yek zijuala: belartartetik barrena zijuala eun artan angula.

Eta aik naikua arrapatuta geo, Oriyoko baporía –Xixario– ua emen gora etorriya anguleta, ta beerakuan an gelditu; eta bestiak esan: Xixario, angula ondo zeok! Jarri, ta beste amairu kilo geyo arrapatu emen xixkin aik eon tzian tokin.

Markik aundina oi dek nik aittu'etena, erriyo ontan.

- **Egia al duk, garai batean, ongarritzako baratzetan botatzen zutela? Antxoa bai, antxoa ezagutu diagu baratzetan; baina angularik nik ez diat ezagutu baratzetan. Zer diok?**

- Antxua bai. Antxua... Baporiakin oneaño etortze'ttuban antxua bota-tzea; baño angula baatza botatzen, ez! Oain, nik attai-ta attu izandu nitxen, Joxe Antonio Pikabeai-ta, "baatza botatzeko gaña angula izate zala garay'artan". Oi dek esaera bat; baño baatza angula bota'uenik, nik eztik attu beñ'e: nik eztik ikusi, eta aik'e etzuen esan beñ'e bota-tzen zuenik angulik.

Antxua bai; antxuakin baporiak, Mapillaño.

- **Baporeakin Aginagaino, nola etorrri, ordea? Nola moldatzen zituan Orioko zubia pasatzen?**

- Baporiak atea illuntzian, da maria altxa arte eon goizian; eta nola posteik eta etzuen lengo baporiak, zubiyan azpin ondo pasatze'ttuban Oriyon: mariagorakuan eon, da maria altxatze zan garayian, Mapillaño, iñor antxoik nai zun -primaberan- artua itteko garayian, da ola. Antxua nai zunak erriberako, erregalatuta bezela. Ordun bauan antxua! Oaingo preziyuai beiratuta!

Geonek'e bai: geonek'e antxua primaberan artua itte zan garayian, Oriyotik alakin ekarri izandu giñin antxua.



Leno zakuba izate'uban bizkarreako; ez zirik, ez uban da zirik

– **Eta ona al dik lurrak antxoa?**

- Oso ona. Artuentzat onenetako bat. Lur azpin usteldu itten dek, eta usteltzen den garayian –nunbait lurrai–, ximorra bezela biurtzen dek eta indartu itten dik lurra.

Antxua bai; antxua asko, gaña.

– **Eta angula nola harrapatzen duk? Lehengo tresnak eta oraingoak berdinak al dituk? Esaterako: bayak, farolak, ziratrajea, ponduak, kandelak... Zer-nolako diferentzia zagok lehengotik oraingora?**

- Oain zek motorrak arrastan ibiltze'ianak; bayak, seko diferentiak; parolik, ezta ikusi're; argik, kotxia belaxe: kotxia baño're argi-argiyo zazkau; bayak, diferentiak... beno, dana difeentia.

Zirak esan dek!? Leno zakuba izate'uban bizkarreako; ez zirik, ez uban da zirik. Gue gaztetan ezto zirik: zakuk. Zaku bat eamate giñin burutik sartuta ebiya ai zunian, eta beste bat baldian; eta biyak batea bustitze'ttuban: burukua ta baldekua.

– **Eta lehenago alakin angula harrapatzen, nola moldatzen zineten?**

- Leno alakin... Alak pondua izateik, bat atzea eta bestia aurea –bazarrian ezpaldi'ma–. Baztarrian baldi'ma, baztarrian agai bat sartu eta pondua aurrekua botatze'k “trabeska” ala ateatzeko. Erdin ai aizenian, atzekua botatze'k “zuzen” eta aurrekua “trabeska” botatze'k, eta bee atoyakin eo makinakin. Lengo inbentuk, lengo inbentuk! Zazpi metro birian, leno're esan dit, e?: zazpi metrokua izate uan, leno, bayakin kala; baño oain izatek kilometro erdi batekua eo... Aspertu arte, batzutan.

– **Egia al duk farolako kandelak nor berak egiten zituela? Nola moldatzen zineten kandelagaiak osatzeko?**

- Gaiak... Nik etzakit nola moldatze zan, baño attak Michelindik ekartze xixkin. Micheliñen, au nunbait ibiltze uan tokitan: kandela-pusketak eo, kandela zerbattetan ibiltze uan kubieta itten, da pusketak baztertu itte zian, nunbait; ta andik ekartze xixkin kandela-pusketak; eta nik kandelak neonek itte nittun etxian.

– **Merkatukoak baino hobeak izango zituan zuek egindakoak?**

- Fuerteuak zian. Merkatukuak ittuan biunak, eta makurtu itte'ttuan errex; eta guriak xuxen-xuxen jute'ttuan erretzen.

Parolian –geyenian– bi kandela-tokiya, eta angulik ezpaldin bazan, bakarra piztuta; eta angula-aliak gexio baldin bazian, bi piztutze'ttuban. Bi peztai ordun'e beiratu itte xitxayon: kandeletan beti gastatu itte zan pezta't eo bi eo. Eztakit ze gastatuko zan, zenbat baliyoko zuen; da etxian indakua, berriz, debaldekua zan, eta guk angula gutxi bazan'e, bi piztutze giñun.

Bein, Lastolako Joxek parian pasata bi kandelakin ikustian, ba al dakik ze esan tzigun: “Ze ai aiz, Imanol, errespontsuk ateatzan?” “Errespontsuk ateatzan”, oi Joxek Lastolakuak askotan esate xitxiun; ordun, ba, kandelak gue etxian itte giñun.

- **Eta anguletako baheak zein tamainakoak izaten zituan?**
- Aundik, igualtsuk. Luzian kertenak izango xixkin, ba... sei bat metro? Zazpi, luzian? Eta bayak, diametrua “una sesenta” bat eo; eta oain arrastan-da ibiltze’ttunak “una setenta” pasata zazkau, arrastan ibiltze’ttunak; oain, leno alanbrezko saria bezela, oain beste sare klase bat; ta zakuba’re aundiyaua, txanua bezela, e? Bakik txanuak nola’ian? Ba, oaingo bayak ola dittuk; eta leenguak, berriz, tiran-tiran izate’ttuban.
- **Imanol, zer duk atoaian ibiltzea? Zer duk atoaia?**
- Leno alak... Lengo tresnak makina bat izate ziyen polea ta guzti, been sokakin baya lotzeko; eta baya sartze zan garayian, makina orrekin launtzeko. Ni, askotan, arrebakin jute niñun: ni bayakin eta arreba aitze uan makina-lanetan: arreba atoi eamate nin. Klaro, ordun aurrena arrebakin ibiltze niñun anaya gaztia zalako; eta gero anaya etorri zanian bere garai batea, ba, geo anayakin beti.
- **Orduan, bahe handia uretan errezo mugitzeko izaten zuan makina, bere polea eta guzti?**
- Bai, bai; baya aundi’yoi batek bakarrik uretan pasatzia zall’ek, eta launa biar dik; eta laun oni deitze zayo “atoya”, atoi-lanian aitze’alako; eta orreatik galdera askotan itte’k: nola ibilli aiz, atoyakin?
- **Lehenago zerbait aipatu duk, baina angula erriogan, normalean, zein tokitan ibiltzen duk? Hego-haizeak ba al dik eraginik?**
- Ego-aizeak baño geyo esan nai dik ze giro dan, ze korrenta dan: korrentaik ezpaldi’ma, baztertu itte’k angula; eta korrenta gora dan garayian, erditik jute’k angula, normalian, normalian: korrentaik ez dan garayian, baztartze’k angula.
- **Eta lehorretik anguletan egiterik ba al zagok?**
- Eongo ezte-pa! Oain, gaña, leorretik aitzeko tokik jarrita zek: muellakin zazkek; arrimatu ala ta an enbarkaziyuakin bezela anguletan aitzeko. Toki askotan zek iñak erriyobazterrian-da.
- **Hire ustetan, zein dituk anguletako momenturik egokienak? Korronteei begiratu behar al zaiek lehorretik aritzeko?**
- Oxe, korrenta! Leno esan dit: korrentaik ezpaldi’ma, angula baztertu itte’k, eta ordun arrapatze’yek baztarrekuak angula; eta in biar dek Mapi-



...eta angula mordoxka arrapatu gendun, gaña, motorrakin, e? arrastan

Ilen korrenta baldin bado, segi goro: goro korrenta gutxiyo izate'k, eta an bazterte'k angula. Ordun arrapatze'yek baztarrian eta leorretik angula.

Antillan, Oriyon, zalla dek angula arrapatzen: Oriyo aldian eztek arrapatuko ur normaletan. Ujala danian, angula baztertu ittek eta baztarrian arrapatzen dek; eta, bestela, erditik etortze'k.

– **Errio honek izango ditik, ba, angula-puntu batzuk besteak baino hobeak? Hire ustetan, zeintzuk dituk onenak?**

– Gure garayian, Mapilko buelta. Erriyo danian bat artze'zkeo, Mapilko buelta artuko nitek nik; baño asko esan nai dik urak zer korrenta daken. Ujala baldin bada, an beera jun bier izate gendun; gu jun izandu giñan iya Oriyoko zubiaño alakin. Geo ezta etxeako etorrera earra izaten! Oain motorrakin ibiltze'a; baño ordun polañian etorri bier, da jun izandu giñan.

Ze korrenta dan: ujalik eo urkargik ezpaldin bado, jenealían, Mapilla, anguletako tokiyik onena. Baaa! Geo Saikola-ta, Latindei-ta, Intxorreta-ta, Olaberrieta-ta... oi danak oso onak dittuk; eta ortik gora Lastola paria-ta, Txorkua-ta, Enaluz-ta... oi danak onak dia; baita're Sanistondik gora're: ur aunditan in izandu'ixkiu Laxau parian, Usurbillaño pasa ta etxea; eta angula mordoxka arrapatu gendun, gaña, motorrakin, e?: arrastan. Eta baxtarretik, berriz, ara jende asko jute'k: baxterretik, or, Permindeipare eta oitan oañ'e, oaiñe; eta Mapilko Patxi, Laxau aldian angula asko arrapatze'una. Ua dek gora jutia gustatze zayona asko. Eta Sanixtongo zubin da oitan guk'e arrapatu izandu deu: Permindei ta andik, Txorkoa bitartian da oitan.

- **Esan duk angulak ur gezetarako sena duela. Baina nola igotzen dituk presan gora?**
- Atzeaka: angula paretan gora atzeaka iyotzen dek beti. Saikolan'e galanta zeok presa, goyen, Gazteluko gaikaldian. Saikolako presak igual eokiko'ttu bost metro alturan, da an gora earki iyotze'k angula, e?, atzeaka-atzeaka-atzeaka; eta ikusi izandu'ixkiu nola jute'ian paretian gora Saikolako presan.
- **Kordela egiten al ditek bata besteari laguntzeko, paretan gora igotzera-koan?**
- Ez, ez, ez. Banaka-banaka jute'ia, eta atzeaka; eta gaiñontzeko presentan berdin. Bayek abildaria!
- **Lehenago aipatu dituk errioko angula-puntuak...**
- ...Oi leno alakin ibiltze giñan garayian. Oain, berriz, etziok puntuik. Oaingo enbarkaziyuakin-da ezto puntuik: danak pasatze'ttuk. Ordun nola ibilli bia'uan polañian-da... Ordun Saikola jute'itzan, da Saikolatik etorriko itzan Mapilla, ta berriz Saikola ez itzan jungo; baño oain, "motorrakin" Saikolan ai aiz, eta andik bost minutua Mapillen ai aiz. Emen etziok angulik, eta ostea Saikolan aiz. Oain ola dana pasatze'k erriyua bost bier; eta leno, berriz, oi ez akan itteik.
- **"I, askakuak'e emango'ixkiu". Zer adierazi nahi dik esaera honek?**
- Orrek esan nai dik, ba: i anguleta jun aiz ordubete leno puntu bat arrapatzea, bi leno igual; da or puntu bat jartze zaik burun, da ua arrapatzea jute aiz. Puntu boi arrapatu'ek; etorriko zaik beste tipo'at angula asitako garayian, eta jarriko zaik -i baño beero jarriko zaik- iya ik arrapatze'ztekelangulik. Eta ordun esate'yok ari: "I, ez al dakak erriyo guztin beste tokiyik? Emango'ixkit askan dazkatenak; "askakuak'e emango'ixkit!"

Oi dek esaera bat, bertagi jarri zayoalako. Erriyo guztiya libre, eta antxe jarriko zaik iri galaazte'ikela angula arrapatzia; eta ordun onekin esan nai zayok ain lotsaabia ez izateko. Oixe esan nai dik orrek.
- **Angula zein garaitan hasten duk erriogan? Urteko zein hiletan hasten duk sartzen?**
- Beira: ur normaletan askotan'e ez aiz akordatu're ingo sartu'anik angula; baño ujala pixka't dan garayian-da, urak zikintzen dittun garayian-da, jenealian illargi berriko eun bat o bi leno, eo eun bat o bi atzetik. Ebiyen urak ur arriak dela, ordun kontuatu gatzik geyena eun oitan sartze'ala angula; "eske", an arrapatu itte'k-eta. Ur garbitan, normalian, ezte'k arrapatzen an beian angulik, jenealian, normalian. Oain, kontuatu izandu gatzik: "Epa! Angula berriy'ek au! Angula sartu'ek!"

- **Baina zein hiletan hasten dituk?**
- “Oktubrian”. Esate’ue leno’re sartze’ala; ta nik attu nitxen lengo zaa-rrai “angula urte guztin sartze’k”, ta ola; baño, normalian, sanpraixkuk eo oktubrian. Ni sanpraixku eunian jun izandu nok anguleta, sanpraixku eunian, e?; alakin jun izandu giñan. Sanpraixku eguna, baño ilusi-yua izan; da oain enok akordatzen arrapatu gendun eo...
- **Angula zein ilargitan sartzen duk erriora? Ilargi betean, edo noiz sar-tzen duk?**
- Ez; angula sartze’k illargi berrin, illargi berrin sartze’k; eta ordun arra-patu, al dan guztiya arrapatu. Ordun gelditzen dana kuarteretan arrapa-tu izandu’iu, kuarteran angula bein baño geyotan. Oain ez, eztalako etortzen; baño don garayian, kuarteratik aste’k angula arrapatzen. Illargi betian? Illargi betian bai, baño, normalian, illargi betian izate’ttuk bi eun o iru; ta aik giro txarrakin o espezialakin; ez illargi berrin bezala. Giro normalian, illargi betian ezte’k angulik arrapatzen erriyu ontan; eta aurten, gaña, batez: illargi betian eztek arrapatu, beti illargi berrin; eta betian arrapatze’ttuk illargi berrin gelditze’ianak.
- **Orduan, ilargi berrian sartzen duk angula?**
- Bai; ta kuarteran da betian arrapatze’k; baño urrungo illargi berri arte, jenealian, geldik eoten dek; eta urrungo illargi berri aurretikan, angula xarrak. Berriya noiz etortze’an bazaki’u; antzimate zayok, txuriyo iza-te’k askoz’e-ta.
- **Eta angula zein mariatan harrapatzen duk, mareagorakoan ala behera-koan?**
- Mariagora biar dik. Beno, beera’re arrapatu’iu. Guk askotan arrapatu’iu angula: maria bete, ura beera asi, ta urdubete artian eo; askotan arrapa-tu’iu angula ura beera’ijuala. Normalian, ura gorakuan muitzen dek, ura gora astea’nian muitzen dek angula; eta geo beera asita’re segitze’ik, e?: angulak beti gora nola jun nai dun, beera asita’re –maria naiz beera asi–, angulak beti segi itte’ik eta. Bee garai batea arte bintzat, angula arrapatzen aitze aiz: ordubete’at eo bi igual, maria beteta geo; baño oi dek mariagora’ijuala muttu’an angula, abittu’an angula, normalian.
- **Korronteak, hego-haizeak eta horrelako fenomenoak ba al ditek zer ikusirik?**
- Ego-aizia, ona anguletako. Ego-aizia, oso ona; baño jela, txarra.
- **Askotan entzuten zaiok anguleroari “majuba” hitza. Zer duk “majuba”? Zer adierazi nahi dik hitz honek?**
- Majuba, normalian, emen goyen eztek izaten. Majuba, an beeian.

Majuba dek, ara: urak bete, ta ura-gaña beera aste'an garayian, azpitik, gora. Orduntxe arrapatze'k angula, ura beera asita geo ordubetian eo bin. Azpin ganduba izate'k: korrenta orrek ganduba muite'ik, eta gandub'oi dek majuba.

- **Eta inoiz ezagutu al duk “majuba”rekin angula harrapatu duenik?**
- Majubakin, bein: Ezpaldiberriko Julien Pikabea eta bee anaya Miel. Aik jun ittuban Agiñatikan Marrotaño alakin oi arrapatzea.
Oik izate'ttuk alakin pondua jarrita, ba, igual bost o sei kala. Geo in biar dek berriz muttu, ta gaikaldea jun berriz'e majuben billa. Ua arrapatu, ta berriz'e gaikaldea jun, eta bost-sei kala ingo'ttuk ondo; eta ola iru'at pondoaldi.
Esate ziyen arrapatu zuela angula, esaten ziyen oik. Nik emendik, Agiñatik, besteik jun danik ezтик uste; baño ai'pai, aik jun tzian.
Oaingo arrantzakin, berriz, etzayok antzematzen: motorrak nola naiz gora, naiz beera, naiz korrenta, naiz ez, igual ibiltze'an... Oain etzayok antzematzen.
- **Eta arrastan ibiltze horrek, ez al dik kalterik beste arrainentzat?**
- Ixkira're arrapatu itte'k or; beti ez. Baño ixkira, ixkira geyena arrapatze'k, gaña, illargi betian: illargi betia, ixkira arrapatzeko onena, arrastan. Oain, berrin'e arrapatu izan diu; baño nik geyena illargi betian arrapatu'it ixkira.



Anguletako gaba da onena. Zenbat eta illunaua ta obia...

- **Aprobetxatzekoa al duk ixkira hori?**
- Bueno: partittu launai, bati ta bestiai-ta emanda-ta. Batzut saltze'men duela, baño nik ezetik beñe saldu. Oain, partittu bai. Baldekak atea, e? Baldekak atea!
- **Garai horretako izkira ez al duk, ba, arrautza edo arrabekin egoten?**
- Nai tokatu zaiak: anguletan attu emen, Saniston aldian. Eta etxeakuan Saikolan proatu biar deula-ta, kala bat in eta bai bakoitzian igual eongo zian iru kilo -zorriya o ixkirakumia-. Arek pena ematen zin. Ostea ustu, ta berriz kalatu, ta urruna ezta kalatu're! Tokatu zaiak bai bakoitzian iru kilo, e?: zorriya. Oain, jenealian, oi maria betian izate'k; mariagora aste'unian-da, ez. Geroago, mariaerditikan aurea, jenealian, zorriya ibiltze'k.
Zorriya dek ixkirakumia: ixkirakumiai zorriya esate zayok, ixkira-zorriya.
- **Angula harrapatzeko zein duk hobe, gaua ala eguna?**
- Gaba; eta zenbat eta illunaua, obia. Illargi betian izarratuba baldin bado, argi eoten dek beti, ta oi eztek ona angula harrapatzeko. Arrapatu izan dixkiu, baño normalian ezta gau ona anguletako.
Oain, eunez ikusi'ixkit angulak arrapatzen, baño eunez angulak arrapa-tzen ikusi'ixkit ur arriakin: ebiya in, urak gorri-gorri zikindu... Eta au ikusi nin Ondarrabin.
Ondarrabin lanian gabiltzala, frantses bat; da sei-zortzi ale bai (**bahe**) tikiyakin earki ateatze xixkin; da euardiko amabik. Oain, emen beñ'e ez dik ikusi: Agiñan.
- **Gaez bi-hiru halako harrapatuko duk, hortaz?**
- Bai; baño eunez igual arrapatuko'ttuk bi "ziento". Nik etzakit zenbat arrapatuko zun frantses arek.
- **Gaueko hau arrain guztiekin berdin gertatzen al duk?**
- Danakin. Ixkira're gabian geyo izate'k, amarra're bai. Arrapatu, bai, eunez ixkira ta amarra. Lupiya, berriz, eunez: lupiyak argiya biar dik. Angula're argia jute'k, e?; baño argi'pe-re angula arrapatu itte'k.
- **Giro hotzarekin arrain guztia hondora joaten al duk?**
- Otzakin, dana beera. Kazkabarra dek benenua: kazkabarra ta elurra ta jela angulentzako, benenua. Oi arrai guztiyakin. Urkarga're, txarra. Urkar-gakin arrapatze'k, jenealian, an beian: Oriyo aldian o Oriyotik beera o... baxtarrian.
- **Hiretzat, orduan, Imanol, zein duk angulak harrapatzeko girorik ego-kiena?**

- Eun bat izatekotan, eun bakarra izatekotan, mendeala: ebiya ta aize ta eualdi txarra nola ezin dala ibilli're, ua dek eun bat izatekotan onena. Oain, eunero angula arrapatzeko ego-aizia dek onena: eualdi epela, epela.

Mendeala'nian izate'k, e?: eun batian arrapatuko'ek angula, baño urrungo euneako ujala etortzen dek, eta urrungo eunian eztakat ze itteik anguletan. Ego-aiziakin bai.

- **Oria erriotik aparte, ezagutu al duk beste erriotan angulik harrapatzen?**

- Ni ibili, ez; baño esango'anu, erriyo danetan sartzen dek angula.

Nik Irunen pasa nixkin urte'atzuk lanian; eta ibiltze nintzan garayian, Ondarrabiko erriyuan (Irunen) arrapatze ziyen goyen; baño arrapatze ziyen ujalakin bakarrik: ujala itte zunian, urak arre-arre itte zittun garayian, gue nausiyak-eta -bi seme zittun-; eta garbiya zeonian, bate etziyen arrapatzen.

Ibiltze'ttuan Irunen, goyen, "Isla delos faisanes" ingurub'oitan.

- **Eta Zumaian eta bestetan?**

- Zumayan-da, Deban-da, danetan oitan angula. Zautzen'e arrapatu itte'-pa?: Zautzen -errekan- kanteilla ttiki bat baakik surtidorea nola etortze'an; erreka ortan arrapatu itte'k angula. Nik esan biar banu, erreka daneta sartze'k angula. Oain, batzutan, geyo; beste'atzutan, gutxiyo.

- **Zer dela eta, angula beltza eta zuria? Ze diferentzia zagok?**

- Itxasotik sartze'an angula zuriya dek. Eta, geo, gue gazte denboan, biberoa botatze uan beztutzea.

Anguleta danak jute zian Agiñan: Pikabea... Ezpaldiberrin iru ala nik ezautu'ixkit, iru ala Ezpaldiberrin; eta danetan-da, ola. Gue etxian'e baita. Lastolan, beste iru-lau ala. Ezkerrenian da Lertxundin da Mapillen... Beno! Mapil aurrena!: Mapillen, bi-iru ala. Etxeberriñ'e bai. Danetan, danetan bi-iru ala.

- **Horrek esan nahi dik, gaurko familiatan kotxeak bezela, orduan alak zituztela, eta etxero bere angula-depositua.**

- Etxian biberuak prepaatuta, ur korrentakin jarrita...

- **...gero alak ez zituan anguletako bakarrik ibiltzen: bestealdeko erribera pasatzeko ere balio izaten zitean, ezta?**

- Klaro, klaro! Ondarreta jute uan alakin da-ta. Guk jornala ondarre-tatik ateatze giñin alakin, soldauska jun giñan arte: beno -gabarrak in tzi-ttuen an-emen-, gabarrak in tzittuen arte alakin atea gendun jornala ondarra ekarrita.

- **Orduan, angula beltza duk...**
- ...biberoko angula.
- **Eta erriogan bertan ere belztutzen joango duk, ba, angula?**
- Leno esan deun bezela, illargi berrin sartu ta illargi bete arte baldin bado erriyuan, beztutzen jute'k; orreatik antzemate zeu angula beltza dan o berriya dan o zaarra dan. Amabost eun o ogei eun pasatzeako erriyuan angula beztutzen aste'k; ez biberuan gaña, baño beztu itten dek. Ordun, badakik: epa!, au angula xaarra dek o ez... Au txuriy'ek... Berriya sartu'ek... Ola antzemate'yok nola'n.
- **Zuen gaztetan angula ondo saltzen al zuan?**
- Oain angula-enpresak artze'uen bezela, garai artan angula etzuen enpresak artzen.
- **Nola moldatzen zineten, orduan?**
- Nik saltze nun Mapilla: izeba Manuelai. Ua Donostia-ta nola ibiltze zan; da bea angulerua nola ua, ta:
 - *Izeba, bakat ainbeste angula!* –amar kilo o bost eo zianak, ta:
 - *Ekarritzak, neonek maniatuko'ixkit!*Eta bestiak al tzuen bezela: batzuk Donostin eskaera... batek eztaki zer... konpradoria zakalako... Eta al tzan bezela.
- **Horrek esan nai dik jendeak orduan angula tamainan jaten zuela. Aginagan bai, baina beste tokitan bazirudik hainbeste ezetz.**
- Bueno, ordun'e pobriak angula jateko, galesti. Pobria beti, angula jateko beldurrez: o galesti zalako eo amar pezta biar zialako saldu itte giñun; eta jan, oso gutxi jan. Oain geyo jate'k.
- **Gaur Aginagan inor gutxik jaten dik, ba, Imanol.**
- Je, je, je. (**Barreari eman dio: esan duena ez baita hain egia**).
- **Hemen ari gaituk angula harrapatu eta harrapatu etenik gabe, eta noiz-bait maneatu beharko dizkiagu. Angula nola maneatzuten duk?**
- Angula maniatzeko... Angula –konpaaziyo'atea– arrapatu erriyotikan da seittun maniatzen ba'ek, makala dek: nekatuba izate'k angula, e? Eta in biar dik gutxienez, bintzat, ordu batzutan biberoa bota: txui-txuiya izango'ek ordun. Oain, jaten eztiyek aldeik izango; bistan bakarrik. Nik uste'ik etzayola aldeik billatzen beltza izan o txuiya izan jaten. Oain, bistako-bistako bai; beltza obia dek beti.



Eosteko (egosteko) oain adelantu aundik zazkek...

- **Angula beltza, orduan, erakargarriagoa dela esan nahi duk bistarako?**
- Bai. Maniatzeko, berriz, biberotik ateatzen dek, eta, normalian, taakua-kin akaatu. Oain taako-esentziya ibiltze yek, eta bi ttantto naikua iza-te'ttuk: arek akaatze'ik angula.
Akaatu, utzi ordubete o bi, eta geo garbitu; eta ondo garbittu in bie'k: nola muki asko dun, ondo garbittu. Zenbat eta ur garbiyauan pasatze'an, ua ta earraua.
- **Apar asko, ugari, izaten dik, ezta? Mukia bezalakoa, pitza balitz bezalakoa.**
- Bai, bai, bai; ondo garbittu, ondo garbittuta eosi (**egosi**). Eositzeko ura irakin, gatzakin bixi-bixiya jarri –ura bixi-bixiya biar dik–, ta ola esplikatu-ta etzakit zenbat gradutan. Batzuk ba emen tzazket markatze'uenak graduk-eta.
- **Ura behar dik ixkirak, amarrak-eta prestatzen diren bezalakoa. Gatz-punttu horrekin, ezta?**
- Bai; ura bixi-bixiya.
- **Mihian gaxixka-punttu horrek min ematen duela, hortaz?**
- Bai, bai, bai; gaziya ez esateatikan, ura gaxi xamarra. Ura irakiten aste'an garayian, bota angulak ureta, eta neria dek berrogeita bost

segundo -geyenez-, su bixi-bixin: berrogeita bost segundon, kanpoa! Atea ta arpillera baten gañian sekatu. Sekatu eta normalian, normalian esaera da (eztaikit ola esateko baño) urrungo eunian obia dala eositako eunian baño, e? Leatza bezela dek: leatza arrapatutako eunian apurtu ittek dana; leatza apurtu, dana, arrapatutako eunian. Gutxienez oita lau ordu bia'ixkik leatzak, eta angulak igual.

– **Eta frijitu, nola frijitzen dituk?**

- Gu oain eozin mouz ibiltze gea, baño garai bateko amonak lurrezko ontziya biar tziyen angula prepaatzeko: lurrezko kazuela bat, oliyua jarri, baitxuiya, piper miña, ta bero-bero don garayian, buelta batzut eman, da mayea.

– **Eta olio asko behar izaten al dik?**

- Ez, ez, ez; bustitzeko aña.
- **Orduan, angulak janda kazuelan ez dik oliorik geratu behar: angulak bukatzean, kazuelan ez dik oliorik geratu behar.**
- Bai, bai, bai; oliyua ibilli biar dik tamañan. Ik esandakua dek teorikua.
- **Beno, Imanol, angulak jan dizkiagu.**
- On in dikela!

– **Noiz sortu zituan Aginagan angula-enpresak?**

- Ni Mitxerkonekua goatze nok: “Mayoz”. Mitxerkonekuak sortu ziyen, ba... Oain berrogeita zazpi urte... Bueno, bost eo.

Atta leno ibiliya -Luis-. Baño semiak eta atxurrian ai dila asi emen ittuan angula-kontun, nik attu nintxen. Asi angula-kontun, da attak:

- *Angula Frantzín? Angula, Frantzín, ola ta ola ta ola'ek.*

Ta:

- *Nola, ola ta ola?*
- *Eta, gaña, merke!*

Ta:

- *Ze ai gea emen atxurrian, ordun!?*

In tziela danak Frantzia jun. Mitxerkoneku oi ola asi emen uban: Eusebio, Antonio, Iñaxio, oik Frantzia jun da anguletan nola asi zian; ta leengokua, berriz, leno esan diu, e?, nola Raimundo jun tzan Valentzia ta anguletan nola asi zan; “asi ke,” gue goantzín asi'ttuban anguletan oik'e.

– **Eta Mapildarrak?**

- Eta Mapildarrak'e... Gouan dit Mapilkua -osaba- Patxin da atta. Oi noiz izango zan, ba? Oain berrogeita amar urte, irurogei bat urte asi zala anguleta ua? Valentzitik asi uan.

– **Beste batzuk Portugala ere joan zituan, ezta?**

- Portugala, Frantzia, Asturiasa ta Afrika're bai.

Afrikan, soldadu gaudela, ni enitxen beste toki batea destinatu; eta nee konpañiia eaman tziyen Arcila: Arcila jun ittuban Tolosako, Ernialdeko ta orko jendia; ta gabian, baldeka angula saltzen moruak, baldeka angula. “Angulak jan bia'ixkiu ta angulak jan bia'ixkiu”, ta iñor izan ez angula-ixtorik zakiñik: bat prepaatzen zakiñik, ez. Eosi (**erosi**) zuela baldeka angula, ta beatzi pezta paatu emen tziyen, e? Etxea etorri'ttuk, konpañia. Ba emen tziyen txabola zaarren bat eo zeozer; ta paela jarri'yek oliyuakin, da angula bat'e garbiyu gabe –bizi-bizik–, ara; ta danak aldein, danak aldein!

Geo andikan Tetuana etorri'ttuan berriz. Aik berriz Tetuana zian garayian, ni “Agiña” kua nitzala baxitxakiyen, da seittun etorri'ttuan niana. Ta:

– *I, Imanol, angula ola ta ola pasa zaiuk.*

– *Jobert! Angula aurrena eosi (**egosi**) in biar izate'ik!*

Ai, pena!

– *I izan baitzan naiko angula jango giñin bi peztakin!*

“O sea ke”, Afrikan oain berrogei urte angula bauan.

Geo jun ittuban –bazakit jun tziala– Otamendi ta ok danak ara anguleta; baño nola etzeon ekartzeik kamiyo, abioyian ekarri biar, ta abioya kostatzen xitxayen baliyo zuna baño geyo. Oaingo preziyotan... oain etzakit ze ingo uen, baño garay'artan olaxe zan.

– **Garai hartan sortutako enpresak bost-zazpi bat izango zituan? Galar-dikuak...**

- ...Galardin frontoya uan unuzkaldetik. Gouan al dek? Galardiko frontoyian sukaldiak nik in nixkin. Beno, ni peoi nitzala: Manuel Ikutza ieltserua ta Felix bi anayakin ta ni peoi nitzala in giñixkin sukaldiak Galardin. Ta leendik'e baxitxen goyen, ttikik; baño ez ola: ttikik.

– **Eta Lasaon ere ez al zitiztean deposituak?**

- Bai, bai; Laxaun.

Geo Ximonekuak, Sookuak... Danak batetsu izango'ttuan oik, e? “Asi ke”...

– **Eta Sorokoak, Joxe Manuelek eta, ba al dakik non zitiztean biberoak?**

- Oxe ez nitek esateik. Sooko berrik etzakit.

– **Bazakiat, Frantzian, La Rochelle izeneko hiri inguruan, bazituztela Txo-koaldeko Ximonekoakin-eta, batera.**

- Baño Frantzitik angula ekartzeik ezuban libre: ordun kontrabanduan ekartze xixkiyen. Emen –Oriyotikan– Itxaspetikan sartuta, gabian kon-

trabanduai emate xitxen. Oik danak ezautu'ixkiu. Onekin ezтик esan nai Sookuak ala ibiltze zianik, e? Kontuz! Besteik gabe, garai bateko Frantziko anguletako kontu'boi azaldu nai nin.

– **Baina hori zein garaitan zuan, frankismoaren garaian?**

- Fronterak zela. Frantziako fronterak zian garayian fronteran deklaratu in biarko zan, da deklaratura asko kentze xitxen diruba; ta kontrabanduan ekarrita, berriz, etziyen deklaritzen; orreatik, ba, angulak motoretan-da.

– **Lastolakoek enpresarik sortu al zitean?**

- Lastolakuak enpresaik ezтик uste. Oik ittuban angulero onak Kandidotik asita: oso sayatubak danak'e. Kandido beti erriyuan, e? Ua beti erriyuan billatuko'uban.

Mitxerkonekuak bai. Perretzenekuak'e bai. Perretzenekuak: Otamenditarrak, Azpiroztarrak eta Izagirretarrak bat in tziyen. Geo batu... Mitxerkonekuak eta Sookuak-eta, geo bat in tziyen. Eta angula ekarri itte ziiyen danen arte! Zenbat angula!

– **Horiek danak etxebarruan beren deposituekin?**

- “Klaro” zittuela!

– **Eta Bruño noiz hasi zuan anguletan?**

- Bruño, geo. Geo iñ uban enpresa: ezkondata geo asi uan bakarrik.

– **Eta Mapillerrekako deposituak norenak zituan?**

- Mapillerrekako deposituak, Mapilko Patxinak: Mapillerrekako erre-ka Patxina dek.

– **Mapilkoenak, orduan?**

- Bai; baziyen Perretzenekuak-eo Patxiri aldeindako urak aprobetxatzeko. Mapillerrekako ura Patxina dek: uroi denuntziatuba zakak Patxik.

Ta geo ok utzi zuen garayian, Mitxerkonekuak ibiltze xixkiyen orko urak eta deposituk-eta. Geo txabola't in tziyen emen. Baita Borttolok'e in tzin deposituba or -Mutizaalekuak-.

– **Aurten ibili al haiz anguletan?**

- Aurten? Bai, in dixkit biaje batzuk. Suiyak-eta ibili'ttuk; baño suiyak etzian garayian, neoni ju'nok. Eta... Ba! Gustua jute nok! In dixkit amar bat jorna, amabi'at eo.

- **Eta harrapatu?**
- Arrapatu... pixka't bai. Asko ez, e?; gutxi.
- **Bai zera! Asko harrapatuta ere, gauza bera esaten duzue beti.**
- Baño... Gabonetan neikua jateko, bai; eta geo sobratutakuakin in nin saldu, asko paatzen ziyen-da.
- **Zenbatean saldu duzue?**
- Berrogeita amar milla pezta. Peztetan, e? Bizik.
- **Horrek esan nahi dik maneatuta hirurogei mila pezeta.**
- Geyo, geyo. Maneatuta... “otxenta y zinko”.
- **Maneatutako angulak, aldez aldera, zenbat pisu galtzen dik?**
- Eosteko oain adelantu aundik zazkek. Galtze xixkin leeno: berreun da berrogeita amar, irureun... Beira: baño oain dazkaten adelantukin eztek ainbeste galtzen. Zerbait igual galduko'u, baño gutxiyo; oain, ez. “Es ke”, prepaatuta zazkek gasakin-da, otzakin-da, eztaki zer da, baaki zer-da... Oain eztik, eztik ainbeste galtzen.
- Baño oain ba al dakik angula nola eoste'uen? Oain angula guk leeno esan deun bezela eostek, e?; baño aldamenian zazkek beste kaldera batzuk jarrik, “sesenta grados bajo cero” ura –martxan–: bonbakin-da, ura martxan zeok beti. Bonbak gelditze baia, seittun jeltatze'k; baño martxan dela eztik jeltatzen. Angula eostetik atea, ta seittun ara sar-tze'yek zuzenian. Oain angulak ara botata txupatu itteik: gizendu itte'k; orreatik eztik galtzen angulak. Nik “Angulas Aginaga”n pasa nin urte-bete angula eosten, da ikasitakuak o'dittuk. Geo ok danak itxi xixkiyen, da oain “gula” itten ai dittuk; eta “ya ke” gulak itten ai dian, angulik eztiyek ibiltzen oik; eta orduko istoriya ala dek: eztula anbeste galtzen angulak. Eta bestiak eosten ai dianak – angulak–, igual prepaatuta zaudek oain.
- **Eta gula hau Aginagako anguleruen asmakuntza izango duk, noski? Nahi bada japoniarrak lagunduta, baina hemen bertakoen ideia?**
- Bai, bai, bai.
- **Nortzuk hasi zituan gulak egiten?**
- “Angulas de Aginaga”; baño orko jefe printzipala uban Albaro izena zuna. Albaro... eztaki zer.

- **Eta Albaro delako horrek non egiten zian lan?**
- Leeno Oriyoko Iturrikin basuan ibiltze zian garayian, ofizinan; baño geo ortako anguleruak bat in tzuen garayian, Albaro uban orko ofizinista, orko buru itte zuna.
- **Eta zein angulero bildu zituan proiektu horretan?**
- Proietu orren inguruan, ba: Raimundo-ta, geo Otamendi-ta, Sookuak, Mitxerkonekuak, Erretzal, gue anayak (guriak'e bai, bi): Joxelontxoneko Iñaxito ta Xebatian. Da sosidadi oik danak, danak bat intzuen garayian, buruba, Albaro.
- **Nongotarra zuan Albaro hau?**
- Zarauztarra. Eta oain erretiatuba dek, eta semiak zazkat gula itte'uen tokin, ofizinan; da buru itte'uenak, beno, ofizina eamate'uenak, bere semiak –bat bintzak–.
- **Gula erruz saltzen omen duk?**
- Indako dana. Angula emate'ik, e? Eztek angula, baño neonek gustua jate'it, aldin-aldin. Eztala angula bazakiu.
- **Aizak, Imanol, esan ohi den bezala, hi erriolari begira jaiotako umea haiz...**
- ...Bai
- **Hortik bizi izan haiz, erretiratu ere hortik egin hintzen...**
- ...Bai. Urtebete Micheliñen pasa nin.
- **Bai, hori entzuna zaukat, hala zaukat entzuna...**
- ...Urtebete bakarrik, e?
- **Esanda bezala, hortik erretiratu hintzen: hondarretatik erretiratu hintzen. Eta orain badauzkat hirurogeita zortzi urte, eta noiz arte erriolari begira? Zer duk hori, droga edo zer duk hori?**
- Oi odolian sartze'k, gaitz oi odolian. Anguleta biaje'atzuk eta... Ondo natxiok! Ze ittia nai dek? Udarari lupi'atzuk-eta... Itxasuan txipiroi batzuk arrapatzen battu-ta... Nolabatt'e pasa biarra zek azkeneko urtiak.
- **Baina ondo, ezta? Erriozkinan bizi haiz, eta ondo?**
- Gustatu itte zaiak nai lupita-ta, gustatu itte zaiak.


- **Beno, Imanol, bukatu diagu angula kontu hau; eta besterik gabe, nire esker ona azalduz, hauxe esan: mila esker, hik eskainitako laguntzagatik!**
- Ez orreatik! Berrizko're baatik nun bizi naizen, da deitu bildurri'pe; eta eskerrik asko, hiri.

Honelaxe bukatu zen Imanolekin izandako elkarrizketa hau. Bere denbora guztia ur-gainean bizi izandako gizon honek gordin dirau oraindik ilusioz beteta. Badario ametsik errioiari begira, eta bere bihotzak briztan saltoka darrai, lupi-bandak antzo, ilusioarean betean.

Aginaga, 2004

Estropadak





Mapillerrekako Joxe Antonio

Aginagak arraunak bere-bereak izan ditu eta ditu. Inor gutxi izango da, egun ere, estropadari buruz ez dakienik. Errioa bizi izan duen horretatik datorkio estropadetarako zaletasun hori. Izan ere, errioiari begira eta bertako hainbat jardueretan ibili izan den herri batek, nola ez! bere mami, arrauna. Polaina bere eskuetatik utzi gabe bizi izandako edonori zaizkio ezagun: bai uraren korronteak, bai haizearen gogorrak, bai ur lodi eta mehetan ibiltzeak, bai olatuen eraginak eta horrelako zera... guztiak, sekretu guztiak; eta horregatik Aginaga hain estropazale eta hamaika arraunlari emandako herria. Eta horietako bat “Mapillerreka”ko Joxe Antonio dugu. Bere gaztetan arraunean ibilia eta arraun-mundua ondotoxoz ezagutzen duena. Horko guztien berri eman-go digu gaur Joxe Antoniok.

- **Aginagak nola du arraunerako zaletasun hau? Zergatik egin dik hain bere, arrauna?**
- Arraunari zaletasuna eukitzia normala dek Agiñak, erriyua orren bertan eukita. Erriyuakin geyenak zerikusiya izan diu bateko angula dala; beste teko beste gauz bat dala; eta beti arraun-mattiak: arrauna, polaña... Beti maite izan diu; asko ibilli gealako bertan batik bat.
- **Hortaz, errioa bizi izan duelako izan al dik arraunerako grina hori?**
- Arraun-irrikitan... Arraunzale beti izandu’a, oixe! Anguleta jun bier bazan, arraunian jute giñun: arrauna ta polañakin. Ixkireta jun bier baldi’mazan-e, arrauna ta polañakin jun bier izate uan. Ondarreta’re arrau-

na ta polañakin jun bier izate uan. Ta nik uste'it ortik datorrela arraune-ako zaletasuna. Baita basarritar guztik jun bier izate ziyen –angula emen nola baizen oso biarrezkua bezela, osagarri bezela– ta ortatik zaletasun aundiya. Estropak asi zianetikan, zaletasun aundiya eote'uan emen.

- **Garai bateko Donostiako Kontxako estropadak nola bizi izan zitiztean “agiña”rrek? Zer nolako giroa sortzen zuan eta nondik edo zein bidetik joaten zituan arraunak ikustera? Orduan kotxerik eta horrelakorik ez zenez, nola joaten zituan Donostiara?**

- Agiña eote'uban estropak etortzeko zaletasun aundiya. Ordun –nik nee goantzin beti ezautu'it– bai Donostia eta beste nunbatt'e bazan (estropak oain baño gutxixio izate'ittuban baiño) zaletasun aundiya.

Nola jun? Oñez. Nik ezautu'ixkit –ni Mapillerkakua nok– Mapillerka betikan gora oñez. Jende asko jute'uban Arrateño; Arratetikan Aintzi-berritik Artikula; geo Artikulatik uan beste bide sastar bat Mendizorrozko biria; Mendizorrotz gañeño atea, ta ua uan Igeldoko kamiya.

Araño jute giñanian, ba, an jende mordo bat osatze uan Oriyo aldetik zatorrena, Zautza aldetik-eta; ta attu izandu ziot beste bati're, baita Azpeititikan'e Oriyoño etorri trenian, da or oñez etortze ziala. Geo ortikan jute giñun Igeldoa. Igeldoa jute giñun estropak ikusteko irrikaziyoz. Jende asko juntatze giñun. Batzuk geo “funikularrian” –an jextia gauza aundiya izate uan ordun– da funikularrian beera jetxi. Da geo trenian etortze'ttuan batzut. Da guk in izandu giñin funikularrian ibiltze'atikan Ondarreta jetxi, an pixka't ibilli, ostea gora iyo, da ostea atzea oñez etorri.

- **Ze moduzko bidea zuan Mapillerrekako hori? Itxurazkoa al zuan?**
- Biria ordun bire klase bakarra uan: gurdibiria esate zitzayona. Basarritarrak eunero ibiltze'ittuban. Eskerrak airi, ba, pixka't manejatzen ziyen oik urbiriak ateata; baño oaingo konpaaziyoikan ez uban; bire kaxkarra beti. Gurdibiria, aldapa aundiya, ta... gurdibiria. Asi Mendizorroztikan, goitik beera, bintzat, oso bire kaskarra eote uan beti.
- **Gaztelu bertsolariak horko bideei buruzko bertso bat ba omen dik, ba, botatakoa?**
- Gazteluk, uaxe: estropak ikustea junak. Aik'e jun emen ittuban Igeldoa, ta eun pasa. Aik'e, nik leen esan deten bezela, etzakit Ondarreta jetxiko zian. Bueltan, bintzat, illunduta emen xitxatoztin; da or goitik beera abittu zianian, Mendizorroztik goitik beera aldea abittu zianian (Artikulako biri oi, oi estrata bezelako bire sastarra uan-da), illuna, aik bueltan zatoztila; da esan emen tzin:
 - *Nayo nitek puntaba jarriko'alu bate'atek.*

Ta ordun batek esan emen xitxon:

*Goitik abittu gera
laster gattuk bian.*

Gazteluk eantzun emen xitxon:

*Bire abek etzekit
nola egiñak dian.
Estroposaka natxiek
bildurak aidian.
Pasiatu diyagu
para je obian.*

- Horrek esan nahi dik bide txarrak zeudela garai haietan.
- Ordun biriak ala'ttun.
- **Eta Ezpaldiberriko Joxe Antoniok ba omen zian, ba, zerbait esana Mapillerrekako bide horri buruz, Guardizibilak zerbait galdetuta?**
- Bai; Mapillerkako biria, bai. Antzia, Antzia bide asko al tzeon.
Joxe Antoniok taberna eokitzen zin, e?, Ezpaldiberrin; da guardizibil parejak ordun ibiltze'ttuban, ba... nik etzakit firma billa, ta nik etzakit ze ibiltze zittuen; da Antzi, "caserio Aintzi" nun zeon galdetu emen xitxon. Da:
 - *Caserío Aintzi, ahí arriba.*
 - *Poco más o menos, cuántos kilómetros o cuánto tiempo?* –esan emen xitxon. Da:
 - *Si vais tranquilos, media hora; y si vais de prisa, una hora igual.*Ordun kontuatu emen ittuan: "¡Ay diez! ¿Eso cómo puede ser?". Da ordun kontuatu emen ittuan ze bire zan an betikan gora. Bire kazkarra, bire txarra!
- Horrekin adierazi nahi izan zian, azkar ibilita nekatu egingo zirela eta denbora galduko zutela; lasai hartuta, berriz, askoz ere lehenago ailegatuko zirela: ordu erdi batean han izango zirela.
- Ordu erdi bat.
- **Aginagako errio honetan jokatu al duk noizbait estropadarik, eta jokatu baduk, noiz?**
- Bai; nik ezautu'ixkit. Estropak ezautuko ez giñun, ba, emen, batik bak festetan!? Baita Perretzeneko nausi-morroyak alkarri desapiyua inda're, jokatu izandu ziya: gu mutilkoxkorrak, eta estropak ziala junda, nausi-morroyak. Oso festa politta jartze ziya, gañetikan.
Geo, esateako, sanpraixkuk etortze zianian, erriko festak etortze zianian, ba, gaztiak zaarren kontra bateletan, da oso festa! Jende asko

jute uan, gaña. Leen esan ditzen bezela, oso zaletasun aundiya uan estropetako-ta; ta geo batik bat bertako jendia ola jute zan garayian, jende asko jute uan ikustea; da oso festa politta jartze ziyen.

- **Hortaz, erriyo-muntoak jendez beteta egongo zituan?**
- Muntuak, beteta.
- **Umez dana josita, beraz?**
- Ume, aundi, zaarrak... danetatikan jute uan. Ta gaur'e obe uke –oaindika'ne– antolatuko balia, piskat arta baztarrak igual txukunduko ittu-kek eta. Ain dek politta Agiñako erriyo ixkiñ oi! Ta meezi likek.
- **Eta inoiz ofizialki jokatu al duk erri honetan estropadarik?**
- Ofiziala're jokatu izandu'ek "ligilla"ko treineillako estropa.
- **Noiz edo zein urtetan jokatu zuan?**
- Larogeigarrengo urtian.
- **Eta nortzuk hartu zitean parte?**
- Ordun parte artu zuenak ok ittuban:
 - Iyarbeko Joxe Leon,
 - Iyarbeko Joxe Iñaxio,
 - Iyarbeko Auxtin eta
 - Iyarbeko JoxeMai (lau anai)
 - Joxe Miel Peñagarikano
 - Urkamendiko Iñaki
 - Patroi: Patxi Mapilkua
- **Suplentiak:**
 - Iyarbeko Rosendo
 - Aintziko JoxeMai

Juradu, Sekañako Joxe Antonio: Joxe Antonio Errasti; ua ibiltze uan juradu. Ofiziala besteikan ezit uste izango zanik jokaturakoik. Bestela, geonen artian jokatu zianak: nausi-morroyak –leen esan ditzen bezela–, zaarrak gaztien kontra, eta olakuak asko; baño ofiziala oi uban: illen 25tian, mayatzian, larogeigarrengo urtian.

- **Sanpraixkutan, hortaz, jokatzin zituan Aginagako bertako jendearen artean estropadak. Eta garai haietan, nola egiten zituan ontzien prestaketak? Entzuna zaukat oso ritualak izan ohi zirela jendez inguraturik. Kontaiguk honi guztiari buruz?**
- Arrauneako ontziya prepaatzeko eun bat leenotikan aste'ittuban, da oso-oso interesgarriya izate uan: garbittu-ta... Ordun ezuan gaurko

adelantuik baño. Nik gouan zakat: aurrena itte ziyen jaboyakin dana urakin ondo garbittu; geo sekatze zan garayian, tipula emate xitxen, tipulakin iurtzi...

- **...Tipula, zertarako?**
- Tipula emate xitxen ontziyai, geo lapitzautsa peatzeko: lapitzautsa ua botatze xitxen, arekin iurtzitze ziyen; da azkenian gouan zakat nola ibiltze zuen txapela. Txapela gauza biuna zalako eo, ortako, bintzat, txapelakin brillua ateatze ziyen, brillua: txapelakin eundoko brillua uan.
- **Brillua ateratzeko ez al zegoan beste zapirik?**
- Beste zapikin aurrena iurtzi ingo'ye; baño brillua beti txapelakin.
- **Hori duk gauza xelebrea, ezta?**
- Guk ikusitakua, ta geonek'e ibilli izandu giñin.
- **Eta "briloako", txapela beti?**
- Bai; txapela, txapelakin.
- **Eta besterik gabe, "briloa" ateratzeko bakarrik?**
- Eundoko brillua ateatze xitxon, gaña; oso brillua! Eta jende asko eote uan beira ta eote giñun an nola aitze zian-da; oain, eskuk eta ankak eta arpegik bel-bel-bel-beltz inda. Zea... mineruak bezela aitze'ttuan, e? Oso rituala izate uan. Etxitxon, gaña, eozin mouz ikuttu're itteik. An zakiyenak ondo zeatu ta...
- **...Eta lapitzautsa zertarako? Irrist egiteko, agian?**
- Orduko gauza ua uban uretan ondo irristatze zana. Geoztikan battuk emen, beno!, pintura eo barniza eo eztaki zer atea'ttuenak, baño oik geoztikakuak; baño ordun lapitzautsa emate xitxayon da eundoko brilluakin geatze uan. Eun batian ibillita dana kentze xitxayon. Baño berrizko –berriz estropako– ondo-ondo garbittu, leen esan deun bezela: jaboya ta urakin garbittu, ta geo tipula. Nik ua bazakit tipula mordoxkakin nola iurtzitze ziyen, da ua zertako izate zan; da lapitzautsa obeto peatzeko izate uan.
- **Hi, Joxe Antonio, ze diferentzia zagok lehengo ontzietatik oraingoetara? Luze-zabalean neurri berekoak al dituk? Materialez-eta berdinak al dituk? Emaizkiguk horko diferentziak.**
- Beira: luze-zabalian neurri berdiñak zazkek. Oain, oain dala joandako berrogeita amar urteotan nik ezautze'ttutenak, bai luze-zabalian da alturan berdiña zakek; baño material aldetik asko kanbiatu'ttuk gau-

zak. Ordun dana egurrakin itte uan: egurra ta egurra iltziakin josita; ta egurra ta iltziakin indakua, ba, askoz'e astunaua izate uan. Gaur ai dittuk beste material klase batekin itten; fibra esate'yena o plastikua, fibra...

Arraunak'e berdiñak. Ordun izate'ttuban dana pieza batekuak egur bati pieza ateata. Izate uan platanozkua o pagua: platanua ta pagua izate'ttuan arraunak. Gaur egun, berriz, leen esan deun bezela, ya barrenen ueko pixka'tekin, ariñak; askoz'e ariñauak zek.

Orduko ontzik pixatze xixkiyen 340 kilo, ola. Oik Donostiyak eukitze xixkin, gaña. Donostin estropa jokatzeko eukitze xixkin zortzi ontzi, da itte xixkiyen aurrena iraazte zunak atzekuakin kanbiatu: aldatu itte xixkiyen. Baño leno esan deana, 340 kilo... batzuk geixio... besteak gutxi-xio... or ibiltze'ttuan; da gaurko egunekuak, 200 kilo.

- **Aurrenekoak, hortaz, aldatu egin behar izaten zian...**
- ...Aldatu in biar tzin azkenekuakin.
- **A ze pena hartuko zuten!**
- Eundokua!
- **Ez al duk hori endredo handiegia?**
- Endredo aundiya izate uan. Beira: orduko tostak -dana iltziakin josi bier izate uan-da- asko estropeatze'ttuan; ta, gaña, gustoko prepaatu-ta eukitze zan ontziya. Mimatuta eukitze uan: garbittu ondo, garbittu, ondo sekatu al tzan guztiya arinduta... Ta geo atzekuakin igual artu bier izate uan beste 30-50 kilo geyo zittuna. Oi berdintasuna izateatik izango uan, noski.
- **Derrigorrez, endredo latza: estropalariak egokitu traineru batera eta gero bestera egokitzea, nahitaez, endredo handia izango zuan.**
- Aundiya, oso aundiya! Kanbiatu bia'ixkak tostak, toletak eta danak kanbiatu bia'ixkan, da oi endredo aundiya uan; da, gaña, geo ainbeste kaskakokin-da biundu itte uan ontziya, gañetikan.
Baña abildadia eztek izaten bakarrik gauz bateako, eta ontziya jar-tzen'e beste'atzuk izan itte ziyen; baño ontziya asko estropeatze uan, estropeatu itte uan ontziya.
Geo jarri ziyen, ba, bakoitza beriakin. Jarri ziyen, da alde batea -alde batea berdiñak izan ezkeo neurriyak- txarraua ez uban: artaka obeto neurtuko ituan indarrak bata bestiak.
- **Horrekin esan nahi duk, ontzia bera prestatzeko aparteko abilezia behar izaten zela, aparteko teknika?**
- Bai jauna, bai!

– **Toletetan ba al zegok orain diferentziarik?**

- Ez, toletakin. Estrapuba uste'it... estrapuk ai dittuela zerbaitte difeentexiaua oain; baño ez, estrapukin da toletakin etzeok milla difeentziyik. Arraunakin bai; arraunak askoz'e ariñauak dittuk.

– **Baina oraingo toletak egurrezkoak al dituk, ba?**

- Ez, ez, ez; toletak gaur egun zazkek plastikozkuak. Bai, bai, difeentziya danetan zeok. Egurra beti jute'k gastatzen, da oaingo toletok eztittuk gastatzen; beti berdiñian zek oik. Airi zuluia itte xitxayen –estrapubak eta bustiyakin eta zeakin– kinki-kanka itte xitxayen zuluia. Pixka't zulatzen asi ezkeo, trabatu're errexo ittek arrauna, ta difeentziya beti ai dittuk arrapatzen.

Da gizonen prepaaziyuan'e, berriz, eongo'ek aldia, ta bazeok, noski. Ordun izate uan, ba... Gaurko erreztasunik'e etzeok: meikuk diala, jan-eanak dala-ta... prepaatibuan'e, nik uste'it, gaur obeto moldatze'iala.

– **Egia al duk hiru txuleta bata bestearen gainean jarrita erretzen zituzte-la ondoren erdikoa soilik jateko, honek zuku guztiak hartzen zituelakoa? Zer diok honi buruz?**

- Bai; attu izandu ziot lñaxio “Konpaxa” Oriyokuai. Bautista “Konpaxa” ta oik Oriyokuak ittuban, da plazan janazten emen xitxen, gaña: entrenamentua in, erdiko txuleta jan, da porroi txiki bat ardo beste baso bete urakin. Ean al dan gutxina in biar emen tziyen, da tragatu eziñik aitze emen ittuan. Ainbesteko jan pilla jarri! Arrautzak'e eztakit zenbat: mordo! Aurrena pontxiak eta geo porroi txiki bat ardo iru launentzako, ta tragatu eziñik aitze emen ittuan; da lñaxio “Konpaxa”k eun batian ala esan emen txitxon Salmasteiko Joxemaii, iñularrian etxea abittu zianian:

– *Goazemak neekin!* –esan emen txitxon. Da:

– *Ze in bi'ek?*

Ta iturriya preskua non tzeon ba emen xitxakiyen, jun emen ittuan, eun-doko ur-eana in emen tziyen, da bata bestiai esan emen txitxon:

– *Enteatuko balia, deskuiruan, ura nola eaten ai gean, earra genetxakek!*

– *I lasai eon!, biyar goizian askoz'e obeto eongo'attuk eta!*

Bestiak esan emen txitxon-da... Baita eon'e, gaña! Astakei asko itte uan ordun jaten da eaten.

– **Gero, ura edate hau, nork ezarri zuen ba al dakik? Entzuna zaukat Oriora aleman bat entrenatzeko ekarri eta honek ezarri zuela.**

- Bai; ordun eatia delitu aundiya uan. Bueno, ordun etxitxon eateikan! Jan –gaurko erreztasunik etzeok baño–, beti jan garbiya: txuleta baldi'-mazan, txuleta; ta arrayak ta olako gauzak janda-ta... geo arrautzak...

eta pontxia bintzat asko eate uan... da jendia itte uan enpatxatu; geyegi jate ziyen. Geo asi'ttuban ura... entrenamentua jute'ttuk urakin. Ura ona dek. Izardiya ateatzeko ura ean biar dik.

– **Horregatik getariarrei jarritako bertso hau:**

“Txuleten partez alimentua
daukate lapa gordiña,
txalupa azkar eramateko
eztek jenero bikaña”.
Gabian amets egiten dute
ba ote diran gu gaña.
Iruditzen zait orixe dala
oyen ipurdiko miña.

Bazirudik, eta bertso honen esanetan, garai hartan txuleta zela gailen.

- Bai; ordun txuleta: dana txuleta uan. Gaurko eunian txarra ezte'pañõ, tamañan jan bier; geyegiyak bete itte'ik.
- **Gaur, baina: ura, berdura, fruta eta horrelakoak hartzen dituk kiroletako; ez txuleta, txuleta eta txuleta.**
- Ez; leengotikan baziok oain ortan prepaaziyua. Erramintakin ez bakarrik: nor bee alimentaziyuakin, prepaaziyuan gimnasiya aldetik... Ibiltzeko, ordun bai, mendia asko jute uan jendia, mendia jute uan: abittu, bide askuan jun gabe melokotoi azpin geatu ta exeita eon igual itte'men ittuan, esate yek; da itte'ttuan, gañetikan, melokotoya janez itzalian eon; “es ke”, geyegi nekatu-ta're... baño gaur obeto prepaatze'ttuk.
- **I, Joxe Antonio, ontziko arraunleku bakoitzak izango dik, ba, bere deitura?**
- Bai; aurrena juten dek patroya, denen atzian, popan; urruna, ankekua; geo urruna, baor-ankekua; baorretik urruna, mazusta esate zayok; ta geo, ya, gerrin; eta geo ezpalda; eta urruna aurrekalaya; oain, ezpaldeatu aurrekalayak itte'ik.
- **Ezpaldeatu hitzak zer esan nahi dik?**
- Ezpaldeatu det, ba: buelta allaitze'an garayian, arrauna puntatik sartze zayok ta laundu itte zioz patroyai buelta ematen.
- **Orduan, ezpaldeatze hori ontziak buelta azkarrago emateko egin ohi duk?**
- Azkarro buelta emateko. Oain, ondo jakin biar dik, da peligrosua dek.
- **Zergatik, arriskutsua?**

- Maña aundiya bier dulako: martxan aundin jute'k, eta oinbeste gizonen indarrak –an puntan– arraunak eaman lezakek goitik beera; putzua bota lezakek, bai. Ba'pañ geyo battuk, gaña, junda. Jakin in biar dik. Oain, entrenamentuk aurretik ortakoxe izate'ttuk; baño Donostin olatuba askotan nola baiton... olatun beti arriskutsubaua dek. Olatubak gañian arrapatze'un garayian, eundoko indarra jute'k, eta buelta emateko...
- **Arraunlari bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuta jarriko dituk ontzian, ezta?**
- Bai; ankekua oso inportantia dek; ritmua arek jarri biar dik: arraunketa arek artu biar dik eta ari seittu biar tze gañentzekuak; eta ankekua zein jun oso inportantia dek. Geo, anketik urrungoa, gerri aldea. Gerrin –leeno attatu deun bezela– or mutillik indartsunak: indarra geyena jute'an tokiya or izate'k. Geo, punta aldea, ua zeaua dek... geixio mui-tze'an tokiya; ta an'e, bueno!, ondo peatze'ana biar dik; jakinduriya biar dik eta gizon arintxiua pixka't: an, puntako, beti arintxiua. Ordun: aundinak jute'ttuk gerrin. Ankekua –leeno esan deuna– dakina, ritmua arek jarri biar dik-eta. Estropa bat jokatzin ari dan garayian, “mantxotzen ai gattuk” eta ritmua arek bixittu biar dik. Minutun pala bat geyo eo gutxiyo, ua oso inportantia dek ankekuena; da “erdikuak”, an, indarra.
- **Arraunak neurri berekoak eramaten al ditiztek?**
- Ankekuak leeno aundixaua eamate zin. Puntakuak'e itxasua nolakua dan; baño ez: geinian... geyenetan maria normala izan ezkeo, berdiñak.
- **Aurrez aipatu bezala, “Agiñak” arraunak hain maite izanik, arraunlari-harrobia gertatu duk. Non edo zein ontzitan parte hartu izan ditek hemengo arraunlariek?**
- “Agiña”ko jendia estropan toki askotan ibilli'ek, eta Oriyon batik bat. Geyenian izate uan bakarren bat eo bi eo iru Agiñako jendia Oriyon; da geo, ba, emendik kanpoa're ezautu'ixkit nik Donosti aldian jokatu'enak, “Txapel aundikin” da-ta ibilli zianian... Lasarte-Michelin... Soldauzka eon giñan garayian'e bai, Jaizkibelen izenian Donostiya ordezkatzuz... –ordun militar bezela jokatzu uan an, soldauzka pasiaz arraunian...–. Da gaur egun, gaur'e bazabiltzak kanpuan: urtero kanpuan beti izate'k, eta oaiñ'e bazabiltzak Oriyon; da Fuenterrabin bazabillek bat, Agiñako bat, oaiñ'e, da kanpuan baten bat beti izate'k; bertan nola eztakaun zeaikan... bertan nola ezton oain ontziyik, ba, kanpoa jendia jute'k, da ona dek jendiak deportia itteko; oso aproposa!
- **Hemengo jenderik gehiena, hortaz, Orioko tripulazioetan ibili izan duk, nahiz eta bestetan ere jende asko ibili izan den.**
- Batez'e Oriyon. Oriyo beti, maitia. Emen bertatik bertakua, Oriyoa.

- **Halako ezbeharren bat gertatu al zaiok hemengo jendeari arraunean dabilela?**
- Bueno, bai. Gaztiak giñala gouan zakat jai-atsalde batian, bazkalondo batian –batelian gu baño aundixouak baxitxabiltzan or–, da eldubauak etorri'ttuban, da aik batela biar zuela. “Ze in biar tzuen”, da Getaria jun biar tzuela txakoliña eatea Agiñatikan. Bostekua uan ordun: patro-ya bat eta lau tiaka. Eta aitatikan bat bauan igari etzakina.
- **Nor zen?**
- Martin “Luzia” esate xitxen. Martin “Luzia” oi Lertxundin eote uan morroi.
- **Eta besteak?**
- Ittuban danak: Martin “Luzia”, Benito “Isostei”, Andrex Ezkerrenekua, Joxe Miel Mapilkua “Bajute” ta Anastasio Ikutza.
- **Eta patroï lanetan?**
- Patroï uban Mapilko Joxe Miel “Bajute.”

Oik abittu'ttuan emendikan –Agiñatikan– Getaria jun biar zuela, ta Ori-yoko barran ateatzeakuan in ittuban ondoatu. Eskerrak jendia beira bazaken! Ordun batzuk jun txalupa batekin, txipiroitako txalupa batekin jun, da atea xixkiyen; da an uban Martin “Luzia” esan deun oi igari etzekiña. Eskapa aundiya in tziyen ordun, baño desgraziyikan ez uan gertatu.
- **Txakolina edateko gogoak aldegingo ziotean?**
- Txakoliña eateko gouak aldeingo xitxen. Da gouan zakat nik nola etorri zian, gaña; ostea nola etorri zian-da, beti erriyoixkiñan ibiltze giñun-da.
- **Aginagak zein urtetan hartu zian parte lehenbizi Donostiako kontxako estropadetan?**
- Kontxan attuba zakat nik, 1931 eta 32n artu ziyen parte.

Bertako jendia uban geina ordun; da ala zakau aitzea, ni neoni artian jayo'beia niñun-da. Ok emen ittuban jokatu zuenak:

Mapilko Praixku
Mapilko Kandido “Atrakas”
Mapillerrekako Joxe Antonio eta
Mapillerrekako Diburtxio (bi anai).
Emilio Ikutza
Ezpaldiko Xanti eta
Ezpaldiko Simon (bi anai).
Urruzmendiko Felix
Etxeberriko Felix eta



Kontxan, attuba zakat nik, 1931 eta 32n artu ziya lenbizi parte

Etxeberriko JoxeMai (bi anai)
Sooko Joxe Manuel
Miel Ikutza
Anastasio Ikutza
Patroi: Ataun "Txatua".

Suplentiak:

Illunbeko Felix
Bautista Xumeta
Simoneko Lukax
Manuel "Ortzaika"
Etxebesteko JoxeMai (patroi).

Bi urtetan seiran atea'men ittuan, da aurreneko urtian azkena ta bigarreguan bat utzi emen tziya atzetik; baño oso estropa onak in emen xixkiyen. Txirritak botatako bertsuak'e battuk ordun botatakuak, da ola esan emen tzin:

Lendabiziko Sanpedro zan da
sanjuandarrak bigarren,
irugarrena Ondarrabiya
Oriyotarrak laugarren;
kolka-txituak ziruditela
bata bestiaren urren;
danak arraunak jaso zituzten
amaika segundu barren.

Pasa bezela kontatuko det
ala ordena nuan-da,
Agiñagako barriyu ori
oriyotarren muga da;
bandera billa sayatu dira
Donostiyara juanda;
danen atzetik etorri ziran
norbattek biar zuan-da.

(Txirrita)

– **Garai hartan, Txirritak botatako bertsoak, orduan?**

- Bai; Txirritak botatako bertsoak. Geyo battuan, bertso geyo battuan, baño ok zazkau bakar-bakarrik gouan; da geo 1932n, ordun bat atzea utziya baziya; da oso estropa ona in emen tziyen.

– **Eta “Ataun Txatua”, patroia, nongoa zuan?**

- “Ataun Txatua”, Oriyokua; Oriyoko “Ataun Txatua”.

Baita bazekit, batian, bintzat, Ezpaldiberriko Joxe Antonio gaxotu in tzala, ta onen ordeiz Manuel “Ortzaikak” jokatu zula: bai, gaxotu in emen uan igande batetik bestea, gaxotu; ta aren ordeiz Manuel “Ortzaikak” jokatu emen tzin.

– **Sagardoa ere maite omen ziaten, ba?**

- Bai, bai; ordun eraya ofiziala ua uan: saardoteya. Nik attu izandu nin: Oriyoka jun entrenamendua –Marrotan emen uan saardoteya, ta entrenamendutikan geyenak oiñez eo biziklitan ibilliko’ttuan– da “Ataun Txatuak” aurrian artu, ta Marrotako saardoteya pasa arte ekartze’men xixkin Agiña aldea; bestela, saardoteya sartze emen ittuan. Mendizale’re battuan, baño mendia’re bialdu ona zala-ta, ta melokotoi azpin exeita jartze’men ittuan melokotoya janez. Neka-tzia’re eztek geyegi’re nai izaten, da batik bat tartian iñor etzuela obeto ibiltze’ttuan.

– **Gauza askotxoren zale, beraz, orduko estropalariak?**

- Zaletasun askokuak, bai: askozale eo danazale.

– **Aginagan, noiz sartu zuan aurreneko bandera eta nondik ekarri zitean?**

- Agiñan bandera aurrena sartutakua zeok Lasartekua, Lasartekua zeok. Gu –mutilkoskorak– artian ttikik giñala, Lasarten estropak jokatze’ttuban urtero.

Lasarteko bandera au iraazitakuak ok ittuan:

Etxeberriko Pelix,
Etxeberriko Joxe Juan eta
Etxeberriko JoxeMai (iru anai)
Patroi: Izozteiko Juan Joxe "Beltza".

- **Juan Joxe "Beltza" zuen osaba izango zuan?**
- Gue osaba, gue amen anaya. Danian sartzen zana uan, da ortan'e ibiltze uan. Laben arte ekarri'men tziyen oik leenbiziko bandera. Emen tziok, Agiñako sositadian zio, 1946yian iraaizitako aurreneko bandera.
- **Zuen osaba Juan Joxe arraunez itxu omen zuan, zaletasun handikoa. Etxean ere ontzi batzuk edukitzen omen zitian. Kontaiguk zerbait zuen osabaren gainean.**
- Nik ua ezautu nin, beno! Bai, zaarra bezela ezautu nin; baño arek eukitze xixkin batelak etxian. Beak eositakuak eukitze xixkin, da bee bitartez ibiltze'ttuan emen. Uan gizon bat, ba, asko gustatze zitzayona. Gustatuko etzitzayon, ba! Erriyoz beste aldian jayotakua uan, da ateara guztiya andikan in bier izate ziyen; da etxian eukitze zin arek batela, etxian batela eukitze zin: batelak eta arraunak eta... danak eukitze xixkin.
- **Hi, Joxe Antonio, jende asko al duk Aginagakoa Lasarteko estropadetan parte hartutakoa?**
- Bai; nik neonek ezautu nittunak -gu geoni jun izandu giñun ara're bizi-kletan-, da an jokatu zutenak esate bateako:

Etxeberriko Tomax
Antonimaiko Joxe Antonio
Lastolako Joxe eta
Lastolako Lontxo (bi anai)
Joxelontxoneko Imanol
Ezpaldiberriko Julien...
- Oik danak, bintzat, jokatzen ezautu ginixkin mutilkoxkorak giñala bizi-kletan junda.
- **Bizikletan joaten al zuan Aginagako jendea Lasarteko estropadak ikustera?**
- Bai; bizikletan jute giñun, da jendia franko, gaña. Emendikan asko jute uan jendia.
- **Trabesak-eta eginez, bizi-bizikiak izaten omen zituan horko estropadak?**
- Estropa guztik izate'ttuan bizik eta beti ikusteko antsiz beteta. Estropeta, leen esan dit, Donostiko estropeta jun izandu giñala emendik

oñez. Baita Donostia're jun izandu giñun bizikletan. Ya orduako bainix-kin amalau'at urte eo postur'oi. Artutxeneko Antton lengusuba ta biyok igande batian, Pazko euna uste'it zala, Pazko eunian beti treineilla izate uan Donostin-da:

- *I, bizikletan jun bia'iu!*
- *Bale, bizikletan jugo'attuk!*

Bizikleta zaar batzuk bagenixkin, da Donostia jun gattuk bizikletan; da “dirección prohibida”ik-eta zer zanik guk ez genitxakin ordun; da gu okereko bidetik “–dirección prohibida”tik– bagenetxiaztin or, Bulebar aldi ortan eo, ta, priiiiii jo zaiuk txilipituba. Ordun “zelaoria” esate genitxon, da bi ittuan. Da: “Aiba!, kristona iña izango'iu! Ze in ote deu!!!” Jun giñun, da esan xitxaiun:

- *A dónde vais?*
- *Regatas.* –uaxe bakarrik gouan, da regatas. Da:
- *Regatas? De dónde sois?* –galdetu xitxaiun. Da:
- *Aginaga.*

Batak bestiai esate xitxon: “¡¡¡Ya será algun barrio de borricos!!!”.

Bueltatuazi, ta an muella aldea bialdu genitxon da estropak ikusi ginixkin; da geo etxea abitzeko larriya genitxakan. “Baño, baño, billatuko'iu! Kotxiak nundik jute'ian, airi atzetik seika jungo'attuk!”. Eta ala billatu giñin ostea etxeko biria.

- **Ez zuan, ba, oraingo Donostia izango? Ttikiagoa izanagatik ere, galdu egiten?**
- Eskerrak kotxiak oain bezela etzian ibiltzen! Bestela, gu danai're kontra itten jungo giñun. Je, je, je. (**Farrez**)
- **Garai hartan, arraunetik ba al zegoan irabazirik? Ematen al zian dirurik?**
- Ez; txalua uari jotze ziyen, baño irabaziyik, ez. Gaur'e etzaketa artañoiko pillaikan; baño gaur, sikiera, zeoze eskuartian geatu itte zayek. Ordun, nik uste'it, arraunian zabiltzanak premiyotatik-eta, beak al tzuen bezela gastuk ordaintzen zittuela, gaña. Emen leenbiziko, nik attuba zakat, laguntza eman tzuna Usurbilko sositadiaz Andazpe: arek jantziyak eta gauzak-eta zeatu. Gastu asko izate'k: arraunak diala, jantziyak diala... Ta geo beti izate'k zerbatt'e medizina-gauza eta; baño leeno gastuk bee kontua itte xixkiyen: dana bee patrikatik.
- **Andazpe elkartek noren izenean atera zian tripulazioa?**
- Tripulaziya ordun atea ziyen “Usurbil”: Usurbillen izenian atea'ttuban agiñarrak eta usurbildarrak danak naastun.

- **Eta ba al dakik orduan jokaturako arraunlarien berri?**
- Dan-danak etzakit, baño gentxona bezela bazakit:

Sanistondikan:

Iñaxio Labaka
Portuko “Beltza”
Joxe Torrekua
Portuberriko Anttonio
Xanti “Xumeta”.

Agiñatikan:

Ezkerreneko Joxe
Errastiko Martin
Joxelontxoneko Imanol
Ezpaldiberriko Miel,
Ezpaldiberriko Julien eta
Ezpaldiberriko Erramuntxo (iru anai)

Usurbildikan:

Errebaltzikiko Bernardo
Olarrondoko Iñaxio
Jabier “Kapiyo”
Patroi: Ortzaikako “Trauko”.
Presidente: Txemi Larrañaga.

- **Eta zein urtetan jokaturako estropada izan zuan hori?**
- Oi, 1954bian.
- **Eta zenbatgarren egin zitean?**
- Usurbil, bosgarren: zazpi tripulaziotik bosgarren in tziyen. Ondo, ondo atea’ttuan.
- **Baina handik gutxira Aginaga eta Usurbil banandu egin zituan; gutxi iraun zian elkarketa horrek: bakoitza bere izenean atera zuan. Zer dela eta?**
- Agiña geo bakarrik atea uan 1956yian: Agiña bee kontua atea uan, da Usurbill’e bee kontua. Nik uste’ik oik pikatu in tziala eo ika-mika bata bestearekin eo zerbait olako; bata bestientzako bazuela zea... pixka’t.
- **Nor izan zituan ontzi hartako “Agiñako” arraunlariak?**
- Agiñatik jokatu zuenak, geyena agiñarrak:
Ezpaldiberriko Miel,
Ezpaldiberriko Julien eta

Ezpaldiberriko Erramuntxo (iru anai)
Joxelontxoneko Imanol eta
Joxelontxoneko Juan (bi anai)
Sariko Joxe Luis
Andres Bruño
Antonimaiko Joxe Antonio
Goikoetxeko JoxeMai
Ezkerreneko Joxe
Lastolako Anttonio eta
Lastolako Joxe (bi anai)
Errastiko Martin
Patroi: Ortzakako "Trauko".

Izango ziren ordun bata bestientzako pikia. Pentsa zak pikia izango zan o ez! Oain kontatuko'it gertaera bat: Lastolako atta -zaarra- trenian estropak ikustea zijuala, Usurbillen sartu emen nuan alkatia "Patto". Onek eskuartian zerbait bazamakila bai, an ikusten; da Lastolako attak (Kandidok) esan emen txitxon:

– *Ze damabilkik or?*

Ez esan nai, ta bandera eaman arek: usurbildarren koloreko bandera. Ta au ikustian, esan emen txitxon:

– *Eaman tzak, eamantzat izkutun; bueltan ala ekarri biarko'ek eta!*

– **Aginagak zein kolorekin jokutzen zian?**

– Kolore urdiña.

– **Eta Usurbilek?**

– Arek, gorriya.

– **Gero, hurrengo urtean, Aginaga aurrena: bandera ekarri zian Kontxatik. Emaiguk orduko berri.**

– Ordun ikusi uban, ba, 1956yian jendia bazeola ikusi uban. Ba, ordun, arekin, poza arekin da geo laguntzalle batzuk zeatuta, poztu in ittuban kuadrilla zeola-ta; ta 1957n bandera irrazi ziyen. Ordun baxixkiyen launtzalliak: Ortzakako Olidendarrak... eta bertako mutil-jendia ona're xitxon emen; da leendabiziko bandera, Kontxakua, ordun sartu'ban kontxako bandera.

– **Nortzuk zituan jokatu zutenak?**

– Treineru oi osatutakuak ok ittuan:

Ezpaldiberriko Julien ta
Ezpaldiberriko Erramuntxo (bi anai)
Errastiko Martin
Lastolako Anttonio

Joxelontxoneko Imanol
Antonimaiko Joxe Antonio
Bautisa Oliden “Konpaxa” eta
Anttonio Oliden “Konpaxa (bi anai)
Diburtxio Etxeberria
Juanito Lizarralde “Altxerri”
Alfonso (sanpedrotarra)
Mikel (sanpedrotarra)
Joxe Luis (sanpedrotarra)
Patroi: Ortzaikako “Trauko”

Suplentiak:

Joxelontxoneko Juan
Manuel “Iyarbe”

– **Zenbat ziabogetara jokatu ziaten? Zenbat buelta?**

- Pixka’t kostata ekarriya uan: bateko eualdi txarra zala, ta suspendittu; urruna balizak muttu ziala-ta, berriz suspendittu in ittuban. Azkeneko estropa, bintzat, ala jokatuba ziyen: iru ziabogeta jokatu’ban; baño errezi irrazi ziyen ordun.

Esan bezela, egualdi txarra zalako balizak muittu intziala-ta suspendittu in xitxazkaten. Geo aste-eunian, berriz, jokatuazi xitxen. Nik gouan zakat –mutilkoxkorrak, gaztiak giñun-da– emen zia bogakin: lau “largo” ta iru ziabogeta irrazi ziyen.

– **Estropa horretan, zenbat traineruk hartu zitean parte?**

- Or gutxi ittuban: Agiña, San Juan da Pasai Antxo. Iru bakarrik ittuban.

– **Gutxi, beraz?**

Ordun osatu eziñik ibiltze’ttuban, jendia osatu eziñik ibiltze’ttuban. Donostiko bi tanda osatzeko zortzi biar izate xixkiyen. Da geo, leen esan deana, laguntzalleik etziyen izaten: diruikan ez. Esate bateako, Agiñak leenbizi bandera ekarri zunian, nik attu nitxen bertako arraunlayai –batzui- patrikatik diruba jarri biar izandu zuela. Ta penaarriya dek!

Eun milla pezta uste’it zittuela ango diruba, ta oinbeste launen artian partittuta, nola ba!

Etxeberriko anekdota bat: Donostia jun biar estropa, ta autobusak’e paatu in bier, da Etxeberriko Joxe Joaneke –au jurauba uan– esan emen txitxon bee andriai:

- *Manuela, diru pixka’t eman biarko’iazu!*

- *Diruba zertako biezuz?*

Ta autobusa ta jendia eamateko patrikatan diruba jarri biar, da Joxe Juaneke:

- *Txoferra dirui’pe ezin bialduko deu!*

Ola entzun nin; patrikatan nola jarri zuen diruba.

Geo, berriz, ostea, beste batian, atea ittuan 60yian, da nik uste'it aspertu in tziala: artian ez baizeon; launtzikan etzeon. Bi bandera dia etorrik onea baño...

- **Hortaz, bandera ekarrita gero, ongietorri beroak bizkarrean txaplatekoak emanez; eta gastuei aurre egiterakoan, muturra beste aldera jira, borondate eskasena azalduz.**
 - Nik arraunlai batzui iri –Imanol da oiri– attu izandu zet, iraaizitako premi-yotikan diruba jarri bier, da oi tristia dek! Oinbeste lan in da geo, gañe-tikan, diruba beak jarri biarra...
 - **Eta esaten ditek sailkatutako iru aurrenekoak or nonbait moldatzen direla gastutako, baina hortik atzerakoak galerak izan ohi dituztela.**
 - Bai, bai; oi ola'ek.
 - **1960. urtean, trainerilako ligillan, Aginagak Donostiako Kontxatik ban-dera ekarri zian. Bazirudik oso indartsu zebila bi tripulazio osatuta.**
 - Ligilla ordun fundatu uan: 1960yian. Eta Agiñatik atea'ttuban bi treinei-lla: "A" ta "B".
- "A" tripulaziyan onenak izate'ttuban; bestian, berriz, kaskarxiauak. "A" tripulaziyan oso jende ona uan:

Joxelontxoneko Imanol da
Joxelontxoneko Juan (bi anai).
Ezpaldiberriko Julien
Lastolako Anttonio
Diburtzio Oliden "Konpaxa" ta
Antonio Oliden Konpaxa (bi anai).
Patroi: Klaudio Etxeberria.

Oikin, oso ona; onegiya bezela.

"B" tripulaziyan ibilitakuak o'giñun –neoni're barrun niñun-da–:

Ezkerreneko Praixku ta
Ezkerreneko Joxe (bi anai)
Mapillerkako Joxe Antonio (neoni)
Joxelontxoneko Euxebio
Manuel "Iyarbe"
Mapilko Patxi
Patroi: Ortzakako Joxe

Suplente:

Bautista Oliden "Konpaxa".

Eta emen esan biar dit, treineillan iraaizitako bandera onetan, Agiñak marka jarri zula; eta urte askuan iraun tzin marka orrek.

Esan ditzen bezela, oso ekipo ona uan. Gazte-jende oso indartsuba eta oso ona, gaña: marka jarri ziyen.

- **Hi, Joxe Antonio, Aginagak ba omen dik Zarautzen “ligillan” jokaturako estropada xelebre samarra. Zer pasa zuan?**

- Treineillan, bai; kuadrilla oso onakin.

Anekdotak bauan an: apustu ziala ta etziala, ta naiko abildare euki. Estropa jokatzeko asi, ta Oriyoi aurrea etxitzon itten; ezta Oriyok Agiñai're. Da Imanol kontuatu okerre zizuala, ta esan emen xitzon patroyai:

- *Klaudio, noa ua?*

- *Bai; oaintxe zuzenduko'it!*

Geo beek leku eamana izango zin. Ordun izango uan diruben gorabehera: batzuk diruba iraaiz nai. Da iñaalak jo emen xixkiyen, da segundoz batez eo pixka batez galdu; “manejarra” nunbait eon.

- **Manejarra? Zer duk hori? Zer adierazi nahi izaten da hitz honekin?**

- Dirua, dirua maneja zu nai. Diruba donian, “manejarra zio” esate'iu. Batzuk bazitxen diruba jokaturako beste aldea, ta... baakik.

- **Eta gero, urte honetan bertan, Aginagak badike beste bandera irabazia, Kontxatik beste bandera ekarria.**

- Bai, bai; ua're earra izan uan. Ordun'e jende ona xitxakan. Artian'e sasoi betian xitxen: 57ko jendia baxitxakan eta geo beste batzuk'e -berrik'e- baxitxiyen, da oso jende onakin. Agiñarrak Kontxatik ekarritako azkeneko bandera ua izango'uan, noski: irurogeikua.

Arraunlariak ok ituan jokatu zuenak:

Mapilko Patxi
Lastolako Anttonio
Joxe Ramon “Gaztelu”
Ezpaldiberriko Julien da
Ezpaldiberriko Erramon (bi anai)
Joxelontxoneko Imanol da
Joxelontxoneko Juan (bi anai)
Errastiko Martin
Almandoz (donostiarra)
Diburtzio “Gorriya” (Ortzaikakua)
JoxeMai (Zauztarra)
Bautista Oliden “Konpaxa” ta
Antonio Oliden “Konpaxa” (bi anai)
Patroi: Klaudio Etxeberria
Presidente: Andres Bruño.

Da, emen, marka jarri ziyen kanpoaka: kanpoako balizeta. Urte batzutan eon uban ua: “diez, diez”, amar da amar; da oso ondo. Esate ziyen oso ondo jun tziala, ta obeto jutia bazakela oaindikan; eta leengo ontzi zaarrakin, gaña, jarri ziyen marka.

- **Itxasoa bare egongo zuan?**
- Itxasua ona uan.
- **Eta txalupak, noren txalupakin jokatu zitean?**
- Txalupak artian –danak– C.A.T-ek: Centro de Atraccion y Trismo. Donostiyak jartzen xixkin danak: arek xitxazkan zortzi ontzi inda. Ta zor-teatuta bakoitzak beria ziyen, da neurriz danak berdiñak.
- **Eta ontzien neurketak nola egiten zitiztean?**
- Neurri yoik, ba: proatik popa zinta batekin, luzian; zabalerua, erdi-parian; altura're, antxe, erdiparian.
Baño ontzi yoik danak batek iñak ittuban: Oriyoko “Ixarrak” indako ontzik ittuban: Ikazetak. Urte mordo batian danak aikin jokatu ziyen.
- **Hi, Orio aipatu duk, eta entzuna al daukak bertako itxuarena: arraunen marraka entzunik tripulazioari antzematen zioana?**
- Attu izandu nin. Antzematen xitxon arek zubiyan eo muella-ixkiñan jarri, da ateatze zun marraka entzun, da esate'men tzin: “Aurten zeoze ingo'yek; aurten ekarriko'yek eo eztiyek”.
Marruba –baakik– arraunai fuerte tiatze zayonian-da: “Ñooo! Aurten zeoze ingo'yek!”. Ateatze zun otsa o marrakai tankera emate'men xitxon arek. Bea're arraunian ibiliya, da ez emen uban oker ibiltzen; arek esandakua or nunbait ibiltze'men uban. “Aurten irabaziko'ye o eztiye” ibiltze'men uban. Baxitxakan arek bee jatorriya.
- **Eta gerora Aginagan beste arrauntalde bat osatu zuan, eta hainbat garaipen lortu ere bai. Emaiguk talde honen berri.**
- Ara: agiñarren azkeneko banderak, berrik dittuk: 1979.go urtian. Iru bandera “bateletan” ekarri xixkiyen: bat Zumayan, bestia Deban da bestia Andoañen.

Or ibilitako arraunlayak o'dittuk:

A) Iyarbeko Joxe Leon,
Iyarbeko Joxe Iñaxio,
Iyarbeko Auxtin da
Iyarbeko JoxeMai (lau anai)
Patroi: Aintziko Juan Mari.

B) Iyarbeko Roxendo
Antziko JoxeMai ta
Aintziko Isidro (bi anai)
Urkamendiko Iñaki
Patroi: Aintziko Juan Mari
Prepaatzillia: Mapilko Patxi.

Patroi batekin bi tanda osatu xixkiyen eta oso indartsu ibilli'ttuan, esan ditzen bezela, estropak irabaziz.

Gertaera eo anekdota bat bezela, agiñarrok Andoañek bateletan organizatutako azkeneko bandera ekarri ziyen: presa bota ziyen, da geoztik eztek jokatu; “asi ke,” antolatu zuen azkeneko bandera Agiñan eongo'ek.

- **Aginagan, zein tokitan zegok?**
 - Agiñan dek. Zein tokitan etzakit, baña Agiñan dala bazakit.
 - **Gutziz ederra eta apaina omen duk esaten dutenez, ezta?**
 - Ikusi eztik in. Baño bai, nik aitzea ala dit. Estropa ikustea jun niñun, da estropan giñun: bandera ez giñin ikusi; baño estropa ikusten izan-
du giñun.
- Geo beste garaipen batzuk izandu xixkiyen “treineilletan”: 79. urtian, Hondarrabin, estropa irrazi ziyen; da aurreko errekorra autsiz, gaña.
1980. urtian'e ligillan atea ittuban, da baita estropak irrazi're: Lezon, Kontxan da Agiñan. Or ibillitako arraunlayak ok ittuban:

Iyarbeko Joxe Leon,
Iyarbeko Rosendo,
Iyarbeko Auxtin ta
Iyarbeko JoxeMai (lau anai)
Iñaxio Urkamendi
Joxe Miel Peñagarikano
Patroi: Mapilko Patxi.

Suplentiak:

Aintziko JoxeMai ta
Aintziko Isidro (bi anai).

- **Hi, Joxe Antonio, hemen badek beste arraun-modalitate bat arraunba-
karrean deitzen zaiona. Arraunbakarrean nola egiten duk?**
- Beno, arraunbakarrian alakin izate'k: bat arraunian jutek –bakarra iza-
te'k arraunian– da atzian polañakin, bestia. Arraun klasi oi izate uan,
ba, azkarro juteko: korrentai kontra itteko o anguletan-da (emen nola
asko ibiltze baizan), ba, puntuba arrapatzeko zein leno jun... Ortako
ibiltze uban arraunbakarra.

- **Orduan, arraunbakarrean ibiltze zuan, batez ere, nora edo hara ala azkarrago eramateko. Ba al da arraunbakarrean jokaturako estropadarik?**

- Bai; battuk jokaturakuak. Gue aurrekuak jokatu xixkiyen bi estropa Saikolatik Mapilla.

Aurrenekua: Pelix Etxeberrikoa eta Emilio Ikutzak jokatu ziyen JoxeMai ta Martin –bi anai– Sabekuan kontra.

Biarrengua: Brasiliyo ta Telleindiko Damasok, JoxeMai ta Martin Sabekuen kontra.

Geo, gure garayian, Patxi Mapilkua eta Gorriyak jokatu ziyen Joxe Kallabarro ta Antonio Txanken kontra.

Ok Marrotatik Ortzaika jokatu ziyen, da jende asko bildu ziyen.

- **Eta, nor zuan Patxi “Gorriya”?**

- Patxi “Gorriya”, beno, Klaudio Etxeberrien da anaya; Oriyoko Ortzaikakua.

Disputa ekarri’yek been artian, da arta jokatu ziyen.

Estropak beti izan dik emen alako arrakasta, ta ikusmin aundiya sortu ziyen, gaña. Marrotatik Ortzaika jokatu ziyen. Oso politta izan uan. Arraunbakarra guk orri deitze zeu.

- **Gaurko Aginagako gazteak polainean ba al zakik? Ibiltzen al duk polainean?**

- Ez; polañian oso gutxi. Azkenetakuak gu izango gattuk emen. Oaingo gaztiak etzakek. Pena dan bezela, etzakiyek: etziyek itten polañian, etzittuk ibiltzen-da. Polañian... gue garayian polañia uan, ba... laneako erraminta bat. Gaurko eunian etzittuk; etzek tiatzen.

- **Gaurko gazteak, hortaz, zaletasun gutxi errioiari?**

- Zaletasunik ez; izpikan’e ez: nik eztit ikusten. Gaur arraunian dabil-tzan askok polañian etzakiyek. Leen, garai batian, danak xitxakiyen polañian.

- **Ez al lukek guztiz tamalgarria, “agiñarro” hainbat esan digun eta esaten digun polain-kultur paregabe hau zeharo desagertzea? Ez al lio-kekek, bada, gaurko gateek eutsi behar?**

- Bai, dudi’pe; eta ikasi biar leyekek. Oi baño gauza sinpleuak eta gutxi-yo baliyo’uenak ikasiko’ixkiyek eta. Polañak, oaindik’e, bazek emen, Agiñan: alak, polañak eta danak bazek; baño etzittuk artatzen; etzek tiatzen: etziyek nai eo nayo’yek beste gauzeta. Agiñarrak diala gusta-tze zayek esatia, baño Agiñako otturak ikasi in bier lixkiyekek.

– **Eraginik izango al likek garai batean bezela sanpraixkutan estropadak jarrita? Zer egin beharko lukek, hire ustez, giro hura berreskuratzeke?**

– Ikasi, ikasi; ikasi in bier liyekek emengo ottura zaarrai eltzeko batik bat. Zalla ez uakek, baño eztittuk; ibiltzeko bakarrik izanda're, ikasi in biar liyekek. Arrantza jun nai baldin bau-eo... polañian ikastia gauza politta dek eta ona dek, gaña; oain askok jakiñ'e, igual eztiyek jakingo polaña zer dan, baño ikastia eokiya izango ukek.

– **Baina bertako jendeak errioa ahaztu xamarra daukanez, estropada batzut antolatzeak kalterik ez, ezta?**

– Oso interesgarriya, oso polita izango uke, gaña; “es ke”, emengo gauz bat dek –beno, emengua bakarrik eztek baño– emen tradizio aundiya izan duna. Garai batian, Oriyoaño jutte'ttuan da etorri're bai; da batzutan, arraunbakarrian'e bai; baño emen beti polaña izandu'ek.

Politta izango ezte'pa! Derrior politta, ta oso politta, gaña! Beira jarrita, oaindikan'e arrittuta geatze'ttuk gu polañian ikusita. Nola, oi!? Ze ite'-yo orrek!? Eta ola arrittuta, ikustian. Itte zayok, ba, elize bat balitz bezela atzian... Eta arrittuta!

Zaletasunikan ezti'u ikusten gaur. Akaso geroa igual asiko'ttuk. Asiko al dittuk!

Ohar honekin bukatu zuen Joxe Antoniok bere hitza: hasiko al dittuk! Kezkaren betean zirudien, baiña itxaropenarik galdu gabe. “Hain aldamen daukan errio hori, hain tradiziozkoa gertatu zaion errio hori, “Agiñak” ez dezake gal, zioen, eta horko tradizioak eta ohiturak, modu batera edo bestera, berreskuratuko ditu; eta horretan badut itxaropenik. “Agiña”k ezin izango du begieran daukan bitxi eder hori ezkutatu; eta luzaro gabe, jarriko da beraren zaletasun eta egarri”.

Hala bedi!

Aginaga, 2004

Gobadaharriak





Benito Aranburu

Denboa'tian, ez ain aspaldi're, gauzak etzian gaur bezela: bizimouba bestelakua zan. Gaurko adelantuik ez, eta dena eskuz eta erramintaz bear-tuta zeon bat ittea: segan, layan, itayan, eskobarian, da beste amaika gauzetan. Garai-garaiko adelantuk, eta gaur bezelako korrientiakin da motor-indarrakin etzan lanik itten. Baazpako bizimaña, gaurkua, ordukuakin konpaatuta!

Gue umetan, 1923 urte inguruan, artian etxe ta baserritan etzan urik. Etxetan ura sartze au ezta ain zaarra, bateonbat bestelakuan baldin bado're. Orduntxe -urte ortan- sartu zan ura etxetan, da ez nai aña: tellatuko urak aprobetxatuz, eta al'e naiko exkax, naiko urri. Neonek oain 80 urte in berri dittuk, eta mutilkoxkorretan, artian amabi nittula, zenbat ur-garrayo ez ote nun in! Auskalo!

Aldameneko itturria jute zan etxeko ur billa, eta guk, Agiñako elizaldekuok, Zumai izeneko lekutik ekartze gendun. Eltzekuak eta etxeko garbitasun biarrezkuenak itteko izate zan ur au. Istimu aundikua, ta etzan eozin mouz gastatzen. Mimo aundiz kontuin biarrekua, ta ala kontuitten zitzayon.

Lastola basarriya ta erriyo bitartian do Zumai izenekio toki yau, ta antxe zeon jarriya Zumaiko iturriya. Gaur desaertuba bado're, garai artako deposituba bikaiñ askua izandu zan, gañezkako urak jasotzeko bee egale-tan eo sayetsetan aska bana zazkala: bat ganauntzat eta bestia goara jotzeko.

Agiñan bazian beste ur-deposituk'e: Elux, Lastola, Ezpaldiberri, Mapille-rreka... Ba al daki'pa nik zenbat tokitan? Esan bezela, etxetan bier aña urik ez, eta erruz eta erruz zian –an da emen– dotore askuak bee kanilla ta guzti. Zenbateñoکو zerbitzuba ez ote zuen in etxeko urak osatu bitartian! Gaur ima-jiñatzeik ezto!

Lentxio itz bat aipatu'et: goara. Gue gazte denboan, askotan da askotan erabiltze gendun goara itz au, ta gaur gutxitan ibiltze deu bee izenik. Baztertu xamarra dakau, zearo ezpa're.

Lastolako istillau pare-parian, erriyuan bertan ba'a goarrita izeneko leku-ba, ta auxa esan nai du: goara jotzeko arrik den tokiya. Ni neoni ikusiya naiz paaie ortan goara jotzen. Erriyua juteko eskaillerak jetxi, ta antxe ibiltze zian zango erdiañoکو uretan sartuta goara-lanetan.

Zeni esate geniyan goara? Ze esan nai du itz onek? Erropa garbitzeari deitzen geniyan goara. Orduko erropa-garbitzetak etzian gaurko berriketak; etzian txantxak. Gaur eunetik eunea garbitze'a erropa, ala nai izan nai ezkeo bintzat: zikindu bezela labodoran sartu, ta kitto! Beak itte'u lan guztiya, esa-teko; baño ordun... Ordun guztiya eskuz in bier, eta gaur den garbitzeko ain-beste produktoi'pe, gaña: potasa-autsa, jaboya eta lejia besteik etzan-da, gue sasoi artan. Gue goantzin etzan beste produktoik, eta ok ondo-ondo kon-tuin biarrekuak; ezpaizan moduik noiznai eosteko. Etzan sosik eo diruik nai zaneako, ta juxtu antxian bizitze zan ordun.

Agiñako Gaztelu bertsolayak baka goaren gañian botatako bertsua. Bein batez, andregayakin billatuta onela bota emen tziyon:

“Astelenian goara ekarri
astiartian jotzeko;
asteazkenian, komeni bada,
egualdi ona legortzeko;
osteguna da siñalatuba
berriz entregatutzeko;
kandelarioz libre zerade
nerekin pasiatzeko.”

Asteleneko goara biltze beeinkatuba! Amaika esan eta marmar sortutako goara! Aurrez esan det, eta berriz'e esango'et: gue ume-bizitza artan, artian etzala etxetan biar aña urik, eta, jakiña, bertan ezin erropik garbittu.

Gazteluren bertsuak oso ondo esate'un bezela, asteartia izate zan goara jotzeko euna: astiartero-astiartero, goara-euna. Koloretako erropa, geyenian, urik bazan biñipin, etxian bertan garbitze zan; da goarritan, berriz, txuiya. Agi-ñan biñipin ala izate zan.

Izate zan etxetan kuela izeneko ontzi borobilla, erropai aurreneko garbitasu-na itteko erabiltze zana. Kuela au barrika motz baten tankerakua izate zan, bee uztai ta guzti; gaña tapik gabia –irikia–, onduan biatz-mutur mouko iru txulokin. Txuluok lixiak-eta aldeitteko izate zian; da, jakiña, lixiak-eta ez aldeitteko trapu-



Agiñan bazian beste goarrik'e...

muturrakin ixten zian, ala nai zanian biñipin. Iru anka zittun: iru oolen gañian eoten zan; oolok bestia'paño ogei bat zentimetro luzeauak zittulaik.

Astelenian sartze zittuen kuelan erropak, urrungo eunian goara jotzeko. Bertan erropa txuiya jartze zan: aundinak onduan da ttikinak gañian.

Ur epeletan beatzen zittuen lenbizi, geo beruauan, da azkenian irakiñetan.

Lan guzti yau etxian itte zan goara aurretik. Udara aldian jotze zan goara, ta mariari erreparatze zitzayon. Mariaberañ jotze zan erropa beti: goizian bazan goizian, da arratsaldian zanian, arratsaldian. Beatutako goara zestuan eo zinka zabal batian sartu, ta burun zapi'at erroskilla moun jarri babesgarri, ta onen gañian eamate zuen erriyoa. Gutxi-geyo mariak ola izate'ia: lau ordu gora eo azten, beste lau beera eo jeixten, da beste lau geldiantxian. Geldiantxi au aprobetxatze zuen erriyuan goara jotzeko; ta aurrez esan bezela, udapartian bakarrik.

Beste urtegaraitan Zumaiko depositun jotze zuen. Zumaiko depositun bazian iru goarri, ta oaindik'e an eongo'iala iruitze zait lurrak tapatuta; lurrak kendu biar bistatzeko, agirin jartzeko. Erriyokuak, berriz, bost zian; da ujalak eaman eo deseingo zittun, nee uztez. Etzait iruitzen erriyuak jasota eukiko'ttunik.

Erriyokuak arrilosak eo pizarra antzekuak zian. Zumaikuak, berriz, ormi-goizkuak, leun-leunak.

Agiñan bazian beste goarrik'e: Mapillerrekan-da, bazian beste goarrik. Denboa jun aala ta etxeko urak osatu aala, etxero ezpazan'e, asko ugaritu zian: nor bee egokieran jartze zian etxe ondota. Gaur eun, ezta iya iñun ikusten; desaertu xamarra'ia iya danak, an da emen aleka'atzuk ikuste battugu're. Gaur ezto ordungo kontuik: gaur labadorak jate'ttu ordungo neke ta ibillera tristiak; eta danontzat obe ola, batez'e emakumientzat.

Makiña't lansayo in tzuen lan ortan ordungo emakumiak, erropak artu ta zarta-zarta arriya juaz. Aldika biurrittu'at eman, da segi astintzen da astintzen, garbi-garbi ikusi arte. Zenbat ez ote zuen sufrittu gaxuak! Pentsatu utsak'e eztaikit ze emate'iten!

Beste aldea beiratuta, aukera politta izate zuen etxe-zulotik ateatzeko; eta, tia!, momentu politta izate zuen kontu-kontari aitzeko: bata bestien kontuk aitzeko. Earki asko jorratuko zittuen ango ta emengo kontuk! Eztek uste iñor salbatuko zanik. Ez oixe!

Danen gañetik, al'e, bazittuen bai merituk; bi ta iru ordutan ankutsik ala aitzia, etzan bromakua; ta, noski, makiñat sufrittu biarra izango zuen.

Goatze naiz ordungo pasaizo bat: izai batek, esandako erriyoko goarritan, emakume'ati zangotik eldu ziyon. Zanga-zanga ta zupa-zupa ai zitzayon zañetik, lori-lori in arte, odola eaten. Bee aldamenekuak abisatu ziyonian, a ze festa! Kurrixika asi emen tzan, da ez emen tzun onik izan atea bitartian. Astindu earrik artuko zun aren barrenak! Ikustekua izango zan!

Makiña't olako pasako zittuen gaxuak, baño danen gañetik au esan biarra dakat: beai esker izate zala ordun, etxeko ordena ta garbitasuna. Ai'pe guria ze izango ote zan!? Jakin tzazu!

Aginaga, 2003

Izkireta





Evaristo Pikabea

Ganban antzekua da ixkira; baño tamaña txikiyokua: ttiki-ttikiya ta goxogoxua. Tradiziyo aundiya izan du Agiñak ixkiretako. Noiztik arrapatze'an? Ba... jakin tzazu! Guk gue aurrekuak ala ezautu'iñun, da ok gauza bea esate zioen; ortaz, auskalo noiztik!

Beez, oso ugariya da ixkira. Ixkiran arrautzak ezto juzgatzeik, ezto kontatzeik. Tripan azpin eamate'ttu igual bosteun, igual milla, pea-pea inda, txiki-txikik. Mayatza aldea jartze'a arrautzakin; da eualdi onak baldi'maia eo bero andik ba'ia, juniyo aldian azaltze'a ixkira zorriya: ur-axalian-da, ur-baxtarrian-da...

Ixkiran arrautzai "arraba"-re deitze zayo, esate zayo. Ixkira-zorriya, berriz, ixkira ttikiyai eo ixkirakumiai deitze zayo. Geo andik illebate'atzuta azten-azten jute'a, ta ixkira itte'a.

Ixkira -erriyuan- ezta aundi-txikin tamaña berekua izaten. Beez, zenbat eta goro ta txikiyaua ta beraxkaua. Oriyoko barra aldian -beian- askoz'e aundi-yaua ta bixiyaua izate'a: beste brillo'at izate'u orko ixkirak; eta saltzeko're beste presentzi'at izate'u. Ur gazikua gorri-gorriyaua ta gorraua izate'a.

Udazkenian, barran arrapatze'a ixkirik aundina; ganba antzekuak'e bai, ale'atzut: kilo gutxi, baño onak.

Oso gazte giñala jute giñan Agiñatik Oriyoko barra ixkira arrapatzea; brian batek polañian in, da bestiak salabarduan jana jarritz. Gaur obra aundik

iñak daude bertan, da ezto ainbeste arrisku ixkiretako: urak earki baretu'-ttue. Baño oain dala bost urte're arriskuba izate zan ara jutia, ta itxaso zaka-
retan kontu aundiyakin ibilli biar izate zan.

Gu gazte giñala bazan an oso larri ibillitakua: Sanixtongo Zabalea baserri-
ko Eustakio Pagolakin goatzen naiz. Mariagora asi zunian, barran olatuk blist-
blast goitik jotzen asi zian; da alak ttikik, eta ura barrua sartzen; da izan
zittun naiko lanak. Sartu zitzayon ordun ezurretañoکو bildurra. Leno're eskar-
mentu bazun arek. Arroka junda larri asko zaurituta ekarritakua zan etxea,
leno're.

Ebiya asko itte ba'u, ura arrotze'a; ta ordun ixkira ezta sartzen salabar-
duan, eztulako aitzen janik; alperrikako jorna ingo'zu arta. Izate'ia jelako
eunak'e, ta ordun ixkira gutxi, baxtarrian; ordun ur-zulota bota bie'ia salabar-
duak, eta igual ateako'zu; arrixkuba galanta pilla ateatzekore, ur epelea jetxi-
ta eote'a-ta.

Ixxirak'e battu bee etsaiak: etsai asko'ttu. Esate bateako: amarrak, kor-
koyak, lupik eta... Orreatik gora ta gora jute'a iesi.

Bein batian, jun giñan nee laun Patxi "Justo" Kamino ta biyok. Bota salabar-
duak, eta subia arrapatu gendun. Aingira zalakuan zalapartaka asi zan ayazten:
"Au dek au aingira arrapatu deuna!" Baño geo kaja bota zunian, ordun komeri
latzak!: subia, bizi-bizi!



Ixxiretako salabarduak biar izate'ia, ta ok arpillerakin iñak: zaku illeuna.

Batzutan, oso gutxitan, olakuak pasa itte'ia; baño ixkireta arrantza oso politta'a.

Ixkira gatzuretan maniatze'a. Beez, ixkira makala'a; ezta bat'e bixiya; orreatik -uretan eosteakuan- gatzu sueto bier izate'u, geo jateakuan bixipuntuba izateko. Iru-lau minutun ur-irakiñetan euki, ta atea geo mai gañea; ta xabal-xabal jarri zapi'aten gañian, leortzeko eo oztutzeko.

Gaur eztakit, baño garai'atian ondo saltze zan ixkira. Oain bost-sei urte inguru milla peztan'e bai, kilua. Arrantzaliak beitako're ibiltze'ue: gusto-kua'ue. Ortako konjelatu itte'ue bizi-bizik, geo bie'uenian amutan jartzeko.

Agiñako erriyotik aparte beste tokitan'e arrapatze'a ixkira: Oikinako erriyuan, Ondarrabiko aldiari, da Debako arroketan-da... baño oitan, nik aitzea, emen baño gutxiyo.

Nik dakiala, bintzat, eztet uste ixkira beraik (**bedarik**) izan dunik; egiya esan, eztakit. Baño onen gañian auxe eman nai det: arrautzakin eo arrabakin beteta don garayian, ez litzakela arrapatu biar. Arrautzakikuak arrapatuta, geo nola ugarrittu ixkira!? Ixkira arrapatzeko garai onenak: aguztua, agorra ta urria'ia.

Gauza guztik bezela, ixkirako ba'ia sekretuak eta teknikak. Ortako salabarduak biar izate'ia, ta ok arpillerakin iñak: zaku illeuna; arizkuak eztu baliyo. Zenbat eta geyo ibiliya izan ixkiretan, ua ta obia.

Salabarduak ezta izaten danak tamaña igualekuak: batzuk ttikiyauak bestia'pañu; baño jenealian olakuak izate'ia: berrogeta amabost (55) diametro inguruko uztaya, amabi (12) milimetroko barillakin iña. Oni, bueltan-bueltan, zaku-tela eo arpillera joste zayo metro quadro ingurukua; ta, ola, sukaldeko txino-forma bezelakua artze'u, beerakaldea zorrua ateatzeko zayola. Uztayai bi soka lotze zaixka gurutzatuta; eta, otan, jana jartzea lotuta barrenen. Metro inguruko beste lau soka-mutur lotu uztayai, ta ok beste amar metroko soka bati lotu, onekin salabardua nai danian gora ateatzeko. Soka luze onek -muturrian- kortxua eo plastiko txuriat eama-teu, salabardua ur gañian ikusteko ta nun don jakiteko beti. Beste kortxua eo plasztikua're eamate'u, soka luzea beste lau sokakin lotutako ortan; eta, ola, salabardua ez beste, dana aidian eon dein.

Esan bezela, salabarduak jana eamateu; jana eo beita jarri biar izate zayo ixkira arrapatzeko: txitxarrua, korkoya... baita atunari tripak-e. Atunburuak eztu nee itziako ainbeste baliyo, usaya bela galtze'u-ta.

Butroyakin'e ibiltze'ia batzuk ixkiretan. Toki jakiriñetan jartze'ttue, ta urrun-go mariaberan jute'ia biltzea; ta arta arrapatze'ue bat'e nekei'pe.

Ixkirak battu bee lekuk gusto-gustokuak gustatze zaixkanak: arri eo arkaitz asko don lekuk dittu beriak; or izatea geyenetan. Egualdi berotan, ordia, lurra-re jotzeu: gogozkua'u ordun sastraka eo arbola zaarra erriyuan eroitakua. Udazken beruan -gosiak bultzata, nunbait- oita jute'a amorruz jan-billa.

Nik esango'anu, erriyuak dazkan ixkira-leku onenak o'dia: Botaleku, Saikola, Sariko learra, Upeletei, Intxorretako arraldiya, Errekabi, Errekabiko learra, Mapilko arraldiya, Aitzekorre, Altxuta, Goiko learra, Enaluz, Txorkua, Ilunbe aldia eta Txokoaldeko zubi ingurua-re naikua da ona: ur-bizitan iyo-tze'ia orreaño.

Leno esan dek Agiñan beti izan dala ixkireta-ko zaletasuna; baño zaletasun ortan naarmendu'ianak izandu'ia famili eta gizonak. Xoxa'tzuk ateatakuak-e bai, galanki sayatuta. Barkatu utseitiak, baño ona emen batzuk izendatu: Mapilko Baleri ta Praixku; Lastolako Kandido ta bee semiak; Etxeberriko Pelix, Joxemai, Joxe Juan eta Tomax -eta au oaindikan'e sayatze'ana-. Mutizalko Borttolo (onena esago nuke baño) dudi'pe onenetakua bea.

Gue aurrekuak eztakit nola izango zian, baño gue sasoyian ixkereta onak itte zian. Eunez baño geyo arrapatzea gabez: gabeko illargiyak geyo muitezu ixkira. Igual amabost-ogei kilo gabian; da eun-argitan, berriz, bost-zazpikin konforme.

Oain bukatu'ia kontuboik. Geo ta gutxiyo do. Motorrak etsai biurtu'ia erriyoako. Anguletan dabiltzan arrasteruak biltze'ue dana: ur-zulokuak eta axalekuak. Argi ta garbi ikuste deu. Gaur -gau osua pasata- iru-lau kilo biltzeko komeri latzak. Bai oixe!

2003

Hondarreta





Mapilko Patxi

Mapil. Mapilko istillaua, Mapilko ima, Mapilko zingira, Mapilko legarra, Mapilko hondarrak eta abar, eta abar Mapilko. Kontzeptu asko ditu erriko honek Mapili lotuak. Gaur-gaur berreraikia badago ere, garai bateko basarri zahar ura zait gogora, erriozkin eta bakarti; hainbat belaunaldi jaso zituen baserrietxe apal hura, beti erriolari begira zirudiena, beronen zaintzaile bailitzan; eta Patxi, guretzat Mapilko Patxi, hementxe jaio zen duela hirurogeta lau urte; eta ordutik hamaika aztarrika egina: bai aingiretan, bai lupitan, bai anguletan... eta zer esanik ez hondarretan; eta gaur hondarretari buruz hitz egingo digu, batez ere.

- Noiztik hasi hintzen erriko lanetan edo jardueretan, eta zer izan da hiretzat erria?
- Ni erriyo-lanetan asi nintzan attonakin aurrea. Gustatu're itte zitxai'un, da lupitan. Bakaziyuak eo eskolatikan eskolik ez eo olako zerbait baldin bazan, attonakin lupita. Oi gustatzen zitxaiun, da multi-koxkorrak gustoa attonakin: lupia'tzuk arrapatze giñun da or ibiltze giñun attonakin.

Attonak lupik izate zittun saltzeko. Atonak saldu –ama beti jute zan Donostia– ta lupi'atzuk ateatze bazittun, oso ondo! Pentsatu oliyua benik ekartzeko... Ta ola asi nintzan. Geo amairu urtekin (1952n izango zan) asi giñan ondarretan; ordun'e attonakin. Attonakin gutxi ibili nintzan. Oain, proatu nun attona. Lupiya ateatzen da ibiltze zan: goizo jun da lupi'atzuk arrapatu... ta ondarra ekarri... ta euna ola pasatze zun.



Mapil. Gaur-gaur berreraikia badago ere, garai bateko basarri zahar hura zait gogora, errioiakin eta bakarti...

- **Baina, Patxi, nik zuen attonari buruz entzuna zaukaat handizale zela. Esateko: hor, Mapil aurrean, lupi ttikiak edo tamainakoak nahi hainbat izan, eta urrutira joaten omen zela handiagoen bila. Egia al duk?**
- Bai, egiya da; zeatik ez, lupi ttikiyak etzun baliyo saltzeko. Etxian jateko konpaaziyo'atea bai; baño saltzeko etzun baliyo; da, ordun, lupi ttikiyak graziyik etziyon itten. Lupi ttikin bat ateatzen baldin bazun, alan kos-tauba jo, ta "mekauen-puta-koño!" esango zun, da ostea putzua; etzi-tzayon gustatzen ttikiya ateatzeik. Dana ortxe... librako lupiya eo libratik gora eo orko klasi oi gustatzen zitzaion: ortan sayatze zan, bin-tzat. Nik, berriz, erdiya izan ezkeo, ttikiya izan ezkeoz'e, dana barrena; arek ez. Eta ala ibilli giñan pixka't.
Lupitan ni... etzan esfortzua; zeatik ez, arek auskalo noiztik! Eztakit nik oi, baño erriyotik jate zuen aik beti: lupiya, ixkira, angula, ondarreta tarteka... eta ibiltze zian. Aik erriyotik jate zuen. Guk geonek'e geroa, urte mordoxka'tian, ala jan gendun geonek'e: gu're ixkiretan ibiltze giñan, lupitan ibiltze giñan, aingiretan ibiltze giñan, anguletan ze esa-nik ez –angulet'oi erremeyoi'pekua zan– da ondarretan.
- **Ixxiretan-eta, gazte-gaztetatik hasi al hintzen?**
- Bai; gaztetik. Amairu urtekin asita ixkiretan ibilli nintzan amazpi urte arte: ondarreta, ixkira, angula o... Aingireta gutxina: aingiretan ur arria-kin ibiltze giñan. Urkargak zianian ondarretako giroik etzan izaten, da ordun aingiretan ibiltze giñan.

– **Eta ixkiretan, hemen ibiltzen al zineten?**

– Barran, barran ibiltze giñan.

– **Zuek, ordea, Mapilko harraldia deritzan hau ixkiretako hain ona izan da, zergatik ez zineten hemen ibiltzen?**

– Bai; baño urak gu zeatu giñaneako, gu etorri giñaneako, urak beztu zamarrak zian emen: beztuk ittun eta ixkirik ez uan; gutxi uan emen ixkira. Ordun, barra jun biar izate giñin.

Attona bai. Ni goatze nok nola attonak bee alaba Florentinai esate ziyon:

– *Zenbat ixkira atea bia'ñat?* –galdetze ziyon. Da:

– *Ainbeste kilon pedidua'kat.*

– *Bale! Ateako'ixkiñat oik!*

Da jun, aik atea –pedidua zuna– ta etxea. Aber, ba, ixkira bazan o etzan ordun! Erriyua ixkirez beteta ordun.

– **Noizkoa duk hondarretako tradizio hau “Agiñan”, eta nondik ekartzen zenuten hondarra?**

– Ondarreta noiztik dan nik etzakat esateik. Guk ondarretan zabillega ezautu'iñin jendia, basarritarra, bintzat. Obretako aurren xamarrekuak gu izango'iñun; zeatik ez, obretan –goatzen nok ni– gue atta asi zala aurren xamarretan: kamioi koxkor bat bazin da arekin ondarra partitzen. Eta geo, andik segiran, uan Ingemar: berri-berriya in uan, da arriya moztutze-ko bier izate ziyen ondarra, ta arentzako eamate giñin: arentzako, obretan beste pixka't eta... Askok ez giñin ekartzen, da asko saldu're ez.

Baño ola ezautu giñixkin: 1952n asi niñun ondarreta, ta orduako baxitxabiltzan, baño basarritako. Baaa... tanker'ortan: 1950ko bueltan o amaikian, or izango'ek obretako asi giñala ondarrakin; zeatik ez, aurren xamarrekuak gu giñun.

Basarriako bai. Usurbillen'e ezatu'it nik zeako ortan, Intxospeko zuluhan, ondarpilla; ta Sanistebanen ze esanik ez: Portutarrak, Xumeta-tarrak-eta, oik ibiltze'ttuan.

– **Honekin esan nahi duk hondarra ekartze hau “Agiñan” bakarrik ez zela.**

– Agiñan bakarrik etzala: Ortzaikatik asi, Oriyon bertan'e bai, Dikekuak'e ezautu'ixkit ondarretan, Salmastei... askotan etortze'ittuan Saikola, Mapilla amar-zortzi ala igual, Sanistona Portukuak bintzat ibiltze'ttuan –Eustakio geatu'be batentzako ta bestentzako ta etxeako– ta abar ibiltze uan. Itzaukuak eamate ziyen beste'atzutan eta Isosteikuak'e bai, eta ok Itxospea're eamate ziyen usurbilkuentzako...


Usurbildarrak ezautu'ixkit Mapilla etortzen irikin. Ezautu'ixkit nik: etorri bi iri-parekin da bi karrokin; da aurrena karro'at atea Mapildik kamiyoa-ño, ta geo eantsi beste karrua iriri ta bestia atea; ta geo pare banakin

bi karro jute'ttuan. Goizian goiz asko etortze'ttuan Mapilla ondarreta Usurbildik. Bizkartxotikan'e ementxe etortze uan. Ondarretan nik ezautu'ixkit oik danak: Kapozkuak-eta... oi danak.

Ordun ondarretak indar aundiya xitxakan. Nik ezautu'ik zezena uzteatik –ordun basarritan kontalak izate'ttuan–, zezena uzteatik alaka ondarra eskatze zuen garaya. Ordun ixtimaziyua zin ondarrak.

- **Patxi, hik esan duk hondarretan hasi hintzanean, jendea oso indartsu edo ohitua zegoela hondarretan. Zuen attonen aurretik ere hala al zuan? Ez al zian horrelakorik ezer aipatu?**
- Etxitxaiian nai attonak leen noiz asiya zan-da, olakoik sekula kontatu. Seguru asko gue attona baño leno ez uan izango, bea're aurreko xamarrekua uan-da; baño igual? Zeñek zakik?: alak, bintzat, zaarrak ittuan emen; da “ala” baldin bazan da ondarra Torretxon, etzeok ze esanik! Balitekek ekartzia ta enikek esango ezetzikan.
- **Ikusirik hondarra azpitako ona zela eta lurra askatzeko guztiz mesedegarria, aurrekoek ere ekar zezaketean?**
- Igual, igual; leiken'ek oi. Nik etzakit esateko noiz asi zian. Obretakua bai, oi garbixaua zakat gu asi giñala aurren xamar. Aurrenekuak ezpagiñan'e, aurrenetan giñun.
- **Eta hondarra zerekin ekartzen zenuten?**
- Ondarra alakin ekartze giñin. Alak gabarra ttiki batzut dittuk: zazpi metro t'erdia luze, ta metro t'erdia bat zabal. Punta-puntaño beteta ekartze'inixkin. Torretxoño jun bier izate giñin. Oriyoko zubiya pasata're, biaje politta zio andik beera, ta an kargatze'iñin karretillez. Goyen ondarra eote uan leorrua, ta urik ez giñin ekarri nai izaten: ondarra ekartzea jute'iñun gu; ez ura. Ta, goitik, karretillakin leorra kargatze giñin.
Karretil zaar batzuk baginixkin errueda burnizkuakin, bultza ta bultza ta jute etzian oitakuak, ta aixekin moldatu biar izate giñin. Geo, kargatzeko karretilla, Balentin Perretzenekuak juntatu zin errueda bat gomazkuakin; ta karretilla uzteatikan ala kargatze'initxon beai, ala kargatze'initxon. Pentsa!, aldein itte xitxaun karretilla arek. Geo lortu'inixkin guk'e errueda gomazko karretillak, baño ordu arte erruedak burnizkuak ibiltze'inixkin. Gue bizimouba olakoxia uan, lan galanki inda!
- **Burnizko erruedakin, jakina, ondarretan gaizki ibiliko zineten?**
- Klaro! Beera sartze uan, da zeñek eaman! Bultzata're ez uan juten.
- **Balentin en errueda gomazko karretilakin berriz...**
- ...Bee gixa, bee gixa jute uan; aldein itte xitxaiun karretillak.

- **Orduan, zuek kontentu eta hura ere bai.**
- Bai; ala kargatze'initxon beak karretilla uzteatikan.
Geo -esanda bezelaxe- juntatu'inixkin guk'e, Ingemarretik eta abar, karretillak gomazko oitakuak: bela juntatu'iñixkin. Da, jo!, ala errex kargatze'iñin ordun! Lau milla kilo ondar izate'ttuan da iru m³, ta lau urtian ortxe ibilli giñun tipo orta.
- **Zuek ezinbestekoa omen zenuten marearekin lan egitea. Marea omen zenuten zuen agintaririk zorrotzena ondarretan ibiltzeko. Zergatik?**
- Guk mariakin ibilli biarra genitxakan; zeatik ez, uren kontra etzitxon ekartzeik: marian beerakuan ondarrrik etziok ekartzeik Oriyotik onea. Ittoko giñun, itto're!; zeatik ez, aurea etziok itteik uren kontra oinbesteñeko korrentakin. Ordun, jute giñun marien alde eta etortze giñun marien alde; orreatik pasa bier izate'inixkin zortzi-beatzi ordu, marien zai eoten giñun askotan-da; ta, geo, biria luzia're bai: polañian andik onea etortzeko erainda etortze'un ala; ta jun'e beste orrenbeste. Aize pixka't baldi'ma-ta... baztarrea botata atea eziñik ibili izandu giñun, bazterrea botata atea eziñik alak.
- **Ez al zenituzten tolder batzuk ibiltzen hondar gainean, haizearen bultzadaz baliatzeko?**
- Bai: bagiñin “bela” eo esate xitxayon oitakua. Zakuzkua uan da laundu itte zin; baño askotan ba al dakit ze izate'an?: gu gora etorri biar, da aizia kontra; ta ordun belazia itte uan kendu da erain alai; da alaxe ibilli giñun lau urte oitan; da ordun motorizatu in giñun pixka't.
- **Eta mariakin ibiltze horrek ze eragin zian batez ere lotarako? Neketsua al zuan hondarreta? Zer zuan hiretzat nekagarriena?**
- Ondarretako gaztiak, eta bastante errez ibiltze giñun; baño nekia, dana nekia besteik eztik ondarrretak!: dana nekia! Nekia ta bildurra... danak izate'ixkit!
Ala kargatze'iñin lau zentimetro arte: lau zentimetro koska uzte genitxon. Da “baporia etorriko al da”...? Beti bildur oi izate giñin. Da etortze baldi'mazan, olatuba armatze zin da ondoa juteko arriskuba. Aizia pixka't ekarri ezkeo, olatuba jotzeik da ondoa juteko arriskuba; da beti bildurak ibiltze giñun. Batetik lana goorra ta bestetik bildurra zin ondarrretak -gue ondarrreta klasiak, bintzat-. Muturreaño kargatu biar izate giñixkin alak.
Batian bapora'at etorri uan (San Juan), da ona uan patroya: gizona ona uan; da mantxo-mantxo pasatze xitxaiun beti bapori orrek. Ta:
 - “San Juan” emen dek!
 - Ba, “San Juanekin” etzakau kuidoik!



Ala kargatze' iñin lau zentimetro arte: lau zentimetro koska uzte genitxon

Da ola etorri uan pareta, mantxo-mantxo, ordun'e beti bezela ua; ta kanpoa atea uan patroya, ta uju in xitxaiun:

- Geyo ez al xitxon, geyo?
- Bai, geyo bazeok oaindik'e! –kontestatu genitxon–.
- Eunen batian geatuko zeate barrabillez gora –kontestatu xitxaiun.

Ji, ji, ji, artaño kargatuta geunden! Baporiakin arek ikuste zun. Beste'a-tzuk... ondoa're bota bai, baporiakin; ta oitakuak'e izate zian. Aizia-kiñ'e ondoa jun izandu giñan, da igari atea bier; da dana txarra'u ondarretak, dana txarra! Giro earretan ondo, obeto ibiltze'iñan giro onetan, bai; baño urte guzin ondarretatik jan biar baldi'mazan, ibilli in biar izate zan giro txarrian'e; ta ordun oso gaixki ibiltze giñan.

- Eta egun batean zenbat ekarraldi egiten zenituzten? Bi egitera iritsi al zineten? Gauez joaten al zineten mareak hala agintzen zuelako?
- Gabez, gutxi. Ibiltze giñun bai, tarteka-tarteka, beti falta izate uan ondarra-ta. Ibiltze giñun tarteka, baño gutxi ibiltze giñun: eunez beti. Giroik baldi'mazan –ur-kargik ez eo ola baldi'mazan–, beti ondarreta jute'iñun. Gabez, banaka-banaka. Baiñixkin, baño gutxitan ibilli giñun, peligrua uan da: gutxi ikusi, arrimuskilak... eta Oriyoko zubiya're or eote uan zai...

- **Harrimuskilak esan dek, eta zer dituk harrimuskilak?**
- Arrimuskilak esate'initxon: ostraerako parian, Oriyo baño goraxio ur-erdin den arri, da or zirrikitu aldetik pasa bier izate'iñin; zeatik ez, aitako'at jo ezkeo... Ondo jun bier izate uan da zirrikito'at, eta gabian eztek ondo neurtzen; da marian -aundixauan- tira!, or ibiltze giñun gabian'e, baño...
- **Harrimuskilak, orduan, errio azpian dauden harri batzuk izango dituk?**
- Bai, azpin dauden arri'atzuk. Bajamarrian leorrian eote'ttuk, baño mariagora aste'anian tapatze'ttuk; eta tapatu berrik bade, ura ttikiya ta ezittuk ikusten: dana ura ikuste'k. Eta baakit eztaakela urik arri-muskillen gañea joten baaiz, eta kanal artatik pasa biar izate uan.
Iru ala kargatuta askotan ekartze'iñixkin bi launek: iru ala giro earra baldi'mazan. Al(**a**) bat ekartzeko earki ibiltze'iñun; da giro ona baldi'mazan, beste al(**a**) bat geyo ekarri nai izate giñin; ta bi launek iru ala; ta beti eziñian, beti eziñian! Ondarreta olaxe uan!
- **Orduan, eguraldi onetan batek bi alaka hondar ekartzen al zitian?**
- Ez, ez; batek bi, ez: binarte iru ala. Atzekua an etortze uan amarratuta. Ik aurrekuai eraiten bayok, atzekua zaintzek; baño erain in biar etorriko baldi'mazan; da olaxe iru alakin ibiltze giñun askotan.
- **Lehenago esan duk hondarra basarritarrentzako, obretako eta Ingemar-entzako, batez ere, ekartzen zenutela. Ba al zegoan bizitzerik hondarretatik? Ondo saldu eta ordaintzen al zuan? Fabrikan baino gehiago irabazten al zuan hondarretan?**
- Etzakit nik fabriketan ze iraaiziko zan ordun; baño leno esan deana nik: amairu-amalau urte nittun garayian, ogei duro paatze ziyen onea ekarri-ta -Mapillaño ekarrita ondarra-. Sanistebana're ogei duruan eamate ziyen: Isosteikuak'e ibiltze'ttuan, Itzaukuak'e bai... ta ogei duro. Nik etzakit fabriketan ze iraaizte zan. Fabriketako tankerako jornala zala uzte'it, ordun ondarrakin ateatze genduna guk.
- **Orduan, 1953. urtean, jornako hoge duroan, diru dexente izango zuan, ezta?**
- Diru pixka't... pixka'uan ordun'e.
- **Baña frabrikan baino gehixeago bai?**
- Geyo igual izango uan, zeoze geyo igual izango uan.
- **Hiru milako jornalak orduan hilean... jornako hoge duroan...**
- Baño or dana eztek kontatzekua, e? Iru milla peza esan dek ik, baño jayak? Jaitan ezkiñun, bintzat, joten; da astian'e izate uan giroik etza-

na. Fabrika eunero jute uan, baño zeara... ezuban seguruba, ondarretakua ezuban seuruba; zeatik ez, urkarga'la eo oitakua beti izate uan, eta ordun ixkireta o aingireta jun biar izate giñin; ez ondarreta.

– **Zenbat alero ibiltzen zineten? Kontaizkiguk hire aurrekoak eta hire garaikoak hondarretan ibilitakoak.**

- Emen basarritarrak ibiltze zianak geyenak ittuan: asi Mitxerkoneko, Lertxundiko, Etxeberri-zar, Perretzeneko Balentin –Perretzeneko Balentin ibiltze uan beti– da danetakuak. Emen Mapillerreka eo Mapil ingurukua dana ibiltze uan. Lastola aldea jute baldi'maiz, berdin: Galdaorriko, Soroko... oik danak ibiltze'ttuan ondarretan; oik, azpitako.

Obretako ibiltze giñanak? Obretako ibiltze giñanak zortzi bat o beatzi; etzakit zenbat izango giñan. Ezpaldiberritik iru, bintzat, iru anai ibiltze zianak: Miel, Julien, Ramuntxo, Joxeba tarteka're bai –tarteka ua–. Imanol da Joxelontxonekuak beste bi (bost). Gue Tomax ta ni (zazpi). Antonio Lastola (zortzi). Mapillerrekako Erramon (beatzi). Oxeek fijo-fijo ibiltze giñanak.

– **Daldagorri baserriatik ba al zuan inor ibiltzen zenik?**

- Daldagorriko morroya pixka't ibiltzen zan; baño fijo ez, fijo ez: fijuak beatzi kontatu'ttuten oik. Bakarren bat igual aztuko xitxaian, baño ezti uste; oik, bintzat, ibiltze giñanak. Geo Eizazpiko Eleuterio-ta're ibiltze'ttuan negun; Lertxundiko morroya're negu partian –basarrin lan gutxi baldi'mazan-eo–, ordun ondarretan ibiltze zan ua're; ta Itzaukuak'e ekartze ziyen tarteka onea... Baño beti eziñian ibiltze giñun!

– **Eta Txoko alde edo San Esteban aldetik?**

- Txokoaldekuak beti Txokoaldea eamate ziyen. Bee ballarako joera ziyen aik.

– **Beraz, enpresetako-eta, ez?**

- Enpresetako uan Mapildik. Bai burruka earrak Mapilko portun askotan! Danak batea ustu nai, ta marian betien zai. Danak batea ustu nai, ta batea kabitze ez; eta portuba're ttikiya baizan –oaindik ortxe do–. Borroka... borrokik ez gendun itten; baño tartia utzi ezinik esan nai nuke, tartia utzi eziñik alkarri. Olakuak'e izate zian... da kamionen bat ordun igual izate zan kargatu bierra... ua're palez; eskuz itte'gendun...

– **Han ere mareak aginduko zian?**

- Beti erriyuak aintze'ik erriyo gañian, erriyo gañian beti mariak aintze'ik; eta ik oain jun bi'ek, eta eztakak juteik: urak nola'ian beiratu bia'yok: urak beera noiz den, illargiyakin nola... Eta ordun etxetik ateatze'ttuk kontu'boik, maria nola dan.

– **Ala bakoitzak zenbat m³ ekar zezakean?**

- Ala batek ekartze'ixkit lau mila kilo, iru m³: iru m³ bueltakuak izate'ttuan. Pasatakuak'e battuan alak, ta exkaxekuak'e battuan; danetakuak ittuan alak: batzuk aundixio, besteatzuk txikixio; ta etxian zeonakin in bier izate uan.

– **Geroago hondarra ekartze hau egin zuan modernizatu, motorizatu nola-bait esateko: gabarrakin hasi zineten hondarra ekartzen. Enpresa ere sortu zenuten “Arena y Gravas de Aginaga” izenarekin. Hasteko, zer zituan gabarrak?**

- Gabarra bat iñ uan emen, Mapillen. Beti nola falta izate zan ondarra, pentsatu uan bi-iru sosiso arte –iru izango giñun soziyuak-gabarra ittia; da aber aundiyakin ekartze gendun naiko ondarra; da ordun in giñin gabarra bat eurrezkua. Berri-berriya emen Mapillen in tziyen: Mitxerkoneko Luis ta Lastolako Kandido ta bestia Zubitakua uan (Zubitatik etortze uan beste'at), eta iruren arte in tziyen. Donostiko gabarrero batek dirijittu xixkin ze gabarra in biar tzan. Arek dirijittu xixkin eta in ziyen gabarr'oi. Eurrezkua uan; aitzakin in tziyen.

– **Gabarra duk, beraz, ala handi bat; garraioetarako ala handi bat?**

- Bai; ala aundi bat. Gabarrak klase askotakua'ttuk. Muturra zorrotzakin dittuk batzuk... Orrek biyak zabala xixkin; ala're erdiya baño estuxio, estutzea itte zin pixka't; da aurre-atzian ranpa bezela zin dezentia: biyak igualak xixkin atze-aurriak gabarra orrek. San Frantzisko zin izena. Berrogeita amar kubiko ekartze xixkin. Giñin bapore koxkor bat eosi Oriyon “Miren” izena zuna gabarra oi remolkatzeko, irurogeita amar (70) zaldiko motorrak; ta beak kargatu're itte zin gabarra, eta ala asi giñun. Amazazpi urte nixkin nik gabarra ua artu gendun garayian, da iru laun jute giñun ondarreta.

Aurrenetik ezin moldatuik ibiltze giñun. Atzetik ekartze giñin tiaka-ta; batian batea ta bestian bestea, lan aundik izate giñixkin. Geo Oriyoko zubiya pasatzeko bildurra izate giñin: beti bildurak ibiltze giñun. Ta...“eunen batian matxoya joko'iu!, da eunen batian matxoya joko'iu!”, da ola ibiltze giñun. Da eun batian pentsatu'iu: jai atsaldia uan –jai atsaldian'e geonen kezak izate'inixkin guk ondarretakua orrek-, da zubiya neurtzia pentsatu giñin, “aber” tartia zenbateñokua gendakan pasatzeko; ta neurtu'iu (etzakit oain zenbat metro, aztuba zakat zenbat neurtu geñixkan), baño “aixa kabitze'attuk!”, esan giñin, “aixa kabiatze'attuk”. Ta ordun gabarra atzetik ekarri biarrian, “Miren”-en baor aldetik lotuta ekartzen asi giñun; ta kostau deula oso ondo moldatze'iñin: nai genduna itte genitxon gabarrai. Zubiñ'e kostau zala pasatze giñin neurtuta in giñun garayian. Pixkanaka-pixkanaka ikasi'iñun gabarra ibiltzen, baño geo oso ondo ibiltze giñin gabarra. Geonek nai genduna itte genitxon.

– **Eta Orioko zubiaren goiarekin nola moldatzen zineten?**

- Goyakin, goyakin... komerik izate genixkin. Maria beti tamaña batian ibili biar. Geyegi azitze bazan, goya jotze giñin. Geyegi jexte bazan, beeko arrokak jotze genixkin. Ordun, –“maria erdiya” esate genitxon– marra’t markatuta jarriya genitxakan zubin. Arraya’t inda eukitze giñin beti pintura zuriyakin, da bagenitxakin seguru gendakala arekin. Arekin dirijituz ibiltze’iñun.

Batian, deskuiratu gattuk: gaba uan, da beti bezela marian zai eon giñun denboa askuan; da noizik eta bein argiya botatzen genitxon arrayai. “Oaindik asko faltaik, oaindik asko faltaik!” Eta ala abittu gattuk, eta zubiya ikuste uan baju zeola. Ta: “Oi!, auxe baju ikuste’ana zubiya! Baño oaindik arraya bistan zeok! Etzakau kuidoik!”. Geo ta berto, ta ordun da baju; ta an tziek gue kaseta baporian atzian barrena, goiko zubiya jota pasatzeakuan! Ze pasa zan jun gattuk ikustea, ta nunbait matxoyian ieltseruak attu’ttuan juntak artzen, ta iruittu etzau’pa aik utzitako marka guria zala! Maria gintxakan geonen tokitik pasata, ta an jo giñin matxoya goyakin. Geoni’re an ibilli giñun, nola-ala, aldein eziñik. Bapore zaar artan battuan krakateko earrak!

– **Ondoren enpresak beste gabarra bat egin zian Irisasi izena zuena. Nolakoa zuan gabarra hau?**

- Leno esan deana: beti exkax, ondarrakin! Berrogoita amar ekarri o eun da berrogeita amar ekarri, beti ondarra falta!; ta ordun San Frantzisko gau t’eun da gau t’eun ibiltze giñin; da reuniyua in tzuen nausik-eo –in gendun-eo–, ta erabaki zuen jai-atsaldetan’e ondarreta jutia; ta esan giñun: ez!, jai-atsaldetan ez gaittuk jungo ondarreta. Gabian amabitatik aurea ya astelena sartze’k, ta jungo’attuk gabian amabitatik aurea, da atsaldian jayian ez gattuk jungo; zeatik, jai-atsaldian jai in biar dik aste guztiya gau t’eun lanian pasa ezkeo.

Ta sosisyo batek esan tzun: “Ok arrazoi guztik dixkiyek jai-atsaldian jai ittia, arrazoi guztik dixkiyek”.


Ta, ordun, ortantxe geatu giñan. Oain, gabian amabik ezkeo ondarreta jute giñan; maria nola zan: maria atzeatu nola itte baitan –beti iru ordu laurden atzeatu nola itte’ttun eunero–, ordun, marian gorabeera nola zan. Goizian (asteleen goizian) bost’ereditik seitako majiña bier Mapilla ekartze gendun jorna earra, goizazko; baño gaba barran pasata.

Ta beti, alare, exkax izate zan ondarra; ta ordun sartu giñan gabarra aundiya ittea: Irisasi izena zun gabarra bat.

Daldorrikuak izan zixkiyen bi gabarra: “Lau anaiak” eta “Txorkoa” ize-nekuak.

“Lau anaiak” eurrezkua uan: oita amairu tonelada ekartze xixkin jorko, atze-aurriak berdinak, eta 1969. urtian iña.

“Txorkoa” izenekua, berriz, Txokoaldeko Suteiko muellan in tziyen 1979. urtian: txapazkua, aurre zorrotza eta atze zapala, eta berrogeita



...ta ordun sartu giñan gabarra aundiya ittea: Irisasi izena zun gabarra bat

amairu m³ ekartze xixkin jornako; baño gutxi ibiltze zian aik: baserria geyo jotze zuen ondarreta baño. Aik'e ibiltze zian, baño gutxiyo.

– **Irisasi izeneko gabarra hau, ordea, tamaina handiko gabarra zenuten. Non egin zuan gabarra hau?**

– Bai, bai; gabarra aundiya uan, aundigiya: gabarra au aundigiya uan erriyo ontan ibiltzeko.

Urgañian beti eziñian, beti bezela! Putzugaña beti ola ezautu'iuk guk: eziña, beti eziña!

Gabarr'oi in uan Bilbaun, Bilbaun in uan gabarr'oi. Aztuba zakat astilleruen izena, baño Bilbaun in uban, bintzat, eta Zumayan "Yeregi" nian montatu; ta ni soldauskatik etorri nintzan garayian, ordun xitxon montatzen; da geo orrekin asi'iñun; da berreun m³ ondar ekartze xixkin; baño gutxigi orrek'e, orrek'e gutxigi: beti ondarra falta!

Oi gau t'eun ibiltze uan; bi jorna: marian jorna bat itte zin orrek: marian jorna, urrunguan bestia ta urrunguan bestia. Giro txarra baldin bazan etxixakan itte'ik; baño, bai, gañuntzian bi jorna itte xixkin orrek eunero.

– **Hau txapazkoa zuan, ezta?**

– Aurrekua San Frantzisko uan eurrezkua; au txapazkoa uan, da bee motorra 220 zaldiko "Yeregi" zin. Txupoi aundiya jarri xitxen: frantsesa;

ta geo indarra emateko makinillai ta ankla altxatzeko ta... au dana modernizatuba uan: katiakin uan. Ta ordun beste motor auxiliar bat ibiltze zin alternaoriakin, motor airi indarra emateko. Soldiatzeko ta zeak'e... danak barrenen xixkin orrek. Eozin lan in nai baldi'mauan, taladrua-eo... dana martxan bee artan ibiltze uan; indarra beak itte zin. Motor auxiliarra martxan jartze xitxayon, da an –sei-zazpi-zortzi motor– danak martxan izate'ttuan.

Baño ordun'e gutxigi ekartzte giñin ondarra. Ordun'e beti ondarra falta!: berreun metro ekarri o lareun ekarri, beti ondarra falta! Bein o bein tokatze giñun bai –salida urruti xamar-da– pilla mordoxka't itte genduna; baño eamaten aste zianian, danak eaman, da faltan geatze giñun. Beti alaxe giñun!

– **Hondarretako tolbak noiz jarri zenituzten?**

- Gabarrakin asi giñan garayian jarri'ttuan. Aurrena tolba xaar batzuk eurrezkuak ittuan, baño kebratu'ttuan da ormioyakin iñ ittuan. Tolbak aurrenekuak ittuan San Frantziskokin ibilli giñan garayian, kamiona azpin sartze'ala; ta ataka batzuk irikitze zitxaixkan, da kargatze uan kamiona. Kargatu bastante errex itte uan.

Geo gabarra aundiya “Irisasi” jarri zan garayian, tolba kuadro'atzuk in ittuan beian –lurrian–, da txupoyak beak ustutze zin ara; oain, urrungo jorna ekartzeko ustu biarra xitxon andik, ta ortako uan grua bat: grua bat ekarri uan. Madritikan ekarri uan gru'oi, ta arek itte zin tolba-ustutze lana. Aurrena “carterpillar”ekin ibilli'iñun, baño katiak ondarrakin gastatu itte xixkin: jan itte xixtxaskan. Ordun grua ekarri uan geo, da grua arekin ustutze uan, o bai kamiona kargatu o pilla in eo ola. Bi tolba'ttuan: bat ondar beltzentzako ta bestia gorriyentzako; da arekin



Aurrena tolba xaar batzuk eurrezkuak ittuan; baño kebratu'ttuan, da ormigoyakin in ittuan

ustutze'ttuan. Tolba, ondo-ondo, gabarra beak ustutze zin; baño geo tolba ustu biarra izate uan. Beti lana izate uan or!

- **“Arena y Gravas” enpresan, zenbat langilek egiten zenuten lan?**
- Jende asko ez giñun ibiltzen. Gabarran aurrena iru ibiltze'iñun, ta geo bikin bukatu ziyen: bik ekartze ziyen. Da leorrian'e ni ibiltze niñun; geo leorrian geatu niñun: aurrena gabarran ibilli niñun, baño gruakin neoni geatu niñun. Da emen, leorrian, ibiltze'iñun iru fijo, ta geo beste iru txofer: sei laun: gu iru eta iru txofer, sei laun ibiltze'iñun leorrian; da beste bi geyo gabarran: zortzi.
- **Gabarrak hondarretan hasi ondoren, aleruek hondarra ekartzeari segi al ziotean?**
- Ez, Ez. Erretiatu uan zea... Sanistebangua (Portukua) Eustakio. Ua bee edadian baxitxien ua're... ta goialde ortakua, azkenekua, ua uan; ta Mapillen, berriz, gu giñun azkenekuak; eta motorizatu giñan garayian, alak baztarrian geattu'ttuan. Ortzaikaku'at azkenekua ikusi nin ekartzen ala kargatuba. Salmaistein geoztik seittu ziyen basarriako –oik seittu ziyen piska't geyo, urte'atzutan ibilli'ttuan oik geyo gu utziatik–, baño oik geyenak guk erretiatu giñixkin.
- **Alakin edo gabarrakin ibili, ba al zegoan difirentziarik? Zenekin ibiltzen zineten aisena edo zein izan zuan zuentzat neketsuena?**
- Leno esan ditena: bat dek lana eta lan goorra; baño bestia, beti bildurra, beti bildurra izate uan!; zeatik ez, barraldea jute'itzan, da itxasua'-lako-eo –izate'ttuan giro earrak'e gustua ibiltze giñana, izate'ttuan baño–, beti izate uan: olatuba, zerrazoya, urkarga... Ta negu partian, bintzat, giro txarra seuruba; eta leno esan ditzen bezalaxe, bildurra beti dek or. Zubin-da're juxtu-juxtukua uan gabarra, zabala uan-da; ta zabala ta luzia, ta erriyo ontako aundigiya're bauan gabarra ua.
- **Lehenago aipatu duk hondarretako bi tolba zeudela: bat hondar beltzarentzat eta gorriarentzat bestea. Zer duk hondar beltza, eta nor eta non hasi zuan ateratzen?**
- Ondar beltza alakin'e ekartze giñin tarteka. Beti gorriya gustatze xitxaiun guri oriya zalako-eo etzakit zeatik. Attak esate xitxaiun: “Ekar-tzazue ondar beltza, ekartzazue ondar beltza, obrako nayo'yek eta!” Guri, berriz, etxitxaun iruitzen.

Ondar beltza kargatze gendun guk: Oriyotik pasata belaxe do “kantei-lla” esate'iñuna, eta antxe izate zan ondar pixka't beltza; ta giro txarra bazan beera juteko –Torretxon-da izate zan olatuba–, itxasua o baja tti-kik dialako o itxaso aundiya... ta an arrisku aundiya izate zan, ta ordun ondar beltzian kargatze gendun. Ta izate zian olako zea batzuk; ta toki-yakiñ'e gustoa ibiltze giñan an; ta ordun, ba, beltza ekartze gendun; ta beltzak ixtimaziyo geyo zun; ondar leunaua zala esate zuen rasiatzeko.

- **Ez al zituan Hondarrabin edo hor inguruan hondar grisaxka ateratzen eta obretako eskaintzen hasi?**
- Ala uan, bai; grixantza itte zun ondar beltza; ta emen bauan. Oriyon ateatze uan, eta ondar ona ateatze uan or'e; baño an dana beltza ateatze ziyen; an gorriya atea're etziyen itten. Gu jun giñan garayian asi giñun ondar gorriya ateatzen an, Hondarrabin; ta geo beak'e ateatze ziyen; baño beltza, bai, an beltza asko xitxon Frantziko kostan. An atzeaka jarrita azkar kargatze giñin gabarra. Geo emengua gutxitu zan garayian, ba, ara asi giñun gu're. Emen galaazita iru illebete pasa giñixkin eskollerak beera zatoztilla-ta, baño belaxe ostea permissua atea ziyen, da berriz'e segittu giñin. Ateatzia komeni zayok ondarra; bestela, gañezka geatuko ukek, tapatu ingo likek-eta ondarrak eskollera.
- **Garai batean, hondar gorriak istimu handia zeukala argi eta garbi irakutsi duk; baina gero beltza obretan sartzen hasi zenean, gorria atzeatu egin zuan. Zein propietate edo ezaugarri ditik batak eta beteak?**
- Bai, bai; ondar gorriya atzeatu in uan: beltza nai jendiak. Beltza nai jendiak, gui bestaldea iruitze xitxaiun baño.
Salitria're gutxiyo'ik ondar beltzak, goro eote'k-eta. Bestia barraldian eote'k -gorriya- itxas ixkiñan. Salitria... beti'ik salitria beltzak'e; zeatik ez, urgaziya sartu ittek ondar beltza eote'an tokiñ'e, baño beti gutxiyo; ta geo, Irunen o Hondarrabin ateatze zuen orrekin, ba, emen, Zautza aldea're Hondarrabitik etortze uan ondar asko beltza zalako.
- **Beltzak ez al zeukaan lohia edo zikin gehiago? Lohia zeukalako eta raseatzerakoan hobeto pegatzen zelako, ez al zuan izango?**
- Ez, ez, ez! Ondarra uan, e? Ondarra uan, e? Bai, bai, bai! Lokatza ez uan, e? Lokatzik etzin izaten. Oain, ba al dakik ondar arek zer tzun asko? Oi bazin txotx txiki'yoi, txotxa txotxa bezelakua; ta raseatu ta txotx oi usteltze'an garayian, an txulua geatze'k; oain, ondarra uan gañuntzian, ondarra uan; lokatza ez uan.
- **Gero hondar gorriak salitrea izateaz gain, ez al zaukak txirla-azal ugari?**
- Bai; bazakak txirla oitakua're, txirla bazakak Oriyoko ondarrak; da oi, txirla txiki'yoi, baztar guztitan dek. Txirla puskatub'ek eta eztek txirla osua. Oi plai guztikua dek.
- **Beno, Patxi, kontatu dizkiguk hondarretako zailtasunak, horretan zenbatsu alero ibiltze zineten eta zenbat ekartzen zenuten, Mapillen enpresa nola sortu zenuten, gero hondar gorriaren eta beltzaren ezaugarriak eman dizkiguk; eta hik, ur-gainean hainbeste ibilita gero, izango dituk, ba, horko bi pasadizo edo gertakizun emateko? Kontaizkiguk hire horko gertakizun gogoangarrienak.**

- Bai; alakin'e ondoatu giñun, ondoatu giñun batian: Marrota parian giñun, da aize-golpia ekarri zin kristona, ta lau ondoatu giñun. Lau ondoatu gattuk eta alak utzi giñixkin ondoan, ta triste asko, etxea! Urrungo eun arte etxitxon eoteik alak atea'be. Gabian xitxon jun bier, ta bat ez uan izan gauza ateatzea juteko. Oain, kuadrilla osua jun giñun, e?: ondoatu zianak eta etzianak. Gabian, danak, alak ateatzea. Ortan alkarri launtze genitxon beti, e? Ortan danok ondo eamate giñin. Alkarri laundu in biar tzayonian, bagintxakiun launtzen, e? Geo geonen ika-mikak izate genixkin. Klaro!: batek au in dulako-eo beti zeoze izate uan, baño laundu biar dan garayian, danok alkarrekin, e? Oi bai! Ta ordun'e etxitxon urrungo eun arte eoteik; ta gabian jun, da nee ala leorrian xitxon -neonena-. Bestienak ur azpin xitxen artian. Da:

- *Ik eorrena molda zak! -esan xitxaian-. Moldatuko al dek?"*

- *Bai, nik neonena moldatuko'et.*

Urak uztuta txukun-txukun prepaatu nin, da gabian neonen ondarrakin ekarri nin ostea; da bestiak'e atea xixkiyen alak, eta lau alakin etxea etorri giñun danak kontentu; baño gabian -urrungo eunarte etxitxon eoteik- urrungo eunian ostea barra: Torretxoa, ondarreta.

Ta olakoa'tzuk izate ginixkin. Gabarrakin ondoatu izandu giñun. Gabon euna uan. San Frantziskokin kargatzen ai geala -olatu puska't baita're, ur pixka't artu're itte xitxaun-da- ai gattuk kargatzen, da jun gattuk ondoa.

Gabon euna uan. Bazkalondoko garaya uan, da Gabon-apayik ez uan gue etxian: apaldu'be, oyea! Urrungo goiza barran azaldu xitxaian, aber amarrak nola emango ote genixkan gabarrai; ta Hondarrabitik gizon bat etorri, "hombre rana" esate geniyon zea bat... botillakin sartu, ta amarrak eman genitxaskan Euarri-eunian, atsaldian; ta kontentu asko etorri giñun etxea amarrak eman genixkan garayian! Urrungo eunian junda ustu giñin txupoyakin al tzana. Orioyoko bapore'ati amarratu genitxon, ta tiraka baztertu giñin, da atea giñin gabarr'oi.

Ta bainixkin olako'atzuk, bainixkin olako'atzut!

- **Aizak, Patxi, bukatzeko-bukatzeko azken galdera. Hondarrak utzita txerri-granja bat jarri huen ondoren. Lanbizitza ezinago gogorra eta astuna eraman huen ordura bitartean. Noiz hasi hintzen alde horretatik lasai bizitzen?**

- Geo pentsatu giñin -txerri'atzuk eukitze giñixkin-da-, granja ittia pentsatu giñin; da in diu granj'oi, ta etxitxaun oso ondo jun txerri-asuntu oi: pentsuba gora ta txerriya lengo preziyuan, pentsuba gora ta txerriya lengo preziyuan; ta zea... epoka txarra arrapatu giñin. Da geo jun giñun ollas-koa ta ollandakin-da ola, da oain'e olaxe segitze'iu; da bastante ondo!

Batian, Joxelontxoneko Imanolek -artian gabarrakin xitxabillen Irunen-da- galdetu xitxaian:

- Ze mouz, Patxi, ze mouz?

- Mote -esan nitxon-, mote, nik goizian zapatillak jazte'ixkit!

- Zapatillakin bizi al aiz?
- Zapatillak jantzita itteit nik lana oain!

Ooo! Arrittuta geatu uan: botik jantzi'be ibiltze nintzalako, arrittuta geatu'an; artian bea botakin baizabillen.

Laixte utzi zin. Andikan belaxe gabarra zaldu ziyen, da utzi in tzin; baño zapatillakin lana itte nula esan nitxon, da beak etzin siñistu're iya itten; da alaxe nintxabillen orduako, ta orduntxe asi giñun bizitzen.

Bitartian lana galanki inda, bai, bizi itte giñun; baño lana galanki inda; ta geo lana inda, baño beste klasia: lan trankillaua. Lana bai, eunero-ko lana dek jai ta aste, baño lana errexa. Gabarrakin-da -leno esan deana- lana asko ta, gaña, bildurra, beti bildurra! Aberiya ezpazan, zerrazoya; eta beti zeoze izate uan. Da alaxe ibiltze giñun; baño etzeok konpaziyoik or!

Fabrika batian... Nik fabrika ezti proatu lanian, baño dudik etziok ona'la. Jazteko zirik ez giñin guk asi giñan garayian, zirik'e! zakubakin ibiltze giñun. Ik atea kontuk ortik; zirik'e ez giñin! Fabrikan, sikiera, lana bai, lana dudik etzeok fabrikan'e; baño tellatu azpin. Gue tallatuba zira-trajia uan.

– **Baina aurrena zakua...**

- ...Aurrena zakuba. Bi zaku artu, bizkarrian zamakina ta leorrian uztez zamakina, da biyak batea bustitze'ttuan. Uztez leorra bakan; da aste'i-tzan, da bustiya xitxon uare, orduakore; ta biyak batea bustitze'ttuan oik. Plastikua izan bagendun sikiera, ziratrajia ingo giñin! Plastikoik'e ez uan ordun. Oain bai, baztar guztitan baziok, baño ordun ez uan plastikoik'e. Zakuba, gue leortia zakuba uan, da jertze zaarrak eta olakoxiak ittuan; ez uban ordun.

– **Eta orain anguleta juten al haiz?**

- Oaindikan buelta'tzuk itte'ixkit. Gabonetako gaña ateatze'it oaindikan'e. Asko geyo ez, e? Baño Gabonetako gaña ateatze'it oaindikan'e. Pasatako Gabonetan da Euarritan'e jan dixkiu angulak. Oain, gañuntzian ezti emen angulik ateatzen. Borroka aundiya zeok angulakin: motorra ugari, ta zalla zeok.

– **Behintzat, ez haiz oraindik erretiratu.**

- Ez, ez; oaindik ibiltze nok. Gutxi ibiltze nok, baño ibiltze nok. Emendik aurrea in bia'it bizi, urtetan'e bagetxiazti eta! Gu baño gutxiyo indakoik izango'ek pranko, eta uste'it meezi deula deskantsu boi -or urgañian bizi izandu geanak-. Orren premitan gatxek, eta datoztin urte-aliak Patxik in biaixkik bizi! Eta onekin bukatze'it: BIZI!!!

Ujalak





Fermindegiko Joxe

Bai eder errio,
dir-dir jario!
Heze-heze,
gozo-bare,
murmurio.

Eder du Aginagak errioa eta “agiñarrak” berari ederretsirik bizi izan dira. Baina errioa ez da beti amesleku eta gozo. Baditu alderdi oso bestelakoak, baditu gezaminak; eta honen berri ondotxo dakite bertan aritutakoek: egunero bere bizimaina lortzeko, buru eta bihotz saiatsu direnek; eta guztiz dituzte ezagutzen bertako sekretuak: uraizeak, urausilak, korrontearen eraginak, haizearen gogorrak, zerrazoen itsutasunak... eta zer esanik ez, noizbehinka atera ohi diren ujalak edo uholdeak: ederki asko dakizkitez ujalaren ondorio lardatsak eta latzak. Gainezkako urak kezkaz gainezkatzen du eta larritzen giza barrua. Eta tairik gabe, adian-adian, egon ohi da errioa bere normaltasu-nera biltzen ez den bitartean.

Fermindegiko Joxe errioizkinan jaioa eta bizi izana dugu laurogei urtetan, eta, nola ez, berarengana jo dugu ujalari buruz hitz egin diezagun.

- Aizu, Joxe, aspaldi urak ez dira garai batean bezala ateratzen: ez da garai bateko ujalarik. Zergatik ote? Zure ustez ba al du zer ikusirik denboraren aldaketak?

- Izango eztu, ba! Garai batian, eunero, zortzi eunian igual ebiya ujala ixkiñaño ateata. Ñaaa! Eztittuk kanpoa atea! Ta beti ta beti kezkan ate-ako ote zan. Aste osuan igual ala eote zan. Oain, berriz, eunero ebi lar-daxka ai du; eta aurtengo negun'e metroa't ura pasa'ttu jetxienetik: learretik ateata, metro'at. Ezta, gaña, ujalik imajinatu're!

Negu txarra... Negu txarra, negu txarra leno zan, leno!: sanpraixkutako etorri, eta ze?: arbi-ostuak biltzen, erremolatxa pillan jarrita arta-zuzta-rrakin tapatu... Negua ua zan! Gue etxetik beiratu Itxospeko erreka, ta brillua botatzen zun euzkiya ateatzen badin bazun –jela-burruntzik–.

- **Neguko zein garaitan izaten zen hori?**

- Euarrik aldian, Euarrik aldian. Geoxio baldin bazan'e, or bintzat. Negu-ba ordun, Euarritan.

Oain, aurtengo neguba're negu gorra ta luzia jun omen da! Eeez!; bus-tite luzia: txirri-mirriko ebiya beti atertu'be ta erriyoik muttu ez, da erri-yuaK leno baño zikiñaauak.

- **Bai; erriokak beteagoak egongo dira dudarik gabe.**

- Oain de betenak; eta ezto ujalik ebi gutxiyo itte'ulako.

- **Lehenago, urtero ez esatearren, ia urtero erriokak gainezka egiten zuen, eta orain?**

- Gue atain izate zan urtero. Artuak eta baarruna itten jendia or, eta azkenian geatu zan ezer ez ittea; zeatikan, danak eaman itte zittun-da! Etzun baliyo-ta!

- **Euria aipatu duzunez, gure umetan askotan egiten zuen xirimiri deitzen geniona, eta gaurko umeak horren berri ez dakite. Badirudi zeharo uxatu zaigula.**

- Denboa ikeragarri kanbiatua do! Ikeragarri kanbiatu, e? Gu, garai batian, etxeko ateia atea, ta atain baldin bagabiltzan jarri ola ta... Ui! Agiñako kanpana aitze'iu! Baai! Uooo! Mendeala emen dek, emen dek ebiya!

- **Eta hori hemendik, Fermindegi basarriatik?**

- Ataitik. Geo izketan jarri ola-ta, Irontxoko pintoria (Tapia) orren ama Maria, ta izketan jarri ola-ta: “Bai; aurki etorrikok ebiya! Gaur Oriyoko kanpanak attu'ixkit, goizian”.

- **Beraz, Orioko kanpaiak Irontxotik entzuten zirenean, mendebala seguru.**

- Mendeala ateatze zan garayian. Negun, berriz, otza ta jela ta kristo zan garain... Joliiin! “Gaur gabian'e bota biar du earra, ateri do-ta!” Fiiiii, Pasaiko bapore-bozina.

– **Hemendik, Pasaiko tutua?**

– Ataitik. Eta:

– Zer da oi? –inork galdetu. Ta:

– Pasaiko barkubena.

Andik pixkatea beste'at iñularrian, arrantza ateatze zianak eo sarre-ran zianak eo, ta: "Gaur gabian bota biar dik earra!". Bai bota're! Ordun bezelako ipar-aize edo ze oi... ezta oain; oain ezta alako aizeik.

Beste'atzutan udara partian ataia atea, ta Sanistongo kanpanak sotuan bale bezela: tin-tan-tan kanpanak-eta; eta pixka'tea Villabona aldeko, orko Tolosa alde ortikan fabriketako sirena: fiiiii. "Ui! Emen dek ego-aizia!" Bai etorri're!, bai etorri're!

– **Villabona aldetiko sirena-hots hori entzundakoan, hego-haizea seguru samar, hortaz?**

– Bai; zetorren aiziak botatze zun onea.

– **Eta orain aditzen al da?**

– Oain, oain aldein bein, alako'atian aitze'a; baño beste zea batea: nun-bait itxiyaua do –mendik eta gauzak itxiyauak–, eta ezta ondo zeatzen; baño ordun garai artan... Joliiin!

– **Eta esan duzu sasoi bateko negua gogorrragoa zela oraingoa baino.**

– Izango etzan ba! Jendiak –leno esan dizutena– erremolatxa-ostua eta arbi-osto ta bildu... Da oain bezelako trastiak'e ez... zaku zaar bat burutik beera artu... eta geo sokak eta gauzak'e gaur nunai... ordun or ibiltze zian basarritarrak zumiak biurritu, eta zumiakin soka itte zuen askok eta askok. Guk kopa xaar batekin ekartze gendun, etxe onduan gendun-da; baño ordu ontan (**seiretan**) gaur, Euarritan, jendia jota ausin segan ai da... Zer nai dezu! Kanbiatu'a!

Au ikeragarri kanbiatu'a! Nik eztakit, eztakit nundik, baño au ikeragarri kanbiatuba do! Oain, aurten esango'u makiña'tek: "Joliiin! Mayatzian alajaña, ta ok eualdik!" Eunero ebi xaparra bota'u, baño nun daaa? Erriyua ateatzeko nun da, ee? Metro'at urik eztu asita urte guzin!

– **Aizu, Joxe, anguletan ibiltzen zinetenean eta, eguraldi gogor haiei aurre egiteko, nola moldatzen zineten? Zer nolako arropak erabiltzen zenituzten? Zer zen orduan?**

– Ordun zer tzan? Esango'izut nik: zaku'at buutik beera eta bestia baldian. Eta ua bustitze zan garayian, tak eta kanbiatu zakuba; ta an baldian zeona orduako bustiya. Al tzan bezala!



...zaku'at buutik bera eta bestia baldian. Eta ua bustitze zan garayian, tak eta kanbiatu zakuba; ta an baldian zeona orduko bustiya. Al tzan bezala!

Geo nik ezautu nun, ba, Oriyon'e: Oriyoko frantses fabrikan attu nintzan ni lanian, da an ezautu nittun nik -negu-partian arantzaliak etzian ateatzen, fabrikan an aitze zian batzuk- zaku-trajiak balkoitikan zintzilik. Zaku fiñakin trajiak in da oliyua emate ziyen trajiari.

– **Zertarako ematen zioten olio?**

- Oliyu oi, zira itteko: oliyua zakubai emanda goortu itte baizan ua (zira), da irrist itteatik. Oliyua emanda zintzilik balkoyetan eokitze zittuen.

Geo lisasin'e an ibilli nintzan ni "arrantxero". Lau o bosten bat illebeta pasa nittun amalau urtekin; da or naparrak etorri zian, da aik ekarri zuen onea trajeik onena: txapela aundi'atzuk ekarri zittuen, da "espalderua" esate ziyena.

– **Eta nolakoa zen "ezpaldero" hau?**

- Ardi-larruba oso-osoik. Zinta jarri lepotik ola...

– **...bai, lepotik gerrira.**

- Lepotik gerria, ta geo gerrin lotu; ta ua guk, ua ola beira jarrita: orrek baliyo aldu!? Jenealian bana o bina izate zuen oitakua. Mendin ai baldin bazian aikin... Ebiyakin txingi-zanga aixkoran attu ta etortze zianian bazkaltzea... txabolan eantzi -ni, mutikoxkorra-, ta nik jaso ezin ain besteko karga. Ua karga illian, dana! Baxtarren kontra pixka't jo, sekatu, ta berriz artu, ta martxa! Eta zeñek zun olakua?

- **Oso gutxik, seguruenik. Eta botarik ba al zen?**
- Botak... ba al tzan? Bota zian... ordun'e batzuk ibiltze zittuen, da or basuan ibiltze zianak'e batzuk bai. "Napar-botak" esate'inienyen guk.
- **Zer nolako bota ziren?**
- Oik... Gaurko eunian'e bade, ta oik tankera ortakuak; eta geo andikan gora, larruk: danak larruzkuak zian. Ta azpin, oinbesteñekuak bai, bietz ttikiyen muturren ainbesteñeko iltziak: pill, errenkan.
- **Bota azpia iltzez beteta?**
- Baiño ola, estrella formakuak. Bai, ta bota bakoitzak eamango zittun... Joliin! Ni ttikiya, ta neriak'e... Nik enun, gaña, botik izaten-da; baño an zittuenak'e, oitamar iltze igual, e?, bota bakoitzak. Kamiyuan ua baztarrian baldin bazijuan ola, ta: "Aaa! Emen dek napar-botakin!" Ra ra ra soñuba ateriaz. Bai; napar-bota esate xitxen.
- **Jende gutxik ibiliko zuen hemen?**
- Oik saltze zittuen Pasain. Oik zeak ekartze zittun: gaur difuntu do –Joxe Portu difuntuba–; baño Joxe Txankakua ez, e? Beste Portu. Or fabrika nola?, fabrika orren onduan etxe txiki berriya in tzuen: Petra zuen ama ta Joxe Austin, aita.
- **Baina fabrika, zein tokitan zuten ordea?**
- Fabrikik etzuen; fabrika oain do or!
- **Aaa! Txokoaldean esaten duzu zuk, Txokoaldean!**
- Bai; Txokoaldian. Ango Joxe ua Pasayan aitze zan. Ordungo garay'artan ibiltze zian makinak –lokomotora oitakuak– ara ta onea ibiltzen. Gaur bezelako zeak ez, ta an makinistan ayudante iketza botatzen-da aitze zan oi; ta orrek ekartze zittun botak onea, orrek ekartze zittun; eta geo andik pixka'tea (eoziñek'e ez aik'e) bazian beste abarka'tzuk automollen erruedan kubiartakin indakuak; "malas abarcas" esate ziyen, da...
- **..."Malas abarcas"? Hori izena, hori!**
- "Malas abarcas", da aitakuak-eta... Joliin! Eoziñek etzittun konsegitzen aik. Oik itte zittuen... eaman goma, ta abarkak eta itte zittuen. Atzian topia jartze ziyoen, da gañian tapa bee ujaliak eta danakin. Aye-ten itte zittuen oik, Ayetea eamate zittuen ittea. Baita, emen azkenea-ko, basuan ai zianairi emanda-ta asko ugarittu zan; eta ba al dakizu zeatik?

- **Zergatik?**
- Ba, esango'izut: bestelako gomazko abarkak'e bazian, baño oik elorriyuen gañian anak jartzian sast itte zuen; da automollen "malas abarcas" orri ez pasatzen; da an mendin lanian ai zanak, riki-raka, alakuak bier.
- **Baina orduan ezpartzuzko "alpargatakin" ibiliko zen jenderik gehiena, ezta? Gainera, Sarikolan fabrika bat bazegoen.**
- Saikolan espartzuba itte zuen, an; da zakuba itte zuen or'e.
- **Eta "alpargatarik" ez al zuen egiten?**
- Ittez ez nizuke esango, ez nizuke esango.
- **Ba, nik aditzera baduk hori.**
- Bai, bai; zeoze izango zan, izango zan, izango zan; ez naiz goatzen ni. Zakuba bai; telak... rolluak.
- **Eta plastikorik ba al zen ordurako?**
- Plas-ti-ku-a!? Izena're, ba al gendakiun garai artako zer tzanik'e!
- **Bestela, jendea berarekin trajea egiten saiatuko zen?**
- Joliiin! Plastikua izan balitz! Anguleta joate giñan garayian, zakuba ta ua artu bizkarrian da...
Oriyoko frantses fabrikan aitze giñanian, lotu al gendun bezela, ezeik ez eta ba al dakizu bein baño geyotan ze ekartze gendun gerrin lotu-ta?: porlan-zakuk paperezkuak asi zian, da aitakuak lotuta bizikletan etortze giñan etxea.
- **Jendea oinez gehiago ibiliko zen bizikletan baino?**
- Joliiin, joliiin! Saikolakua zuk ezautuko'zu. Sari basarria bertan do-ango osaba Xantos; da Zautzen obran lanian gu, da arek bein baño geyotan in tzun: boltsa-bazkaya; Oriyon trena artu bier; Oriyoa jun, da zapi t'erditan o trena; ta Oriyoa jun, da goiza zula; boltsa ta galtzarpian apretak artuta ankutsik, tapa-tapa-tapa, Zautzaño lanea. Oñez! Oñez!
- **Hori ibilerak! Hori ibilerak!**
- Joliiin!!!
- **Halere, gaur kexatu egiten gara, Joxe.**
- Baño, nee itziako, gaurko eunian arrazoi due -danak- zeoze kontsegi-tzeko zeatzia; baño batzuk-batzuk ez al gea biziyaakin'e kejatzen ai!?

- **Nik esan behar banu, piska bat bai.**
- Danak ez, noski; baño batzuk bai tarteka-tarteka, e? Tarteka.
- **Beno, gaur garai bateko bizimodurik ez dago eta gauzak asko aldatu dira: garai-garaiko arazoekin bizi izan da beti gizakia.**
- Asko aldatu'a, asko! Jesuuus!
- **Halere, gaur errekurtsio gehaigo ditugu.**
- Geo, emen, Sanatoyuan'e attu nintzan lanian, pintxe. Orko lanak bukatu zian... piñuba aldatzea, piñu-zuluak ittea: Goikoerrotako Bixente-ta, Bixente Ortzaiakua-ta, Salmaisteiko Anasta difuntu dona-ta... Danok, martxa! Enutoaiño jun, da etorriko zan guarda "Morrás" zaldi'añian, da: "Hoy no se puede trabajar". Etxea!
- **Eta hori zergatik?**
- Eualdi txarra zalako.
- **Eguraldiarengatik, orduan?**
- Eualdi txarra zalako: elurra... ta etxea! Danok mumu-mumu-mumu alkar esan, da goizian zortzitako ara jun, da amarrak-amaikak aldea... etxea!
- **Zuretzat ujalarik handinak, Joxe, zein urtetakoak izan dira? Badirudi hiru izan direla sonatuenak:**
Bat: 1933koa, Gorputz egunekoa esaten dena.
Bi: 1953koa, urriaren hamabostekoa.
Hiru: 1983koa, abuztuko San Bartolome egunekoa.
Zuretzat handienak hauek al dira? Zer diozu honi guztiari buruz?
- Ni larogei urte ittea nua; eta neetzat izandu'ian ujalik aundinak –nik gue etxian ezautu'et iru bier ujala sartzen–, da fetxa oitan: bat Gorputz eunekua. Ta bestia noiz da?
- **Bestea, urriaren hamabostekoa, 1953koa.**
- Ua, bestia.
- **Eta bestea, orain dela hogeitau urtekoa: 1983koa, abuztuan San Bartolome egunean atera zuena.**
- Oik irurak ezautu'ttut nik Permindeia ura barrena sartuta. Ta neetzako aundina, aundina 53kua izango'a gue etxian; oain, maria nola arrapatzetxe'un itxasuak; zeatikan, au ta au esango'a, baño mariak Oriyon itxe

baldi ma'u... Oain arte nik ezautu'ttuten azakitan'e lurjausikin ixte baldin ba'a, gora ateatze'a ura.

- **Mariak bultza egingo dio gora?**
- Beian ateerik ezpaldi ma'u... Eta neetzako aundina 53kua.
- **Eta nola bizi izan zenuen Gorputz eguneko hura? Zer-nolako oroitzapenak dauzkazu orduko hartaz?**
- Ni oita labian jayuan naiz. Nik, beatzi urte? Eta –ni mutikoxkorra– an ikusi nun zubiya, ta zubiyan erdiko matxoya botata; bestealde, Saniston aldea, nola pasatze giñan; da oi danak gouan dazkat nik.
- **Gaurkoa bezalakoa al zen ujalak bota zueneko zubi hura?**
- Iguala. Oain matxoyak geyo dazka; zeatik, azkeneko, or, 53ku orrek –aurreneko matxoyatikan emen Galardi aldea betelana zan oi dana– in tzun zubiya ez bota, baño oi arrankatu dena; eta oi arrankatu zunian, Diputazioak ostea betelana in biar tzun lekun ankak in xixkan, matxoyak; da konprendittuko'zue inbutu ttikiyak eta aundiyak eztula igual ura tragatzen; da ujal berdiñian (Permindein) ura oain beero geatze'a, arek tragatu itte'u-ta.
- **Zabaltze horrek ura gehiago hartzen duelako, jakina.**
- Kabida geyo dolako, bai.
- **Aizu, Joxe, eta Txokoaldeko Goikoerrota parean bada harri handi bat, eta esaten dutenez, "Gorputzeko" ujal handi horretan agertu omen zen. Nondik etorri ote zen?**
- Iñork ezin omen du aztarranik atea nundik ekarri zun ujalak; baño arriya ua, arriya ua ikeragarriya, e? Nik –aspaldiko urtiotan eztet ikusi nik baño– attu'yot bati: oain azkena izandu'a emen (ujala ez) ebi golpia bazter guztik gorritu ta in tzittuna; orrek buelta bat o bi eman omen xixkan.
- **Eta zenbat kiloko harria ote da? Zenbat tona ote da?**
- Ua... Usurbilgo arriya, dema-arriya, lau tonela badala-edo ze esate'ue? Ta ua ondo moztuta... Orrekin bi alako ingo'ia.
- **Zapi-zortziren bat tona izango da, orduan?**
- Bai; zazpi-zortzi'at tonelaa izango'a.
- **Bai; niri, batzuei galdetuta, horixe esan didate: zazpi-zortziren bat tona izango dela.**
- Bai; eukiko'u. Arek uekoik eztu geo, e? Ua mazizua da, e? Joliin!

- **Eta jendia larri ibiliko zen 33ko ujal hartan?**
- Zubiyo in bitartian, zubitikan amar bat o ogei bat metro beero, Diputazi-yuak egurrezko zubiya in tzun, egurrezko zubiya inda eondu zan. Andik ibiltze giñan gu, batea ta bestea, denboa askuan zubiya in tzuen arte.
- **Beraz, behin behineko egurrezko zubia eraiki zuen Diputazioak...**
- ...Ez baizan ziero eroi. Ontan geatu zan: erdiko matxoyak fallatuta, bi muturrak beia jotze zuela geatu zan. Eta oñezkua al tzan bezela an ibiltze zan; baño aik lanian ai ziala, nundik pasa biar tzun jendiak? Eta in tzun eurrezko zubiya azpikaldian. Oaindikan'e billatuko nuke nik or: Suteiko aurreko baatza, nola or pareta Don Ambrosion terrenuan?, da paretai ola moztu ziyen: defentsako paretai zun arek, ta an lengua billatuko niyoke paretai etena. Emen lurren arrasetik; baño an, aldapa ez eoteatik, paretai bajatu zuen lurren terrenoaño; ta andik jarri zuen.
- **Eta gerora, esan dugunez, 1953an atera zuen beste ujala bat, eta zuk bizi izandako handiena, gainera; orduan zenbat metroko urak altxa ziren?**
- Gue etxian, metro bat “nobenta”, or. Exkalla-malla or do. Antxe, prist-prast!



Mapillen, eskalletan gora iyota goyen zan sukaldia, eskubita; ta sukaldian metro ura o, esate'ue an'e

- **Hortaz, erriotik zuen etxera zazpi-zortzi metro egongo dira?**
- Altura?
- **Altuera, bai, altuera.**
- Oi nik eztet ondo zeatzen baño... Ezta gauza zalla nee ustez baño...
- **Mapilko sukaldea bete egin zuela esaten dute.**
- Bai; eskalletan gora iyota goyen zan sukaldia, eskubita; ta sukaldian metro ura o esate'ue, an'e.
- **Eta Ezpaldiberri eta inguru horietan?**
- Kamiyua Ezpaldiberria raso jarri emen tzun, raso jarri; zeatik ez, ala esate'ue –galdetu bestela an ibillitakuairi-. Alak, baakizu, sesenta'u altura, eta alan muturra kamiyoa ateatze zula: kamiyoa iyoko'te naiz... ez ote naiz... Kamiyotik Joxelontxonea aldapa do, bi metro iguak eongo'ia; eta, bestela, Ezpaldiberriko atain jar zaitezte, ta Mapilla beiratu ze koska itte'un. Ujala atea zun, ujala!
- **Eta, zein etxe eta baserri hartu zituen urak?**
- Ezpaldi, Imanolen da etxi oi Joxelontxonia, Artutxenia're bai, Mapil, Izoztei ta Itzau –azkeneko irurok, iya beti–.
- **Eta egunaren barruan, zein garaitan bota zuen gehien euria? Entzuna dut azken hamabi ordutan egin zuela ikusgarri. Horrela al da?**
- Aurretik bota ta bota, bota ta bota, ta orduako lurrak eta erriyuak danak ase; ta geo azkenian eman tzun golpi arek: “Beno, oain baniek ni nai dean lekutik!”. Aide!
- **Gaez gaizki ibiliko zen horregatik jendea!?**
- Gabez. Jendia, ba, nei etzait asko konprenitzen; baño esango'izuet nola esate'un jendiak: “Eskerrik asko, gabez tokatu zala!”.
- **A bai?**
- Bai; ta zenbatti esan, ta, ui!, gabez obia alda? Ta bai: eunez izan balitz, jendia atrebittu ingo zala bee gauzeta, ta makiña't eamango zula aurrian-aurrian; ta gabak in tzula erretiatu jendia. Eunez izan balitz, aundiyaua ingo zula, desastre aundiyaua ingo zula esate'ue. Oi eztakiu, ezta proatu-ta; baño joliin!
- **Gaez jendea ez zen kuxidade ederrean ibiliko horregatik!: gaez alakin eta...**

- Alak’e, alak’e an tzianak danak eamanak.
- **Ez zen izango argirik?**
- Argiya? Ze izan biar tzun!
- **Eta nola moldatu zen jendea?**
- Kandela zunak kandelakin.
- **Kandela, argi, orduan?**
- Eta zunak. Eta emen argiya –zuek... etzakit goatuko zeaten baño– Aro-zenen argiya gendula: argiyen llabiai eman piztutzeko, ta ola beiratu, ta tristei.
- **Ipurtargiarena bezalakoa, hortaz?**
- Batez!: piztu’ek, baño batez bezela.
- **Aizu, eta nor zen Arratibel denbora iragartzen ibiltzen zena? “Arratibelek hau esan dik eta hura esan dik”, besterik ez zen entzuten garai hartan. Nor zen Arratibel hau?**
- Arraztibel orren alaba ezautu nun nik eta semia’re bai. Ezautu nittun. Emen zeian... Troyan bizitze zan, or.
- **Eta zertan aritzen zen?**
- Micheliñen, lanian. Jendiak esate zun andik eta emendik-eta, txitxariak ateata’re antzemat’men ziyola. Don Juxto, meikuba zanai, arek ala esan emen tziyola:
 - *Zu, Don Justo, lan asko al du biyarko, etziko-ta?*
 - *Bai, lan asko zeuka’pa.*Zeuka’pa ta:
 - *Lenbailen in bitza! Kriston ujalak datozi!*
- **Hamar-hamabi metroko urak iragarri omen zituen 1953ko horretan?**
- Bai; etzakit zenbat. Olako’at. Don Justo orrek, baezpa, ateata bee bueltak in emen tzittun. Kriston ujalak, eta Don Justok ala esan emen tzula: “Gizon orri beiratu in bier zitzayola”, e? Orri entenditzen zitzayola, ta gizon orri beiratu in bier zitzayola”.
- **Harrigarria benetan, baina aurrez ari omen zen esan eta esan.**
- Etzian amabi metrokuak, baño ujalak. Ai ujalak!

- **Eta “gipuzkoana” autobusa ere ujala honek eraman zuen. Autobusa bete jende galdu zen orduan.**
- Eztakit emen izango zan.
- **Bai, bai, hemen zen. Azpeitiko alde horretan galdu ziren.**
- Azpeitia baño leno. Nunbatt’e Lasao aldian, or zean batian. Bai. Jende asko! Bajen bat izan biar tzun, esate’ue, da txoferrak bajunia pasatzeik ez; ta baztertu emen tzun mendiyen kontra, ta esate’men tzula txoferrak, esate’ue, “ateatzeko ta beak emango zittula mendia”; ta bestiak, ezetz!: “giro arekin kanpoa ateatzea etzijuaztila”. Ta geo autobusak buelta eman, da goitik beera.
- **Bai, bai, gogoratzen naiz ni; 1953an gertatu zen.**
- Bai, bai; ordun gertatuko zan.
- **Eta azkeneko ujala –handi xamarra hau ere– orain dela hogei urtekoa izan zen: 1983an. Gezurra dirudi, baina ujalok denak hiruakin bukatzen dira: 1933, 1953 eta 1983. Azkeneko hau, abuztuan: San Bartolome egunean. Hara hemen, abuztuaren betean sekulako euritea! Nork esan!**
- Ujala au bestia’paño ttiqiyaua izango zan; baño puntuk bade beti gaizki ibiltze’ianak, eta nik bat esan biar banu: Troya.
Gorputzetakuan, Troyakuak larri-larri ibili zian. Lurrak inguratuta’aka –lurra daka bee atzekaldian pendiz aundiyakin– eta orko urak artze’ttun erreka jute zayo aldamenea; eta ba al dakizu ze pasatze’an? Erreka topia jarri ziyela azpikaldetikan kamiyo jeneala itteakuan; eta geoztikan gaizki dabil urak kabitze eztialako.
- **Horko kamioko obrengatik, orduan?**
- Bai. Bidia itteatikan tunela intzi’yen, da orrek tope ite’yo.
- **Joxe, orain dela zazpi urte, 1997.go ekainaren lehenean, ez zuen ujalarik atera; bai, ordea, euri-kolpe larria eta latza, txikizioak ezin handigoak eraginik. Nola bizi izan zenuen egun hori?**
- Egun ortan’e Troya gaizki ibilli zan. Gaizki ibilli zian bertakuak-eta, ganauk-eta; estu ta larri!
Ordun ba al dakizu ze pasa zan? Or ba al dakizu difeentzi ikaragarriya zertan don? Leortia do e?, ta lur guztik pitzatuta bazter guztitan leorrakin. Egin egin ebiya, bota ebiya, ta ez baitu lurrak artzen. Arrastu oitan sartzea –eten oitan– ura, ta buf!, lurjausik eta kristuak! Ordun emen bota zun bezela ura (erriyua gora etortze baita Azpirozko gañetik asi ta onea), ala bota izan balu Azpiroz aldian, gue etxia eaman ingo zun.

Goizian panaderuena zortzitan orrea, kamiyoa, ta zazpi'terditan ebiya ai zin: atea ta ebiya; ta erriyua metro'at xitxon muttuba. Kamiyoa jun niñun, da nee artian: "Itto in biar dik! Zer da au! Zer da emen!" Da jarri nok beera beira, ta erriyuan barrena ura atea biarrian. Ai ba!, emen dek eta! Ala nola autobusa bat geatu xitxan. "Vengo de no sé dónde"; ta makutsik, goian-beian ai zula. Ta:

- *¿Dónde puedo aparcar yo?*
- *¡Tira para atrás! ¡Vete al surtidor!*

Galardiko surtidorea bialdu nun nik. "¡Ah, gracias aquel hombre!" esa-te'men tzula. Artu zin aren barrenak lasaitu earra!

Gauzak ola, emen dek Euskotreneko autobusa "doble" aundiy'oitakua, ta barrendik bi neska ooola iñez nai eskubakin, ayo ta parre. Nee artian: "Ai lotsabia! Emen baoken ez unan oi esango!"

Andik piskatea Usurbil aldetik kotxe'at onea. Ta:

- *Ikusi al dezu ze pasa'an?*
- *Zeee?*
- *Or lurjausiya inda. Da txoferra aotobusekua pasako'alakuan asi da, ta bestia etorri zayo gañea. Jo'u autobusa, ta goitik beera! Arbol batzuk geatu'e erriyua jun'be.*
- *Ta jendiak ze indu?*
- *Ez, sei-zapi'at laun zian-da.*

- **Eskapada ederra, orduan, Joxe?**

- Eskerrak beian alkazi-arbolak eta olakuak, dezente!

- **Zenbat lur, zenbat tona eroriko ote zen hara!**

- Gutxi: autobusa pasatzen asi zanian, gutxi; baño ua pasatzen ai zala beste'at etorri baizan, aidanez, eta aundiya.

Aizu, Jabier, gauz bat esango'izut: goitik beera eroritako lurra etzan baka-rrik kamiyuan geldittutakua. Geyena erriyua jun zan gainezka: lautatik iru bai, erriyua. Eta zergatik? Mendi'yorrek pendiza ikaragarriya'ulako.

- **Usurbillen ibiltzerik ba al zegoen egun horretan?**

- Zein ateako'iñun emendik ara!? Ezta iñor'e ateatzeik!

- **Eta nola utzi zuen Txokoalde?**

- Zubiaño jun giñan gu. Jata trenbiria arrakatu zula, e? Simone aldian, or, kotxe'at iya zubiyen muturrurreaño. Zubiyaren bi aldeta bazun, ba, kaida; baño urak zakarkin martxakin zubiyen muturrurreaño ekarri zun kotxia. Ango jeneruak eta angó trastiak! Illunbek artu zula pasaa earra ordun! Txokoaldia dana ondatuta, bidiak eta danak gauza etziala!

- **Zenbat denbora iraun zuen euri-kolpe hark?**
- Bost ordu-edo tanker'oi.
- **Gehienetan, ujalak direnean, euria egunetan egin ohi du; eta ez hemen bezela denbora laburrean eta baldeka.**
- Ni goiz artan atea nintzan ogi-billa; eta panaderuen zai neola, Jorge panaderuen zai neola, Zelestino "Galardiazpi" difuntuba ogikin; da arek, ogik. Eta:
 - Jorge Galardin zio! Eztek atrebitzen pasatzia, iñoa abitzeik ezta-kala-ta.
- Ogi neekin nittula, beera baserria jetxi nitzan. Da: "Urak beera baziaz-tik," nee burubai. Sukaldea etorri eta zeoze iñ'uneako, amarretako bee lekua bilduk, urak; urak beera jun tzian erriyuan. Baño emen bota zun bezela Azpiroz aldetikan, Leizalde ta oitan bota izan balu, gue etxia eamango zin!
- **Aizu, Joxe, ujalak kaltegarriak izan ohi dira. Zer kalte egin ohi ditu uja-lak?**
- Gue ataiko lurak eta zubiya bitartekuak, leno zian baño metro'at baju-bo zek, gutxienez; eta zenbattek esan dezake: "Oi nola litteke"? Golde-tu ta kristo in, ta goldia noaño allattu'an arañoکو lurra eamate'ik. Ostea prepaatu, ta eaman itte'ik.
- **Horregatik ariko da zuen etxe aurreko "isla" hori hazi eta hazi?**
- Leno bertan xitxon da oain araño jun dek: geo ta urrutiyo zakau guri lurra kenduz. Eaman, bintzat, kristonak itte'ttula orrek! Zeoze aldin bein uzte'ula, baño...
- Beno! Attu izanduit –etzakit ze iruittuko zaiken–, Jabier, ta: "Ujala obia, ba, sua baño!".
- **Biak ere ez dira traste ederrak, Joxe!**
- Ba, nik, bintzat, ez bata ta ez bestia!
- Bai; oaindik zenbat urte'ia? Ezta denboa asko konbertsaziyua ekarri gendula, ta Oriyo aldetikan Donostiaño mendi danak, danak kixkali! Subak eztik barkatzen da ujalak zerbait artze baldi ma'ik, an utzi! Esa-era ba'ek: "Suba ta ura, belaunetik beera". Eta nik anka azpin nayo!
- 53kuan, onea etorrita Oriyoko suiya, danak etorrita emen gendela nik esan niyen:
 - Beno, beno! Emen aurreneko gauza in biar dena, atiak atea!
 - Atiak atea! Zeatik atta?
 - Alde! Atea danak eta eaman ganbara!

Benoi! Itxita dela uranditze baldi ma'ia, geo zenek iriki biar dittu aik? Ondona, ganbaran.

Atain don bajune ontan, zerran moztutzeko su-egurrak bazazkala-ta, gue suiyak an jarri. Ta:

– *Or alperrik aize'a, urak eamango'ttu-ta!*

– *Urak eamago'ittula!?*

Baita laiste eaman'e! Bea akordatu baño leno!

Geo utzi zun, etxe barrenian, amar zentimetro baño geyo loya.

– **Eta erriberak? Nola geratu ziren erriberak?**


– Urte ontan, ujalak, octubrian. “Asi ke,” erriberak baarrunez beteta; eta, esateko, biltzeko moun; baño ujalak, danak eaman, dana eaman tzun ujalak: artuak, baarruna ta zeon guztiya. Dana ziplatuta utzi zun, da zikinduta erribera guztiya: loya, txotxa eta zer ez! Auxe itte'u ujalak: bier eztan tokitik artu, ta bier eztan tokin utzi.

Erriberak lur ona'ttu, baña arriskuba auxe'u: UJALA.

2004

Errioko pasadizoak





Juanito Galarra

Arrantzaliak, año 55 ingurun, ni multil koxkorra nintzala, ainbeste arrai arrapatze zan, da exkabetxeyak'e nai ez; ta askatu baporeko postiak ipurditik Oriyoko zubiya pasatzeatik, bertan etzanda jarri, ta Agiña aldea –gora– basarritarrai antxo eskaiñiz. Ta urdun erriberan zala gue attai:

- “Daldagorri”, antxoik bier al dek soroako?
- Igual. Zenbatian? Bi pezta paatuko'izuet.
- Bi peztan izetetzeko, bertan putzua botata're igualtsu uan. Lau bierko'ik.
- Bueno!, urdun lau; baño zuek ustutze aldea!

Baldeka –bi tonela bai– antxoa muntua ustutzen: beatzi laun baporian, da antxua zelayako ustutzen. Ainbeste izen, ainbeste arrapatu! Ez bakarrik etxeako; daneako aña.

Iñork nai bazun'e, tiñako saltze gendun. Tiña zan egurrezko barrika koxkor bat bi aldetan eskulekuk zittuna. Antxoz beteta pixatxe zun irurogeita amar kilo inguru. Antxo-buruba, exkabetxetikan ekarrita, saltze gendun tiñako oita bost duruan; eta antxo osua, berriz, oita amaseyan.

Urdutik onea gauzak earki aldatu'ia! Urdun erriberako batza guztik antxoz beteta ongarritako; ta oain, berriz, platerako antxua, kiloprezia, illargin. Arrapa zak!

* * *

Ontzi'atetikan bestea soka arrimatzeko eo botatzeakuan, esan diyo batek bestiai:

- I, erria, erria txikota!
- Ezin allatu eo iarri zioz eztala allatuko, ta sokoi ureta. Urdun soka botatakuak:
- Eaaarra pasa zaiuk oaiñ'e!
- Bai. Nolaz utzi'yok?
- Allatzeati'pa; ze uste'k! Ba al dakit ze pasaan? Bi puntetan motxegi. Orra jakin nai b'ek! Askotan gattuk gu motxegi, bi puntetan motxegi.

* * *

Oriyoko Frantzisko "Linternerua" jun uan bein Mapilla erriyo aldea, mualan gaikaldeko ondar-munttoa, eta ala esan tzin batian:

- Kalako bat, anka-geldin eta danak eoki-eoki jarrita, batez beste kalako bat arrapatuz, kilo-angula bayetz!

Kilua ezetz ta asi'ttuk an; da zortzireun gramo bayetz'pa!, ordun Frantsiskok.

Eta bestiak:

- Zortzireun gramo, baño eosita, e?: bizi-kilua.
- Baaai, baaai, bizi-kilua; eta bayetz arrapatu! –Frantziskok atzea in be.
- Bañan kalan bat arrapatuz –bestiak bein da berriz. Ta:
- Bayetz'pa, bayetz, kalan bat!

Azkenian iñork etziyon kontra iñ. Aiñ uari itte zun kala! Bi milla in biarko zittun: eztaka geldi eoteik.

Olako makiña't ezbai izete zan erriyo ingurun.

* * *

Ikeaaaarri eualdi txarra zan!: aizia-ta, ebiya-ta... Ikeaaaarri txarra! Gabarra San Frantziskokin Patxi Malpilkua –leman– Joxelontxoneko Juan da Manuel Ezkerrenekuakin; eta ni Antton Mari Ezpaldiberrikuakin, atzetik beste gabarra etxeakuakin; da dexente tarte'e izango uan; izango'ttuan an irurogei metro baño geyo batetik bestea.

Eaaaman tziok aiziak txapela Juani, ta kolpe tira zioz eta emen det txapela bee alturan aiziakin; da nik gabarrian, atzetik, tep!, tia ziot golpe eskuakin, da elbiya bezela arrapatu nin. Orduntxen'e milagrua pasa uan!

Ur gañian amaika olako ibillera in bier izetek, alajañena!

* * *

Igande-goizaldea, Gaztelu bee laun batekin Ezpaldiberritik etxea zijoala ta Uriberriko aitz aundiyen gaikaldetik anguletan ai ziala ikusita –or arriya eta ur-zulua bakarri'ek, eta seguruna atoyian aiko'ttuan alero'at baño geyo–, ta Gazteluk ok ikusita onako bertso au bota emen tzin:

Jendiak badaduka
aberastu naya,
bi angulagatikan
utzirikan oya;
kalatze dute, baña
utsik dator baya.
Ola santifikatzen
al dezute jaya?

* * *

Itzautarrak ba emen tziyen abildaria erriberatik kamiyoa arriya tiatze-kua. Kamiyoaño allatu're, ba'ek zerbait!: gutzako bide asko kamiyotik erriberaño tiatzia're, goitik beera. Baña aik beetik gora ordia! Eongo'ttuk larogei metro zabal erriyoa, ta gora berakua beste larogei –altura– kamiyoa. Tira in bie'ik!

Manuel Joxe zanak, Komaizteikuak, Antxomolaztik erriyoa allaitze zula eta Komazteitik erriyoa allaitze zula're esate ye.

Erriyo onek dun toki zabalentxona, Lastolako zingira izango'ik. Da Antton Mari ezpaldiberrikua neekin ibiliya uan ondarretan. Da alako eokiya uan arriya tiatzen, alako dotoria! Ez uan uretik iru metron altxako arriya ua; baño jun da jun, da jun da jun... Motillak, earra uan aren arriya tiatzeko eitura!

Gue JoxeMaik'e bai. JoxeMai Galarragak zingiran gustoko arriya bazun... Eun metro baño geyo eongo'ttuk; eunda berrogei're igual. Beste aldian –zaika tartian– zop! sartze uan arriya ua gustokua bazun.

Alako aukera izete uan learrian! Ba: sei arri aukeratu, geo piska't aurea-xio jun, aik utzi ta earrauak azaltze'ttuan. Nai eztala're, arrika aste itzan.

* * *

Bazian gabarrak, ganau-gabarrak'e, al(a)-itxura andiya zuenak. Ondua plataforma bezela jarri ta leun-leunak: zulokerren koskak kendu ta ganaun-sarrera aurria ta atzia izeteko, ta polañakin batea ta bestea mane-jatze zianak. Gurdi kargatubakin igual: ximorra, ondarra, erremolatxa; ta bueltakuan, arto-ta... dana oso-osorik ondo dotore itte zuenak; ez zea... nola-ala, alakin-da bizkarka. Gabarrako polaña aundiyaua izete zan bestia'pañõ.

Mapillen bazian ortako gabarran soziyo: Urruzpendiko Kandido, Mapilkuak beak, Mapillerrekakuak da geyo're bai. Joxe Salmasteik beria zun; baita

Anastak'e, beria: biyak bana. O biyak erriyo ixkiñan-da, Itzau aldeko erribere-tan-da –beeko barrena zan baño–, an lana in bier; eta andik pasaa zuela, ondo: bizkarka baño errezo.

Ganau-gabarrak etzuen asko iraun; urte gutxikuak izen tzian: aldiartako terrenuak saldu bezin laister, gabarra'yen bizitza bukatu zan.

* * *

Agiñan –Intxorretan– bauan kablia. Naigenduenekuak Arrillaundi basarri-tik jetxi'ttuan, da kablia jarri ziyen Intxorretatik goitik beera, erribera. Bea'-pai, beak alian pasatze'ttuan; baño kablian pasatze xixkiyen sortak manibelakin erainez, beste kabliak tiatze ziyola: kablian txintxilika zeon txi-rillan kakuakin sorta peatu, ta manibelakin buelta emanez eta tiriaz, jate-nak eta ekartze xixkiyen.

Auntza eaman bier tzanian –ximorra're igual–, auntza goitiberakuan errex jute uan; baño onuntza (leorrea eo etxe aldea) nekezo, kablia aldapakikua zalako.

Orko atta-amak errizildarrak ittuan. Seguru asko igari're etziyen jakingo. Nola urez bestaldetik lurak zittuen, adelantu boixe sortu ziyen. 1968 urte ingurun desaertu uan kabli oi.

* * *

Kandido Lastolakuak eta bee andriak “bodas de oro” in xixkiyen, eta geo “bodas de diamante're bai, 75 urtekin. Baxixkiyen amairu seme-alaba eo, ta tartian iru monja're bai. Bagiñin osaba't orko'atekin ezkonduakua're, Pakita-eo izena zunakin ezkonduakua.

Ona emen Baserri bertsolayak ordungo La Voz de Españan jarritako bertsua:

Oso gazterik lanketa ori
artu zendun maitekiro,
pena da, baño lengo denborik
ezin etorri berriro;
ederki asko zaindutzen zendun
noiz zan ortarako giro.
Zenbat angula etxeratua
ote zera, zu, Kandido?

Makiña't karraituba, erriyo aldetik! Esate zun Iparrarreko erreka-mutu-rian kalatu zula. Ta ainbeste karga bayak! Da urdun bee artian: “Au eztk nik ateatzen. Lertuko zaiak baya!”.

Atzea kolpeka-kolpeka, baya ustuz, atea emen tzun; baño aingira-naastu-ba zan.

* * *

Eizazpiko Axentxio zanak, batian, bee semia ta Felix Lastolakua ta irurok nai gendun tokia jun, gorde, pixka'tian eon, da bayetz asmatu ze posturretan eon giñan esan tziun.

Eta ala, erribera jun –urez baztarreaño jun–, puxka'tian eon danok eittura desberdiñetan bat ara ta bestia onea, ta ainbeste biaje inda bueltatu'iñan Asentxiona, ta onek:

- Nai al dezue asmatu bayetz nola eon tzeaten?

Eta guk:

- Ezetz!
- Zuek ipurdiz atzea eon tzeate.
- Oooo!; sartu zaiuk earra!

Iñork itte etzuna itte zun arek: urtia zein eunetan aste zan esate baziñun, andik aurea nai zan fetxa galdetu, ta pixka-pixka'tian eon, da tapa!, asmatze zun asteko euna iñungo okerri'pe. Eztakit nola itte zun, baño ala itte zun.

* * *

Au're larritasuna uan! Gabeko amaika t'erdik eo izengo'ttuan. Esate bate-ako, illuna. Muellian baporiak asko xitxen Oriyon, igual ogei. Tubal izeneko bapora berriya're an xitxakaten motor berriyakin abanten (Arosteginian), atzia bi estatxa leorreko muellian den mutiloita lotuta.

Motorra berriya'nian, oita lau ordun eokitze'ixkiyek asentatzen, abanten, proatzen; da orreatik Tubal baporiak Oriyoko zubiko azpikaldia, dena, zurrun-billatuta xitxakan.

Beti bezela bagetxiaztin zubi-azpiya pasatzea “lisasi” gabarrakin; da urdun Imanol kontuatu'ek zerbait baala: etxitxon lemak indarra billatzen. Da au ikustian, ziero larrittua esan xitxaian:

- Juanito, eztiu gauz onik! Ezin dik manejatu gabarra!

Eta nik:

- Lasai, Imanol, pasako'attuk eta!

Imanol bee aleiñetan ai zala, zubi-azpiya pasatzeakuan ikuttu zin matxoya ezkerreko aldiakin; da urruna, berriz, zubiya pasatuta seittun, muskillarrik; da ezkerrea eman ziyonian airi iesteko, dziiiiin! jo zin azpiyakin ua're beste aldea iñez, da urdun Imanolek:

- Juanito, beira zak aurrian, bodegan zeoze baan!

Bazin bietz ttikiya sarteko mouko zulua arriyak inda, ta al'e nik Imanol lasaitzeatik:

– Lasai, Imanol, eztek ezer-da!

Bodegan zulua zala-ta, urak kubiarta jotze zin presiyuakin. Again bat azal-du'an an nuna'atte. Jarri giñin, bultzan, goyai takiatuta zakuakin; da ala etorri giñun Mapilla.

Ara!, artzak ondo esango dean au: urdun metro t'erdiko kutxillua sartu Imanoli, ta etzin emango odolik, etzin emango! In tziin lana pranko ua mane-jatzen!

Lasai, Imanol –esate nitxon nik–, lasai! Ua dardarra! Zui-zui, ua dardarra arena!

Ontziyak eztik frenuik: abante eo “atrás”. Urian ezin izete'ik gizonak in, in nai duna. Uuuuuua ibillera guria ordukua! Etziot opa alakoik iñoi're. Ontzi galantak, ur miak, eta ezin baliatu. Aaaaaa! Aik ibillerak! Jesus, Jesus!

Baakik ua guztiya zenekin konpaatuko nuken? Onekintxe: “Iru token bost karga, artutako token deskarga”. ORRATX!

* * *

Arraunian –Konpaxtarri'pe–, Oriyo agiñarrakin. Sarasua (Iñaxio Sarasua zaarra) patroï ta direttore, ta bera jakiñentxona.

Entrenamentua jute emen ittuan Erretzal-da daaanak. Kuadrilla latza! Ala-ko'atian Torretxo parian geldittu, ta Sarasua zarrak galdetu emen txitxen:

– Ze iruitze zaiuzue, mutillak!

Ta Imanol Ikutzak:

– Eztiu itten!

Urdun Erretzalek:

– Ik eztek ingo. Nik itte'it!

Imanolek eantzun:

– Ezta ik'e, eztek itten!

Igarri itte zayo ubera pasatzian, zertxoko aballa eo aurrauna errex eo nekez pasatze'an; da berriz'e Imanolek:

– Ezpadeu Konpaxtarrik nai, ekartzaun Bixentiko beike!

Baña alperrik izan tzian Imanolen aleñak. Donostia estropa jun tzian, da aurrena San Juan, biarren Jaizkibel, Iruarren Oriyo. (San Juanek amazapi segundo Oriyoi).

Urrungo jayian beste estropa, toki bertan; da Batista Konpaxak Agiñako estropalayai esan:

- Zuen ontziko onena kendu, sartu ni, ta estropa iraaiziko nitek; bandera etziok iraaztei'pañõ.

Zerbait ikusi Bautistak, eta ondo itz in tzin. Orri esate zayok esan, orri esate zayok itz! Ortako beez biar dik birtutia, ta Bautistak bazin.

* * *

Bein, xapu-arraya tiruakin akatu ziyen. Arek bazin buruba telebisiyua añe-kua. Atea'ye alea, ta poup poup! itte zin. Asi'ttuk eta larrutu'ye. Asi'ttuk ken-tzen mamiya, ta belaka-belaka, belaka-belaka; baña kendutako belaka ua're jatekua uan: uretan eoste zanian, goortze zan aragiya. Bueeeeno!, azkenian erdiko tronkua pusketetan banatu ziyen: Imanolek eta oik pusketetan eaman ziyen.

Zeñek pentsatu bier tzin alako arrai klase raro'at xapua izen bier tzunik! Itxasotik erriyoa sartuba xitxon. Ikusita bildurra emate zin, ez gendulako ezautzen. Amalau kilo izengo uan.

* * *

Erriyuan Mapildik gora iru ziabogeta –lau “largo” eo lau luze esate zayo-na– Agiñako gaztiak jokaturakuak o zian: Felix “Lastola”, Iñaxio Altsua, Joxe Antonio Pikabea, Bittoriano Pikabea, ta Iñaxito Ikutza (patroi).

Txokoaldetik, berriz: Jexux Kaatxekua, Lontxo Urdangarin, Joxe Manuel Mitxelena, Teodoro Beiristain, da patroiz eztatit zein tzuen, bierba Patxi “Juxto”.

Agiñako gaztiok jokatu zuen bertako zaarren kontra're. Kondiziyua jarri zuen Ezpaldeberriko Mielek zaarrakin jokatzeotan –onek asko pixatze bai-zun–. Estropa au gaztiak iraaizi zuen; baño ortan entendittu'atek esan tzun zaarrak askoz'e dotoreo itte zuela.

Olako estropak, ain mattiak! Ontzi'yoik eta arraunak relikiya bezela kontui-tte zian; da San Praixku igandian mariak zaittu, ta urdun jokatze zian estropok.

Beste desapiyua're izete zan: Perretzeneko nausi-morroyak alkarren kontra; angulik etzanian inkan-minkan asi, ta indako estropak. Erriyo-muntuak jendez beteta izete zian olakotan. Poza emate zun olako giruak.

* * *

Ainbeste aundiko zaletasuna, ainbestekua geniyon erriyuai!

Goatze naiz gu igari –geintxonian igari ibeltze giñan– emen, goiko zingiran. Ala gabitzala, kuadrilla'tek triñeilla ekarri zun bizkarrian; da eztakit nundik ekarriko zun; bierba Errastiko garajetik. Auspez eamatea ontziya, ta ureta bota zuen buelta emanda. Gu, esanda bezela, muntotik beira ta igari. Urdun kuadrilla orrek zer pentsatuko, ta triñeillan Getaria jutia txakoliña eatea. Etzan au bat'e broma ona: txaaarra, astakeya!

Oriyoa allatu zianian, bertako zaarrak beira mualla txikin, da bee artian pentsatu're bai: "Oik eztittu'pa ateako kanpoa, e!?"

Kuadrilloi asi'a kanpoa ateatzen, irauli zaye ontziya, ta urdun larri: Martin "Luziak", Mutizaaleko morroyak, igari jakin ez; ez emen tzakin bate igari taaa... an emen tzian komerik! Oriyokuak motorrakin jun da ontziya bildu –beak'e bai–, ta komeri latzak! Aide jun emen tzian ain bromak eta txakoliñak!

Urdun ontzi yartan izendakuak o zian: Martin "Luzia," Andres Ezkerrenekua, Anestaxio Ikutza, Benito "Ixoxtei" eta JoxeMiel "Bajute" –patroi–.

Nee iritzin oik uzte izen tzuen "guk'e ingo'iu, ba, arraunian". Onak bazian, baña ok seundakuak.

* * *

Guk'e ondarretan bagendun gue rekorra. Imanol Ikutza, kapitan da patroi –dudi'pe bi baño obia bea bakarrik– eta ni, Juanito Daldorrikua, launtzalle.

Ze earra dan kapitan ona aldamenian! Ni launtzalle ona nitzala geoztikan jakindu'ek. "Iisasi" gabarran ibilli giñan. Gabarra au kolerez berdiazan; oita amairu metro luze ta beatzi zabal; lareun tonela ondar, jornako, ibiltze zittun; il bat berrogeita iru maria indakua bagendun, gau ta eun; bai, ondo esan det, berrogeita iru maria. Imanolek eztakit zenbat iraziko zun; nik neria esango'et: nik zortzi milla pezta, illeko, 1966. urtian. Gabeko maria, jornako, lareun pezta: geoni kargatzen, geoni ekartzen, da geoni ustutzen.

Batian –zailtasunak'e erriyuan izete'ia-ta– batian, ondarra falta. Bagen-dun ofizinako'at "Galbao" deitze geniyona. Urdun, garay'aitan, izan biar tzun Kapitan Galbao izenekua baporen bat sekuestratutakua; ta eztaki'pa nik, aren antza zulako-eo deitze genion gue ofizinista oni're "Galbao". Donostin bizi izete zan eta eunero Agiñako "Arenas y Gravas" izeneko enpresa etortze zan ofizina.

Etorri'a, ba, eunero bezela goiz batian, da ondarrak ez: saltzeko ondarra falta. Ta urdun "Galbaok":

– ¿Qué ha pasau hoy?

Guk eantzun:

– Ha habido niebla y no se ha podido traer.

“Galbaok” eantzun:

– Si no hay niebla, es riada.
Si no hay riada, es mar;
y no hay choques porque no hay barcos.

Aaaren amorraziyua! Ondarra falta, jendia zerbitzeko.

* * *

Mapilko ondarretan bazan grua't kutxaria ibiltzeko, egurrakin suba iñez, kaldera gazez bete bier izete zitzayona. Askotan kutxareka ondarra artu, ta geatzen zan eziñian, sssok-ssssok sssok-ssssok, altxa eziñik. Gruista zan Daldorriko Sebastian, gue atta, ta alakotan esate zun: “No hay letxe! Itxoin in biarko'iu, mutillak!”

Xebastian “ttikiya”, Isosteikua, zan fogonero; eta attak esate ziyon: Xebastian, sartu sub'orri egur onak!

Egur ona izeteko leengo arrastero zaarrak eoste zittuen. Oriyoko zubi gai-kaldea ekarri, ta Santiyoko erreka-muturrian lotze zian.

Alako'atian ujala etorri zan, da gue atta “Goyerrik”: Kable pare'at geyo bota biarko zazkau, ba, motillak!

Urdun an tzianak Sebastian “Goyerri”kin batea: Kandido Urruzmendikua, Manuel Ezkerrenekua ta beste'atzuk. Momentun enaiz goatzen geyo bestenik.

Baztarrian trenen trabeseta lotzen zittuen kabliak: alakin bapore zaarren gañea eaman kablia –uzten-uzten–, da puska't luzatu arte jun bier izete zan.

Artan ai diala Juan Joxelontxonekuai kabliak nunbait ittuan eo tartian arapatu'yo anka, ta beakin batea plasta!, ta putzoa. Ez agiri ta ez agiri: bost minutu pasa ta artian agiri ez, arrastoik ez Joanenik. Bela etorri zan Agiñaño notiziya Juan itto zala. Oi disgustua bee izebak, Mapilko Manuelak!

Juanek ur azpin, etsita, pentsatu emen tzun: “Akabo, neriak in dik!” “Jesukristo nere Jauna” errezatzen asi emen tzan. Ala ai zala dirrrrit sentitu emen tzun ankian, da Juan gañea: zazpi minutu ur azpin, da nolaz eztakiula, ur gañea. Milagrua!

Bapore zaar oik kendu aldea eote zian Pasain. Oso egur ona izete zuen kaldera beotzeko.

* * *

Gabarra ta “Miren xarra” baporiakin –Oriyoko Torretxon– Tomax zana, Joan, Patxi-ta... gau t’egun ibiltze’ttuan. Ur illak ittuan, da eguardi alde-ao ziesta in bier tzuela bajamartu arte. Geo, maria jotze alde-ao, korrentak’e ill eo attu itte’ttuk kargatzeko barra alde junda. Torretxotik altxa anklak, beera jun (barra-muturrea) ta arriya-ta, zapatazala-ta, egurra-ta... makiñat olako puska zaar ugari kargatze uan.

Olako lanetan danok ankutsik ibiltze giñun. Da siestan dela or sartu zek bietz tartian Tomasi periodiko pusketa’t. Eman zek su, ta or jarri’ttuk danak siesta-itxuran ezer pasa ezpalitz bezela. Ta allattu zitxayonian sub’oi bietz tar-tea, beruatik geo ta estubo bietzak, eutsi itten, da aik ostikuak! Itzali nayian putzuba urruti anka sartzeko, ta azkenian beak putzua salto in bier, itzaltze-ko. Oi lanak!

Ala’re orrek etzin bate aserretu Tomas. Seguru asko parra ingo zin; baño etxitxayon aztuko eta peatuko zin: txerrimuñik nola izete’ian ordañetan, zaituko iñun. Alakua uan Tomax.

* * *

Garai artan, La Costa autobusa urduntxe asi berriya Micheliñeako jendia eamaten goizeko seitako; ta beti bezela: Joxe Juan Berezi-artua, Eskudero, Eduardo, “Txanka”-ta... motoik etzuna autobusian jute zan da etorri’re igual; da Laxaun eroi, da putzua. Laxaun parian –etxien pare-parian– artian illun zeola, ta kamiyuak bajunia itte zun tokin gertatu; kamiyua ziero jexten zan tokin irauli. Ta kontatzen asi’ttuk, eta bat falta: Eduardo Ortzakakua falta.

Ur-ixkiñekua izen, da igari beste alde pasa zan. “Berritza” aldetik oñez zijuala Patxi Ximonekuakin topo in du, ta galdetu’yo:

- I, ze pas’ek or?
- Or? Ni’re or niñun, oain emen natxiok paño. Etzekit, etzekik, etzekit... Nee billa ez al dittuk ibilliko eo!

Jendia, berriz, “Eduardo au nun ote da?”, galdezka; larri ta estu Eduardo falta zalako. Ta ala ai ziala batek:

- Mote, zubin ikusi’t!; Txokoaldeko zubin!

Orduntxe jendia lasaitu; danak salbo ziala-ta, orduntxe lasaitu.

* * *

Gabarra koxkor bat bagendun. Kanaletik ibilli bier izete zan, da kargatu deu Oriyoko barrako karamineruen kontran, kontran-kontran; da an ikuste’ttu arrantzan bi zaar kañabel earrakin. Da urdun gue attack:

- Qué, pican?

Bestiak, guruguru-guruguru ezer ententenditze etzayela zerbait eantzu-nez. Eta geo gue attak:

- Si no os pica San Pedro... ¡No sé quien os va picar ahí!

“Si no os pika San Pedro” esaera au ibiltze zan, zeozen ustian biltzen asi karretia, ta amuben puntan zarba bat trabatuta-eo zetorrenian: kanalian bota-tze bazendun kañabela, seguru asko “San Pedro” batek pikatuko zizula; ta orreatik gue atten atealdiya.

* * *

Tomax zanak –ua beti umoria ittekua zan– umoria in itte zun arek bee buruba jarriz; ez umoria jarri besteen kontua. Ta etorri zayo galtzak askatzeko larriya, ta or junda Oriyoko Torretxo beriak ittea. Ta urdun Joxe Antonio Mapillerrekakuak:

- Tomax, ezetz eakutsi ire atzia!

Gaba zan, baña paola zorrotz-zorrotzak izete zian erriyuan batetik bestea rrrra! argi eaaarrakin, da urdun Tomasek:

- Pronto al zeate?
- Bai!

Ta:

- Ai ba!

Rrrrrra! ipurdi zuri-beltza azaldu Tomaxek. Umoria in itte zun arek; ez jarri bakarrik.

* * *

Oriyoko barran gabarra kargatu –ta illak izengo’ttuan–, da marian zai zubi-azpiya pasatzeko, ur piska’t bier izete uan; ez geyegi’re, gabarrak goya zin da.

lñularra uan terral punttubakin, baño goya klaro. Ta Imanolek:

- Gaur naiko lanak izengo’ixkiu etxea juten (terralla atea zulako, aleiya).

Jarri emen uan Joxe Antonio Mapillerrekakua gora beira, ta onek eantzun:

- Errex jungo’attuk!
- Nola iartu’yok? –Imanolek–.
- Beira’yok!: ego-aizeko izarrak dir-dir ite’ye, ta oi aizien siña-li’ek.

Olakotan gabarra utsik bazan, bertan utzi ta etxea; baño kargatuta bazan, amaika olako kezka sortze zan. Etzeon uzteik eozin mouz, ta korrika ibiltzia alperrik izete zan; mariak aintze zun, da buruz jukatu bier.

* * *

Kayuak, amaika amorrasiyo emateko jayuak! Ikuste baue, argi!, ate ttikik eta ate-kabik; laste jungo'ia billa jan-gose. Oain ate asko uarittu'a: Lasarten, Oriyan gora, Iruran-da baatzaxkin oitan asko uarittu'a. Kaltia're bai: sartu letxu tartian, da kaltia itte'ue; baño oin politasuna, eartasuna ta doto-rezia ikustean esate deu: dabiltzala! Oik or dabiltzan bitartian, urak etzek zikin-zikiñak'e!

Ta igual ate'at, eun batian amasei ate ttikikin; da urrungo eunian, iru-lau gutxiyo; urrunguan'e beste iru-lau gutxiyo; ta azkenian, iru-lautano jetxi. A or, kayo gosatien lanak!

Lasarten, jubilatuk kayuak uxaka ibiltze'ia ate ttikiyen kontra'ijoaztenian. Jetxialdiko ate ttiki bat eamate'u, lotsaa'be-lotsaa'be, bee moko zaarrakin; da beñ'e asetze ezta, gaña: beti jaten ai dana da animala zikiñ oi!

Irura aldian-da izete'ia kejak baatzetako kaltiengatik; baño ezta atiak bakarrik: or ibiltze'ia antzar zaarroik'e, naiz silbestriak izen oneako jarrita daudenoik. Sake earrakin, je!, batzetan kalte earrak iñez.

Atia politta'a ur gañian; baño kayo goseti'yoik nork errendittu!

* * *

Gabez erriyuan eztek iñor ezautzen. Ezautze'k pixka't inguratu ezkeo; baño, bestela, eztek aleroik ola-ola ezautzen. Baño bauan urrutia ezautze zan alerua: Martxelino Daldorrikua, Fermina bee alabakin. Fermina atoyian da bea polañian: ala maneja ta baya ibilli.

Gizon ttikiya uan, baño goor jokatze zuna; ta polaña ez gatzatzeatikan –polaña busti ezkeo ixilik jute'k–, polaña ez gatzatzeatikan urrutia aitze uan kiiiirrik...kunk kiiiirrik...kunk kiiiirrik...kunk. Da ezta alkarri esan'e ez emen xitxen itten; danak ba emen xitxakiyen zein tzen polañian zatorrena: Martxelino, ez polaña gatzatzeatikan.

Polaña itte'k uretan busti, ta urdun ixilik etortze'k; baño uretan busti ezkeo, errezo gastatu're bai ordia! Polaña ez gatzatzeatikan kiiiirrika ta kunka sentitzian esate ziye: “Emen diu Martxelino!”

Mendin asko ibiltze uan Martxelino polain-astak aukeratzeko're; baño iñ'e, iñ iñ bier izete uan: zakiñak inda're, ez uan beti gustokua izeten.

* * *

Eizazpiko Asintxone parian –urez beste aldea, Muskilarritako azpikaldea-
eo–, or bazan bitxurra ta ur ona're bai. Ezkerreneko Andrexek esate zun, ango
ura ean ezkeo, mozkorra seittun pasatze zala. Ura ona, pixka't urruti baño.
Ibili zan Errastiko Eleuterio ur ua erriyuan pasata, estratan azpikaldea ekar-
tzeko tubuan; ibili zan da laundu izan baliye, in ingo zun, gaña.

Ur ortatik Guardane aldexio Txorkoa do, eta onek ordeka aundiya du:
aundiya du Txorkoak ordeka. Ara zijuan batek or ikusi'u basurdia; ta eskun
bee itaya ta soka zittula ai emen tzan pentsaten: “Ze ingo'yot nik oni?” Ta
artan, muturretik elduta tia emen tziyon itaya, ta kirtenez aurea zasta! sartu
ipurdin.

Sartutako itayak erre ingo ziyon, da ortzakin ua arrapatu eziñik, bueltaka-
buelta, oaindik alako garo-ebakitzeik arek iñ emen tzun!

Garo-sorta billa jute zan jendia txerriya il bier zaneako, garo uts-utsa nai
izete zalako ua erretzeko. Ondo jasota eukitze zan garu au.

* * *

Ujalak. Ujal ondorenak. Ujalak ekartze'ttun zakar; ateatze'ttun arbolak,
saar-arbolak; erremolatxa-sallak arrasatu; bajunetan mausarra utzi, geo osi-
ñetako (**asunetako**) zinkinkeya sortuz; da ekartze'ttun gauza pilla: batzuk
Estauenak diala-ta; bestiak beste nausinak, berriz. Eta ortxe zakar-biltzen
Ezkerreneko Joxe, Benito ta beste jende asko're bai; ortxe, danak, orko kuxi-
rariak zuzentzen.

Ikusi izendu'a tronko earrik Zubitako zerrakuak. Txerri'at-e bai –bizik–
Sanistongo zubi azpitik ezin pasaik, jo zubiya ta marruka. Aik kurruxik!

Ikusi izendu'a gue besteko Daldorriko Martxelinon Uarteko erriberetan
(arbusto errenkan) papelerako rolo galantik'e; ta artzen asi ta guardak arra-
patu, ta geo aren etxe ondoa eamateko aindu. Eamate ezpazendun, paatuko
zendun earki!: etzizun lisasitik iñorkinik artzen utziko; ezta orko egurrik
eamaten'e etzizun utziko; naiz zue terrenuan geatu, al'e ezta zuria; ta beak
golpe zorri'pe, ezer in be, zu etxea ekartzen asi ta arrapatze baziñun, aren
etxea eaman bier.

* * *

1940.ian, udazkenian, azaruan, Txoaldeko zubiya dinamitatzeke zuluak
itten ai emen tzian pistolakin. Urduko gerra asiya zan, da “gorrik” esate ziye-
nak dinamita zuluak itten, atzetik etorriko zianak ez pasatzeko. Karlistik o
anarkistak eo reketiak o, eztaki'pa nik ze izenekuak izengo zian. Aitzea dea-
nez, nafarrak emen tzian.

Zubi'yoi leertzeko dabiltzala enteratu'ia agiñarrak'e, ta ezin eon, ba,
etxian. Txarke'yoi itten ai ziala-ta ezin eon, da pentsatu'e: “Ikusi bieixkiu”.

Illundu xamartu zun garayian, abittu zianak o'zian: JoxeMai "Ttikiya" Etxe-bestekua, Joxe Juan Etxeberrikua ta Xebaxtian Daldorrikua.

Antxemolatxa aldea arrimatzen ai zian bezela, sentitzen emen tzuen mallu-soñuba. Ua bildurra! Irurak'e bee arnasik ez emen tzuen aitzen.

Errasti aldian gora Antxemolatx aldea urreatu zianaian –makurro izetea-tik–, belaunka: Galardiko aldapa gueneaño, lauankian. Illetargi ona emen tzuen, da Galardin zentinelare bai, ikusi. Tun...tan tun...tan golpeka an ai emen tzian zubiyai zulua itten dinamita sartzeko.

Zelatan ala zela, Galardiko zentinel oi ikusita eo aren iesi, txakur bat belardiz belardi; ta onen soñuba attu zuenian, or aste'ia zirriki-zarraka, "emen dixkiu" pentsatuta. Oaindik alako anka-jokoik Errasti atzian beera! Pasa emen tzuen kamiyua, ta Lastolan beera erriyo-baztarreaño. Joxe Juan da JoxeMaik jo murgil, ta tunel-boka, igari. Xebaxtian, gue atta, berriz, artian Errezildik Agiña etorri berri xamarra; igari jakin ez, ta unuzkaldian geatu zan erriyo baztarrian gordeta.

Jabier, naiko lanak izan emen xixkin bee buraba gordetzen gue attack: aundiya uan da!

Urrungo goizian, danak salbo etxian emen tzian.

2004

Errioko hiztegia



A

Abante: martxa: *abante, abante auro emedik, angula gora ziek eta!*

Abil: irteera emateko ahotsa: *Agiñan, bai ala-apustuko, bai korrikako... aaaa-bil! esate'k -marruka- salida emateko.*

Abittu (abiatu): martxan hasi, abian jarri: *abittu gaitezen auro; bestela, maria galduko'iuk eta!*

Agai (haga): zurezko atal zuzena, luzea, eta lodin eskumuturra hainbeste-koa, eskuz erabil daitekeena: *agaya iru metro luzekuauna da; lorin, esku-muturra añekua; muturra -zorroztua- lokatzetan sartzeko ta ala lotzeko, noara jute zanian.*

Agaika: (hagaika): polainaz, hagaz edo hagaiaz hondoari eraginez, ala eramateari deritzo. Ekintza honi "hondoka" edo "hagan" ere esaten zayo: *mariabera zitxon, da agaika pasa nok aldiarta.*

Agan (hagan): ikus agaika (hagaika): *ur mian ezin in izete'a polañian iñ, da urdun agan in bie'zu; ezpakizu, iñalak jota're, eztezu ontziya zuzen eaman-go: ikasiya bie'u erremeyoi'pe.*

Aideatu (aideratu): urgaineratu, ur-gainera joan, altxatu...: *ala ondoatu zaiuk eta aideatzea guaztik.*

Aidekua izan (aiderakoa izan): izatez edo berez ur gainean geratzen dena: *arriya eztek aidekua; ondoa jute'k. Egurra, berriz, aidian geatze'k: bata aideku'ek; bestia ondokua.*

Aingillurdia (aingilurdea): txitxare-kordaren makila: *kañabela txuia esate zayona oso makala izete'a: ezin du auantatu indar piskat'e. In ezkeo, krak! itte'u. Urdun bier izete'u urriz-makilla. Lizar eo aldakaitz luze xamarra'k'e baliyo izete'u, besteik ezian.*

Ur aundin bazendun espeantza aingira bazeola, ta urdun alperrik jungo ziñan angillurdia motxakin; ortako bi alkarri lotuta jarriko ziñun. Geo azaldu zan arrantzako kañabela esate zayona. Aik zian luziak eta earrak eta ariñak.

Aingira: suge itxurako arraina, luzea eta azal-labaina, Europako errio-ibae-tan bizi eta Sagarzo itsasora joaten da ugaltzera: *esate'ue Agiñako aze-kitan badela amar urteko aingira arrak. Urtero azeki batzuk garbitze'ia, ta oitan arrapatu izendu'ia kilo erdikuak.*

Aingira nastuba (aingira nahasia): angulak eta aingirak batera harrapatzen direnean, kalatuz: erriyuan ezin bizi, ta iñun erreka garbiyik ba'a, ara jotze'u arrayak. Iparrarrekako erreka-muturrea asko jute'a urdun. Alkarri bultzaka ezin kabittuik, antxe danak! Kalatu ta: aingira, angula, lupiya, kor-koya, ixkira, amorroya... Ta aurreneko lau bat kalatan, kontuz ibili baya lertzia nai ezpezu! Aingira nastuba're ateatzea urdun.

Aingira-odola: aingiraren odola: bein Agiñako mutil bat, oso langillia, baño erayai piska't emate ziyona; ta esate zuenez, nola-ala naizun oi ebitatzia. Ala, ba, esan emen tziyen:

- Emango'iu orren erremeyo zaarra; baño in, in in bier dek, e?
- Benga, ba, urdun!

Aingirak izette'ttu iru odol ttantta. Ortako bi'eu, gutxienez, bi urtekua ta biziik dona: ildakuak eztu baliyo; eztu odolik ematen.

Bi laun bier izete'ia oi itteko. Buraba baño atzeaxio -kokotian- ebakiya itte zayo, ta ontzi'atea jaso. Bi eunetan, baxo erdi'at ean bie'u ortako. Gutxienez irurogei aingira bie'ue bi baxo erdi osatzeko.

Ala, mutil orri eskontzeko fetxak allaitu xitxaixkan da "despida de soltero" eman'e bai, usabiyua zanez. Agiñako Etxebesteko komedorian eman tzun, da urdun ni're an nintzan: gutxienez irurogei laun bai, an, bee launik aundinak.

Guk txanpain da guzti zelebratu gendun. Arek "kas de limon" bakarrik ean tzun. Da esan tzun:

- Geyo eztit alkoolik eango. Aingira-odola artuba natxiok. Usayak'e botalarriya emate zaiak.

Oi emen da erremeyo zaarra garai'atekua. Ara or ejenplua danentzako!

Aingira-ziorra (aingira-zigorra): ikus angillurdia: aingiretako ibiltzean makillai esate zayo aingira-ziorra. Mutturrian in bier izete zayo, buelta guztin, alako aska lege'at kordela ez galtzeko.

Aire: nitrogenoz eta oxigenoz osatutako gas nahastura, eta gizakiok arnasa hartzeko ezinbesteko zaigun elementu preziatu hori: erriyo-bazterrian aire earra zabillek! Emen ezтик ain bero itten!

AITZ-OKERRE (Haritz-okerre): erriotoki izen bat, Ezpaldi pare-parean urez bestealdetik: irureun urte izengo zittun arbolak. Txintxilika eote zan erriyo aldea. Nunbait, zañak arri azpin zittun. Beiñ baporía lotu geniyan, bildur-bildurak, ta ala're etzan eroi. Geo zubi berriya itteko ibilli zianian, urak tras-tornatu zittun, da akabo aren biziya! Bertan beera eroi zan.

Aixkoa (aizkora): zura eta kidekoak ebakitzeko erabiltzen den lanabesa, burdinazko xafía laua, aho zorrotz eta begidun batez, eta begian finkatzen den zurezko gider batez osatua: izuarrizko zerbiziyua da. Erdi aterian don iltzia're jo itte'zu; eta etzanda don arbolén batian tratatzen bazea, aixkoa ttikiya akordatuko zazu!

Aize (haize): eguratsaren higidura; higitzen den airea: earki kostata ekarri'u ondarra!: ala aize-kontra etxitxon iya muiteik'e.

Aize-golpe (haize-kolpe): indar handiko haizea: gabian, galerna gutxi izete'a o batez; baña anguletan ai zeala aize-golpia ekartze'unian, onela esate'a: "Aize-golpia! Galerna-begiya izengo'k! Kanbiyua'ik!". Au, naiz eta ezer ikusi ez, aize-golpia jo'ulako esate'a.

Aize-olatu (haize-olatu): haizeak eraginez, ur gainean sortzen dituen uhinak: gaur arrauneako etzeok aitzakiyik, naiz aize-olatu piska't badabilen; itx-suak etzakak asarreik.

Aizia ekarri (haizea ekarri): haizea atera: Donostiko estropetan, geyenetan, biarren tandako aizia ekartze'ik; izete'k batetik bestea aldeik'e. Oixe bayetz!

Aizia jo (haizea jo): haizea atera: au dek su-arua! Ez un giro, baña aldatu'ik: aize punttuba jo'ik eta ostuak asi'ttuk dantzan.

Akula: Ahoa orratzaren itxurakoa duen arraina, luzea eta mehea, hezurdura berdexka duena: akula'ek arrai berdexka muturra zorrotzakin. Beñe ezittut ikusi irunaka baño geyo. Mariagorakuan Oriyoko zubiko azpikaldian ikuste'ttuan.

Ala: gabarra txiki bat, eta errioko urontzirik zaharrenetako. Aginagan bai behinik behin: aldiartan, lur onak eta ariña'ia. Jun-etorriya itteko, ordia, ala oso bierrezkua izete zan. Etzitzayon beiratzan mariajai: beian bazeon beian; goyen bazeon goyen. Bee biitxur legiak inda eote zian, iyo-jetxiya alea itteko. An baarruna geyo izete zan, da igual eunero iru aldiz pasa bier izete zan alakin.



Garai'at bazan irurogeita amar baño geyo ala zianak. Gaur etxe bakoitzian kotxiak bi ta iru bezela, urdun alak izete zian etxero. Aber ze erremeyo, ganauk eta geoni're mantenduko bagiñan!

Urdun, dana alakin:

- Bai anguleta jungo bazan, alakin.
- Bai aingiretako, alakin.
- Bai amarretako ta ixkiretako, alakin.
- Bai lupitako ta beste eozin arrantzako, alakin.
- Bai ondarretako, alakin.
- Baita erriyotik –etxia itteko– arrik ateatzeko're, alakin.

Alik gabeko etxiak'e bazian. Ok garua ebakitzea lissia pasa bier zuenian, Txokoaldeko zubitik oiñez ez juteatik –nola luze xamar itte zan– ala eskatze zuen, da eman itte zitzayen; baña erreparuakin. Alak bee konplikazi-yuak izete baitittu: nola amarratuko, nola kontuingo ta beste makiña't gauz; ala're, ainbeste jakingo zuelakuan, eman itte zitzayen.

Leno esan bezala, ortaz, dana itte zan alakin, alakin da alakin. Gaur kotxia bezela, urdun ala ezinbestekua izete zan.

Ala atea (ala atera): ikus aideatu (aideratu): atzo ondarreta jun, da Marrotaldian ondoatu. Urrungo eunian launtza eskatze zayo bate'ati esanaz: "I, launduko al diak ala ateatzen!"

Ala atea (ala atera): uretik lehorrera atera: alak jaryua zakak eta ateatzea guaztik konpontzeko.

Ala bota: lehorrean dagoen ala uretara bota: gue etxeko ala konpondu'ye ta gaur bota bie'iu. Launduko al diuzue?: zuek bi ta gu bi anayon artian aisa botako'iu, azpin rodilluak sartuta.

Ala etzana: ala mutur makurra: ustez lengo plantillakin ala in diu, ta aurrekua jaikiyaua atea zaiuk.

Ala-ezpain: alaren karel-gaina: ondarreta jute zianian, puntaño-puntaño, karga-karga in da ibiltze'ttuan alan ezpañetaño, ura sartu ez sartu. Batzuk ondoatu're bai.

Ala-iltze: lauki formakoa eta muturretik bururaino loditzen dijoana: bee neurrikoa edo ontziyak eskatze'un bezela-kua bia'u ala-iltziak; luzegiya baldin ba'a, egurra lertze'u.



Alan azpiya (alaren azpia): alaren azpialdea: alan azpiyak bier izete'u ool bana bi aldetan aitzakin indakua; ta erdin beste bat o bi, ametitze'ttun zabalekuak.

Alan azpiya bota (alaren azpia bota): alaren azpia egitaratu: nai nitek alan azpiya lori xamarra botatzia, ganauk ibili bia'ixkit eta; beste alde, zabalegiya be, lijerokxa izen dein nai nitek

Alan muturra: ala handiaren aurreko punta: al(a) aundiyak eamateu bee muturra lori-loriya ta zabalxka, al(a) ttikiak ez bezela. Kolpiak artzeko defentsa bat da, ta katia andik lotuta izete'u.

Alan punta: ala txikiaren aurre-aurreko edo bukaerako punta: al(a) txikiyak armayua bezela eamate'u kajoi koxkor bat bee puntan: zirak, oñetakuak, paola ta... traste geyenak sartzeko. Muturra txorrotxa'u, ta orreatik esate zayo alan punta.

Albaka, polañian (alboka, polainean): saiheska: gorputza sayezka aurrea-atzea ibiliz eta polañakin urai eraiñez, itte'a albaka: bai arraunian, bai polañian, amarretatik beatzin albaka jute'a.

ALDAPA AZPI: erriotoki izen bat, Aldapa baserri azpiko erriualdea: erreka ttiki'at ba'a aortzeana. Puntu boi dala-ta, askotan itzeite'a onela:

– Nun itzan bart?

– Aldapa azpin niñun.

Anguletan, aleiya. Puntu politta, anguletako.

Aldero (aldaro): okertasuna, balantza: *pas'ai beste aldea, alai alderua kentzeko!*

Aldiarta (alde hartara): errioz bestealdeko lurretara: *aldiarta jun dittuk baarruna biltzea, ta zuen etxeak oska ai dittuk ala eske.*

ALDIARTAKO PORTUBA (Alde hartako portua): erriotoki izen bat, Mapil parian errioz harantzik dagoena: *urez auztik do sartu-atea. Ganau-gabarrak in tzianian, aldiartako portuba zan irteera urez bestealdekoa; baita ontzi yau in baño leno're. Isosteiko ganau guztik ortik zuen despitxuba, alakin pasata.*

Aldik dittuk (aldik dituk): olatuen ekarraldik: *Ara: gabez anguletan ai aiz kalako ogei angula arrapatzen, da urrunguan bost bakarrik; urdun ire burubai esate yok: "aldik dittuk."*

Alero: ala-eramale: *andik, Lastola aldetik, datorren alerua Joxe Juan dek. Aren gerri eta posturak ezetik fallatzen.*

Almeja (ikus txirla): *almeja'ek txirla baño aundixeua ta illunaua. Bautista "Konpaxak" esate zin, bajamarrian beyakin da gurdियakin –goldia gañian duela– arrasto'at iñ erriyuan, da bildu ta bildu "neikua" esan arte aitze ziala. Ortik atea kontuk zenbat izengo zan!*

Altoki (alatoki): ala uzteko edo amarratzeko tokia: *sasoi'atian, iya Agiña guztiyak bazun bee etxeke altokiya. Toki leun da txokunian –babesian– itte zuen. Ur-ixkiña danena omen dalako, etzan presiso bakoitzat bee etxe parian ittia. Oi bai: bajamarrian ala flotian eongo zan tokiya miatzen zan beti.*

Altxaarria (altxagarria): alaren estibor aldetik, falka edo kuina gisako ohol bat anguletako, kala egin ondoren bahea altxatzeko: *Altxaarriya au ool bat izete'k: metro t'erdi luzekua, bi txaplat aurrian da bi atzian –anka gisa– alan kostau. Anguleta jun bier danian jartze'k. Baya ur gañea ateatzeko baliyo'ik.*

ALTUTA: erriotoki izen bat, Urruzmendi baserri parean dagoen zingirato-kia: *Altuta, bai erriyuai, bai erriberai, bai Urruzmendiko ta Lertxundiko aluniai deitze zayo.*

Artian learra tapatu'be zeola, marian zai jendia gora pasatzeko; ta Altxutan –onuzkaldeko baxtarretik– angula-aliak arrapatu oi zittun anguleruak ur ttikiya zalako atoyeako: gora pasa zai eon bierrian, beti're sayatu.

Altz (haltz): lur hezetan hasten den zuhaitza, enborra iluna, liraina eta oso zuzena, eta hostoak biribilak eta erorkorrak dituen: *altza da zain ttiki-kua; urak aldatu eozin tokita itte'una; okertuta're, lear gañian igual-igual ernetze'ana; ta zenbait lekutan uari-uari azaltze'ana.*

Alune: ala uzteko edo amarratzeko tokia. (ikus altokiya):

erriyo baztarrian jartze'a alak lotzeko, al dan eosona.

Alune batek gauzok eamate'ttu:

- *Exkalla.*
- *Pasaizua.*
- *Palizak (2).*
- *Txarrantxak (2+2).*
- *Banda.*
- *Biitxurra (bidetxurra)*
- *Trankara.*

EXKALLA: oso zuzen, goraka izete'a; zeatik, alan kostaubak mallai ez eltzeko.

PASAIZUA: exkalla etzanda bezelakua da, ool piñakin itxita aldenik alde. Au leorretik aleako pasaizua da.

PALIZAK: al ba'ia alkazizkuak eta zuittuk, bertan lotze'an sokak irrist in dezan. Alunian gaikaldian da azpikaldian jartze'ia ala lotzeko.

TXARRANTXAK: al ba'ia egurrezkuak, muturrian ursillua eo txardanguakin. Muntuan sartuta, ta palizan mutur aldian jartze'ia palizan balantzai eusteko. Txarrantxak eamate'ue ool-ziria't o bi ipurdin josita, lurretik ez askatzeko.

BANDA: pasaizuak eskubi o ezker aldetik eamate'un eskulekuba.



Amarra: itxaso eta erriotako karramarroa; gorputza biribil antzera batzuk eta beste batzuk trapezio formako oskoldunak: *bauan garai'atian pilla earrik; gaur'e etzabillek makal. Ixkira gustokua'ik eta onen atzetik ibiltze'k arrapazka. Bazakiu erriyokua itxasokua baño beraxkaua'la, baño aperitibuako eztittuk gaizki etortzen.*

Amarra: alak eta lotzeko soka nahiz katea: *garai'atian, alan atzeko amarra ezker-ayenakin indakua're ezautu'iñin. Aurrekua, burnizko katia; ta gaur-gaur, kate galbanizatuba.*

Amarrak bota: ala amarrez lotu edo amarratu: *ujal-bildurra'nian eo ebi asko ai dunian-da, onela esate'a: "Amarra't geyo beike bota al diyoze?"*

Amarratu (ikus amarrak bota): *Uriberriko alunian amarratu zak, bela jungo nok eta!*

Amorroi (amorrai): ur geza eta gazi-gezako arraina eta azal nabarra duena: *amorroya alde earra do errekan arrapatu eo erriyuan arrapatu. Askoz bizi-yaua da erriyokua, ta lika're gutxiyo'u.*

Amu: Arrainak harrapatzeko arpoi antzeko pieza ttiki bat: amuk eztittuk danak berdiñak; batzuk aundiyaguak bestia'paño: arrantzak aintze'ik

Amukak preparatu: amuk janez bete: amukak preparatzeko o dittuk jaki goxonak: txitxaria, loyorra, ixkira ta mumurrua.

Amuraka: Amua –arrantzan– ur korrontea dagoen lekuan botatzea: amun jana jarri biarrik eztu. Txapai “media luna” bezela amuba jute'a lotuta jiato-yuakin. Billante-brillantia izete'a txapa; onen dirdirrak arraya engañatze'u.

ANARRI: Erriotoki izen bat, Txorkoan parian errioz honantz aldetik edo kamio aldetik dagoena: Anarrin makiña't aldiz ujala eondu'a iya-ia erribera tapatun. Barrengo aldetik lurak bajuxio'ia, ta urak andik aste'ia pasatzen erriberetan barrena. Bajamarrian –Jainkuak munduba in tzun ezkeoztik– ikuste'ia arribrankak erriyuan. Ur ttikitan motorrak in pasa bier b'ezu, kontuz ibili toki yortako berri ezpa'akizu!: arriyoik oso txorrotxa'ia ta ontziya zulatuko'izue.

Andesa: arrain mota bat: andesa arrai oso earr'ek. Txitxarro aundiyeen antzekua –orixeua–, aba (**aho**) txikiya ta isats mia, gerriya luzia ta jakitxuba. Zazpi librakua'k bai, arrapatze'ttuan. Playian (bajamarrian) kordela jarri, ta urrungo bajamarrian igual bilduko'ttun sei-zortzi... zein baño zein. Zapo-amarra gustokua'ik.

Angula: aingirakumea, txitxardina: angulak beti gora itte'ik. Urteako lareun gramokua itte'k: aingira biurtze'k. Tolosatik gora're jute'ttuk. Pareta aundinak pasatzen au bezelako arrayik ba ote? Atzeaka-atzeaka pasatze'ixkiye aixa'sko! Ikusgarriy'ek on abildaria! Onela'ia angulen gora-berak:

- Ilberrin sartze'a itxasotik erriyoa.
- Ilbetian oso gutxi sartzea.
- Ilberrin sartutakuak dia, ilbetian arrapatze'ianak.
- Ilberrin izete'a angula txuiyaua ta gizenaua.
- Ilbetian, amarretatik zortzi, amabost eun leno sartutakuak arrapatze'ia; eta izete'a beltxauna ta fiñena.
- Agustu aldeako aste'a angula berriya sartzen; da apirilleako ezurra aste zayo, eta abian krak! itte'u.

Angula gañian ibili (angula gainea ibili): angula uraxalean ibili: atoyakin junda azpitik baño axaletik angula geyo ateatze'anian, “angula gañian zabillek!” esate'a.

Angulak baztarrea jo (angulak baztarrera jo): ego-aize aundiya ta ur-korrenta-kin angulak baztarrea jotze'ik.

Angulak jo: angulak hasi erriogan: angulak jo ye, baño eztek agiri: urai zerbait billatu zek! Oaiñ'e auskalo ze bota'yen!

Angulakiya (angulakia): Angula aingira egiten hasia: *martxo aldea ezkeo angula zaartzen jute'a, ta berriya ezta sartzen itxasotik. Urdun illargi berrin arrapatzea angula beztuba: buruba ta belarrik azitze xaixka, ta ezurra're bai, naarmen. Da urdun esatea: "Naiko aziya zio: angulakiya; baño jan nai dunak jango'ik!"*

Makiña't aldiz esan izendu'a: "Au etziok iñoi eskeintzeik! Angulen formak aldein tziok!"

Sekulako pillak arrapatze'ia denboa aurea dijuan bezela; ta ttiki aurkiya saltzea eaman, da gañuntzekua olluai bota: amorratu'ia, gordin-gordinik.

Angula ondo zio (angula ondo zagok): angula harrapatzen ondo ari: *beian angula gutxitu, ta gora datorren bati galdetze bayok: ze mouz angula, ondo al zio? Eta "ai leikek!" eantzute ba'ik, dana esan dik.*

Angula-punttuk: angulatokik: *Ermalda, Salmastei, Botaleku, Saikola, Muella-berri, Latindei, Intxorreta, Isostei alunia, Lear-txiki, Mapilko ima, Txañeta, Zingira, Enaluz, Txorkua, Iparrarreko erreka muturra... ok ittun angula-puntu sonatunak.*

Angulatoki berdina: angula harrapatzeko tokirik erregularrena: *ondo asko zakiu angulatoki berdiñena nun dan: Saikolatik asi ta Latindei bitartian. Or erriyo guztin arrapatze uan berdintsu.*

Angula zabal etorri: errio guztian banatuta etorri: *ego-aize pil-pil eo ur-zikiña bezelako zerbait sumatze'unian, bee senak emanda angula erriyuan zabal etortze'a.*

Angulero: angula-harrapatzaile edo saltzaile: *kala bakoitza bost alekua o bazan, "gaurkuak in dik!" esate uan; da au ezautze zun angulerua bauan zerbait.*

Ankekua (hankekoa): Traineruan patroiaaren ondorengo arraunlaria: *itxasua'-nian, noiz jo ankekuak aintze'ik olatuba ondo aprobetxatzeko.*

Ankutsik (hankutsik): oinetakorik gabe: *oaiñ arteko aukerik ez eta, bai erriberan, bai ondarretan, bai eozertan, iya beti ankutsik; baita negun'e -naiz ebiya- ankutsik, ankeko bietz-tartiak ebakitzeaño. Urdun'e bizi ordia!*

Antilla-belarra (antila-belarra): belar mota bat: *antilla-belarra osto txabalekua da, zuztar meetxukua, eozin paeta zulotan azteana ta leorreko plantilla belarran antzekua. Toki garbiya nai izete'u.*

Antxo txikik: antxokumea: handitan antxoa egiten da sardinaren itxura hartuz, eta alditan erriora ere sartzen da: *antxo-denboan, izen dia eunak bandak sartutakuak erriyuan. Anguletan arrapatu izendu'ia bayakiñ'e. Oxoxuan goxua'ia jateko.*

Antzarra (antzara): hegazti igeri-oinduna, ahatearen antzekoa, lumak arre-ak, mokoa laranja kolorekoa eta gorrixkak dituena: antzarrak gabez alkarri ujuka aitze'ia. Tirua tia ta eritze m'ezu, kontuz jun artzea. Ba'a kope-ta zulatutakua mokuakin.

Apar: isurkari baten gainean sortzen den burbulla ttikien ugaritasuna: baz-tarrian olatubak brasta-brasta jotze'ik apar zuriz.

Apareju: arrantzarako tresneria: ona emen arrantzako apareju batzuk: amuba, butroya, ixkiapuba, esparbera, atxamarta, elisia brilluakin, txuikiña...

Ardora: gau ilunetan barkuk eta, sortzen duten argidura bizi-, azkar- dirdai-tsua: gaur, triñeruan beandu zabiltzak. Ara itxasuan nun ikuste'ian pala-ardorak.

Argolla (zirgiloa): metalezko pieza borobila, eta bertan kateatzeko edo amarrak egiteko balio duena: Agiña-ko alak bee argollak ezkerreko aldian eaman oi dittu, alak erriyoz gora beira jartze'ialako beti: atzian lau ta aurrekaldian bi, ezker-eskubi, eaman oi dittu. Argolla-iltzia erreruak surtan indakua izete'a beeziki.



Arlasta: (harlauza): harri nahiko handia, mehea eta laua: kontuz erriyo baz-tarreko arlastetan, irristatu ta brauts eroiko aiz-ta! Makiña'tek ipurdiko latzik artze'ik oitan!

Armazoi (kostilla, zulokerra): alaren funtsezko nerbioak, eta berauei loturik muntatzen da: sasoi'atian, alako armazoyak pieza bakarrekuak izete zian indar aundiyaua itteatik; eta ortako lisasi mendia jute zian arbak prestatzea, zegokiyeen okerdura ekartzeko; ortako muarrota itte zittuen

Arraba: ainbat arrainen arrautz-multzoa: bai ixkira, bai amarra –emiak– arra-bez josita eote'ia udazkenian; orreatik eztue uzten arrapatzen gaztelaniaz-ko "R"-ko illetan: setienbre, octubre, noviembre, diciembre, enero, febrero, marzo, abril: urdun "bera" (debekaldia) daka arrayak. Mayo, junio, julio ta agosto illak eztakate "R"-ik, eta illotan arrapatzia bado

Arrai (arrain): uretako animalia ornoduna, odol gorrikoa eta zakatz-arnaske-ta duena: garai'atian, Agiñako erriyua oso aberatsa zan: arrai asko izete zan. Geo, ordia, ziero kiskali zuen papelera-fabrikak botatakuakin, arrai guztiya desaertzeaño.

Arrai-banda (arrain-sarda): erriyoan elkarrekin ibiltzen den mota bereko arrain-multzoa: zalla izete'a arrapatzen arrai-banda korkoya baldi'ma. Urdun ezparbera zabaltzen dakiñik ba'a, a ze otarkak! Berreun ional.

Arraigorri (arraingorri): arrain mota bat: amorrayan antzekua –motxexeua–, eskama aundikua, kolerez gorria ta ur zikiñetan aguante aundiya'u.

Arrai-xaltua (arrain-xaltoa): uraren gainetik arrainak egiten duen saltoa: *ixkira xabalian danian, lupiya urganian saltoka ibiltze'a ua arrapaka.*

ARRALDIYA (Harraldea): erriotoki izen bat Uriberri baserriaren azpialdean dagoena: *Uriberriko arraldiya, ixkiratoki aparta. An ezpaldi'ma, argi!*

Arranpla: **arrapala, maldaxka:** oso ona izete'a muella batian da erriyo-ixkiñe-tan *arranpla: urgolpia leuntze'u, ta denboa emate'izu lana itteko.*

Arrantza: **arrain-harrapaketa:** sasoi'atian, Agiñako erriyuan lupitan arrantza onak itte zian: *erriyo ona zan lupitako.*

Arrantza jo (arrantzara jo): **arrantza egitera joan:** *amaika basarritar bazan, ganau-lanak iñ ondoren, gabian arrantza jotze zuna: anguleta jotze zuna. lual -eunero- amalau ordu lanian, biarrak erainda. Aik garaik!!*

Arrantza ona o txarra (arrantza ona edo txarra): **arrain-harrapaketa ona edo txarra:** *igande ta jaitan papelerak lanik etzuelako, urrungo eunian urak garbik izete zian; da urdun arrantza ona, politta. Beste eunetan, berriz, jendia keja papelerak ur zikiña botatzeatik. Urdun, jakiña, etzan arrayik sarzen, da arrantza-re kaxkarra: batez!*

Arrastea (arrastea ibili anguletan): **ur-ontziaren bi aldetan angula-baheak jarrita, motorrez arrantzan egiteari esaten zaio arrastea egitea:** *leno anguletan etzian motorrak in ibiltzen: alakin itte zuen. Gaur, berriz, baxtarretik ai zeala eta gutxiña espero zunian, zeorren kontraño jungo zaixkizu arrasteruak. Akabo zue angula-aliak!*

Arraun: **zurezko haga, luzea eta buru-zapala, eskuz eraginda ontzia mugitzeko edo zuzentzeko erabiltzen dena:** *gaur, fibrazkuak itte'ia; baña urdun, garai artan, norbeak eo zekiñak in bier izete zun al tzun bezelakua; egur batekin indakua, al bazun.*

Arraunak bi parte'ttu: asta ta pala.



Arraun-asta: **arraun-haga:** *asta da arraunen eskutokiya. Ba'ia arraunak egur batekin iñak, baña ziara makalak ateatze'ia: bizitasuni'peiak. Aparte bie'ue arraun-pala ta arraun-aga alkarri lotuta. Oaiñ fibrazkuak itte'ttue kolakin peatuta. Askoz'e biziyauek eta ariñauak itte'ttue.*

Arraunbakarrian (arraunbakarrean): **bat polainea eta bestea arraunean ari-teari deitzen zaio arraunbakarrean:** *maria jo'ik, eta arraunbakarrian jun bie'iu beandutu baño leno.*

Arraunketa zabala: **kolpe luzeko arraunketa:** *arraunlaya goraxio o beraxio exe, urai eltzeke aldia bado; eta arraun luziakin itte'a arraunketa zabala.*

Arraun-pala: **arraunburua:** *arraun-palan muttura xaplata da.*

Arri azpi: harriaren azpialdea: *ixkiretan salabardua sartu al dana arri azpitan, or geyo eote'a-ta.*

Arribrankala (harribrankala): errio-izkinetan, urak lurra janez, zeharka azal-tzen edo bistaratzen diren harrik: *ona emen erriyoko arribrankala tokik: Subai aldian –zubiyen gaikaldian–, Itzauko alunian da Txorkuan, bestiak beste.*

Arri gain (harri gain): harriaren gainaldea: *kontuz ur mian, arri gainan enka-llatu ingo aiz-ta!*

Arrikaya (arrikalaria): bezoz harria botatzen duena edo tiraka dabilena: *iru erata bota leike arriya: besagañez, besazpiz eta besuan alturan– bat'e altxa'be–.*

- *Besazpiz tiatze'unai deitze zayo: “Castellanuak bezela”.*
- *Besagañez botatze'unai: “Aidetik”*
- *Beste gainontzeko eiturai: “Ziarka”.*

Arrikoxka (harrikoska): harri baten irtengunea: *batibat ibiltze deu siñaletzat. Esate'a learrian da pasatzeakuan: I, oaindik ezin jungo'attuk; arrikoxka ez tik tapatu-ta.*

Arri lakar (harri lakar): harlatza: *itxasuak, gau t'eun jardunian, izpiya kentze yolako'ek arri lakarra.*

Arri latz (harri latz, harlatz): ikus arri lakar (harri lakar): *arrilatza izete'a oso lakartuba o laztuba. Ari kentze'yo itxasuak ondarra, iurtziz-iurtziz ai dala. Laprastan bat itten bazu arlatzian, eamango'zu siñalia: urratua, nun o nun. Arroketan ibiltzeko askoz errexaua da arlatza. Lanperna're aren azpin, seguruna. Eztu bier ziero latza lanpernetako; ezta leuna're: biyen tartekua nayo'u.*

Arri leun (harri leun): lakarrik gabea, suabea: *erriyuan zear ikuste'k maki-ña't arri leunik. Txilipak itteko're onenak, beak; borobillak eta leunak ba'ia bintzat.*

Arrimuskil (harrimuskil): hitz honen esanahia ez dago argi; nahiz, batzuren ustetan, harrimuskuilutik datorrela esan. Bai Aginagan, bai Orion, harri-muskilok ur azpiko harkaitzak dira: *arrimuskilok bajamarrian azaltze'ia orrazia bezela: Motondon da Txorkuan.*

Arringula, parringula, etxela, kamala, bibier, turrian, trunkun, trankan, prist: *ahozko jolas-esalmoldea, garai batean askotan erabiltzen zena haurretan.*

Arripaura: azpi-jasoa –inklinazioz– aurre-atzeak: *ontzi'at in biezunian, ezta itten kaja'aten antzekua. Bier izete'u bee eitura: aurre, atze ta aldamen jaso-antxa; ez lera bezelakua.*

Alak bee muturra, bi metro atzeotik asita, geo ta gora izete'u: al(a) aundiya baldi'ma, bintzat. Al(a) ttiki, txanel, eta beste ontzi askok muturra eamate'ue oso arripaura ttikiauakin; baño aik'e izpi'at, bai. Baita arrauneako ontzik'e estropetako ibiltze'ianak: batel, trineilla, txalopa, utrixier, yola, pirauak eta beste.

Arritarte (harritarte): harritik harrirako hutsune edo hedadura: oso gusto-kua'ue amarrak eta ixkirak arritartia: putzuik baldi'ma, antxe izete'ia.

Arri-zulo (harri-zulo): harri azpiko husinguneak: amorroitan arri-zuluan sartu eskuba, ta gauza otza sentittu. Ze izengo, ta subia! Oi sustua!

Arrobio (arrabio): animalia ur-lehortarra, igeri egiteko isats luzea erabiltzen duena; arruntenak orban horiz nabartutako gorputza beltza du; ur-arrabio ere esate zaio: izete'a suangillen itxura aundiya'una, erdi-luze. Garai'atian, baserritan etzan urik; eta erreka jun bier izete zan erropa garbitzea etxian indako jaboyakin aateitik (aragitegitik) segua ekarrita, galtza-barrenak eta azmantarrak bati-bat garbitzeko. Sebo-kutsuba arta biltze zian arrobiyuak.

Arroka: itxas eta errio-bazterreko harkaitza: bestiak beste, ona emen nun dian erriyoko arrokatokik: Enaluzen, Uriberri aldian, Salmastei aldian... da or urak biziyo pasatze'ttuk, ondua zikiña eztolako.

Arrotu (harrotu) urak: urak mugitu: angula polliki arrapatzen ai aizela, bateza biurtuko aiz tiraña baldi'ma: urak ondua arrotze'ik.

Askakuak'e eman (askakoak ere eman): esaldi guztiz ironikoa, hain lotsagabea ez izateko adierazten duena: "I, nun jarri bie'k? Askakuak'e emango'ixkiu". Onela esaten zayo beste'aten azpikaldian ixil-ixilik, zorro-zorro, jarri ta anguletan aste'an lotsabiai: aurrez bestiai jute zitxaixkan ale-kondarrak lotsabiak arrapatuko baixka. Akabo aren arrantza!

Askibelar: gariaren familiako belarra, zuztar etzan korapilatsua eta osto luze eta zorrotzak dituen, eta hiru-bost buruxka ematen dituen lasto motz baten puntan: kañabel ttikian itxura ba'u junturetan, eta nunai itsaste'a. Bee orrik gari-motan antzekua'ttu. Ur ttikitan azitze'a, eta maria iyo-tzian ploteatu itte'u. Urdun baya baldi m'ezu, seguru kolpe ingo'zula bee azpia, ta angula o aingira seguru xamar an.

Asko geyo be (asko gehiago gabe): hortxe-hortxe, hor nonbait, gutxi gora-behera: Patxi bart gabian leorretik attu'ek, eta kalan bi angulakin – asko geyo be– kilua arraputu'ik.

Astapiku: basapikua, pikondo mota bat: gue zarrak esan oi ziyen, beez sortze zana zala toki askotan. Alia jateko, mikatza ta lakarra; orreatik da astapikuba.

Ate grisak (ahate grisak): errioko ahateak, gris kolorekoak: oso uariya ize-tea. Bakoitza amazpina umekin igual azalduko'a nunai, baño laiste gutxituko'ia: kayuak jate'ttu; ta kabiya billatze ma'u, baita arrautzak'e.

Ate zurik (ahate zurik): errioko ahate zuriak: *aunditakuak eta ttikitakuak ize-te'ia ate zurik. Lau kilo igual –dotore askuak– arra baldi'ma.*

Atoi: anguletako makinari eragiten dion pertsona:

- *Gaur bai-lanetan primeran moldatu nok.*
- *Zeiñ uan atoi?*
- *Jabier.*

Atoi: angulak harrapatzeko modu bat, ekintza:

- *Gaur sei kilo angula arrapatu'ixkit.*
- *Nola? Atoyian?*
- *Atoyian, bai, atoyian.*

Atoi-makina: kala egiterakoan bahea erakartzeko soka biltzen duena: “P” formakua da, ta anka “S” formakua. “P”-ren begin polea egurrezkua o burnizkua eamate'u bi aldetan xulatuta, eta barrengo aldian manibela eraiteko.



Atoi-soka: bahetik makinara dijoan soka: *atoyian soka ona bie'ik, eta ondo kontu in; bestela, jai!*

Atxamarta: txipiroitako aparailua: *atxamartak –bee jiran– bost punta zorrotzak eamate'ttu gora beira, ta ezta janik bier izeten. Atxamartak botatze'un brilluakin jostatzen aste'a, ta urdun gora tiatze zayo txipiroya arrapatzeko.*

Atzeaka (polainean): polainean egiteko modu bat, alaren muturrari atzea emanez: *bi eskuk alkarren kontra dittuzula, mutur-muturretik polañai eldu urai palakak aundiñak iñez, eta anakak –al ba'a– bi baztarrak juaz. Au da polañian atzeaka. Dudi'pe, bestela baño azkarro eamate'a.*

Aurkik: bere aurreko hitzaren indargarri ibili ohi da. Esateko: handi aurkik bildu= handinak bildu; kondar aulkik bildu= kondarrak bildu; gizen aurkik kendu= gizen guztik kendu: *zulokerra itteko aitz giyarra onena, gerribuelta metrouna: gizen aurkik kentze zaixka zerran, giyar-giyarra aprobetxatuz.*

Aurrekalai (aurrekalari): txaluparen puntan dijoana edo puntakoa: *ezautu'ixkiu, gue bizitzan, arrauneako aurrekalai earrazkuak. Bat aipatzeko: Oriyoko Oliden karnizerua, bi eskuta ondo itte zuna ta eokiya. Oi bie'ik or ona izeteko.*

Autsa (hautsa), laino: behelaino xarea: *ezer eztola emate'u, da erriyo gañian betazalak busti-busti inda. Ze izango, ta autsa!*

Auzkaldia: haruntzaldea: *Agiñak, erriyoz auzkaldetik, erriberrak eziñ obiak zazkak eozertako. Lastim'ek or zubiyik eo pasaizuik ez izetia!: geyo aprobetxatuko uke!*

Azaburuba (Azaburua): arraunak –eragindakoan– sortzen duen zurrumuilua: *arraunian izete'a tranpa uari. Gerriyakin eman bizi-bizi zirtakua, ta ateko'u azaburuba. Eztue profesionalak olakoik nai izeten. Nayo'ue beti berdin tia-tzia; ez golpeka. Golpekua baldi'ma, alleran esango'ye: oaiñ azaburua atea zak!*

Nekatzian eziñ izete'u atea azaburuik.

Azei-buztana (azari-buztana): ile moduko ostoak dituen landare latza: *ize-te'ia bi klase: zuiya ta beltza. Axari-buztanan antza'u. Ipurditik ateata bota putzu baztarrea, ta an'e erne itte'a.*

Azei zuiya amorraarriya da, baña kalteik eztuna. Azei beltza, berriz, fiñaua izete'a, bakan-bakan eote'ia; baña ganauak jate ma'u, laxter iarriko yozu: tripa danak beatze'ixka.

Azpijanean: azpijokoan edo jardun makurra: *Agiñan batzuk battuk xelebriak, beti azpijanetan ibiltzeko jenyua'uenak. Anguleta jun dian galdetu, ta junda're ezetz eantzungo ye. Ola beti, gauz guztitan, egi-usayik eztuela.*

Azpikalde (azpialde): *Uriberriko azpikaldeko arraldiya toki obenetakua'a ixki-retako.*

B

Baga: olatua: *triñerua bagan zatorrek. A ze olatuba arraputu'n!*

Bai-kirtena (bahe-kertena): anguletako bahearen kertena: *bai-kirtena da bi muturrak berdiñak dittuna; zazpi metro luze; eskumuturra bezelakua lorin, baño koadrauba; al ba'a piñuteakin iña, muturrian txardangua zerran irikita.*

Baja aunditan (baja handitan): mareabehera handitan: *aluniak itteko, palizak sartzeko, erriyo-sarrera garbitzeko, mollak itteko-ta... ezinbesteku'a baja aundiya: oitan baja aunditan itte'a lana; bestela, eziñ.*

Bajamarra: mareabehera: *eunian bi aldiz ittei'k bajamarra: amabi ordu t'erditik amabi ordu t'erdia.*

Baldia (baldea): perraila: *garai aitan, baldia izete zan txapazkua; ta profesiona baziñan, iarriko ziñun'e zematxo angula zeon berta botata. Ala uztutzeko're baliyo izete zun.*

Baldiak ipurdiya zapalduta euki (baldeak ipurdia zapalduta eduki): esaera ironikoa, inork aditzera eman duena baino arrantza gutxiago harrapatu duela adierazteko: *anguletako txapazko baldiak eamate zian. Urdun etzan balde plastikoik. Urrutia jun bier bazendun, ontziyen ixkiñan exeita ipurdiya minberatzen zan. Oi ez pasatzeko baldia jartze zendun auzpez, gañian zakua't botata. An exeita jute ziñan, baño bein baño geyotan baldian ipurdiya zapaldu're bai. Da, iñoiz-iñoiz, anguleta bukatu, ta alkarri esan:*

– Ze arrantza in dezue?

– Ara, motell, an nunbattekua!– baldia eakutziz–.

Urdun galdetutakoak bee launai esan: “Balde orrek ipurdiya zapalduba eukiko zin; bestela, nola orrek gu baño geyo!”

Balde-ipurdiya zapaldutakoak bete-itxura leno artze'u.

Baldo: hesola: *esolak leorrekua'ia, ta erriyokuak balduak: guk ola esate deu. Aitz eta alkaxi giyarra onena ortako; bestela, azkar usteltze'a. Pendizai, muntuai, eskallera, palizai-ta eusteko, balduak sartz'e'ia ipurdin. Learrik baldi'ma do, berriz, aurrena zulua in burnizko palankakin bertan baldia sartzeko, ta geo ondo takiatu arrikin.*

Baor (ababor): ontziaren ezkerraldea, brankara begiratuta: *gutxi dia, beez, baorrak; baño bi aldetatik igual-igual itte'unak izete'ia arraunian. Pala eskubialdetik ibiltze'una da baorra.*

Baor-anka (ababor-hanka): **Traineruan patroia**ren ondorengo arraunlaria **eta arrauna bere eskubi aldetik eramaten duena:** *triñeruak ankekua baorretik eamate'u; batelak eta txalupak estiorretik. Olatuba datorrenian barruaka, patroyak eztu ikusten; arek uju itte'u: "Listo, mutillak! Jo oain!"*

Barbo-xomorro: xomorro mota bat: *izete'ia tortugan itxura aundikuakin. Emate'u azal baten azpin dola, baño azala, beez, beria'u. Amu ttikin sartuta, -nola anka asko'ttun- urazpin muimentun ibiltze'a; ta arrantzako oso aparta -arraitxikitako, bintzat-.*

Bargu (barbo, zarbo): errio- eta ibai-arraina, eta goiko ezpainaren ertzean lau bizar dituen: *jateko arrai motela da, baño jate'a prejittuta. Ba'u bakallau antza mami irikiyakin. Oso erriyo zalia da: ur geza nayo'u.*

Barra: errio-mutur edo bokaletan hondarrak pilatzen diren guneak. Barkuk sartzeko eta ateratzeko, zailtasunak izan ohi dituzte ur meheak sortzen direlako: *Oriyoko barra ondartsub'ek, eta larri ibiltze'ttuk bertako arrantzaliak itxasoa ateatzeko ta sartzeko.*

Barra-mutur: barraren bokalea: *Agiñako erriyuan arrapatze'an ixkira, ttikiya ta motelau'ek Oriyoko barra-muturrekua baño. An, ganbak bezelakuak salabarduan "zirt-zart" saltoka ateatzet'tuk, jeniyo bizikuak.*

Barren: barru, barne: *itxasotik ontzi bat datorrenian, "barrena zatorrek" esate'iu; kanporaka dijuanian, berriz, "itxas barrena ziek".*

Batel: arraun-ontzi txikia, normalean lau arraunlarik eta patroiak eramaten dutena: *lengo batelak zian laukuak; oaiñ, bostekuak. Lasarten, Etxeberriko Bereziatuatar iru anai arraunian da Juan Joxe Lizarreta "Beltza" patroiziala irabazi zuen bateletan, laukuan. Oaiñ lau arraunian da bat patroizete'a. Askoz fiño indako ontzik izete'ia. Ez da egurrakin itten; beste material batzuk sartze'ixke.*

Batienta: bi egurren lotura: *au're arotza izengo uan, ba! Au dek batienta iña dakana!*

Baya (bahea): hondo saredun, lanabes borobila kertenarekin eta angulak harapatzeko tresnarik nagusia: *atoyako bai aundiya izete'a: bost metro, buelta; kirtena, zazpi luze.*

Sare-malla bee tamañakua bie'u. Malla zabala baldi'ma, angulak trabatu itte'ia: buztana sartze'ue zuluhan. Estuba baldi'ma, berriz, urian pasatzen zalla da; orreatik, esan bezela, sare-malla tamañakua bie'u. Sariak lika're arrapatze'u, ta ortako eskobilla latza eaman bier da garbitzeko.

Baya garbi: bahea garbi: kala egin eta bahean angulik ez: *askotan gertatze'ana anguletan: kala ta kala, ta baya garbi. Uztez toki obena arrapatu, ta angulik ez. Ta urdun esate'k: "Guazema'k beste toki'atea! Emen baya garbi zatorrek!"*

Baya zuri (bahea zuri): kala oneko bahea angulez: *baya zuri, ta iñor ingura-tzen bazaik, etzakela kalik iñ aldeñ arte. Disimulatzeko asi ai alai urak kentzen, al dan gorena botiaz. Ia ola alde'itteun!*

Baztarrea jo (bazzarrea jo): ur-izkinetara jo: *erriyo erdin sekulako korrentak zaudelako, baztarrea jo giñin urak goxouak arrapatzeko.*

Baztarretik: izkinatik, ertzetik: *ali'pe Mapilko zingiran xitxabillen erriyo-bazte-retik angulak arrapatzen.*

Baztarrik baztar (bazterrik bazter): bazterretik bazterrera dabilena: *"Martin politta" baztarrik baztar ibiltze'k arraya noiz ikusiko, arrapatzeko.*

Beita: arrantzarako jana: *beita oso on'ek lupitako: txitaria ta loyorra. Amorratu dittut!*

Bekaldia (behealdea): *uste giñin bekaldian izengo zala angula, ta deskuirio earra izen diu. Goyen ibili'ttuk bayak txui-txui.*

Belaunka: makurka, makurtuta: *alian aizia eo olako giro'at danielan-da, urdun atzetik aurea eo aurretik atzea pasatzeakuan, belaunka ibili bier izete'u: makurtuta, lauankian.*

Belzgortu: kortatu (janariak): *arraya erreta denboa pixk'atian eokitze m'ezu, belzgortu itte'a. Garbantzuba ezbezu bier bezela atenditzen, belzgortu ittea. Baarruna eosten ai dala sartzen bayozu olkiya, belzgortu itte'a. Lapa're ezpayozu seitzen, belzgortu itte'a. Arrai konjelatuba xaltzan jartzeakuan ezpado deskonjelatuba, belzgortu itte'a. Txipiroya azkar maniatzeko su aundin baakazu, belzgortu itte'a.*

Bero: tenperatura gorako egoera: *gaur ondarretako bero aundiya itte'ik, eta izerdiya barra-barra ateako'iu. Ez al diu obe gabez jutia?*

Bero bustiya (bero bustia): bero sargoria, eranskorra, izerdikorra: *zer da au ordia! Bero busti onekin erriyo-baztarrian'e ezin dek aguantatu, ta blai jota niok!*

Bero erria (bero errea): kiskalgarria: *Jobe! Berua benetan erria itte'ik!: bazter guztik kiskaliko'ixkik!*

Bero galda: bero astuna, zaplasta: *ño!, putzua eroi nok eta enok oztu! Busti epelik eztala esate ye, baña gaurkuakin etziok kuidoik. Au dek au, euzki galda!*

Beruena izan (beroarena izan): den baino gehiago adierazi:

- *Ba al tzan angulik, Anttonio? Exkax xamar, ezta?*
- *Bai zea! Aleka-aleka iru kilo arrapatu'ixkit.*
- *Orrek iru kilo!? Erdiya beruena bazin!*

Beuna (berun): metal iluna, astuna eta biguna: *pitak arrantzako beuna eamate'u amuba ondoa jun dein. Esparberak'e bai, buelta guztin: arrai-bandai botatzian, azkar beera jun dein.*

Beuna (betuna): alkitran-orea: *iru kalapeta-burni erabiltze'ia alan juntetako: txorrotxa, amuxeua ta zabalaua.*

Txorrotxa aurreneko ebakiyai erretena itteko izetea. Amuxeua, tarte iriki-yaua itteko. Ta mutur zabala, kalapetatzeke.

Kalapetatzeke egurrezko mazua bier izete'u; eta onen bi puntak anillakin, buruba ez zabaltzeke. Kalapetatu ondoren, gañetik beuna al dan berona emate zayo ixipubakin. Ixipuba urte barrun ildako ardi-larruba izete'a.

Beuna: (betuna): kuratutako buztin-orea, masa: *alak ura artzian eo ur-nearra aste zayonian, buztinakin indako beuna emate zayo. Ondo eman ezkeo, gelditze zayo jariyua aldi bateako bintzat.*

Biarraunian (biarraunean): pertsona batek urontzi bat bi arraunei eraginez eramaten duenean: *Batista Xumeta ala ttikiyakin biarraunian jute zan Txo-koaldetik Oriyoko barra ixkireta. Zazpi kilometro juten da beste ainbeste etortzen, iya eunero. Zenbat arrapatuko zun ba!? Iru kilo? Kilua amar peztan, orra or urduko irabaziya!*

Bil-bil (angula): angula azalean borboka bailebilan: *ego-aizia, epel-epel, goibel, illargik ez, eta urak korrenta dakanian, axal-axaletik ju'tek angula bil-bil.*

Bildia: sareari eusteko baheak kanpoaldetik eramaten duen egurrezko uztai: *bildiak ondo eon bie'ik iltze ttikiz, ugari-ugari josiya; eta ez danak parian josi; bestela, pitzatu itte'k eta.*

Billau (bilau): nahasia, bihurria: *Askotan ondarreta jun, da etxea etorritakuan galdetze'ue:*

- *Denboa biurriya ez al zenduen?*
- *Bai, ziero billauba: oantxe jotze zun aiziak alde'atetik; oantxe bestetik. Etxian eon bagina, obe!*

Biñipin (behinik behin): *alaka ondarra -betia- abittu, ta birian, Ortzaika aldian, ustutzen asi'ttuk ez ondoatzeko. Erdiya ekarri yek biñipiñ, da eztek gutxi in duena!*

BISKO: Erriotoki izen bat, Txorkoa eta Iparrarreko erreken tarteko txoko bat: *alerua tokiya arrapatzea juna ura jira baño leno, ta esate'ue beste anguleruak:*

- *Oooaiñe an tziok alerua! Asmatuko nitek zein dan!: JoxeMai Etxemaite-kua. Jun berta, ta bai jauna!, bea. Oso toki gustokua zun. Toki babexa, ta angula-aliak'e bai, an, beti.*

Bisutsa: haize edo haize golpeak urari eraginez sortzen duen ur-ihintza edo ziprztina: *mariabera jo ta aizia mendealetik itte'unian, baxtarretik jun bier-ko'zu. Erdin –Marrota aldian– bisutsak, lau metro igual, altxata ziprztina.*

Bizigorra: Biziraupen handikoa: *arrantzan ai zeanian, amuako muite'an animaliya nai izete'a. Ortako, bai amarra, bai ixkira, bai mumurrua, bai loyorra, bai txitxaria, bai elbiya... animalia biziya nai izete'a amuako.*

Muimentuba ikustian –zeozer dala–, arraya askoz leno arrapatuko'zu; baño jakin bier izete'a amubai nundik peatu. Azkar akaatuko zaizu muturrutik erdiz erdi sartze m'ezu. Lepo-antxetik sartuta, berriz, mutturra muttuz ibili-ko'u, ta bizigorraua izete'a.

Bizkarrez: okerdura kanpo aldera daukana: *tripaz barrua errexo, jetxi ta iyo eskallan. Palizak'e bizkarrez kanpoa beti obeto, mariagorakuan batik bat alak eskallai ez eltzeko.*

Blandiatu (blandeatu): egonkortasuna galdu: *ala eosteakuan, aurreneko lana blandiatuba don o ezton ikusi; bestela, sartuko yo earra. Asko blandiatzen ba'a, seittun ura artuko'u.*

Blankira: hondoan arrain edo arraianak azpi-txurika dabiltzanean, egiten duten argidura edo brizta: *or, onduan, blankira ikuste'k, eta baziok arraya. Bota zaun amuba.*

Blankiura: ikus blankira: *ur garbik bier izete'ue. Ur-zikiñetan iual-iual ibiltze'a arraya azpikoz gaiñ, baña ezta ikusten; ur-garbitan, bai, errex ikuste'a urruntxoa're, arraya nola dabillen blankiuran.*

Botaoria (botadorea): iltzeari bultzatzeko puntzoia, lan-tresna bat: *i, onek iltzeburuk erreta zazkak eta ekarri'ak botaoria.*

Branka: ala edo ontzi baten aurea: *ontzi guztik izete ye aurria ta atzia. Erriyuan, muturra brank'ek eta popa, atzia. Korrenta aundiyai ez eman kostau-ba, eman branka; aixo ibilliko aiz-ta!*

Brankalak (harri): errio-bazterretan edo ur-izkinetan zeharka azaltzen diren harri-ilera: *brankaletan, arriya sayeskeran ikuste'k jenealian. Urak lurra jan dulako agertze'ttuk. Karaitza ta tuparriya izete'k, normalian.*

Brankaz jun (brankaz joan): ontziaren muturra emanez joan: *korrenta aundiyakin jun brankaz: aixo ibilliko zea.*

Brasa: ikus ardora: *baporiak arrantzan ai dila, atea izen dittue tronkuak muskulluz dana josita. Muella ekarri, ta gabian emate'u brasa'iala: ardora ateatze'ue.*

Brau! bat-bateko mugimentua: *or zeoze izendu'ek. Brau! in dik ur azpiko zarbastak. Ze ote zan?*

Brisa: errio gaineko terrala: *brisa maiz izete'a erriyuan. Bazatoz uztez trankil baño trankillo, ta dana bustitze'u akordatu'be.*

Brizta: arrainek, batez ere ur gainean, atera ohi duten bat-bateko mugimendu azkarra: *ikusi al dek arrayak in dun brizta? Oi dek muimentuba in duna!*

Buelta: bihurgunea: *Mapilko erriyo-bueltan, pare-parian, ondoatu'an Joxelontxoneko Imanolen ala, ta ez uan azaldu.*

Buelta: bira: *alian buelta ondo artzeko, aleruak polaña bee aldea –eskubi aldea– tia bier tziok; ezkerreko aldea errezo artze baita buelta.*

Buelta: inguru: *Errekabiko bueltoi obeto miatuko'iu. Or oaindik ixkira arrapatuko'ek.*

Buelta eman (arraunean): ziaboga edo jiraera eman: *gaur-gaur, ziaboga ta jiraera maiz esate'a; baño guk, agiñarro, estropetan buyena arrematze'ianian, esate deu: " Buelta artzen ai dittuk! Laiste'ttuk jiriak!".*

Bultzaizo: bultzada: *beste alakin gurutzeatzekuan, ur-gizona baaiz, ankakin emango yok bultzaizua alkar ez jotzeko; ez eskubakin.*

Burutxot: buruz beherako iraulketa, erorketa: *urak erribera-baztarrai kendaualdik itte'ixka. Urdun, ua gelditzeko, gañakaldian in bier izete'u metatxorrua zakarrez, arto-zuztarrez, belar luzez... nola-ala zeozekin pilla. Puska't asentatze'anian, iru'at gizon sardi'anakin jun, da ara burutxot iñazi oso osuan urai galazteko.*

Burruntzik (burduntzik): *erriyotik polaña ateata, ura gortu itte zayo jela gootik ai dunian: burruntziya itte zayo txintxilika. Terrala'nian, ordia, ezto kuidoik: terralak jan itte'u.*

Butroi: arraia harrapatzeko sareko tresna bat: *butroya tranp'ek. Arraya berta sartzen ba'a, etzakak ateatzeik: ateera itxiya eukitze'ik.*

Buya (buia): ur gainean –hondora finkaturik– seinaleztat ipintzen den gauzakia: *Oria erriyuak zakar asko'u. Buya txadan xamar jartzen b'ezu, korrenta ta zakarrak ezkutatu'zue jarritako buya eo zuna.*

Soka't lotze zayo, kakuakin gora tiriaz baporetik arrapatzeko. Geo eamate'u kate loriya ta luzia, atze-aurretan, aldan geldina ontziya eoteko. Bakotzak bee lekuk izete'ttu. Arrik igual amabi milla kilokuak, kate bakoitzai lotuta grilletiakin.

Portutan ezta zakarrik izeten; baño bai olatuba ta tirriki-tarraka earra, ontzik alkarren kontra. Erriyuan, berriz, ai bier izete'ue batik bat zakarra kentzen katetan trabatutakua: urkargak dianian, batez'e.

Buztanbeltz: bisiguaren itxurako itsas arraina: *Arrai grisa da buztanbeltza. Bizkarretik atzea buztanen gañian beltxa izete'u, ta arrokan oso errexa da arrapatzen.*

Buztin: batez ere aluminio silikatoz osatutako lurra, koloreak mota desberdinetakoak izanik: *bi bustin klase'ia erriyuan: gorriya ta urdiña.*

Buztin gorriya (buztin gorria): kolore gorrixka duen buztina: *buztin gorriya eziñ izete'a kuratu ondarkiuna dalako, ta eztu baliyo alai ur-nearrik eta jariyoik kentzeko.*

Buztiñ urdiña (buztin urdina): kolore urdinska duen buztina: *buztiñ urdinska oso ona da. Opil goxo'at bezelaxe manejatze'a. Alak ura artzian eo ur-nearra aste zayonian, buztiñ urdiñakin ixte zayo jariyua. Al ba'a kanpokaldeko zirrikitutik sartze zayo. Alero on bati etzayo sekulan falta bier: egurrezko alian, bintzat.*

D

Despitxu: garraioetarako sar-irteerako tokia: *urez bestaldetik Isostei baserri-ya, lisasi mendi-yan onduan, erriberetan. Beak Errekabi aldian zuen alunia, baño bei bat o ganaua pasatzeko Mapiltik ibiltze zian; ortik zuen despitxuba, bee sarrera ta irteera, gauz oitako*

Despitxu egin: abertitu, ohartu: *norbaitek bee aluneko eskallera ausiya daka-lako-edo, zue altokin maiz ala lotzen bai'zu, aspertu itte zea ta alako'atian zue burubai itte'yozu: "Emango zio'pa errematia!"*

Urrunguan, ikustian esate'yozu:

- *Aizu, asko kosta zaiu, oaiñ aurretik, besti oi bialtzia gue alunetik, eta zuk'e zeoze pentsatu.*

Abisu onekin despitxuba ite'yozu.

Dordoka: (dortoka): gorputza hezurrezko oskol sendo batean bildua duen narrasti hanka motza, ehun urte eta gehiago bizi daitekeena: *Oriyoko Torretxoko playian billatu izendu'ia dordokak katuban buraba añekuak. Seguru asko ur zikiña billatu zuenian, aren iesi.*

E

Easo (eraso): euri-, elur...-jasa: *eztakit zeatik, baño easoak –ebigolpe ta zakar batek– erriyuan zirrara aundiyaua itte'u leorrian baño; ala're, easua aundi-ya ba'a, urak kalmuo.*

Eauntziya (erauntzia): ekaitz: *eauntzi luzia'iuk orraatik! Ebi zaar au ezтик bela atertuko!*

Ebi-intz (euri-ihintz): eurixka: *oso ona'a ebi-intza aingirak arrapatzeko: itxutu itte'ik; eta, bestela, argiya ikustian, txitxare-korda utzi.*

Ebi-tantak (euri-tantak): tanta lodik: *zira jantzi zaun, gurgulluk ateatzeaño-ko ebi-tantak asi'ixkik eta!*

Ebi-ttanttak (euri-ttanttak): tanta ttikiko euria: *au dek eualdi txorua! Ebi-ttanttokin fundamenduzko eualdiyik eztiu!*

Ebi zaar (euri zahar): euri zakar: *askotan erriyuan ebi-zaparra gurgulluba lodi ateatze'ula. Urdun esate'a: "Au dek au ebi zarra!"*

Ebi-zaparra (euri-zaparra): euri-golpea: *baztertu gaitezen!; sekulako ebi-zaparrak arrapatuko'atxik bestela.*

Egoairuba (hegoairua): goiargia edo goiargitasuna: *naiz-ta erriyo ganian terrala itsu, tarteka goiargik ikuste'ia. Beste'atzutan mendilepo'atian terralan gañetik zapalaitza egan ikustian esate deu: "An zapalaitza, egan, egoairun dotore!"*

Ekaitz: eguratsaren nahasmendu bortitza: *naiz ta ez ikusi, itxas aldian aire aldaketa ba'a, denboa preskatu o alako gauzik iartze m'ezu, "ekaitza zakarkik!", urdun esate'a.*

Ekarraledik: olatuak eragindako goraldik: *alai etzayok geyegĩ tia bier baztarrea: ekarraledik itte'ixkit eta enkallan geatuko zaik. Kontuz ala kargatubakin, bintzat!*

Elera (helera): beita edo janari heltzeko joera edo gogoa: *askotan ikusi arraya, ta elerik ez. Urrunguan, berriz, janik gabeko amubai, golpe ta golpe.*

Elisia brilluakin: arraia harrapatzeko distiradun tresna bat: *gaur elduko litxekek erdoitutako elisiai're: oik zaukatek elera, alajañena!*

ENALUZE: Erriotoki izen bat, Legar Haunditik gora Txorko alderaino, errioz

kamio aldetik: Enaluzen altoki asko zian; zeatik eta, beti ura dalako. Anguletako're oso toki ixtimaarriya. Maria atzeatutakuan, goizaldea, alero petopetuak or emango zion bee bukaera arrantzai. Gora junda ibiliko zian zerbait nayian, baño angulerua danak "Enaluzen ezpado, gora alpertzu'ik juti'ek" esango'u. Batetik ur tikiya atoyeako eta bestetik kalatzeko aña're ez. Baxtarretik aitze'a jendia, kalan bi arrapatuz; baño atoyian zortzi-amar nai izete'a.

Enbata: itxasotiko haize gogorra edo ekaitza: askotan ateatze'u enbata bero aundiya itte'unian, arratsaldeko bostak-bostet'erdik aldian. Leor baldi'ma, iya eunero.

Oriyoko Benta gañian koska azaltze'a. Ogei'at minutu iraute'u, ta aurea jotze ezpa'u, deseindu itte'a. Euardin -amaikaterdik aldian-, baki ateatzen, da au da esaera: "Euardikuakin argi!, denboak kanbiyua; atsalkedua, leorra."

Enkallatu (enkailatu): ala edo beste ontzi bat hondoa jota edo urik gabe

gelditu: urez auzkaldea pasa eun guztiako, baño ala utzi al dan ondona: beiñ'ez ezautze eztezun tokin; bestela, enkallatu ingo zaizu bajamarrian baldu'aten gañian; da maria etortzian, onduan geatzeko arriskuba galanta.

Erla: arrain mota bat: ur gazi zalia. Erriyuan gora gutxi etortze'a. Oriberzarko alunian asko arrapatze zan: erlatokiya zan. Amorroren antzekua da ao txikiyauakin.

ERMALDA: erreka bat: Barramuno eta Paorra tartean dagoena: Gipuzkuak izengo'ttu ur garbik. Or bezin garbik, oso zalla. Gaikaldetik baldi ma'u-re baserria't, arbol-leku txarra'a, errez-belarra da-ta. Piñua, bintzat, "inposible"; alkazi ta olakua geyo.

Patxi Mapilkuak esate zun "Ermalda belar-ondur metak ittea jun bier, eta beti urez o, bestela, jute'ik ez. Nayonikek exixtittu ezpalitz! Aik ibillerak!"

Marrotak, Atorrasagastik, andik ekartze zun ura erriyuan azpin pasata unuzko erribereta, batik bat kloroik etzeukalako: landariai lorea ez galtzeko.

Errañuba (errainua): islada: naiz-ta ureta beira eon, aidian dijuan abioya o eaztiya earki ikuste'k ureko errañuban bidez.

Erreka: ibai, latsa: Olaberrita, Ermalda, Santiyo, Uegun, Errekaluze, Txorkua, Iparrarre, Txokoalde, Atxegalde, Anarri, Troya, Intxospe, Laxau, Utumira, Mapil-erreka, Errekabi, Saikola, Botaleku, Ortzaika, Txanka... O danak erriyua'ue bukaera.

ERREKABI: erriotoki izena, Arrillaga-handitik mahasti deritzan maldan

behera errioratzen den erreka: ara: bizkainuak arrazoi: Agiñan'e "erreka-bi" sasoi'atian; ez bi erreka. Oso eutera da bi errekatxo biltze'ian toki yoi. Ebiya'nian bakarrik da ura. Nola zuzena dan, aldapa'an, urak martxa aundin jeixte'ia. Baxtarretik aitzeko anguletan pari ortan, ala gelditzen zalla'a; baño atoizaliak, pari ortan, erditik, oso gustokua'ue.

Errekabiko biria emen tzan Goikoetxeko Bernardinon attonak-eta iña, kamiyoa arriya otarka karratuz; eta batian “Matakristo” ezizeneko gizon batek –Juan Joxe izenez– otarraka arri bizkarrian zamakilla, kapatazak beira-beira jarrita:

- *Oi dek pausua, Juan Joxe!*
- *Au, errialekua.* – eantzun. *Da:*
- *Iru txakur aundikua ingo al uke?*
- *Bai, ingo nuke.*
- *Ia, in tzak!*

Pausua piskat azkartu emen tzun, da urdun kapatazak:

- *Ola seiko al diyok?*
- *Bai ba!; seiko'yot.*
- *Urdun gaurtik aurea iru txakur aundi.*

Bestei'pe ola in tzuen jornal-tratuba. Gaur, ondo bestela gaude!

ERREKALUZE: *Irisasiko Irigain tontorretik hasi eta tunel-bokan bukatzen den erreka da:* erriyotik urruti, erribera guziya pasata. Azekiyak'e izete'ia. Iñun –*lissin*– ollaorrik baldi'ma, Errekaluzen izen oi da.

Errekamutur: **erreka-aho:** *arrayak bazekik. Urik epelena, seguru asko, Mapilko ta Iparrarrekako errekamuturrekua, ta an beti arraya: korkoi, lupi, aingira, martin politta... ta angula're oita biltze'k; ez Olabarrita, ur otzaua'lako.*

Errekapunta: **erreka-aho edo mutur:** *Ermalda, Olabarrieta, Iparrarre, Intxaspe, Mapil da Saikola'ia errekapunta famatunak: or beti ur asko, ta arrayak oi nai.*

Errekazulo: **errekako zulounea:** *zuluok urak itte ixkit. Topia jota, zurrunbillaka-zurrunbillaka, ondua jate'ulako.*

ERRERUENeko LURRAK: **Erriotoki izen bat, Sarikola pareko lurak urez bestaldetik:** *Errerueneko lurak –azekik garbitze zittuen arte– oso onak, naiz-ta oaiñ ittota eon.*

Bee punttuba bau errioyuak'e. Askotan batek bestiai:

- *Bart nun attu aiz anguletan?*
- *Errerueneko lurretan.*

Ezta angulatoki txarra.

Erresaka: **olatura:** *“Gaur Oriyoko barra asarre izengo'ek! Eztek giro izengo olako erresesak Ortzakaño datoxtiñeako!”*

Oriyon erresaka esate'k; Agiñan, berriz, tirañak.

Erresola: **traba batek ura hautsiz, korrentak behera egin orde z goraka egi-ten duen gunea:** *gaikaldetik eztek izeten erresolik: edoziñ tontorrek, edoziñ muntok, enbazun baldin bado, bee azpikaldian jayotze'ik erresola; ta ara biltze'ttuk zakar, orbel da olakuak, aiziak launduta.*

Errespondare: objektua bera ikusi gabe, honek bialtzen duen errainua edo seinalea: *ontziin bazatoz eo bazoaz gabez, erremeyoi'pe argiya bie'zu goibel donian, zu zeorri zabiltzan motorrak.*

Askotan erriyuan zabiltzala, errañuba ikuste'zu iñolako soñuik attu'be; ta urdun errezelotan jartze zea, eta esate' zu: "Or zeezek dirdira indik; errespondaria ikusi'ik".

Erreziyua (erreziua): lantarteko mokadu bat: *beti-beti jateko eamate zan onda-rreta: bokaillua, zianbrerakua eo txokolatia ta ogiya; saardozaliak zanak, saardua; ardua nayo zunak, ardua... Urdun etzan batiduik eta zumoyik. Nola mariartia pasa bier izeten zendun, uren zai zaudela esate zan: "Geo baño ez al diu obe erreziyo legia itia!" Zunak zunakin konformatu bier.*

Erria!: *interjekzio hitza: baziek!*

- *I, bota'iuk polaña!*
- *Erria! Ta geo gue alian utzi!*

Erriyo (errio): itsasoko mareak sartzen diren ibaiak: *Agiñakua erriyu'ek; eztek ibaia: earki asko jotze'ik mariagora ta beera, ta earki asko etortze'ttuk itxasoko tirañak'e.*

Erriyo-baztar (errio-bazter): erriozkin, hegi: *arratoileku ta zatorleku'ttuk, askotan, erriyobaztarrak; ez garbik.*

Erriyo eon (errio egon): bare egon: *gaur Kontxako marka ausiko yek; etzakatek aitzekiyik: itxasua erriyua-erriyua zeok.*

Erriyo-erdi (errio-erdi): errioreen erdigunea: *erriyo-erdin, a ze arraibanda ikuste'an!*

Erriyoixkiñ (erriozkin): erriohertz, bazter, hegi: *erriyoixkiña jun dittuk, muntotik estropak ikusteko.*

ERROIZPE ERREKA: *Andatzatik lgartza-zabal deritzan baserritik barrena, Txokoaldeko Sutegi deritzan lekuan errioratzen den erreka: erdiz gora tupa da: bustiña da lartza baserri aldia. Erdiz beera, berriz, arlatza.*

Leortze'anian ur gutxiyo izete'u, baño ondo emate'u; ezta aortzen. Naiz mendi ez aundiya, izuarriya bota'u bi alditan. Gue ezauera larri ibillik dia ur, loi, zintzar eta arriz -aundik'e bai- beeko erriyoko ateera ixteaño, dana gañez.

Erronka jo: desafiatu: *arrantzalia baldi'ma, erronka gutxi; bestela, zeorri baño leno urrungo eunian jungo'a, ta izurrai!, zue lekuba. Erronka jo be're, earki asko zaituko zattu. Inbiryak itte'ttun lanak!*

Errosayua eo errosayo-korda (errosario edo errosario-korda): biren bat metro luzeko pita, plastizko arrain-amu txikiz osatua tartekatuz, eta arrantzako erabili ohi dena: *xuabe-xuabe eamate ginin uretan, da arraik amuta jute'ttuk engañatuta jana'lakuan; da ola arrapatze'ixkiñin lupi ta antzekuak.*

Eskallu (ezkailu): Barboaren familiako arrain txiki bat, errio, erreka, ibai eta urmaeletan bizi dena: eskallua izete'a koxkorra, antxo ttikiyan tankerakua. Goxua, prejittuta. Sariak butroyan antzea jarrita arrapatze'ia. Iñularrian jartze zian da urrungo goizian bildu. Aingira don tokin ezta izeten eskalluik, onen griya arek jate'yo-ta: amorratuba da!

Esparbera: arraiak harrapatzeko harizko sarea: lau metro zabal da lau luze dittu esparberak. Buelta guztin lokarriya eamate'ik. Beuna're bai, airian zabal-zabal botatzian, uretan beera azkar jun dein. Erdin, soka't, andik tiata estutzeko.



Espeka: haga mota bat: ala leorrian -ur-ixkiñan- gelditze'anian, espeka azpin sartu, ta palanka itteko erabiltze'a ureta botatzeko. Ona emen bee neurrik: bi esku bete lori (gora miaxio); bi metro t'erdi, luze; ipurdiya txaplatua eo jana, buelta ez emateko.

Espeka bota: espekakin palanka eginez bota (ekintza): ala leorrian geatu zaiak. Eskukin proatu'it, baña alperrik! Azkenian espeka bota'it.

Espanja: belakia: esponja, ontziin eaman bierrekua. Estropan ai zeala eztizu denboaik ematen txukatze; baño beroketak itten ai zeala ura sartzen bazaizu, esponjakin txukatzea salida eman aurretik

Estaka: taketa: baldua baño miaua, eta txapal antzeko egurrak. Gauza askotako ibiltze'a estaka urian: muntuan sartzeko; ala lotzeko; lurra urak ez eamateko; illar-xarba jorna ekarri bie'zunian alakin, aldamenetan ez erotitzeko balantza inda; aluneko pasaizua jartze'zunian, an buruz ez erriyoo erotitzeko jartze zaixka lurretan beera sartuta estakak, puntapaxakin lotuta... Gauza asko ta askotako ibiltze'a estaka.

Estior: (istribor): ontziaren eskuinaldea, brankara begiratuz: mutillik geyenak izete'ia estiorrak. Estiorra da pala eskerraldetik ibiltze'una.

Estopa: kalamu edota lihotik erakartzen den zuntza: "Efectos Navales"etan salgai eote'a. Alan zirrikituk onekin betetze'ia. Orri esate zayo kalapetatu.



Linuzko estopa

Estrapu: arrauna toletari lotzeko erabiltzen den sokazko eraztun modukoa: yute eo kañamo-soka bier izete'u estrapuba itteko. Iru zirrinda -txikorda estiluan- biurrituta: segun arrauna zenbat lorikua'zun. Bost itte battuzu're, bat gustokuena; danak difeentiak ateako zaixkizu.



Etzana: makurra, ez airosoa: ontziya in da ureta botatzian, eskun zerbait dula -matrillua beike- ontzi-intzalliak beituko yo ze eiturakua atea zayon, da esango'yo bee launai:

- Ze iruitze zak, naiko etzana ez al zaiuk atea?
- Ez, mote! Airoso puska't baik.

Ezker-ayena (ezker-aihena): landare igokari bat: *bauan garaya't alan atzeko amarra ezker-ayenakin itte zana. Besteik ezian, ze erremeyo!*

Ezpaldako (arraun): ontziaren puntan dijoana: *ezpaldakua itteko mutill ur-gizona obi'ek: arek zakik urai ze iñ. Arrauna bestia'pañu luzexoua eamate'ik ura urrutiyo'akalako. Bi eskuta arraunian itte'una obe. Triñeruiari buelta emateko, ontziya ezpaldiatu itte'ik.*

Ezpaldiatu (ezpaldeatu): buelta azkarrago emateko, istribor aldeko muturretik arrauna uretara sartuz eta indar eginez, trainerua behartzea: *punta-ko arraulayak oso abilla bie'u, batez'e ezpaldiatzen: arrauna fuertegi sartze ba'u, beakin batea putzua, ta akabo estropa!*

F

Flotian (flotean): ur gainean: *igari jakiteko, aurren-aurrena flotian eoten ikasi bie'u.*

G

Gabarra: garraiotarako urontzi bat, ala handi bat: *“Irisasi” izeneko gabarra bazan Agiñan, 1963 urte inguruan Oriyotik Agiña ondarra ekartzen ibiltze zana. Akabo urdun ondarretako alak! Urdun utzi ziyoten ondarreta jutiai aleruak: Irisasi gabarra bea naikua, naiko ondar ekartzeko.*

Gaikaldia (goialdea): *tontua... nai likek anguletan gaikaldian jartze’ana!*

Galerna: itxas baztarreko haize edo ekaitz bortitza: *oi dek kopeta Oriyo alde-tik! Galernak muturra beltza zakarkik! Eundokua bota bie’ula emate’ik!*

Galipot: alkaterna, mundrun: *alai emateko galipota, erretxiñakin naastuba iza-te’uan; erretxiñak goortu itte zin galipota; bestela, etzin baliyo biuneia zalako*

Gallego-aizia (gallego-haizea): Galizia aldetiko haizea: *mutillak, aize amorra-ariy’ek! Onetik orrek eztik ezer! Arrantzaliak saria botata daudenian, des-kuiratu ezkeo baporía sare gañea eamate zek. Golpeku’ek, arrayua!*

Gandu: behelaino: *ganduba oso itxiya baldi’ma, argi urdun!: ezta txantxa. Aldin beñ polañakin ondalkiya jo biar izete’a iñor kontuatzeko; bestela, txoke itteko arriskuba galanta.*

Gandu: ur-gandua: ur zikin edo likatua: *jute aiz anguleta, kalatzen asi ta baya likaz betia: azpiko tirañak txikik, baña urak muttu. Urdun baya ezin pasa. Uretan gaduba zio.*

Gerri (ontzia): urontziaren gunerik zabalena: *alan gerriyai –tripaldiai– esate zayok: bea’ik zabalena.*

Gluk!: Gurguilu eta antzekoek atera ohi duten soinu onomatopeikoa: *Oriyo-ko Marrota aldian buelta aundiya ez itteatik atajutik abitze’maiz, ur mia dolako agaika in bierko’ek. “Kada dos por tres” polaña mausarretan da lokatzetan sartu ta ateatzian, gurgullu antzekuak sortze’ttuk gluk! soñuba ateriaz. Ukalla tamañoko begik, bai, galantak, ikusgarrik.*

Goara (gobada) Asteko arropa jaso eta garbitzea: *Agiñako “Gaztelu” bertso-layak bertso’atian ondotox ayazte’ik. Ona emen: “Astelenian goara bildu, astiartian garbitzeko...” Ala izete uan urdun. Ur berotan, barrikan, sartze’ttuan maindiriak eta beste, leje eo etxian indako jaboyakin. Erramu-xar-bak’e bai, usai ona izeteko; eta laua’t ordu euki bertan, geo arriyan jo ta ondoren, ateata leortzeko. Orduko erropa-garbiketak ola’ttuan.*

Goarri (gobadarri): arropa jotzeko harriak: leno etxetan etzan urik, eta erropak garbitzeko erreketak jun bier izete zan. An, goarriya zaplan jartze zan. Bi bizi-tzen artian'e bai, erropa busti ta biurrirtu. Arriya joka muitzen zitzaizen zikiña.

GOARRIETA (gobadarrieta): erriotoki izen bat, gobada egiteko eta jotzeko harrik zeuden tokia: Lastola parian erriyoko toki'atek baik izena goarrieta. Gaur tapatuk o desagertuk badaude're, battuan an lau o bost goarri. Etxetik emakumiak –beti bero aldea, jenealian– erropak artu, ta otarra buru gañian zuela jute'ttuan. Bueltakuan, beso azpin; bizkarrian beiñ'ez. Auzo batetik pasatzian, zer zabiltza? galdetze bazi-yoten, onela eantzungo zin: "Goarritik nator, gaur erriyua garbiya zatorren-da".

Goiko muturra: errio-goia: jute aiz garaiz anguleta ta giro ona baldi'ma, tokiz aldatu itte aiz iru'at aldiz. Bai, beti're maria datorren bezela angula mui-tze'k, eta goiko muttura arrapatu nai izete zayok.

Goldiyo (goroldio): landare txikia, gehienetan berdea; lurraren, harrien edo enborraren gainean jaiotzen dena: alan azpin itte'k goldiyua ta ontziya usteltze'ik. Urdun leorrea atea ta eskobilla latzakin urtian beiñ, bintzat, pasa bier izete'ik, esan bezela ez usteltzeko

Gorakua egin (gorakoa egin): gora joatekoa egin: korrenta aundik. Ur-karga'-nian anguleta jute aiz, eta beera jenealian. Bueltakuan bi gauza dazkak: ur-karga batetik eta mariabeera bestetik. Urdun sayatu bie'k urausilletik gorakua itten.

Goraldik: ikus ekarraldik: ai aiz angulak kalako ogei ale ateatzen, da zortzia-rrenguan lau bakarrik. Goraldik dabiltzan siñale.

Goxatu (urak): baretu:

- I, aizak, gaur urak nun goxatuko'ixkit?
- Nee itziz, Saikola aldeño bai.

Grak!/: karraska edo haustura baten hots onomatopeikoa: erreminta guztik busti-leorrian eote'ia, ta gutxina espero zunian, naiz eta ondo daudela iru-tu, indarra itten asi ta... grak! Izurrai!

Griya (gria): arrautza edo hazia: erreka –al ba'a– ez lejeik, ez pixik eta ez antzekoik ezta bota bier; bestela, amorroyak utzitako griya o arrautza galdu itte'a-ta.

Gurgulla (gurguila): burbuila, ur-begik: gurgullatokitan seguru xamar aingirak daudela: aik ateatze'ttue.

Gurgullu (gurguilu): ikus gurgulla: botil utsa urez bete nai'zunian, ipurdiz beera jarri, ta betetzian aste'a kantari: bil-bil-bil... Ta iya bete'an garayian, bukatze'u: bau! Orreatik esate'ue Bilbauk izena ortik dula. Gurgullubak ate-atze'un soñuba da oi: bil-bil-bil...bao!

I

Igaraba: ugaztun haragijalea, txikia, uretan ibiltzeko egokitua, ilea sarria eta arrea duena, ibai-baztarretan bizi eta arrainez elikatzen dena: 1943. urtian, artian igarabak battuan erriyuan aleka'atzuk. Nik Agiñako erriyuan atzenekua ikusitakua, Arroarrotik asi ta Muskillarritik gora (Txorkoa). Or ibiltze uan tiriki-tarraka, batzutan urian da beste'atzutan leorretik, gu anguletan gabiltzala. Ordun 1960 urte inguruba izango uan. Geo ur-zikiñak azaldu'ttuan goitik papelerak botata, ta urak zikundu bezela desaertu'ttuan. Baña nik atzen-atzenekua ikusitakua, Usurbillen "Xendoyenia" tabernan izan uan. Jende asko uan an ordun igaraba ikusten. Baita Guardizibillak-e. Guardizibilloik ua ikusita galdetze ziyen:

– ¿Y eto qué e?

Eta beste iñork ez, eta nik banitxakin kastillanoz igaraba nola esate zan, da eantzun nitxen:

– Nutria.

Eta beak:

– ¿Pero eto de nutria qué e?

– Perro de agua –nik eantzun–.

Ordun ixildu in ittuan.

Arratoi-txakur bezelako ttiki yoi, bee anka motx-motxakin da buru luxexakin, antxe ikusi nin atzenekua.

Igarabak arraya jate'ik, ta ur garbiya bie'ik.

Igari (igeri egin): uretan hondoratu gabe ibiltzen edo egoten jakin.

– Nun izen aiz?

– Mapilko zingiran, igari. Makiña't jende bazabillek!

Illargi berriya (ilargi berria): illargi berriyak aldatuko'ik denboa; otzea joko'ik.

Illargi betia (ilargi betea): aurten, illargi betian mariak ttikiyauak izengo'ttuk berrin baño.

Illunar (ilunabar): eguzkiaren sarrera eta berehalako argi ahultzea: bero galanta ta geo, illunarrian preskatu'at artzea jute zan Agiñako jendia erriyoa; ez gaur bezelako traje-bañukin; soñeko zarrakin-e bai, emakumiak, besteik ezta.

Illunarmariak: gualdeko mareak: eaneungua izengo uan kuartera, ta illunarmariak laiste asi bie'ye.

ILLUNBE AURRIA (Ilunbe aurea): erriotoki izen bat, Ilunbe baserriaren pareko errioldea: *Illunbe aurriai –naiz goraxio, naiz beraxio– esate zayo; erriyoko basarri orren pariai.*

Guardak erriyotik zeoze arraya etzana arrapatzen ikuste baziñun, Ilunbe aurea eaman bierko zendun. Ango muntua ustuazi, estaubena zala-ta. Obeitze ezpa zendun, paatuko zendun earki: etzizun utziko ezta eizia juten'e lisasia.

Maria bukatuta leorrea anguleruak ateatze'ianian, batek bestiai esate'yo:

– Erriyo guziya pasait eta eztit ezer iñ!

Eta bestiak:

– Nik aliak baixkit!

– Aber, ikusi! Bai, dexente! Nun attu aiz?

– Illunbe aurrian.

IMA: Erriotoki izen bat, Mapilgo azpialdean arranpaz dagoen erriorako bidea, eta, batik bat, alak sartu-aterako erabiltzen zena: *Istillauko biria da Ima, erriyotik gora. Biri onek baliyo izete zun enbarkaziyuak-eta itte zianian, erriyoa botatzeko; ta jasotzeko're bai, konpondu bier zianian. Garai'a-tian, barkuk'e ortik botatze zittuen.*

Indar beltza: indar iraunkorra, aerobikoa: *arrauneako indar beltza onena: iraungo'una. Eztik baliyo indar bizin asi ta geo pott itti'ak. Arraunlaya luze-ku'ek; bestela, eztik baliyo.*

Indar biziya (indar bizia): bizitasun handikoa, baina iraumen luzekua ez dena, anaerobikoa: *ezautu'ixkiu sokatiran gizon bizi askuak tiatzen, golpe bizi-bizikuak. Ok ona'ttuk, baño denboa gutxiako.*

Indar biziya (indar bizia): bizitasuna duena: *mariagora –goraldiya–, aizia alde eta ur bizik. Urdun urak indar biziya izete'ik.*

INTXORRETAKO ARRIPILLA (Intxorretako harripila): Erriotoki izen bat, erriotan Intxorreta aldean dagoena: *noiz eo noiz, Errekabiko kamiya ebakitze-akuan indako easkiña erriyuai. Uni ari deitze zayo Intxorretako Arripilla.*

INTXORRETAKO PORTUBA (Intxorretako portua): Erriotoki izen bat, Intxorreta beraren azpialdean dagoen portua: *biria oso aldapa'u. Erriyoz baliatze-ko da Intxorretako Portua.*

INTXOSPE ERREKA: Imildostik behera, Mallu deritzan mendia harrapatzen duela, errioratzen den erreka. Berak egiten du Aginaga eta Usurbilen arteko muga: *Intxospeko errekan, beeko boka-bokan, muelle lege'at bazan ondarra uztutzeko. Ilberan –maria ttikik– eziñ izete zan bertaño iitsi; baño ur bizitan ederki asko pasatze zan bastar aldetik isla, ta araño jute zian aleruak alaka ondarrak ustutzea, usurbildarrentzako berto izeteatik. Ximorra uztutzeko're baliyo izete zun; da Lastolakuak muella ortan uztutze zuen beak zakaten gaikaldeko baatzako, ortik geo lepotarka eamate zuelaik.*

IPARRARREKO ERREKA (Iparagirreko erreka): Goarda-etxearen azpialdetik pasatzen den erreka errioraino: *ooo!, auxe nee barruko poza!: ikusi'etelako, beti, orko ur garbiya. Erriyua ingrientikua izen, ta arrai guztiya araxe, bizi nayan, ur garbiyen billa. Or kalatu, ta igual amorroyak'e ateako ziñun. Askotan, baya lertuko ezpazan, atzea kolpeka-kolpeka piska't ustuz atea bier izete zendun. Buruba kanpuan zuela, erdi tonto-tonto, kala ikeaarrik itte zian.*

Irauli: goiko alde edo zatia beheko alde edo zati bihurtzen dela jarri, azpi-koz gora jarri: *goiko zingiran –bajamarrian– erriyoz beste aldea ganaukin pasatzen asi, ta gurdiya irauli korrentak, bultzan. Utzik baldi'maua, or nun-bait mendeatuko'ek: eorri pertikan gañea jun, azpikaldiko iriyai erañ beti-re aureaxio juteko, ta onela salbatuko aiz.*

Irripan ala jarri: gainbeherako inklinazioz ala jarri: *bueno!, oaiñ ala muturrez al deu!? Irripa aundigiyakin ondoatze ezpa'a!*

Irrista iñ (irrista egin): txirristatu, labaindu: *alunian jelakin, argi!; irristatuko aiz, bestela.*

Isla: errio barruko lurrak, uharte ttikik: *isla azi ta azi ai danian, erriyuak lurrai kentze yolako'a. Ura kanalatze ezpau'e luzaro baño leen, Permindei basarriya gaixki ibiliko'a.*

ISLA: Erriotoki izena, Permindegi baserriaren parian dagoena: *nik ezautu nun año 70 ingurun –olloorretan eiztarik– belarrez beteta. Oaiñ (año 2003ian) dana saatsa do: ura ai da orren iesi Fermindeiko erriberai kentzen da kentzen.*

Urak biria billatuko'ula, da esaera. Isla tontortu aala, erriberai kentzen ai zayo.

ISOSTEIKO ALUNIA (Isostegiko aluneak): erriotoki izen bat. Isostegi base-riak, bere parean, erriorearen bi aldetan zeuzkan aluneak: *Isosteik pare-parian bezelatsu zazkan bi alune. Izen zittuen merituk or bizi izendakuak. Urkarga bazan'e, auntza ta ununtza ibili bier. Lau anai ta iru aizpa, geonek ezaututakuak.*

Attak, azken eriyuan zeola, ala esan emen tziyen bee semiai:

– Ikasi, ikasi pantasiz; erreko'zue mixeriz!

Artian bee semiak mutill gaztiak, eta ziarrua erretzen. Erritik ez, erritik batez; baño oi esaera!

Geo, ondoren, ola bukatu emen tzun esanez:

– Nee petatia, metxa ta ziarru-papera or dittuk armayo gañian.

Istillau (istilao): untziola, itxasontziak egiteko lantegi eta tokia: *ikuste'iñun, bai, oaiñ dala berroita amar urte ingurun, Agiñako bertako jendia alak itten, Mapilko istillauan lanian jatorrazko. An ikuste zian bertako alak jaso-*

tzen ujoldiai bildur. Kontu aundiya izete zuen ortan. Izen aundiko istillaua, Mapilkua. Sasoi'atian, barkuk'e itte zian. Gaur-gaur ezto ezer.

Itxas aizia (itxas haizea): itxas aldetiko haizea: *itxas aizia baldi'ma, otza ta ebiya izeteko arriskuba galanta. Argi, ondarreta jun!: giro txarra pasa-ta geo, alaka erdiyakin etorri bierra igual eziñeonik kargatzeakuan.*

Itxasbista: itxasaldea: *itxasbista beti da umedua, eta etxiak eta itteko, atzia eman bier izete zayo. Tellatuba, al dana, araldea eman etzan aundiyakin: leen, oaiñ da beti.*

Itxasbista: begien bistan azaltzen zaigun itxasoa, itxas ikuskizuna: *menditar bat jun emen tzan alako'atian Zautza, ta itxasua ikustian, arrittuta auxa atea emen tztzayon: "Au dek lio-salla, au! Earr'ek!"*

Nunbait aurreneko aldiz itsabistan, da lio-salla iruittu. Emen bakoitzak bee lanak!

Itxasgañ (itxasgain): itxas bizkarra: *batzutan esate'a: "Artaldia zabillek itxasgañian". Aparra txui-txui ta jendia txipiroitan. Ortako aize-olatuba da ona. Atxamartan jostatu itte'a txipiroya.*

Itxaso: ur gaziko estaldura zabala: *estropeta jun dia "setienbrian", da batzuk itxasua ikusita ta bestiak ikustea. Topo in, da itxasua ikustea zijuaztinak galdetu emen tziyen ikusitakuai:*

– Itxasua ze mouzkua do?

Bestiak eantzuk:

– Busti-bustiya!

Ai parrak!

Itxasua ekarri (itxasoa ekarri): olatua hasi: *Donostiko estropetan aurreneko tanda obia izete'a, jenealian. Biarreneako, askotan, bintzat, itxasua ekartze'u.*

ITZAU ALDIA (Itzau aldea): erriotoki izen bat, Botaleku parian –urez bestealdetik– Irisasi mendiaren kontra dagoen baserritik datorkion izena: *nola iru bizitza zian (gaur utsik) erremiyoi'pe iru o lau ala euki bier, eta beti arretaz alde'atian danak ez geatzeko, batez'e gabez. Ezautu deu ujala, bitan, erdiaño urez beteta baserriya. Paaie ortan, bajik aundinian'e, beti ura. Aiziak iñun kalma ba'u, ortxe'u: Itzau aldian.*

Ixipu: alai betuna edo alkitrana emateko tresna bat: *akullu bezelako makill'at, lori aldetik josita ta lotuta ardilarru-puska'ula. Larru onek, al ba'a, urtekua bie'u; bestela, illia jute zayo ta zuztar utsakin geatuko zea.*

Ixkiapuba: arrantzarako tresna bat, kertenaren puntan uztaila sarek osatua daramana: *ixkiapubak eskubakin eltzeke kirten koxkorra eamate'u; ta puntan, oni eantsita, uztaya. Uztayai, berriz, saria joste zayo etxeke txinua bezela. Arri-xoko, bazter eta azpitan ibiltzeko baliyo izeteu. Entretenimendu politta izete'a.*

Ixkiñ (izkin): bazter, hegi:

- Guazen ur-ixkiña!
- Zerta?
- Estropa'ttuk!

Ixkira (izkira): ganba antzeko krustazeo txikia: zenbat eta itxasotik urrutiyo, urdun da berdeo. Zenbat eta gertuo, urdun da gorriyo ixkira ta antzekuak.

Ixkiretako toki ona'ttuk: Txaltxipiko estakak, Mapilko Errekabi aldia, Saiko-latik beera –kamiyo aldetik–...

Ixkira-zorri (izkira-zorri): izkirakumea, txiki-txikia, gero izkira egiten dena: burutik azal da guzti jate'a. Bayakin'e anguletan arrapatzea, ta lan pranko emate'u apartatzen.

Ixtingan (istingan): tenkan, indarpean –bultzadan edo tiran– dagoeneko gauzaren egoera: bultzaka eo besatiaka. Zubigaiñ batian iriparia pasatzeakuan, allaitu baño leno dakiye nun pasa bie'uen. Begik belarrin dittuela, larri-larri inda, amarretatik beatzi alkarri bultzaka o tiaka, eroi biarrian pasako'ia ixtinga bizin.

Erriyuan'e korrenta aundiya donian-da, norbait zerbatti tiaka donian eutsi eziñik, beste'atek esate yo: "Laundiko'it, mote, or ixtingan eon be!

Iya (ihia): zurtoin luzeak eta malguak dituen belar-landarea, oso toki heze eta bustietan hazten dena: galtzen oso zalla iya-belarra, eta gari-ostrua dirui. Urak irauli itte bau-re, aste'atian ezta galduko: oso gorra'a.

Izai (Izain): zizare motako odol xurgatzailea, ur geza eta gazi-gezetan bizi dena: txitxaria bezelako xomorro berde antzekua, izaya. lokatzetan eote'a. Akordatu be itte'u ebakiya ta odola txupatzen aste'a. Aurria ta atzia zein dun etzayo naarmentzen.

Izoki (izokin): itsas arraina, mamia arrosa kolerekoa duena eta arrautzak erruteko ibaietan gora igarotzen dena: denboa'tian sartze'menuan emen, baño guk ezti'u ezautu: plateran bakarrik ikusi'u. Bidasoan bai arrapattu'ixkiye. Eun batian iru arrapatuta, periorikuan a ze zalapartak! Alañoeko famosua! Agiñan'e, oaiñ dala iru urte inguru, Joxelontxoneko Imanolek arrapatu zin bat iru kilo t'erdikua.

Izpi: gauzakia edo gai baten zatiki txikia: naiku'ek, mote, ezpal-izpi'at! Eztik bier geyo koloka kentzeko.

J

Jaikiuna (jaikiduna): airosoa, liraina: *aurrekua jaikiuna uan; baño oaingo ontan uste baño jaikiyo geatu zaixki'uk alan atze-aurriak. Olakuak'e atea-tze'ttu'pa-ta!*

Jata, grak!: **haustura baten hots onomatepeikoa:** *alen kostaubu egurrezkua izete'a. Deskuirio santun beste'atekin txoke inda or ematen bayo, jata grak! eta igual izurrai armazoi pare'at! Seittun asiko'a ura artzen.*

Jiraera (estropan): buelta ematea, ziaboga: *gue aldian –Agiñan da Oriyo ingurun– naiz ala, naiz bapore, naiz triñeru, naiz piragua... ok buelta emateakuan, iñor beira donak esate'u: "A ze jiraera earra in duna!" Ez da esaten ziaboga.*

Jorna: saio, lansaio: *angulik ba ote zan jorna in diu Saikolaño. Proatzen etorri gattuk, eta dana alperrikakua!*

K

Kaakola: karrakela: *bitxu orren izakera zeñek ote'aki!? Burni zaar bat atea-tzen b'ezu ur azpitik, kaakolez josita ateatze'a. Barku aundi yoik itxasuan dabiltzala're, kaaokol txikiz josita ateatze'ue karrua. Oriyoko zubi gaikaldian den arrimuskillak, danak, kaakolez josita de. Arri koxkor batekin asi zatte austen, da zeoxe mamiya ote'aken iruitze'a; batzuk-batzuk xomorruak'e bai, barrenen anka askokin.*

Kaakolillua: uretako marraskillo ttikia, karrakela: *kaakolillua deitze zayo, leorrekua ta urekua antzekua'ialako. Urekua, ttikiyaua ta berdexka illuna. Españi guztin añatsu jate'a Asturiasen bakarrik: Kijonen, saardua eanez tabernetan. Eosi gatz askokin, da orratz batekin kendu itte zayo txuloko mintza; berriz zirikatu orratzakin mamiya, ta eltze'yozunian, raxt! atea ta abea. Buelta't o bi eman abian, da tragatu. Oso mokou bixiya!*

Kabilla (kabila): burdinezko edo zurezko atala iltzearen antzekoa, zulo baten sartzen dena edo bi osagai zulodun elkartzeko erabiltzen dena: *ondalkiñ pol-egurra ez auntza eta ez ununtza ibiltzeko sartze zayok kabilla.*

Kabrarroka (krabarroka): arrain hezurtsua, gorria, buru handia eta itxura itsusikoa, jateko ona: *kontuz, Kabrarrokakin! Argi!: bizkarrian arantza'ttu ta aik eskun sartze ba'ia, meikubena jun bierko zu tamalez. Amorroya baño motxexeua ta potoloxeua da.*

Kaela (karela): itsaontzietan, albo bakoitzaren goialdea edo ertza: *jetxi ai kaelatik eta goortu zak ontziya!*

Kaena (karen): ikus beuna, alkitran ore: *ala konpondu leorrea ateata, kala-petatu ta ondoren emate zayo galipota bero-berua. Berreun litroko bidoya moztu erditik, eta suba egurrakin bee azpin iñez beotze'a galipota. Kertena bierrezkua'u bidoy'orrek. Galipota biuntzian, alen ondoa al dan bertena eamatea espekakin. Andik ixipubakin kaena emate zayo alai, lori-lori. Pis-kat ustutze'anian, ostea surta eamate'a kaena metzeko. Erretxiña, gasoilla ttantto'at eta galipotakin osatze'a kaena.*

Kala: Angulak harrapatzeko bahealdi bakoitza: *toki'atzutan korrentak tope jotze'u baztarra. An, kalatzeko, ezker-eskubiz aurrea itten dakiña obia askoz-e. Atoyian baya aundiya izete'a eta zazpi metro inguruko asta eo kirtena. Kutxaria zopetan bezela baya sartze'a uretan, alan puntan-puntan. Urdun atoyak makinillakin soka polean bilduz, bee alde eamate'u. Ondoren, baya-kirtena alan ertzan kontra kalkatuz, baya altxatze'a. Geo*

poleai atzea eraiñ, baya txitxardin-askaa eamateko. Piska't baya alboka antxian euki ta angulak beera jexte'ianian, askaa uztu. Onela itte'a kala osua.

Kalapeta-burnik: alaren junturak hartzeko pintzelak: ezta beiñ'e erdoitzen. Azpikaldetik eltze zaye lanik ingo ba'a; ta beti ikusiz eta mazuakin neurriko golpiak emanez: TAK-TAK...tak, TAK-TAK...tak. Aldin iru golpe, ta iruarren-gua komeni'an añakua bestaldea ez pasatzeatik.



Kalapetatu: alari juntak hartu: yutezko illia izete'a; olakua bie'u. Belaun gañian -trirrist-txirrist- gora ta beera luxatuz, kordoya itte'a eten be ta madeja bezela biltze'a. Geo kalapeta-burniyakin, trabeska antxian artuta, ool-zirrikitan sartzea: onela kalapetatze'a.

KALATOKI: erriotoki izen bat, Mapilko moilagune bat: oaiñ kalatoki orren zati'at muella do iña. Eskubiz aurea kalatzeko naiz primerakua izen, bi eskuta berdiñ-berdiñ in bier emen du anguleruak; ala're, esku batekuak geanok au esate deu: "Ez jauna! Zertako? Zertako dia, ba, estior eta baor? Bitu ona ez o batea obexaua, zer da obia?"

Kalatu: kala egin: gauzak olakoxia'ttuk: batzutan kalatu ta kalatu, ta baya garbi; bestetan, berriz, baya zuri. Nola angula, ala arrantza.

Kandela: argizari geruza batek, gehienetan zilindro bat osatuz, inguratzen edo biltzen duen metxa, argi egiteko erabiltzen dena: oso gau nastuba bazan, bi kandela piztutze zian; beste'at barrun etzana, reserbako; poxpo-lluak'e bai.

Kañabela (kanabera) arrantzarako: zenbat eta ariño ta obio. Punta-ipurdik segira onekuak, onenak; ez ipurdiya, loriyaua.

Kañabel-ttiki (kanabera ttiki) landarea: zuk nai eztezun tokin etortze'a. Aize-olatuba'nian, aren azpiya babesa izete'a; ez ta iyartzen ur gaziyaq jota're. Berritan ganaubai emateko baliyo'u.

Karaitza: karezko haitza edo harria: Txorkoko ura oso ona da, ta karaitzakua da.

Kardu: landare mota bat, esnetsua: esnetsuba da kardua; ta ur-azpin, zuztar lori-loriyakin, geo ta indar aundiyaia izete'una. Bertan ezta sortzen, baño ur-kargak aldatze ba'u iñundik iñoa, arritartian-e bee zaiñak peatuko'ttuna. Tapatuta eztu nai; euskiya ikusi bie'u.

Karnabal mariak: karnabaletako mareak: ontzi bat itte'anian, galdetze zayo arotzai:

- I, noizko botaura? Karnabal-marietako prepaatuko bagendu nai giñikek. Etzakit bukatuko deun!

Karraskillo (karraspio): arrain mota txiki bat: *karraskillua arroka zali'ek. Erri-
yuan'e arrapatze'k. Goxo-goxua, jateko.*

Kate: *metalezko piezen saila, elkarri lotuta: bier izete'u lau-bost metro luze-
kua, ta muturrian gurutziauna argollan sartzeko, ta al dan goxona ta galba-
nizatuba. Olakua izete'a alan katia.*

Katiatu (kateatu): trabatu: *alan katia ezp'ezu jaso ondo, an katiatuko zaizu
uste gutxinian; etzea akordatuko. Oso prezisua da arrastaka ez eamatia;
bestela, errex trabatuko zaizu.*

Kaxan: *arrantzan egiteko modu bat: errosarioa, pita edo antzeko zera bat
ureta bota, eta honi atzera-aurrera suabe-suabe eragitea, urontzia aha-
lik eta isilen eta mantxoan eramanez: arrantzale zaarak iartze'ye giruai
ortxe nunbait, eta esate'ue: "Biyar, alban, bueta't in bie'it".*

*Jungo'a aparejugin bespean- bajamarrian- magarrasakin ixkira mordoxka
arrapatuta. Eamate'ttue bospat klase beita: txitxare, loyorra, ixkira, txapa
brilluakin, koloretako arik... Beti aurrenien proatuko'ttue difeentiak jarrita,
zenek elera onena'kan; da geroa arekin aiko'ia, jenealian, lupitan o txitxa-
rrotan. Izete'a jarduna barratik gora nunai: Marrotaldian'e bai, batelakin,
biarraunian ikusiz aparajuk; motorrakiñ'e bai, tarra-tarra, mantxo-mantxo,
tar-tar-tar, xuabe-xuabe; eta alakin polañian esku'atekin erain, bestiakin
pitai eldu, ta kaxan: eskubakin aurea tiraldiya, ta atzea utzialdiya inez.
Batzutan asko arrapatu...; bestetan gutxiyo...; segun nolako elera dakan
arrayak.*

**Kayo (kaio): itxasbazarreko hegazti igeri-oinduna, taldeetan bizi dena, han-
dia, luma zuria, bizkarra eta hegoak hauskarak dituen:** *ainbesteko
amorrasiyua emate'u! Bertederotan ziriña igual itte'izu espaldan beera.
Arrapatualdik itte zian, saria zabaldu ta ezitako gabioyakin. Onak izututa,
sarian trabatuta geatze'ia "zientoka".*

Kelar: *kedar: suak ekoizten duen gai beltza: esateko: ai zea ontzi'at pinta-
tzen da pintura asko ai dizu jaten, da urdun esate'zu: "Au kelarra baño leo-
rraua zio".*

*Zer da kelarra? Subak zerbait erretzian sortze'un gai beltza: tximinitan
eote'an auts beltza, esateko.*

**Killa (gila): txopatik brankaino urontziaren azpialdetik dihoan pieza bat,
armazoi guztiari eusten diona:** *aitz-egurra ibiltze'a killatzako. Bat motxei-
ya bazan, beste pusketa't easte zitayon batienta ondo ateata.*

Kolakaskua (kolakaskoa): urontzietako kola berezia: *ontzi'at oso material
piñakin itte'anian, kalapetak ezta baliyo; urdun kolakaskua bier izete'u ura
geatzeko, barrua sartu ez dein.*

Kondo: ur likatua: *azpitik anguletan ai zeanian, baya geo ta zallaua pasatzen,
da urdun esate'zu: "Eskobil latza pasa bierko zeu bay'oni! Zailtzen ai dek!
Kondua peatze zayok!".*

Kongrio: aingiraren antzeko itsas eta errioko arraina, ezketarik batere ez duena: kongriyuak aingiran antza'u ta buruba subien itxurauna, luzian metro erdiya baño geyo're bai, ta jateko oso gozua.

Korda: txitxarez –bata bestearen ondotik– osatutako soka, aingiretako: pasta-jostorrotzakin lokarrin sartu dozena't o geyo txitxare errosayo antzea, ta orri esate zayo korda o txitxare-korda: aingiretako ibiltze'a.

Kordela: arrantzarako lokarri luzea, amuz osatua –tartekatuz–:

kordela eun metro inguroko're lokarriya izete'a. Metrotik metroa amuba jartze zayo ta mariagora jotzian bota bier izete'a, urrungo marian biltzeko. Txukun bildu amarrak maspillatu be, al ba'a, berrizko're. Kontuz, bietzian amuba sartu!



Korkoi: arrain mota bat, ibai ahotako lohietan janaria bilatzen

duena: korkoya beti jaten aiko litzake; baño amubai, nai'zun janakin bota-ta're, eztiyo elduko, ola-ola. Mapilko Patxik Getarin arrapatu izen dittu atxamartakin. Nola? Bandai bea'pañõ azpiaxio bota, ta geo kolpia tia gora.

Korrenta (korronte): uraren lasterrak: leno, Mapillaño etorrira ala geldittu eziñ. Ur-korrentak ziala-ta, ala beera beira jarri bier nunbatt'e arrimatzeko. Oaiñ ezto olako kontuik! Asko baretu'ia!

Kostau (alaren): saihetsa (alaren): aurretik atzeaño eamate'a kostaubu. Ool bakarrekua ezta nai izeten: bi o iru gutxienez. Zulokerrai josita jute'a, kanpoko aldetik, iltze galbanizatubakin.

Kostela: ontziak bere bueltan eramaten duen egur-zirrinda, kolpeei eutsi edo aurre egiteko: ontzi'at itte zunian, kolpia ebitatzeko buelta guztin jartze zayo kostela –beste egur xirrinda't– goiko ixkiñan josita.

Kostera: arrantzaldi: kosterak bi izete'ia: atunetan da antxotan.

Atuna: San Pedrotik San Praixkuk arte.

Antxua: eneruan asi ta San Luisak arte.

Kostera ona ala txarra: arrantzaldi ona ala txarra: kostera ona izeteko, asko esan nai du zeñ gizon dan leman sayatzeana, gau t'eun; asko esan nai du, eualdi txarra dala-ta, etxea beira jartze'ana dan o ez: sayatu ordeztetxea jun nayo nai izete'una, aleiya.

Kostilla: ikus armazoi: leno egurra billatze zan batekua, okerra nai zan bezelakua zuna. Oañ eziñ billatu izetea nai bezelako kostillik eta pusketak alkarri lotuta itte'a.

Krispoi: ikus ixipu: ala kaenatzeko ibiltze'a. Ardi-larruba bi-bil inda makillen muturrian jartze'a. Urtekua bie'u; bestela, illia jute zayo.

Kuarterak: marea hilak direnekoak: laiste kuarterak eta ur illak ekarriko xaixkiu! Eaman tzaun lenbailen ximorra aldiarta; bestela, mare ttikitan ibilli biurriya zakau!

Kuarterako mariak: ikus kuartarak: txarrak, ondarretako: ondarra kargatze-ko. *Baja'ik, eta ala eamateko ta ekartzeko eraiñ in bier gootik! Bi egurrekin arpillera zabaltze ziyen alian, ondar gañian, aiziak launtzeko: urdun ola moldatze'ttuan.*

Kuarterako mariak, bestaldea, onak izete'ttuk angiretako goibel danian: jarri ala geldi-geldi -ur-erdin- aurre-atziak pondeatuta aingiren dirdira sentitzeko, ta aingiraketa earrik itte uan!

Kuartza (koartza): hegazti zangaluzea eta buru-txikia, moko luze grisa duena: *gaur-gaur nunai ikuste'a, ta tirua ittea ezta libre. Ikusmiña sortze'ue been izaeratik. Earrak ikuste'ia! Ta noiziñ-noiziñ, kuak kuak kuak, kantari. "Dabiltzala!" esate deu.*

Kuña (kuina): zurezko edo metalezko atala, puntako ertza aski zorrotza duena: *ala leorrea ateatze zunian, bi trabesañon gañian jartzea. Zapasaltua baldin bau, kuña sartze zayo alde'atian o bestian balantza gelditzeko.*

Kurpi: Burdinurtuzko galdara borobila, hiru hankakoa eta gainaldean bi heldulekuz osatua: *gaur eztek, baño garai batian Joxe Antonio Etxeberriakuak eta, ala itten ibiltzen zan jendiak, kurpiya ibiltze ziyen galipota beotzeko. Ontzi yonek, gutxi gora-behera, berrogei (40) litro kabitze'ixkin.*

L

Labañ (labain): errez irristatzen dena: *Aingira labañ'ek. Zenbat eta estutu, urdun da leno eskutik aldeingo'ik: lika izete'ik*

Lakar: latza, leuntasunik gabekoa: *lakarra ta otza, subia. Ur-azpin ezetik ezer ingo. Baita arlatza itxas baztarrekua're; beak dana esate'ik.*

Lanperna: itsasbazerreko haitzei atxikirik bizi den oskolduna, hatz baten itxura duena eta jateko ona dena: *zenbat oroipen txar! Zenbat ill ote'a toki arriskutsu'boita billa jun da!*

Bietzen formako izaki fama'un onek, ezer gutxi'u jateko, baño bai goxua! Mamiya bakarrik pixatu ezkeo, angulen preziyua, urrian. Oain dabil asko Marruekoskua, ta bietz ttikiyen antzekua da; emengua, berriz, bietz loriya bezelakua: oinbesteko aldia bado.

Igeldotik Oriyoko Itxaspe tarti ortan asko izete'a. Dona, alare, toki zalletan, asko gutxitu'a-ta. Alako fama'u!

Ikusi izen dittu, Tomax Etxeberrikua ta biok, Getariko Arratoyen kanpo alde-tik buzeatzen, lanpernetan. Mutil batek amar minutuko sarraldiya in, da goyen motorrian zegon lagunai ematen, ateatzeakuan. Kolore txui-txuiakin da belaka iña ateatze zan.

Lanperneta jutia beti arriskuba: tentaziyua'a-ta.

Lapa: itxasbazarrean arrokei soinbera itsasita egoten den molusko mota bat: *arri leunian iru alako biltzea arlatzian baño. Alde aundiya do nun bildu. Arri garbikua, obena.*

Lapari (lapa-hari): urtealditan lapak izan oi duen harixka: *urte garai'at izete'u lapak bee tripaldian ariya bezelako mintza botatze'una; ta batez'e uretan eosteakuan iartze zayo naarmen, bee azaletik ateata. Ari yau dakanian, esae-ra da arraultzak itteko dola. Nik eztakit ala'an.*

Lapazal: laparen maskorra: *ezta galtzen errexa lapa-azala. Ikusi izen dittut lau urtea're pillan. Oso ona emen da olluentzako lapa-azala: auts in, da arrautzazala goorraua itte emen du olluak. Ondarrabin baia ollo-granjak orta dedikatze'ianak, oso komeniarriya'u elakuan. Guk etzeu orri oskola o maskorra deitzen: guk azala deitze zeu.*

Lapa-iltzia (lapa-iltzea): bihurkinaren antzeko tresna bat, lapak biltzeko erabiltzen dena: *bietza aña lori eta doble luze; buruz txaplata obe, ez eskun minik emateko; muturra, zabala, kutxarilla-kerten itxurakua. Baezpa're,*

pare'at o irua't eaman. Naiz asko ibiliya zean, aldeingoi'zu eskutik uste'be arritik arria salto itte'akuan. Baezpa, trapu'at-e eaman leortzeko ta biltzeko lapa-iltziak.

Lapa-mami: laparen gorputza, xomorroa: *eztakiyenai jarri naiz xaltzan, naiz erreta, naiz eosita, lapazopa're bai, ta esate'ue: "Au al da lapa famosua!? Neatik, libre!*

Beste zenbattek, ordia, nayo'u txuleta baño: zenbat eta mami geyo, urdun da nayo. Ezta flana; baño bai, leuna, fiña ta bixiya; ta antsi aundiz jate'a bee itxas bixitasunakin; da obe dakiñak prepaatutakua; ez asi ezpa'akizu prantatzen (plantatzen): aitzea'zula-ta ez asi; oso dakiñak prantatutakua obe. Olako amonek ondo jartze'u-ta, jun da ikasi; bestela, eundo eztezu prantatuko itxurazkoik.

Laparrik: lapadun harriak: *izete'ia oso latzak eta leunak. Latzetan lapa biltzen zalla'a. Leunian amar alako bilduko'zu.*

Lapa-zopa: lapekin egindako zopa: *alde aundiya do batek in eo bestiak in lapa-zopa. Jakin in bier izeteu bee izaera. Biltzian, itxasuan bertan zaku lasai'atian astindu bier izete'a uretan ondarrak aldeitteko. Geo etxea etorri ta esatea: "Gaur lapa-zopa'iu! Ikusiko'iu nolakua ateatze'an!".*

Ona in nai ba'a, ona emen nola jartze'an:

- *Aurrena, ur epeleta bota azala mamitik askatzeko. Iruitze'anian oaintxe azala ta mamiya libratzen ai dila, surtatik erretiatu.*
- *Geo pasaoriakin mai baten gañea zabaldu, azala ta mamiya apartatzeko.*
- *Geo lapak eositako ura zapi estu'atian pasa, garbi-garbi izen dein.*
- *Geo ur onekin lapa-zopa itte'a, batzui-zopa itte'an bezela.*
- *Eta azken-azkenian bota lapa-mamik zopai, irakiñetan asko euki be, ez goortzeko; ez aaztu oliyua ta baatzui piska't.*

Lapazorri: laparritan eta lapen inguruan sortzen den lurreko marraskillo txikien antzekoa: *lapazorriya beziñ uariyik ze ote? Eta galtzen zalla!*

Larru bixik (larru bizirik): biluzik, larru gorrian: *garai'atian, gue umetan, larru bixik ibiltze'iñun igari: amak inda bezelaxe. Urdun larru gorrin iblitzia ez uan gutzat pekatu.*

LASTOLAKO LEARRA (Lastolako legarra): Erriotoki izen bat, Lastolatik Uarte tarteko legar handia: *bajamarrian, amaika iri ta bei pasiak aldiarta! Auntzian ximorra eaman ongaritzat, eta ununtzian garo, arto, janai, arbi, erremolatx...*

Ganauk -or pasatzen ottutakuak- iru eun urik ean'be igual or eateatik, bixixeua zalako.

Agiñaldetik du kanala ta auzkaldetik ur mee-mia. Ala pasa nai bazendun andik, aletik urea jetxita eskuz pasatze zendun. Unuzkaldetik korrenta izuarriya sortze'a, ta maria etorri arte zai eon bier.

Urak aldein, da putzu-zulotan makiña't arrai deskuiratze zan. Jute zan jendia, eta oso arrapatu errexak geatze zian, batez'e arrai txikik. Angula denboan, eozin arri txiki muttuta, azpin bi-iru ale iya beti, eunez arri azpitan gordetze'ialako.

LATINDEI (Latindegi): erriotoki izen bat, urez bestealdetik Intxorreta baino beheraxeagoko buelta: *angulerua'nak Lantindein nai izete'ue; ez mare osuan. Baño ura beera ai dula, alerua puestua arrapatzea ara juna, garai'atian.*

Oaiñ motorzaliak pasatze xaixkizu kontran-kontran, eta ezto olako kontuik.

LATINDEI ERREKA (LATINDEGI ERREKA): urez beste aldetik, Isostegi eta Itzau basarrien goialdeko Irisasi menditik errioratzen den erreka: *ospeleko ura da. Arbela bakarrik da; beti ematen aitze'an arbela. Naiz mendi aundiya ez izen, Latindein beti ura. Lekuik baldi'ma, anguleruak aipatzen duena Latindei da anguletako.*

Latz: ikus lakar: *arraun da polañen eldulekuk latzak izete'ttuk, baño ibillin-ibillin leundu itte'ttuk; urdun, ondo ibiltzeko derrior lastu bierra dazkak; bestela, eskuk bustitzen ai bie'k, beti, ondo eltzeko*

**LAXAUKO ERREKA (LASAOKO ERREKA): Bordatxo menditik eta Anbu base-
retik barrena, Lasaora jaisten den erreka:** *beko barrenian, arlatzeko ura nola dan, biberuak itteko oso gustoko lekuba zuen Galardikuak etxe ta guzti: azpiin deposituk angulenak, ta gañian etxebizitza airi kontuitteko. Garai'atian, oain dala eun da berrogeita amar urte, errota're bazan. Oso euterako erreka da. Arbela ba'u erreka orrek. Altokiya're bazuen Laxaukuak, or, bestealdea pasatzeko.*

Lazun: korkoi familiako arrain mota bat: *ur gezako arraya da, oso makala jateko eta iya arrapatu're ezta nai izeten. Jan leike, baño nayo beste'at.*

Lear (legar): errioko harkoskor multzoa: *gaur-gaur, Agiñako erriyuan bista-tze'ian lear-pillak o'dittuk: Intxospe, Permindei, Enaluze, Lear Aundi, Erreka-bi ta Sari aldekoa.*

Lear-arri (legar-harri): errio, ibai eta itxasoko harkoskorra: *lear-arriya urak eta tirañak erriyuan dabilkiyen arri borobilla izete'a; euzki formakua ta xabala, jenealian.*

LEAR AUNDI: Erriotoki izen bat: ikus Lastolako learra: *Lastolako parian, erriyuen erdin, don arripilla da Lear-aundi: biyak bat da.*

Lear barrena (legar barrena): legarraren beheko aldea: *lear barrenian arriya xiaua, beti, gaikaldian baño.*

Lear gaiñ (legar gain): legarraren gainazala: *lear gañian goldiyua askoz'e geyo izete'k udan negun baño. Negun ebi geyo dalako korrentak sortze'ixkik, eta orrek itte zioik dana.*

Lear goyen (legar goien): legarraren goialdea: *lear goyenian arriya askoz latzaua, azpikaldian baño. Azpikaldian ur illauak dialako goldiyua itte zayo, ta orreatik da leuno.*

Lear-munto (legar-munto): legar-tontor: *Lastola azpikaldian bado lear-muntua; biarba oaiñ dala berreun urte ingurukua, urak utzita arri xiaskuakin.*

LEAR TXIKI (legar txiki): erriotoki izen bat. Urez bestealdetik, Errekabi aldean, muntuaren kontra azaltzen den harri-pila: *batzuk oso gustoko tokiya anguletako, bizkarrunea itte'ulako. Zabalduta datorren angula or biltze'a.*

Lear txior (legar txingor): legar xea: *urak learra zenbat eta eamano eta txiorro.*

Lear xapal (legar xapal): irtenik gabea, laua: *patrikak arri xapalez beteta eukitze'iñixkin txilipak itteko, zeñek irabazi.*

Lear xia (legar xehea): ikus lear txior (legar txigor): *Ortzaikaldian zikiñ askok nastutakua, baño lear-xia garbiya an da. Learrik aundinian o ttikinian, beti azpikaldia xiaua gaikaldia baño.*

Leor aldea jo (lehor aldera jo): lurraldera jo: *ur-kargetan zabiltzanian alakin erriyuan, sekula ez korrentena iriki; beti're leor aldea jo. Eutsi muturrai "oaintxeit'pa garaia beste aldea pasatzeko" iarri arte. Alleeran buruz ibilli, golpe galanta eman'be palizai eo eskallera. Beiñe ez pareta jo: gaikaldeaxio o azpikaldeaxio, beti're leor aldea eantsirik. Trabes; ez topez.*

Leorretik etorri (lehorretik etorri): itxasoa edo errioa bizi izan ez duen ingururitik norbait etorri: *esan leike Astiasutik etorriyai ta uren berri eztakinai: "Au leorretik etorri'ek". Eo ura don tokin oñetako ta guzti sartze'anai: "Au nungua'iu, leorrian ottutakua?"*

Lepoz gain: Lepotik gora: *loi arriskuba'nian-da, bati esate zayok: orrea ez aijun, lepoz gaiñ sartuta geatuko aiz-ta!*

Lertu (lehertu) eguraldia, olatua: *tiraña itxasotik baldi'mator, Agiña bitartian amar lekutan lertuko'a; ala're olatuan bi ixkiñak beti parian jarraituko'ue. Ez al da au ikusgarriya? Bee bultzat etorrera aurretik iartze'a.*

Lezka: kainaberaren antzeko zurtoina duen belar-landarea, toki umeletan jaiotzen dena: *Oriyoko eskollerak iñ ondoren, Permindeiko isla dana zikiñak ai du artzen, da lear aundiya-re bai, erriyoko urak seko baretu'ttulako. Oaiñ erriyuan eztaka itxasuak leen bezelako eraiñik; eta lezkak eta saatsak eta altzak, an-emen. Akabo garbitasuna!*

Lika: lingirda, zerbait itsaskorra eta irristakorra: *aingira ta angula-mukiyai lika esate zeu; orreatik angula ondo-ondo garbittu bie'ik lika uretan ziero kentzeaño, eosi (egosi) aurretik.*

Lixia (lixiba): arropa garbitzeko eta zuritzeko isurkari alkalinoa, lehen zenbait landareren hautsekin egiten zena: *denboa'tian, eltze aundi'at ur beruakin jartze uan, da bertan urtu etxian indako erretxiñ pusketa't lixiyakin batea.*

Loi (lohi): lokatz: *Ur ttikiyauan eote'anai esate'you loya; bestela, lokatza. Gutzat, esateko, learrrian dona loya da; ez lokatza: lokatza loriyaua'a.*

Loina: erriyo eta ibaietako arrain txikia, mutur irtena, arrea eta jateko ona: *ujal aundi xamarra ateatze zunian, erriyo-baztarreko zaika-baztarrian eote'ttuan loinak. Ara jute giñun baya kirten luziakuakin; da itte giñin baiaundi'yoi sartu ur-azpia, eta bee gisa bezela ateatzen utzi; ta urdun arraya eztek sustatzen o ikeatzen, da baya betian ra-ra-ra! soñuka ateatze uan. Baldeka't eo ittian, etxea etortze'iñun. Arraya oso goxua prejittuta -oliyotan gorri-gorri inda-.*

Lokatz: lohi: *Lastolako goiko zingiran unuzkaldetik lokatza da, ta oso izei-tokiya da. Lokatzeta sartze m'ezu polain-pala, eztakizu zenbat birian jun dan, da igual asko kostako zaizu ateatzen. Lori-loriya'anian, lokatza esate'you; ez loya.*

Lokazti: lokatz asko dagoen tokia: *Laxau bidetik gora, beti lokatza; toki lokaztiy'ek bustitsuba'lako.*

Loyaldik (lohialdik): lokaz asko dagoen tokia, lokaztik, lokaztegi: *alakin baator ondo gorrin agaika, ta ustekabian zast! loyaldi batian sartze'k eta orrek amorraziyo galanta emate'ik. Korrenta don tokin ezte'k loyaldik; or, jenealian, arri biziya.*

Loyarra (lohi-harra): ur-izkinetan, lohi tartean egoten den har txiki bezalako bat: *loitan -ur gaziya allaitzean tokin- don xomorrúa, loyarra. Anka askokua ta luze xamarra. Amuben muturrian jartze'a arraya arrapatzeko; ta arrantzako ona, bizigorra'lako.*

Loyorra (lohi-harra): ikus loyarra: *ur azpin txulua garbi-garbiya, ta seguru xamar an loyorra badola. Izete'a arra bezelakua, ta loyorra esate zayo.*

Lupi: itxas eta errio-arrain bizkar grisa eta sabel zuria, bizkarrean bi hegaltzazko hezurdun dituen, sukaldarako oso ona dena: *lupiya xartan dabillen tokin, ixkira don siñale. Askotan bee xaltuan alan sartze zian, bixi-bixiya'lako.*

Oriyoko Erramunino ta "Txokolate" ta beste erretiatutako arrantzalien dibertsiyua izete zan, alban, lupita.

Mapilko Baleri zana bete-beteko arrantzalia zan. Bi lupi tamañakuak arrapatzeatik Olaberritako ur-zulua jungo zan, etxe onduan lupiya besteik ez-ta: aundizale zan.



Lupi-txapa

Lupi-txapa: *arrantzarako tresna, hiru amu kakodun pitari lotuak eta bi bira-kariz osatua: arrayen engañagarri oso brillotsua izete'a lupi-txapa.*

Lur-izardi: *lurraren bustiunetako ihintzura: maria aunditan zangetatik urak sartuz, lurrak botzatze'un intzura, esateko. Erriyo ingurutan lur-izardiya askotan izete'k.*

Lurra jan (urak): lurra eraman (uraK): *urak ezтик barkatzen. Kaskaka-kaskaka lurra jan da jan, beti; biundu ta eaman, biundu ta eaman, eztek aspertzen; orreatik jartze'ttuan lurrai eusteko balduak.*

LURTXARRETA: *erriotoki izen bat, izoztegitik Mapila bitartean urez besteal-deko lurrak: eztia lur txarrak, baizik ibillera txarra emate'uenak: dana biz-karka ta eskuz. Bertako azakiyai asko kontuin bier; bestela, txarra nausi. Nola lur utsa'ian, erriyo baztarrak lokaztik dia.*

M

Majuba (majua): *gaineke edo azaleko urak behera, eta azpiko edo hondokoak gora egiten dutenen gunea. Hau ur handitan gertatu ohi da; ez mehetan: esate'ueenez, Ezpaldiberriko Miel da Julien anguleta junda oso beera –Marrota aldeano–, eta ura jira “bai-ez” anguletan ai ziala, ikearrizko kalak dozenerdi'at o gutxiyo, ta seittun attu angulak; berriz goraxio jun, da berdin-berdin gertatu: an'e dozena't kala onak, eta geo batez. Au dana majubaatik emen tzan.*

Makaldu (urak): ur bizik moteldu: *maria bizitan askoz'e geyo jeste'ia urak makaltze'ianian baño: ur makaletan baiño.*

Makina (anguletako): anguletan atoi-lanerako erabiltzen den makina: *makina-ri eskuz erain eta atoi-soka biltzen da; danborrian arek ekarriazte'u baya.*

Makurra (ala): mutur-etzana: *alak biau muturra, ta makurregi baka, au esate'a: “Altatxua atea zai'uk: aurre-makurra!”*

Mamarro: harraren antzeko zomorro bat: *ondar tartian, muskulu ta ostren azpin eote'an anka askoko xamorruek mamarrua. Bau, itxuran, langostan antza.*

Mangarraza: arrantzako tresna mota bat: *mangarraza bi makilli lotutako saria da, nai danian zabaldu ta estutze'ana, beeko kontrat plomuak eamate'ttula beera itteko; batez'e ixkiretako ibiltze'a nor bea putzua sartuta. Sariai mortxilla ittian, eskubakin euste zayo.*

MAPILKO ARRALDIA (Mapilgo harraldea): erriotoki izen bat, Uriberri azpitik hasi eta Errekabiko legarraraino, bide aldetik: *Saikolan bezelaxe urak topez jotze'yo. Urtzulua're bado or. Ixkira-tokiya, naiz salabarduentzako arri aldapatsuba. Goyen baño ixkira aundixaua. Angulatokiya're ona; eta nola ura aundiya'n, atoyian attu bier izete'u.*

MAPILKO ERREKA MUTURRA (Mapilgo erreka-muturra): errio-toki izen bat, Mapillerreka deritzaion errekaen ahoa: *Aitzesate puntatik asi, ta mendi ortako ur guzik or bukatze'ia: MAPILLEN.*

Lokatzakin bete-naya eukitze'u erriyuak urausilletan boka au, baño eztiyo uzten goiko urak.

Leorretik anguletan aitzeko oso puntu politta. Ankak koska gañian jarrita, oso kala-leku dotoria.

MAPILKO LEARRA (Mapilgo legarra): erriotoki izen bat, Errekabi parean

dagoena: *Mapilko learrak oso baxtarretik du kanala, ta estu-estuba. Baja-marrian etzendun pasako alik goralde, ta beraldea're dakiña bierko'zu; bestela, korrentak irauli iual. Urak jiratzian, ortik asita Uriberriaño, ixkirazaliak oso leku gustokua'ue.*

MAPILLERREKA (MAPILERREKA): Aginaga mendian jaiotzen den erreka da, eta Arrate deritzan baserretik barrena Mapilgo zingira bere urak

isurtzen dituen: *1970 urte arte erreka onek mantendu zun Agiña urez, Arrate baño beeraxio deposituba zulaik. Ortik aurea, Erriyak Sanixtondik eta Añarbetik osatu zun, Arratek askotan exkax emate zulako ura. Geo anguleruak artu zuen been zerbitzuako.*

Orko ura da euterakua, arlatzakua ta oso orbeltsua, arbol asko zulako ingurun. Angulero danak or nai izete zuen biberuak ittia. Eozin lekutan baño ura epelaua da, ta angula askoz'e azkarro beztutze zan.

Perretzeneko Gabino gabez an jute zan tubo-muturrai beiratzea, itxiya zeon o etzeon. Angulak ura seiran bier izete'u, da utzialdiya itte'mazun, arriskuba galanta angulak ittotzeko; orreatik biberuak zazkanak, makiña't gau bai beiratzea, paola eo linterna eskun zuela, tubo-muturra itxiya eo garbiya zeon ikustea.

Ara!, eta au esan be ezin geldittu: inun martinpolittik ba'a, erreka ortan.

Maria (mare): itxasaldia, uraren goraldiak eta beheraldiak: *maria eunetik eunea aldatzen jute'a; eun berdiñik ez tu aleik'e. Illargiyaren arabera ibiltze'a eta arek aintze'yo.*

Maria altxa: mareak gora egin: *altxako al du gaur maria ala botatzeko moun? Ezin ba'a, rodiluakin moldatuko'iu.*

Maria aundik (mare handik): ur handiko mareak: *garai'atian, aldiarta ximorra alakin eamate zanian, eskuz ustu bier izete uan -muntoa- siesta ingo ezipazan'e, maria aundik aprobetxatuz.*

Maria azi (mare hazi): ur hiletatik goraka hazten den mare: *ilberatik ilberria -len da oaiñ- mariak azten jute'ia, ta urdun esate'iu: "Azi'ixkik mariak!"*

Mariabera (mare behera): itxasbehera: *ur bizitan izete'ia mariaberaik aundiñak: sanmieletan da Aste Santu aldian.*

Maria betia (mare betea): itxasgoraldiaren betea: *"Mariabetia ziok! Ura jiria ziok, baña oaindik emen gora ziek!"*
"Maria betei'k eta beera astea ziek!"

Maria bizik (mare bizik): ur bizik: *illargi berrin da betian, maria bizik. Korrenta aundiya izete'a gora, ta euneko mariak asko iyotze'ia; ala're gabekuak, eun berian, arra bete geyo bai.*

Maria bukatu (marea bukatu): urbizik bukatu edo mareabehera hasi: batez'e atoyian ai danak anguletan, kalako doxenerdi'ateño jexten xaixkarian, esate'u: "Gaurko maria bukatu'ek! Au etxea ziek!".

Baita're esate'a: "Uraldi yotako mariak bukatu'ttuk! Urrungo illargi arte etziok ze iñik!".

Mariaerdi (mareardi): marearen erdi garaia: mariaerdin pasa bier izete'ik Oriyoko zubiya. Erdiya baño goro ta erdiya baño bero're arriskuba zio, eta mariaerdiya zaittu bi'ek pasatzeko.

Maria etorri (marea etorri): urak etorri: ondarra kargatzea jun alero asko giro ona'alako, ta Oriyoko Torretxon toki txikik danentzako, ta urdun esatea: "Auro ibilli gaitezen, maria etorriko zaiuk eta!"

Mariagora: (mareagora): itxasgora: naiz ur-karga izen, naiz gabez ordui'-pe, alako tankera emate'yonian aleruak esate'u: "Mariagora jua zio'pa, unuzkeo!"

Bestela, bait'ere esatea: "Urak bizitzen asi'ixkik! Urrungo mariak emen dixkiu!"

Maria ikuttu (marea ikuitu): mareagora hasi: mariagora eo urak gora asita daudenian, esate'a: "Maria ikuttuta zio!"

Maria illak: (marea hilak): ur hilak: maria illak kuarterakuak izete'ia: illargi-erdiya itaya bezela gastatzen ai danian izeteia maria illak. Eztuzu angulik arrapatuko; mariok eztia anguletako.

Maria iyo (marea igo): mareak goraka egin: "Itxoiñ zaun gaba arte, maria geixio iyoko'ik eta!"

Maria jetxi (marea jaitsi): mareak beheraka egin: "Karraitu zaun goldia aldiarta, maria jetxi'k eta!"

Mariajia (mareajea): marearen egoerak: askotan bata bestiai galdetze zio:

- Mariajia nola akan?
- Bela beera asteko moun.

Maria jira (marea jira): mareagora edo behera hasten duen garaia:

- Gaur noaño jun bia'iu?
- Latindeaño bintzat, bai: an maria jirako'ik eta geldittuko'ttuk urak.

Maria jo (marea jo): mareagora eman: naiz ur-kargak izen, naiz gabez ordui'-pe, aleruak alako tankera emate yonian, onela esate'u: "Unuzkeo ura jiria zio! Maria jo'ik!".

Maria jun (marea joan): mareak alde egin, urak gutxitu: *Olaberrietan ala eunez kargatzen ai zeala, akordatu'be maria jun. Bein baño geyotan bai, ta urdun: "Oaiñ ze in bier deu? Bertan utzi urrungo maria etorri arte eo alaustu baztarrea?"*

Maria jun ezkeo olako buruaustiak izete'ia.

Maria jun (marea joan): mareak atzeratu: *anguletan ai zeala euna muttu zaizu, ta artian maria betetzeko; ta urdun au esate'a: "Oaingo mariak'e jun dittuk!"*

Mariak aldeñ (mareak alde egin): mareagorak alde egin: *"Aldeñ zaiuk mariak! Beste jorna itteko denboaik eztiu!"*

Mariak aldeñ (mareak aldegin): mareak hiltzen ari: *urak iltzen ai dianian, alero'atek bestiai esate'yo:*

– *"Oaingo mariak'e aldein diye! Uraldi yonenak in dik! Lo itteko moun gattuk urrungo illargi arte!"*

Au esate'ue, ba, nola eunetik eunea mariak atzeatzen jute'ian, goizaldia etortze'a ta euna zabaltze'u; ta, argitan, akabo angulak urrungo iñular-mariak arte!

Mariak atzeatu (mareak atzeratu): urgorak atzeratu: *izete'a garaya, batez'e baxtarretik anguletako, bai illuntzian, bai goizian, bi mariak arrepatze'ian garaya. Geo mariak atzeatzen dijuaztin bezela goizian euna argitze zaizu, ta esate'zu:"Mariak atzeatzen ai diye!"*

Mariak aurreatu (mareak aurreratu): urgorak aurreratu: *lengo illargin baño aurreo zatoztik uraldi yotan mariak. Oi zeatik?: izen leike itxasua muttubaua dolako o illargi betian baño berrin ur biziyaia izete'alako.*

Mariak bizitzen (mareak bizitzen): mareak indartzen: *eunian baño eunian erriyua biziyo, ta urdun esate'a: "Mariak bizitzen asi'ttuk!"*

Mariak kuarteratik iruarren eunea aste'ttuk bizitzen, normalian.

Marian ibilli (marean ibili): mareagorako ur-geldiaz baliatu: *"bi ala alkarri lotuta meta-belarra osua ekarriko'iu, maria aprobe txatuz! "Marian ibilli bier zakau!"*

Marian sartu (marean sartu): urari itxaron marea sartu arte: *"Goizegi etorri gattuk! Oaindik asko falta'ik Upalateia marian sartzeko!"*

Marian zai (marearen zai): mareako urak igo zai: *Oriyoko barra etorri baporria, ta artian ur ttikiya. Eztia gustua eoten, baño ze erremeyo!: marian zai eon bier, urak noiz iyoko, etxea etortzeko.*

Mariapunta jo (mareapunta jo): mareagora eman: *"Karga itzaun alak! Maria emen det! Punta jo'ik!"*

Maria ttikik: (marea ttikik): gutxi hazten dituenak: *“Kostako’k isla pasatzea oaingo maretan; txiki’ittuk eta!”*

MARINAKO BUELTA: erriotoki izen bat, Errekabiko legarraren azpialdeko bueltaxka, kamioz beste aldetik: *anguletako puntu ona; istimu aundikua, Marinako Buelta. Askok nai izete’u or anguletan in.*

Martinpolitta (martin arrantzale): hegazti igokaria, moko luze eta zuzena, luma urdin, gorri, zuri distiratsuak, buztan laburra eta zango motzak dituenak; errio, ibai eta aintziretan bizi dena: *Mapilko erreka-muturrian ezpado, iñun ezto. Errekan don tuneletik pasatze’a Mapillerreka aldeano, igual larogei metro azpitik. Erriyua zikiñ dolako txori polit eta deigarri yau asko gutxitu’a. Lastima, gaurko umiak gutxi ikuste’uelako!*

Maspillatu (maspilatu): nahaspilatu, nahasi: *bai esparbera, bai kable, bai kate, oso ondo ezpa’ttuzu ibiltzen, maspillatuta kostako zaizu ondo jartzia, ezparbera batik bat. Beti izen erreparua kablia askatzeakuan. Kontuz onek ituan arrapatu!; bestela, beakin batea urea erotzeko arriskuba galanta.*

Matrillua (matriloa): ontzia josteko mailua: *ontzi-intzalliak eskutik azkena utziko’un erreminta da matrillua, ta, alba’a, beria naiko’u. Itzia’t sartzeakuan okertze bazayo, laste emango yo matrillubai aitzekiya, esanez: “Kris-tooo!, neria izen banu etxixaian okertuko!”*

Matxoi: ostiko, harri-habea: *Oriyoko zubikuak arriz indako bost matxoi earrai’a. Beñ gabarra aundiyakin iurtzi izen gendun, baño ari mellik etzizayon iñ!*

Mausarra: hondar larria, hondarra baino larriagoa: *urausilletan, munto ondota eote’a mausarra. Korrentak –batez’e ur-karga aunditan– lurra baztarrea botatze’u orbel, xarba... ta ondar larriyakin batea dana naastuba; ta oni esate zayo mausarra. Zenbat eta beero ta urdun da garbiyo ta larriyo. Ekarri izendu’a Ermalda azpikalditik obretako’re. Ondarra baño ariñaua izete’a.*

Etxe askok ekarri mausarra loriak tarrotan jartzeko uztez garbi-garbiya’lakuan, da antxe sortuko zayo ramutaria esate zayon kañabela. Ongarritza-ko’re baliyo’u: lurrai emate zayo.

Mazopa (masopa): izurdiaren familiakoa, izurdia baino ttikiagoa, mutur-hantua, bizkar-hegala laburra duena, itsaso hotz eta epeletan bizi dena: *1941. urtian, azaldu uan mazopa Agiñako erriyuan. Urruzmendiko altokitik zingira bitartian azaldu uan mazopa. Urak aundi xamarrek urdun, da iñ uan or entretenitu, ta mariak aldein xitxon: bai gora ta bai beera juteko uri’pe gelditu’an. Arnasa artzeko gora azaltzeakuan, urdun bate’atek ikusi ta bestiai parte pasatzen asi uan.*

Ni urdun janaita juna niñun, da dinbi ta danba! tiruak asi’ttuan. Nunbait aurrena perdigoyakin asi’ttuan, da arekin ezer iñ eziñ da kartutxuak postazkuak ekarri xixkiyen. Gora ateatze zanian arnasa artzea, sekulako tiro

soñuba ateatze ziyen. Nik urdun pentsatu nin: zer pasatu ote'a or!? Etxea etorri nintzanian, korrika ikustea jun niñun da orduako erriyo-bazter guztiya jendez betia xitxon: batzuk alakin da beste'atzuk leorretik, ikusi zai. Alakin zabiltzanai ondo-onduan atea xitxayen. Ximon Ezpaldikua-ta itun; da arek iñ iñ txitxon ikullatxurra sartu bizkarretik. Ximonek indar asko zin, baño aldeñ iñ xitxon ikullatxurra ta guzti. Geo, andik aurea, leno ikuste ziyen; da eixtaik, dinba-dinba!, bala oikin barrena izurratu xitxen. Bi ordu ta geyo pasa ziyen eziñ dominatuik; eta dominatu zuenian, ixtillaua eaman ziyen da an txintxilika jarri. Amaika arro pixatu zin.



Mazua (mazoa): egurrezko mailu handi bat: erdi-erdin kirtena ondo jarriya alderoik ez izeteko; ta bi muturrutan burnizko anilla bana, ez pitzatzeko.

Mazusta (arraun): traineruko arraunlari bat: triñeru'atian, urrenez urren, onela jartze'ia: patroya, ankekua, baor-ankekua ta onen urren-go -baorrekua- da mazusta.

Mendeala (mendebala): sartaldetik datorren haizea: "Mendeala jo'ik! Au eztek lengo aizia! Otzau'ek!"

Meune (meheune): hondo gutxiko urak: "Itxasuak oaiñ'e ondarekarraldiya in dik, eta meuniak zaudek."

Meya (meia): lika antzekoa: anguleta junda eziñ pasa bayik, eta urdun:

- Ur garbik zaudek ustez! Ze pasatze'a?
- Meya zakak.

Mortsa: Itsas ugaztun handia, itsas otsoaren antzekoa: Agiñaño etorriya zan mortsa arrayai seika, año 1987 ingurun. Jendia akordatu zanian eo, alkarri: "Oi zerda? Beñ'e emen eztek azaldu olakoik! Ze ingo'iu? Dei zaun Dya'-ra; aik zoeze ingo zek!"

Ala etorri zian batzut fuerabordakin, da laundu in tziyen itxasoa: ara eaman zuen ostea bizitzea.

Mortxilla (mortxila): harrapatutako arrantzakin sareari egiten zaion boltsa, esateko, mangarrazari -izkira-pisuz- egiten zaiona sarean: "Beira yok ondo mortxillai; bestela, jungo xaixkik arrapatutako ixkirak!"

MUELLA-BERRI (Moila-berri): erriotoki izen bat, Sari deritzan baserriaren parean, urez bestealdetik dagoen gunen bat: nunbait trenbiria in tzuenian, marjen tikiya utzi ziyen mendiyai. Bajamarrian, Sari aldetik, learra da; uren kanala andixe pasatze'a. Lurjausik sortu zian urak azpijanak inda. Geo pareta in bier izendu zen trenbiriai eusteko; ta orreatik du izena Muella-berri.

MUELLEPE: erriotoki izen bat, erriozkinan Aldapa paretik hasi eta Uriberri aldea egiten duen terreno zirrinda bat: zirrinda luzi'at bazan Aldapa azpitik asi ta Uriberri aldea itte zuna, kamiyo ta erriyuan tartian; da patata itte

zuen lekuba zan au 1960 arteañoitsu. Bajamarrian kanala antxe pasatze zan, da puxka't zakiña bier tzun ala ondo pasako bazan: korrenta ta baxta-rra, pausu'atea.

Muellia: kai: muellia arranpakikua obe: karga-deskargako mariak geyo emate'ik.

Mumurru: luertzaren antzeko xomorrua: soñ erdiko atze-aurriak libre muite'-ttu erdin meunea'ulako. Arrai aunditako ixtimatua da amun jarrita. Au're loi-tan billatzea.

Murgil: urpeko igerialdia: muntotik, altokiko exkalleratik, zubitik, aletik... Buruz aurreaka, eskuk luzatuta o luzatu be, atzeaka o sayeska... Nork bee buruba ureta botatziai deitze zayo murgil.

Murgil-igari: ur azpiko igariketa: beira: murgil jo, iya zingiran bestaldeña pasa, bost bapore pasa, ala azpitik pasa, ta or iya iru minutun arrnasik artu be ur azpin jun da jun: oixe'a murgil-igari.

Murgil jo: murgil egin: battuan gue garayian earki asko murgil jotze zuenak. Ur-gizonak ezetik sekulan esango murgil "in" tzak: murgil "jo" zak, esate'ik.

Muskilarri: ikus arrimuskil: bajamartutakuan azaltze'ia muskillarrik eskeletuen kostillak bezela pleatuta, ta airi deitze you muskilarrik.

Muskullu (muskullu): gorputza bi kuskuko maskor luzaran beltzaixka batean gordea duena, eta arrokei itsasita egoten dena: arri latzen zale oso izete'a, aguante aundikuak eta galtzen zallak, naiz ur-zikiñak izen. Mariagorakuan iriki itte'ia ta berakuan itxi. Muskulluk, naiz ur zikiñak, beti garbik; itxi itte'ia-ta.

Muskullu-arrik (muskullu-harrik): muskulludun harrik: Oriyoko ostraeran, bajamarrian, muskulluk biltze zian: bai aundik eta bai txikik. Aundik jaso ta ttikik ostraerako kajoyea botatze zian azitzeko. An muskullu-arrik zian. Arroketan'e bai, izete'ia.

Muskullu-azal: (muskullu-azal): muskulluaren bimaskorrak: muskullu-azala eztek alperrik galtzekua: olluentzako baliyo izete'ik txiki-txiki inda, austuta, lapazalak bezelaxe.

Muskullu-mami (muskullu-mami): muskulluaren gorputza: ziero belaka da muskullu-mamia: mukiya bezelakua. Gordin-gordinik jate'ue. Ondarribikua, ur-gazikua, bixi-bixiya; nik'e jan izendu'et.

Ondarrabin bi anai ba'ia propiyo ortaxe dedikatze'ianak; bajamar askotan berreun kilo-ta biltze'ttuenak. Mamiya, arrantzako, beita itteko; azala austuta, berriz, olluentzako.

Musto: muxarraren antzeko arraina: beste arraik arrapatu nai ta orrek aurrena elduko'izu, ta esate'zu: "Oaiñ'e bae'pa!" Atea, bota putzua, ta berriz'e mustua; oso uariya'a

Mutiloi: burnizko zutoinak portuetan barkuk eta amarratzeko prestatuak:
perritxikuk emate'ue muella-ixkiñetan. Burnizkuak, burni txapeldunak. Ez maria aunditan, ez olatu aunditan, estatxa ez ateatzeko propiyo prestatuta den euskarrik o zutoñak dia mutiloyak, barkuk amarratzeko.

Oso pareta-ixkiñetan eote'ia. Baporía, bazpa're, eztue mutiloi batian lotzen; bitan lotze'ttue, batek fallatzen bau're.

Muttu (mugitu): igitu: *Zer ote'a muiteztana urian? Nik uste't dana muiteztala. Ostrak'e urak tapatzian arindu itte'ia, ta aik'e urdun balantza itte'ue.*

Muturra arrapatu, angulei (muturra harrapatu, angulei): aurria hartu (angulei): *"Beeragi etorri'attuk! Emen kalako lau-bost ale besteik etziok! Guazen azkar gora, angulai muturra arrapatzea! An bayak zuri ibiliko'ttuk!"*

Muxar: arraitxo xapala: *muxarra'ek arrai xapal beltzatxiuna, jateko oso ezur-tsuba, ta eze asko eukitze eztuna. Ttentte ibiltze'a.*

N

Nabartu: beste koloreak hartzen hasi: *arrantza jun gea urdiñez jantzitako eualdiyakin, da itsas aldian alako laño nastutze'at aste'a, eta launai esate'-yok: "Denboa aizeta ziek! Zeruba nabartzen asi'ek laño gorri-gorriz!"*

Nasa: kaia: portuetan pertsonak eta zamak ontziratze eta lurreratze prestatzen den eraikuntza:

- *Igari jende asko zabillek nasa aldian!*
- *Ze jende?*
- *Danetik, aundi ta txiki.*

O

Olaarru (olagarro): burua arrautza itxurakoa, begi irtenak, zortzi erro edo garro dituztenak eta jateko onak direnak: *iñun billatu nai b'ezu, Zumaya-tik Deba tarteko arroketan. Baserritarrak –gabez linternakin etxeko lanak inda geo– bajamarra zanian jun leku boita, ta nai zuen aña: iru baldeka igual, da etxea!*

Baliyo izete'u eosita jateko. Oso famatua.

Etxe inguruan jartze'ue leortzeko. Ikeaarrizko usaya izete'u ta orreatik jartze'ue kanpuan, etxian kietsa'ulako; baño leortze'anian kartoya bezela, guaziakin kriska-kraska moztu, ta olaarro-zopa itteko oso ona.

OLABARRIETA: erriotoki izen bat, Irisasi mendian urez bestealdetik; eta Aia eta Usurbilgo San Estebanen arteko muga: *Olaberrietako bertako uran izaera, preskua ta garbiya'a erriyuan, bee parian ur-zuluakin; lupi earrik arrapatze emen tzun Mapilko Baleri zanak. Ara junda nayo bi aundi, bestetan ogei txiki baño.*

Olatuba sartu (olatua sartu): *olatua barruratu: Marrotako erribereta, deskui-ratu ezkeo, maria aunditan olatuba sartze'a.*

Ondalki: alaren polaintokiko ohola: *ondalkiko ool onek alan baor aldetik eamate'u polaiñ-txulua. Ezinbestekua, txulu oi polañeako. Beste iru txulo're bai, aldenik alde, pol-eurrentzako.*

Ondalki-txuluak (ondalki-txuloak): *anguletako pol-egurra gogortzeko daramatzan hiru txuloak: ondalkiyak –auntxoxio ta ununtxoxio– eamate'ttu iru txulo estiorreko aldetik, pol-egurra goortzeko pasaoriakin.*

Ondar (hondar): *itxasoak, golpeka, arrrokei kendutako ale-izpiak: itxasuak eztik barkatzen; da bea'ek, gau t'eun, arroak jo ta jo, golpe ta golpe aitze'ana; ta zenbat ale-izpi kentze ote'ye eunak jun, eunak etorri! Auskalo!*

Uretan bi ondar klase ezautze'ixkiu: ondar beltza ta ondar gorriya.

Ondar beltza (hondar beltza): *errioko hondarra: zenbat eta itxasotik urrutiyu, urdun da ondar beltzaua, illunaua.*

Erriyuak eamate'un mausarra naste zayolako da beltzaua ta ariñaua.

Gutxi gora-bera –metro kubikota du izaera neurriyak–, metro kubikuak 900 kilo'ttu. Learrak'e ondar beltza asko'u.

Ondar gorria (hondar gorria): hondar gorriskara: *konstruziozaliak oso ixtima-tuba'ue betelanelako. Zenbat eta itxasoago, urdun da gorritasun geyokin da garbiyaua.*

Itxasuak in oi dixka ekarraldik eta eamanaldik. Eun batetik bestea battu lekuk, atzo batez ta gaurko mariak dana tapatuta; eo baita atzo arriyik'e agiri ez, ta gaur dana arriz bistatuta.

Metro kubikuak pisatze'u: 1.350 kilo ingurun.

Ondar-munto (hondar-munto): hondar-pila: *xelebria izete'a! Alako eunetan sekulako ondar-muntuk an-emen, ondar-ekarraldik izen dialako; urruna, berriz, eamanaldik eta munto guztik desaertze'ia.*

Ondar-pila (hondar-pila): hondar piloa: *Oriyotik alak kargatuta ekarri, ta Mapil-ko zingiran ustutze'ttuan: or itte xixkiyen ondar-pillak. Laxao ta Kapooz tartian don Itxospe izeneko errekan'e bai, Usurbillako; gñau-azpitako asko eamate ziyen ara.*

Ondo gorri (hondo gorri): hondo gogorrrak eta garbik; ez bigunak: *izena au nolaz esatea? Ara: murgil jo bie'zunian, arriya oso bertan iruitzen bazaizu esatea: "I, or etziok ondarrik, ondo gorriya zio". Aleiya: learra, arroka, pareta eroita, eo, noiz o noiz arrik botiak daudela ikustian esate'a: "Argi, ondo gorriya zio".*

Ondua jo (hondoa jo): hondoa ikuitu: *makiñ'at apustu ite'ttuan garai'atian -gaur baño ur garbiyauakin, jakiña-, ondua baietz eta ezetz jo, murgil-joka ibiltze giñanian. Jotze zunak, eskutan loya o beste siñale'at ekarri bier izete zin; bestela, etzin baliyo.*

Agiñan "ondua jo" esate'k; ez, "ondua "ikuttu".

Ondua jo (hondoa jo): enkailatu: *uztez abittu ala pasako'alakuan, da ondua jota geldittu. Urdun komerik!*

Ontziyaren tripa (ontziaren tripa): ikus gerria (alarena): *erdiparian -kanpoko aldetit- barrikan itxura izete'u, eta orri zayo esaten ontziaren tripa. Atze zabalak'e izete'ia ontzik; baño tripa baño zabalua, ez. Andik aurrea zorrozten-zorrozten jute'a muturreaño.*

Osiñ: Ur-leize: *Osiñ-zulotan anguletan aitzia baziok, baño ortako pondo luziak bie'ye. Igual amabi metrokuak o luzeuak; eta luzetzeko're egurra enpalmatze ziyen.*

Ona emen, erriyoko osin batzuk: Uriberriko osiña -Uriberri parian-, Intxoretan, Txorkuan, Olaberrietan... Oxe, inportantenak.

Ostiko: zutik dagoen zerbait bermatzeko jartzen zaion euskarria: *muntua leertzen ai danian, ez lurra eroitzeko ta urak eaman ez dezan jartze zayo ostikua.*

Baita're ala kalapetatzen ai danian, eusteko azpitik -bultzan- ostikuak emate xaixka.

Ostra: maskorrak kanpoaldetik ilunak eta latzak, barrualdetik zuriak eta leunak, harkaitzetan itsasia bizi dena, jateko guztiz preziatuak direnak: *nunai zan ostra garai'atian. Pedro Artutxenekuak –torretxo parean jun baja-marrian– eskollera tartian onenak billatu, txulua iñ ortzakin, da aren barruko salda txupatze zun.*

Ostraera: ostra-depositua: *dana arriz eta kapritxoz indakua zan, Oriyon. Gutxi gora-bera, amar metro kuadroko deposituba. Paeta-leorrez osatuba; ortaka, mariero ur berriya sartze zitzayola. Ingurun arrimuskillak zittun; da biltze zan ttiki guztiya, ostraera orta botatze zan.*

P

Palaka: palaketan ari: ikulluako ondarra alakin ekartze zan. Geyenak aurrena leku beezí'atian itxoiñ itte zuen maria bete arte, geo palaka munto gañea ustutzeko. Etxian lan asko ezpazan, da maria aundi ta kalma, urrungo eunian beste jorna itte zendun; da, arta, pusk'ateako ondarrak aztuta.

Urdun, dana palaka: aurrena Oriyoko Torretxon pilla iñ –tontorra iñ– leorrau ta ariñaua izeteko. Maria jotze zunian, auro ibili ala kargatzen; beste la, indako pilla urak arrapatuko zizun. Geo Agiña etorrita, naiz goo gutxinakin, palaka ustu bier munto'atea. Kamioyak'e palaka kargatze zian. Urdun besteik etzan, da dana palaka.

Palizak: errio bazterrean alari eusteko jartzen diren bi zutoin luze: palizak al dan altunak bie'ue, ujala'nian ala an dola ikusteko geoxio're.

Palka: estropetan –olatu handitan– urontziaren aurrekaldean ura ez sartze-ko jartzen den eranskin bat: palka ezta eaman nai izeten aiziak eldu ite'-yolako, ta karga eantsi're bai; baño zenbait garaitan, a ze erremeyo! Ba'ia, ordia, jarri'be jun, urak artu, ta eziñ allaituik estropa galdutakuak.

Pandoja: uretan egon ohi diren kolpeko koskak edo zuloak: agaika zuazela alakin, lekuba ezautze'zu ustez, baño alako'atian agayak pruts! itte'izu. Ta urdun esate'a: "Agayak iya aldein xitxaian! Or pandoja zitxon".

Paneka: bakailauaren antzeko arraina, 30 bat cm. luze dena: arrai txuiya da. Askotan, alaño xamurra! Ba, prejitzeakuan papurtu itte zaizu. Oxo-oxuan itxura ona'u.

Panela: ontziaren barruan patroiaientzako jartzen den hankatokia: nola ontziya kostillatsuba'n, asiento txarrekua da anketako; ta erremiyoi'pe bier izete'a panela, patroya eoki ibiltzeko.

Paola (farola): batez ere, anguletako gauean argi egiteko erabiltzen zen tresna bat: linterneruak indakua nai izete zan: iru aldeta kristala ta atzia itxuba; paolan kirtena sartzeko apropos indako easkiña; gora, tto-ttorra txuluakin aizia artzeko; eta onen gañetik –eldulekuba– txapazko bi anilla.

Paol-ola (farola-ohola): farolari tente eusteko oholezko euskarri bat: nai bazan ool batekin, da nai bazan bi ool zaplasta elkar josita izete zan paol-ola. Sillan itxura aundiya zun: aurrian, bi anka txapazko; azpiin, kuña't josita atzekaldea ez eroitzeko; ta atzian, txulua't bertan makil

*batekin paola sujeta-
tzeko. Makilla puntapa-
xakin gortuta jute'a.
Udaran jaso itte zan
etxea.*



Paol-ola



Paola



Paolak

**PARDELUZ: erriotoki izena,
Sarikola errioz besteal-
detik dagoena:** ezta kit

*nola demontre, izen au. Garai'atian, toki yortan bi argi zaudelako emen
datorkiyo: "Par de Luz". Baño nik ezta kit gauza orreatik ote'an. Duda itte't.*

*Pardeluzen gaikaldetik upalateiya zan. Oaindik earki asko ikuste'ia orren
arrastuak. Ortxe daude zuloune galantak.*

*Alako'atian, anguletan giñela eta gabez, aiziak eamanda eo nola ezta kiula,
sartu giñan zulo ortan, da esan gendun: "Emen sartu geanezkeo, proatu in
bie'iu angulik badon"*

*Gaba artan etzan iñun angulik eta guk mordoxka't antxe atea gendun: zor-
tzi-amar bat kilo izengo zian.*

Parekaldian: parealdean: *jun Latindeia, ta anguletan ai nai dek; baño trenbide
aldetik dana okupatuta zio, eta etxeakuan bate'atek galdetze'ik:*

– *Ba al tzan bat-e? Latindein attu nok.*

Eta eantzungo yoa:

– *Bazekit. Ni parekaldian niñun: bestaldetik, erribera aldetik.*

Pareta-leorra (pareta-lehorra): masarik edo porlanik gabe eraikitako

pareta: *garai'atian porlana alkantzaten zailla, ta urdun itte zian paeta-
leorak, au da, masik gabiak arrik al dan ondona tolestatuta; gaurko
eunian ikaarrizko paeta-leor pillla itte'a, ta zeatik?: nunaitik urak aldein
deyon.*

Parpalla (parpalla): haize-olatu mota bat: *izete'a aize olatuba aize oso gutxi
ibilliatik: ur bizikin da korrenta aundiyakin. Urdun alako parpallak sortze'a.
Geo etxea etorritakuan galdetze'ue:*

– *Ze mouzko girua xitxon?*

– *Ez earragiya! Aize-parpalla atea'ik.*

Parpalla (parpalla): amuba, mordo-mordo, beitaz betea: *Etxeberriko Tomax
arroka eo erriyo baztarrea jun arrantza kañaberakin, da amun jarri ta jarri,
bete ta bete. Gu bezelakuak, berriz, piska't bete ta amuba auro putzua. Gu
ez, arrantzaliak; ua, arrantzalia. Parpalla itte ziyon.*

**Pasta-jostorrotza (pasta-jostorratza): begi haundiko josto-
rratz luzea:** *pasta-jostorrotza, besteik ezian, guardasolan
ballenakiñ'e itte zan; da arrantzako txitxare-kordak itteko
ibiltze zan batez'e.*



Pazin (pazian): bare-bare, laño-laño, esnea pazian balego bezala: *nola esango ziñuke launai galdetze ma'izu:*

– Zertan zio*k* itxasua?

Onela eantzute zayo alaño bare ikusita:

– Mote, pazin bezela zeok!

Perloi: itsaso eta errioko arraina, hogei zentimetrokoa, begi handi eta lirdin-gatsua: *arrai oriantxa, kuña estilokua ta buru aundi xamarra*kin*. Eosita, ona.*

Piñutea (pinutea): Pinu mota bat: *Guineatik Pasaya barkun ekartze'ttue eun-doko piñu-tronkuak "Aserrador de Lezo-ako". Bai-kertena bie'zunian, ara jun oi gea.*

Piñutea da eur ariña. Busti-leorrian ondo jaso ezkeo, dexente iraute'una; ta eskutako're latzantxa, aproposa.

Pita: landare horiskara, eta landare honen zuntzatik egin ohi den haria: *ari kristalina au oso mia izanda're, kostako zaizu eteten; baño euzkitan baldin bado, erre itte'a.*

Pizarro-harri: harri zapal: *beno: ona izete'k lisasin surtako eurra itten jar-dutia, ta pizarra don tokin kargatu; eurra garbiya ekartzek. Pizarra arri-zapla tokiy'ek, eta ur-korrentak garbi eukitze'ik: an eztek lokatzik. Ala eun guztiako nai be'k utzi: nola oso pikia izete'an, seguruntxona an eote'k.*

Bestalde, pizarro-arriya alai alderua kentzeko ta emateko're ibiltze uan.

Plantilla (plantila): Ala baten egiturako erreferentziatzko kordela botatzea: *muturreko zokotetik ondalki azpiko oolea bota lokarriya; albuak are aldea bildu; aurriai oinbesteko'at eman gora, eta atziai gutxixio; eta erdiko zulo-kerra zenbat altu nai den, aita iñ eo errendittu.*

Eozin motor, batel eo ontzik pantilla izete'u goiko jitta (forma) emateko're. Plantilla au eurrezkua izete'a eta arraultzen formako uztaya'u.

Alak itteko, berriz, ezto olako plantillik. Alak itteko plantilla erreferentzi moun erabiltze'an kordela da.

Ploteatu (flotatu): ur gainean egon: *ara: profesionala baldi'maiz, buruba alan eukiko'k; baño aztutzen bazak, mariak aldeingo'ik eta ala leorrian geatuko; urrungo maria txikiyaua baldi'ma, etzaik ploteatuko, ta rodilluak azpin sartuta ploteatu bierko'ek.*

Polaiñ (polain): arraunaren antzeko tresna bat: alaren ondalki-ko polain-txuloan kokatuta eta berarekin urari eraginez, norabait ala eramateko erabiltzen dena: *bi parte'ttu polañak: polaiñ-asta eta polain-pala.*



Polaina

Polaiñ-asta (polain-asta): polain-haga: *asta eurrezkua izete'a: metro t'erdi luze, bi esku bete lodi -gutxi gora-behera-. Al ba'a, urkiya obe: ariña'a ta nekez gastatze'a. Onen eldulekuba miantxa, ta beera lodiyaua gora baño; eta, arta-ka, eskuba nunai ibiltzeko irristan. Batienta bezelako askatxua inda, bi torni-llokin lotze'a. Puntapaxak eztu baliyo polaiñ-astatik ateatze'alako.*

Polaiñ-pala: polainak bere astaren muturrian daraman ohol zabala: *alkaziya o aitza onena polaiñ-pala itteko, ara karga geixio izeteko. Aldin beiñ busti in bier izete'a; bestela, kirriik...kunk, kirriik...kunk soñuba, golpero.*

Polaintoki: ikus ondalki: *alak atzian emate'un ool zabal bat. Erdin "media luna" bezelako aska dauka; ta polaña bertan sartuz eta uretan eraiñez, ala eamate'a.*

Polaintxulo: alaren ondalkian dagoen txulo-aska polainerako: *alak eamate'u ondalkin polaintxulua: aundiak erdin da ttikiyak aldamentxio eo baorrexio, bestela, aldamenka ezulako lekuik; eskumuturra añeko aska izete'a.*

Polea: txirrika: *beira: polea pol-egurrai lotuta jute'k. Muturrian pol-egurra izete'ik lizarrakin iña. Alan armazoyak -atzetik lauarrango zulokerrak- anka-muturra tamaña-ko zulo'at eamate'ik propiyo inda, pol-egurrian atzeko muturra sartzeko. Geo, andik laister, mutur alde beez-ko oker txiki'at bie'ik. Oker orren azpikaldian boligrafua baño lorixoko zulua, aldanik alde. Alan ondalkin bie'ie gutxienez iru zulo, kanpuaxio o barruaxio, jartzeko pol-egurra. Bayaren aundi-tamaña-ko polea jute'k pol-egurra orren muturrian, burniz gortutakua. Barrengo polea, al ba'a, brontzezkoa: eztek ordoitzen da ezetik grasa bierrik. Urte guztin jasota eukita're, soñu ona'ik beti: klek... klek... klek... soñuba, gozo-gozua beti belarria. Ortako polea brontzezkoa bie'ik.*



Pol-eurra (pol-egurra): atoian polea lotzeko eramaten den egurra: *lizar batek, erdin, beezko okerra bie'u. Al ba'a, moztutzeako iyarri. Onelako pol-egurra, gustokua: metro t'erdi ipurdi aldiya ta bi metro luze -bee kabilla zuluakin-.*

Pondo: alako aingura: *bi parte'ttu ponduak: pondo-agaya ta pondo-totxua bee ortzekin. Baztarrian pondo'at botatze'a alan baztarreko aldetik; eta alan atzian -muntu aldetik- beste agai'at muturra zorrotzauna, alan atziai eusteko; ur-erdin, berriz, bi pondo botatze'ia: bat aurrian da atzian bestia; orrela, atze-aurriai eusteko.*

Pondo-agai (pondo-haga): ainguratzeko pondo-haga: *eurrezkua da, zuzena bie'u ta geyenak aitza ibiltze'ue. Luzia da, aldenik alde beatzi metrokua. Atzeko pondua ondalkin lotze'a sokakin da aurrekua alan katiakin, al dan geldina eon dein. Amorraziyo earrik pasatze'a, aik lasaitzian berriz pondiatzen!*

Pondo-totxua: ponduak, bere puntan, hondoari eusteko eramaten duen burnizko hortzadun tresna bat: *burnizkoa da ta gutxienez zortzi-amar kilo pixatze'u. Sol-diatutako bost ortza -mutur zorrotz- eamate'ttu oin bete luzekuak bee bueltan, da okin euste'yo onduai.*



Pondua(k) bota (pondoa(k) bota: aingura(k) bota: *urerdin da ondo aunditan bi pondo bota bie'ia: aurrena atzekua, atzian; da geo aurrekua, alai atze-aurriak ondo eusteko. Baztarrian, berriz, alan baztarreko aldetik pondo'at; eta atzian, puntaun agai'at.*

Popa: itxasontziaren atzealdea: *patroya beti popan jute'a txalupan. Oaiñ esa-te'k popa, baño berri'yek; leno esate xitxayon ontziyan ipurdiya o atzia.*

Presa: lbaietan, urak biltzeko egiten den eraikuntza: *argindarra itteko ura bier izete'u: presa iñez ur-putzuba iñ erriyuan o errekan; andik kanalian bildu turbina, zentralak argiya itteko buelta eman dezan uren bidez.*

Proa: itxasontziaren aurrealdea, branka: *amaika zartako artze'un lekuba, proa! Ondo jositakua izete'a. Tankako koxkor bateatik ezta alperrik galtzen: euste'yo.*

Puntuba arrapatu (puntua harrapatu): arrantzarako tokia harrapatu: *asko-tan ordu t'erdi leno puntuba arrapatze'k, baño ezte'k abusatu bier; danen oneako beiramenduba bier izete'k. Lotsabiakin, beti oker!*

Putzua erori (putzura erori): erriora erori: *putzua eroi... errex!: alerua beti ixkiñan exerita jute'a, ta sekula eztittu eamango eskuk ixkiñai eutziz, arrix-kutsuba'lako.*

R

Ramutaria (amerikarra): landare mota bat: *oaiñ ogei urte, aldin-aldin, tokitan azaltze zan. Gaur nunai bado; baita Tolosatik gora're. Ujalak ziplatatu earrik emate'yo; ala're, geo ta uariyo*

Remolkian ekarri (remolkean ekarri): atoian ekarri: *alak aldeñ ujalian, matxoya jo ta ondalkiya puskatu. Urdun beste ala'atekin jun, da remolkian ekartze'a. Jundako alai lotze zayo, aldan motxena, estior aldetik. Luze lotze ba'a, eztizu utziko polañian, da katia kink eta kunk! ibilliko zaizu.*

S

SAIKOLAKO ERREKA (Sarikolako erreka): erriotoki izen bat, Aginaga eta Orio arteko muga egiten duena: Saikolako erreka, oso toki ixtimatuba: danak ortxe nai izete'ue ontziya euki. Portu barrua sartze m'ezu, baja-marrian enkallan geatuko zazu. Nolaz anguleta garaiz asi nai izetean, jun bie'zunian, ortik atea in bierra'kazu ontziya; bestela, plotiatu zai eon bierko'zu.

Salabardo: izkiretako tresna bat, sukaldeko txanoaren forma daukana, baina tamainaz handiagoa: makiña't salabardo indakuak gattuk, burni-anillai bueltan-bueltan sakuba josita sukaldeko txino-forma artze'ula! Bi lokarri gurutzian aldenik alde, beita eo jana lotzeko. Beste lau puntu gunetan, neurri bateko beste lau soka-mutur lotu uztayai; ta ok soka luze'ati lotu, onekin salbardua gora ateatzeko. Soka luze onen muturrian, kortxua eo plastiko txuri'at eamate'ik. Au ur-gañian gelditze'k, eta artaka jakite'k salbardua utzitako tokiya.

Ixkira-zaliak uarittu zianian, izen uan garai'at alero bakoitzak -botaldiko-oita bi baño salabardo geyo putzua ez botatzeko itzarmena; itzarmen onek Torretxon baliyo zin, da erriyuan bi aldetik.

Salma: belar mota bat: goldiyo antzeku'ek. Arriyai peatuta eote'k eta esponjena itte'ik. Geo ta uariyo ai dek salma-belarra sortzen. Urak korrentaiek ezpa'u, geo ta uariyo ai dan belarra.

SALMASTEI (Salmastegi): erriotoki izen bat, Botaleku parean errio aldera dago Salmastegi izeneko baserria, eta hemendik datorkio izen hau: Salmastei baserrin bi bizitza'ia. Erribera-lur earrak, bai etxe ingurun da bai urez beste aldetik; baño an. Garai'atian, alakin moldatu bier izete zuen. Geo ganau-gabarra bana in tzuen urez bestealdekik lana errexo izeteko; ta gaur, oaindik, gabarr'oik or seitze'ue.

SALMASTEIKO ARRALDIYA (Salmastegiko harraldia): erriotoki izen bat, Salmastegitik Sarikolainoko errio bazterra: dana, arribranka. Ur ttikeya dalako, ixkiratokiya. Salabardua ez bota nolanai; bestela, erdi-etzana geatzeko arriskuba; ala ta guztiz'e, ixkira arrapatze'a: lokatza aldetik baño askoz'e earraua.

Samiel-mariak (samiel-mareak): Samiel inguruko mareak: Irailaren 29an izaten da San Miguel eguna: normalian urtekoik aundinak, samielmariak. Oriyon, bapore berriya botatzeko, aren zai eote'ia. Agorrian San Miel aurretik eo atzetik, ortxe ibilliko'ia.

SARIKO LEARRA (Sariko legarra): Erriotoki izen bat, **Sari pare-parean eta mareabeheran azaltzen den legarra:** *Sariko learrak trenbiria du best'al-detik. Baja aundi xamarra'ianian, ezin pasa izete'a alik. Emengo learra goiko learritan baño larriyaua da: zintzar gutxiyo'u; zeatik indar geyo'ulako tirañak.*

SARIKO LURRAK: erriotoki izena, **Sarikola eta Sari basarriaren tarteko lurrak:** *ur-kargetan, naiz-ta ura ez jiria eon, alde ontatik askoz'e korrenta gutxiyo'a. Badirui alde ontatik urausillantxa itte'ula. Urdun ez beera juteatik anguletan ortxe aitze'ia, naiz puntu famosua ez izen.*

Sastrapa: sastraka: belar, arba eta gainerako hondakin edo zakar pilatzen den tokia: *builtaka-builtaka urak ekarri, ta uste gutxinian eantsiko xaixka alai bee muturrian sastrapak, makiñat traba iñez. Ala onduatuta're, aren polaiñ, txitxardiñ-aska, makill da olakuak beiratu sastrapan bazpa're, askotan aurkittu izendu'ia-ta.*

Sats (sahats): leku hezeetan hazten den zuhaitz, eta Euskal Herrian loratzen den lehen landarea: *urak erriyo baztarretan libratze'u saatsa. Nunai uzte'u eta isasi itte'a.*

Sorgin-pikua (sorgin-pikoa): ikus astapikua: *ur-baztarretan txintxilika, eroi bierrian. Negin'e bai, aliak ematen. Alia kentze'zu ta txortena esnetan eukitze'u. Esate'a esni arek baliyo'ula kaatxak kentzeko. Zenbat klase ote'ia!: batzuk beltzak, barrena gorriyakin; bestiak berdiak, barren zuiyakin. Oso makalak, baño jan leizkenak.*

SUTEIKO BUELTA (Sutegiko buelta): erriotoki izen bat, **Txokoaldeko zubia-
ren gainaldean, errioaren kontran-kontran dagoen etxea:** *Suteiko bueltan oso muella polita do. Sebaxtian Galarragak or in nai izendu zun gabarra't, eta baita iñ'e!: Antiguako erreruak eta biyak.*

Gabarra burnizkua in tzuen materiala Bilbotik ekarrita. Zortzi milimetro ta amabi luze, txapa bakoitza. Or -Txokoaldian-, Suteiko muallan in tzuen iño-lako grua ta tratorei'pe, dana eskuz.

Jende asko eote'men tzan (Ximoneko Patxi, Lukax-ta...), jende asko zubitik eta muallatik beira, ango martxa ikusten. Askok esate'men tzun: "Oi bukatzeako, txapoik azpin artuta batea't jungo'ek "apapa!": beste mundua, ale-giya. Etzan alakoik pasa, ta ondo portatu zan gabarra ua; 33 m3 ondar ekartze zittun jorako.

Portukuak-eta, aldin-aldin, azpitako ondarra ekartze zuenian, alakin mualla orta ustutze zuen.

T

Taket: Euskarritzako egur bat: *taketa da luxexoua o motxexoua, ta segun zein tokitako bier dan. Urontziya kostauka –erdi iraulin– jarri konpontzeko, ta ari eusteko bie'ian ziri'atzut dia taketak.*

Takiatu: gogortu: *erriyo ondoko lurra, askotan da askotan, jan ite'ttu urak, ta ortako balduak jartze'ia ipurdin lurrai eusteko. Learrik baldin bado, aurre-na zulua itte'a burnizko palankakin bertan baldia sartzeko; ta ondoren arri'atzuk ipurdin sartuta, ondo takiatu.*

Tamañan (tamainan): egoki, justu: *unuzkaldetik alai bultzaizua eman, da beste ezer be, bestaldeño. Oi dek tamañan ematia! Ortako asko ibilli bier.*

Tartia eman (tarte eman): distantzia utzi: *ai zea angulentan. Beste aleruak ikuste zattu angulak arrapatze'ttuzula bee azpikaldian, tartia eman be jarri zealako. Gaikaldian jartzia tontuena da; danak azpikaldian jarri nai ize-te'ue. Inguru xamarrian o tartia eman be jartzen bazea, bela esango'izue: "I, askakuak-e emango'ixkiu! Uztak tartia, mesedez!"*

Tenkan: tiraduran, bultzadan: *ool berri'at sartzeko ala erdi-etzanian iya auz-peztun jarri bier danian, emate xaiska aurre ta atze –ta erdiñ'e bai, nai ba'a– egur kuadrado'atzuk, tenkan, al dan seguruna.*

Tenkan: irripan (gainbeheran) jarri: *ala berriya in dakuan, al dan aldapatxoik aundinian jartze'a, tenkan. Maria etortzeakuan, bultza ureta ta beste alde-ño jute ma'a, urdun esate'a: "Joño, bai lijerua!"*

Terrala: behelainoa: *Oriyoko barran marien zai agola, makiña bier esan oi da:*

– *Naiko lanak baixkiu Agiña allaitzen! Terrala sartzen ai dik!*

Urdun beste'atek gora beira jarri ta eantzun:

– *Errex jungo'attuk! Izarrak egoaldetik itte'ye dir-dir!*

Tiña (tina): uztaz gogortutako egurrezko ontzi bat, bere bi heldulekukin: *saso'atian ibiltze'iñun gu're, sorotako batez'e, antxo-buruk saltzen. Tiñako saltze'iñin; tiñakak irurogeita amar kilo'ttu.*

Tiraiñ (tirain): Olatu: *tirañak asko il dia Agiñan, da erriyua zikintzen ai da Ori-yoko barran eskollerak in dittuelako.*

“Portu xarra” –Eustakio– bestiakin batea Mapillaño etorrita, zingiran eote zan tiraña ta korrenta aundiya zalako: Txokoaldea allatu, ta ala ezin geldi-ttuik. Oaiñ ezto olako kuidoik! Earki baretu’ia baztarrak!

Tokote: ala handik bere muturrean daramaten egur lodikote bat, batez ere kolpeei eusteko: *al(a)-aundik eamate’ue muturrian eur lori’at; kua-dro-kuadrúa ez; eozin golpe artzeko’re oso fuertia, ta oni esate zayo tokotia.*

Aurreko zapla –zokotetik asita dijuaztin ool guztik– tokotien azpia biltze’a. Geo ta txorrotxo, mutur aldea dijuaztinak.

Ala arrantzako bier baldi’ma, azkeneko zulokorra kajoi biurtu izen zayo zirak eta janak eta eamateko: kandela, erropa..., Ta urdun esate’a: “Atzeko zokotian sartu’itzik trasti oik”.

Toleta: urontziak bere kareletan edo ertz ganean arraunari eusteko ipintzen den ziria: *gue gaztetan, da geoxio-re bai, toletak egurrezkuak zian; oaiñ plastikozkuak, pixu gutxiyo dezan; ausi-errex’a.*

Tosta: aurraunerako eserlekua: *arraun da polaiñ Oriyoko barraldeaño, anguletan andik asteatik. Alai bi eur-txaplata armazoitik armazaira josi, ta or exeitzeko tosta jarri.*

Trabatu: kateatu: *Bautista Xumeta ixkireta jute zan. Bein batian –terralla ikearriya zala–, Lastola parian balduan trabatuta, akortadu be alak txibena in, da etxe aldea, Oriyoko barra zijualakuan.*

Lastolakuak kontuatu, ta esan: “Bautista, noa zuaz ixkireta!? Etxe aldea zuaz eta etzuaz ondo!

Lan aundik emate’ttu terralak erriyuan, batez’e zerratuba’nian.

Trabesañua (alaren): ontzian eseritzeko ohol bat, tosta: *bi xaplata zulokerretik zuolokerrera josi puntapaxakin, eta aldenik alde ool bat jarri exeitzeko, ta andik arraunian ittea. Trabesañua da exeitzeko ool bat.*

Trankera: enborra: *trankera erriyo bazterrian guztiz bierrezkua izete’a eozertako’re.*

Trapalla (trapaila): ikus parpalla, haizeolatu mota bat: *Mapilla etorri alaka ondarrakin bat o beste bestiak baño leno, ta an don batek galdetu:*

– Ze mouzko girua zenduen?

– Etzekit nola ibilliko’ian; naiko trapalla osatzen ai zin. Izan’e, korrenten kontrako aize zaar au!

Triñeilla (trainerila): estropetako traineru txikia: *sei arraunian da patroí bat eamate’ttu triñeillak eta tosta bakoitzian arraunlai bat: iru estiorretik eta iru baorretik. Oso ontzi piña’a. Anka nun jartze’an asko beiratu bierrekua; bestela, azpiya muittuko’yozu.*

Triñerua (trainerua): estropetako arraun-ontzia, hemen erabiltzen den handiena: *lenguak zian: patroya; ankekua ta baor-ankekua (tosta bakoitzian bana); andik atzea, binaka, tosta bakoitzean; da aurrekalaya're bakarrik tostan (estior eo baor), nai dan aldetik arraunian itte'una.*

Txabal (harri): harri xapal: *bajamartze zunian, learrea pasatze giñan arri txabalen billa. Zenbat eta borobillaua ta plakoua nai izete zan, ur-gañian obeto juteko txilipak itten. Beiñ o beiñ, buelta emanda zeorren aldea etortze zan. Gezurra emate'u, baño egia berdaderua!*

Txabalua: arrain mota bat, oilarraren antzekoa: *txabalua, sekulan ez bandan: beti bakarka. Intxospeaño iyotze zan. Amaika ikusitakuak gea or!*

Txalburu: igelkumea edo apokumea: *oso jenero uariya'a txalburuba putzuzulotan, da pelotako pala emate'u. Izkutatuko zaixkizu instante'atian, da baita berriz juntatu're aballa earrian!: beltz-beltza da.*

Txanel: arraunerako urontzirik txikiena: *Saikolatik gora ezta txanelik. Oriyon, bai, an ikuste'ia. Ur-erdia juteko, leorrea zatozenian pasatzeko-ta ibiltze'ttue: ibillaldi motxeako.*

Txanelarri: ur-baztarretan buztinarekin nahasita dagoen harri xapala: *ixkiretan ai zeala salabardua eziñ ondoa jun, da olako lau'at txanelarri jarri ta earki asko jute'a.*

TXAÑETA: erriotoki izen bat, tunel-bokaren azpialdean: *lear aunditik beera urkarga danian, batek bestiai esate'yo:*

– *Bazaka'pa gaur Txañetaño buelta't itteko idea: angula aliak izengo ote'ia iruitze zaiak.*

Txapal: ikus txabal (harri): mee-mia baldi'ma, arri-txapala ausi itte'a urakin biunduta eote'alako.

Txaplana: ikus txabal, txabal (harri): *Ala ttikiya, Lastola Zaarrak (Kandidok) beak bee kasa indakua, mutur-txorrotxa ixkiretako. Urdun urea bota, ta esatea: "Bai txaplana atea'la!"*

Zer da txaplana? Eztuna jaikiyik: ez aurretik, ez atzetik, ez kostautik: azpi-berdiña.

Txaplanaketan jolastu: harriari ur gaineen saltoak eragiten ibili: *makiña bier jolastuk gattuk! Ortako urak leundutako arriya, onena. Bajamarrian learretik patrikak bete, al dan earrenak artu, ta urian zeñek txaplanak eo txilipak geyo iñ, apustuka. Battuan batzuk ogeitaka, kontatu eziñik.*

Txaplanian bota (txaplanean bota): xabal-xabal bota: *txaplanian aizia donian botatze ba'a, txilipa gutxi itte'a ur-gaña leun eztolako.*

Txaplata: harlauza mehantxa: *altxaarritzat ibiltze'k eozin gauzen azpin jartze-ko. Alen azpiya bota bier dekenian, an o emen kulunka in baik, arri-txapla-tak betelana itte zioik berdintzeko.*

Txarantxa: euskarri bat, batzuk urkiladunak eta beste batzuk ez: *askotan palizak erriyuan eziñ sartu izete'ia, eta goortzeko muntotik emate zaixka bakoitzai mutturrian urtxilluakiko txarrantxak, xarde artan obeto goortzeko; beste'atzuk, ala konpontzeakuan-da, eusteko baliyo izete'ue; eta ok igual eztia urkillauinak izeten.*

Txibena iñ (txibarena egin): txiba moduan buelta eman: *Maria Auxiliadora Oriyoko Intxozteneko baztarrian -zubiyan gaikaldian- in zutenian, aurrene-ko biajia, Dakarra. Bueltan zatoztilla, uste'beian lañua ura artzen ai zan zunbilloa sartu ta txibena iñ emen tzun, zenbat buelta eman tzittun etzak-iyela. Suertez, ondo ateatzia tokatu!*

Txikatu: urak hustu: *alai urak beti txikatu; artaka balantza gutxiyo itte'u-ta.*

Txikapala: alari urak hustutzeko egurrezko tresna: *earra baldi'ma, argi!, eaman etxea zeorrekini; bestela, urruna eztittuzu billatuko bi. Alai urak ustutzeko baliyo izete'u, ta rekojidoría bezelakua da. Arotzak aalmen guzti-yakin iña baldi'ma, faltatuko zaizu bie'zunian.*

Txikipala: ikus txikapala: *garai'atian ez bezela, gaur-gaur leje-botellakin itte'a txikipala bee elduleku ta guzti; baño leen, garai'atian, egurrezkuak; nor beak al dan bezela inda.*

Txikiziyo: hondamendi: *izuarriya ai du txikiziyua Fermindein!: urak zikiñez betetzen ai du ur-erdiya zaikaz, eta baztarrian lurra erriberai kendu ta kendu. Emendik denboa gutxia, etxeaño're bai, jungo zaye. A ze txikiziyua ai dun!*

Txikorta: hiru ile multzo edo antzekoakin elkarren artean behin da berriz gurutzatuz, eratzen den bilduma: *txikorta da iru soka berdiñ-berdiñ kruza-tutakua: emakumien illien trentza bezelakua.*

Txikot: soka lodia: *ontzi geyenak erriyuan katiakin eote'ia; baño atzeko amarra soka izete'ue, ta soka oni esate zayo: txikota.*

Baitare urkargá bildurra'nian, esate'a: "Baezpan'e emango al tziou beste txikota't!".

Txilipa: txiria: *bi ala betez bete txoke ittea dijoazenian, txilipa in bier izete'ik alkar joko ezpau'e.*

Txilipak: ur gañeko harri-saltoak: *gauza politt'ek arriya xaltoka, txilipaka ur-gañian; da bee bukaera uari-uari, xurruka-xurruka, errosayua itten. Azkene-kuak eziñ izete'ttuk kontatu.*

Txiliparta: hegazti mota bat: *uso-tortola bezelakoxeko eaztiya da.*

Jotzeu murgill, da urruna andik bost minutua ikusiko'zu buru txiki-txiki'at earki orraztuba. Txilipartak itte'ttu murgill dotoriak.

Txilipartaka: txilipen ugaritasun azkarra: *"I, oaiñ konta'ixkak! Oaindak txilipartaka ziek! Konta'ixkak botei'pe iñ dittun biriak!"*

Txinga: burni pusketa bat, eta azpi gogortzako erabiltzen da: *mallubakin sokai plomua biltzeko, eta onen azpin jartze'an burni pusketai esate zayo txinga: azpigortzakua itte'u.*

Katiatu esparbera, tira gora ta soka aldeinda allaitzen ba'a, plomua galdu itte zayo. Urdun berriz botatzeko jarri bier izete xaixka berrik, ta ortako'a txinga: sokai plomoa peatzeko, mallubakin launduz.

Txinguri: ingude: *Agiñako istillauan bazan anilla ta guztikua: lau anka motz, alde batea muturra zorrotz eta bestea amutz, amar arro ta iru kilo inguru pixatze zuna. Alen muturreko burniya okertzeko bati-bat ibiltze zan.*

Txipitxapak: alaren zapla azpian urak atera ohi duen soinu onomatepeikoa, batez ere martxan doalarik: *urak ala zaplan jotze'unian, emate'u atiak dijuaztila azpin: kluusk-kluusk, kluusk-kluusk, soñu xurgatzalliak izengo balian. Soñub'orri esate'you txipitxapa.*

Txirla: bi maskorren barruan bizi dena, soinberakoa, almeja baino txikia-goa: *guk almeja ttikiyai deitze zeu txirla; almeja aundiyau'ek gutzat. Garai'atian, pillu uan baztarretan; da Oriyoko ondarrak txirla-azala asko zakak oaindik'e; orreatik kostruziyoako ezti'ye nai izeten; baño betelanea-ko bai.*

Txirrista: irrista: *maria aunditan eon oi da aluneko exkalletan goldiyuakin txirrista. Deskuiru'atian amen orduko zea putzun tximu-tximu inda. Udarán, or nunbait; baño negun, kas-kas-kas, otzak akaatzen.*

Txirristatu: irristatu: *alian, kalapetatu berrin, errez txirristatze'a: txirristakorra da. Naiz ankutsik ibilli, kontuz!*


Txirriyua (txirrioa): zorrotada: *udaran, bintzat, ala euzki ta aizetan askotan eote'a; da iñoiz-iñoiz ondarreta jutia pentsatze m'ezu, ala irikita billatuko'zu. Urdun itte'a ondoatu uraunditzeko, ta arta txirrikutuk ixten xaixka; ta eztizu txirriyuan urik artuko kargatzeakuan.*

Txispa: ikus ardora: *ur gezetan eztek ardoraik. Enaluzen, noiz-noiz, maria aunditan ikusi'u txispa eo ardora.*

Txitxardiñ (txitxardin): aingirakumea, angula izenez ezagutzen dena: *agos-tun asi ta otsailen azken arte izete'a arrantzako. Odolik eztun arraya da txitxardiña. Aingura biurtze'a: aurrena buruba ta belarrik aste xaixka; baita ezurra're muturretik izetzeaño; tamaña aundiko arraya itte'a.*

Txitxardiñ-aska: anguletako aska, txitxardina harrapatu ahala

bertara botatzeko: eurrezkua izete'a. Ara neurrik: metro t'er-di luze ta oin bete zabal; albuak, oin t'erdi altu ta goyez zaba-la; erdin, elduleku bat trabeska, angulak botatzian bayen ixkiñak ari jotzeko; bi sarealdi: goikuak zakar aundi aurkik eta azpikuak txiki aurkik biltzeko, angula aalik garbina aska jun dein; azpin, arra beteko txapa't urak aldeitako puntapa-xakin zulatuba; juntak oso ondo bie'ue josita; eta, bestela, angulak erdisartun geatze'ia.



Txitxare-korda (zizare-korda): ikus korda: al ba'a, eunekoa obe txitxare-korda; bestela, txitxaria belakatu itte'a-ta. Txitxare gorriya, onena aingiretako.

Txitxarro txiki: Txitxarroa tamainez txikia, bizkarra berde-iluna duena, hara-gi koipetsua, jateko ona: arrantzalien dibertsiyua, txitxarro txikiya. Izete'ia garaik amu utsai're elduko yena; ta urrunguan, berriz, ezin bat'e arrapatu elerik ez dakelako.

TXOKOALDEKO ZUBIYA (Txokoaldeko zubia): erriotoki izen bat, Aginagatik

Txokoalderako zubibidea: Zubi'yau konpondu zuen "año 56" ingurun. Oaiñ -"año 2003ian"- Usurbilgo Udalak etzun nai ortik lissasiko piñuk pasatzeik, arriskuba ikuste zulako. Au dala-ta, aurrena konpondu in bier izen tzuen ortako.

Gaztelu bertsolaya ta beste zazpi agiñar Sanixton biarrena zebratzea jun emen tzian urte'atian. Urdun Galardin taberna zan da Txokoaldeko Ximonia'e bai; ta Galarditik Ximoneako birian, onako bertso au bota zun Gazteluk:

Galarditik Ximonea
baguaztik ziar.
Sanistoan biarrena
zelebratu biar.
Amalau baxoerdi,
beatzi errial.
Zurrutako eztiuk
gutxi-gutxi biar!

Txopeta: ehiztariek txintxilika eraman oi duten egazti-multzoa: ate-banda ikusi erriyoa jexten, da eixtaya akortatu'a; ta azekitik barrena aldana arri-matu, tiroz josi banda, ta bildutakuan txintxilika jarri; mordo oni esate zayo txopeta.

TXORKUA (TXORKOA): erriotoki izen bat, Goarda-etxetik gertu; harrimuski-

len goialdeko pendiz haundiari deitzen zaio Txorkoa: Oain baño garo ederrauak ikusiya no. Bein baserritar bat urez bestealde pasata emen tzan alakin, da Txorkuan gora atea zanian, basurdia ikusi emen tzun. Eskun itaya emen tzaukan, da pentsatu emen tzun: "Nik ze iñ orri?" Tira emen tzi-yon itaya, ta kirtenez aurea sartu ipurdin. Ari ortzakin eldu nayian, buelta ta buelta asi emen tzan. Ura emen da garo-ebakitzia! Sekulako muimentuk iñ emen tzittun.

Arrimuskillen gaikaldeko pendiz aundia da Txorkua.

Bestealdea, Txorkuan aipamena askotan itte'a. Esateko:

Ur au nundik dator? – Txorkotik.

Garotan nun attu aiz? – Txorkoan.

Angulik ba al tzan goyen? – Txorko aldian attu nok, eta aliak battuan.

TXORKUA ERREKA (TXORKOA ERREKA): *Irisasi mendiak goiko goardanetik barrena, trenbide azpitik pasata, errioratzen den erreka: Enaluze parean, errioz bestealdetik: beti dayola dona da Txorkua. Arbela da, urritz-lekuba eta urtsuba.*

JoxeMai Etxeberrikua jute'mazan anguleta, Txorkuako erreka-muturra etziyon iñork arrapatuko. Anguletako espeantza aundiko tokiya.

Txuikiña (zurikina): artaburu-orri: *baporiak, zenbait garaitan, beitako ibiltze'ue atunetan.*

Txukapala: Ikus txikapala: *kirten bat, palak bezela; azpiyai barrukaldetik jositak ta atzetik olai sartuta; baezpan'e, alan katia pasa bier izete zayo tartetik; ondoatze ba'a, ez aldeittek.*

Txupa: xurga: *ontzi'at zeñ egurrakin itte'an alde aundiya do; egur batzuk izete'ia busti-errexak; beste'atzuk dia, berriz, txupa aundikuak; pintatzeakuan iartze zayo zein den txupa aundikua ta zein txikikua.*

U

Ubera: ontzi batek uretan uzten duen lorratza: *Txalupa't entrenamentun ai dala, segun zenbat palakan dabiltzan minutuko, aurrekalayak esate'u: "Ubera errex pasatze'iu".*

Kasu ontan ubera da: aurrekalayak uzte'un palaka pasatzia ankekuak, ta onela iartze'a aballa.

Ujala: uholde: *nik irurogei urte dazkat. Agiñako erriberan ezautu'et bi metro t'erdiko ura. Ua ujala! Bier eztan tokin kendu ta bier dan tokin utzi ez, oixe'a ujala.*

Ebite aundi ondorenak, argil: ekarriko'ttu papeleratik rolluak, Zubietako zerratik tronkuak, arbol azpijana inda den zaikak... Eta utziko'ttu zuk nai eztezun tokin.

Ujala, geyenian, gabez izete'a; ta urdun erriyuan baldi'makazu zerbait balore, ez jun lota gora ai dun eo eztun jakin be; ordekan jarri arri'at siñale. Ta tapatu ta pasata baijua, berriz'e goraxio aldatu. Lasayo eoteko, berriz, Tolo-sa deitu ta galde: aizu, Agiñakua naiz. Or zertan dia urak?

Seittun ezpa-re, laixter ikusiko'u; ta esate baizue gorakoik eztula, urdun lasaituko zea.

Ujuba (ujua): oihua: *gertatu izendu'a alakin alkar jotzeaño etorri eta ixillik eon pixka'tian ia zer nabaitze'zun. Duda baldi m'ezu, ujuba iñ o polañia altxa urai zaplastakua emateko, iñor kontua dein.*

Uraizia (uraizea): errio bazterretan sortzen diren ur-korrante lasterrak baja-marretan: *Arpidegiko Benito Aranburu ala atzeaka dala pasatze zan uraizian. Aurreaka baño errezo eamate zun profesionala zalako.*

Ura jira: mareagora edo mareabehera hasi: *asi gaitezen ala kargatzen! Urak jira'ixkik! Itxas pikatub'ek eta aldein in bie'iu!*

Ura jira: mareak ur-karga hausten duen gunea:

- *Nun attu zeate anguletan bart?*
- *Saikolan.*
- *Karga onekin? Ura jira al du an?*
- *Bai.*
- *Ba, enin pentsatzen! Gaur, urdun, emen –Mapillen–, ortxe-ortxe ibilliko'ixkit; buelta't itteko're goua bazakat.*

Urak aldein (urak aldegin): mareak alde egin: *ondarra ekarri nai ta eziñ arrankatu motorra. Ola ai geala urak aldein, da urdun amorraziyoz esate'a: "Urak aldeinda, oain ze in bie'iu!?"*

Ba, urrungo maria arte erremeyoi'pe itxoiñ in bier.

Urak azi (urak hazi): urak mugitu:

- *Ainbeste ebi iñ al du?*
- *Bai; urak azi zek. Gora geyo iña izengo'ik emen baño.*

Urak behera eman: mareabehera eman: *naiz ta ur-gaña beera asiya eon, mariagora ai leike. Anguletan ai bazea, beak esango'izu urak jira'iala: eztezu asko arrapatuko. Urdun onela esate'a: "Urak beera emana izengo'ik!"*

Urak etorri: marea etorri edo urak hazi: *elizian aberin bat eo azpiya pintatu bier eo olako zerbait danian, esate'a: "Auro ibilli gaitezen! Orrek eztik itxoin-go, e!?"*

Auro ezpazabiltz itte'a ura etorri, ta urdun lanik itteik ez; urak eztu itxuiten.

Urak geldittu: korronteak gelditu: *angula-girua iruitzen zaizu, ta or dabillen bati esate yozu:*

- *Gaur urak nun geldituko'ixkik?*
- *Atzo or giñun, da Olaberrietaño jun bier izendu giñin. Gaur Mapill aldeaño jutia pentsatze'it; gaur an urak gelditzia espero'it.*

Urak goxatu: korronteak baretu: *ez jardun urai goor itten: alperrik! Itxoiñ ebi asko danian, korrenta seuruba'a-ta. Jun nai dezu anguleta ta karga baldin bado, zalla da angula arrapatzen. Urdun Olaberrieta eo Saikola eo Intxorreta jun bie'zu, nun korrenta iltze eztun urak goxatze'ianeaño; bestela, jai!*

Urak makaldu: urkargak gelditzen hasi: *ujal ondoenian, aldiarta janaita jun nai danian, batek bestiai esate ziok:*

- *Gaur uarteja jute'ik izengo al deu?*
- *Etzeki'pa, motell, naiko korrenta ez ote'akaun!*
- *Ez; unuzkeo urak makaldu xamartu'ixkik.*

Urak moteldu: ur-bizik alde egin: *ur bizik: errex gora, errex beera; baño urak iltze'ian bezala, esate'a: "Urak moteldu'ixkik!"*

Uraldik: uholdeak: *ebi asko ta neurriz kanpo itte'unian, uraldik sortze'ia. Alakotan, oain baño aundiyauak itte zittun. Aspaldikoik uraldiyik aundinak, gue gaztetan: urdun.*

Ur-aparra: bitsa: *batez'e itxasua asarre donian ateatze'ik aparra, bai olatutan, bai baztarren kontra; baño izen uan garai'at gue erriyua dana aparrez: papelerak ingrientez naastutako apar zikin da kirastubakin. Dana galdu zin. Neargarriya, benetan!*

Ur-arratoi: Uretan bizi den arratoia: *motxaua da leorrekua baño: gris-grisa, oso illetsuba eta buztain xapala; ujaletan nunai azaltze'ia.*

Ur arre: ur gandua: *lokatzak, luizik, ujalak, urkargak, tirainak eta bestek sortu lezake ur arria.*

Ur-arri (ur-harri): uretako harri: *urian tupa-arriya bado, ur-arriya izete'a, ta errex jate'u urak. Arlatza-re izete'a urian, da ua eztu errez jaten, da an urak garbik.*

Ur aundik (ur handik): marea handik:

– *“Ujalak dixki'u ta maria aundik!*

– *Bai; samielmariak tokatu'ttuk.*

Ur aundik zaudek! Korrenta ikearriya zio! Ezin dik ala geldittu!

Bazterretik aitzeko angulak zabal zatoztik!

Uraunditu (uhanditu): urez hanpatu: *ala-gaya urazpin eukitzea oso ona'a ez pitzatzeko. Baxtarrian bi estaka sartu ta airi lotze'a uraunditzeko. Kontuz urdun begi ta atzapar luziekin!; uste gutxinian eamango'izu-ta. Etxe ingurun tokiya izen ezkeo, antxe ondona ta seguruna zutzat.*

Urausilla (urausila): nahiz korrentak behera, urak zerbaitekin tope egitean, tope horren azpialdetik urak goraka egiten duen gunea: *eozin gauzak urai kontra itte bayo, urausiya seguru xamar. Naiz mariabera, ontzi'at motorrakin martxan dijuanian, atzian urausilla izete'a; arrimatze bazea, beak tiatuko'izu.*

Urausiya (urausia): abiadura: *oaiñ alak “fuerabordakin” ibiltze'ttue batea ta bestea, ta beira jarrita esate'zu bi aldetik olatuba utziz dijuanian: “Oi dek urausiya damakiña!”; ezta esaten martxa.*

Akuayotik txalopa't kanpoaka dijuanian, iruitze zazu aballa ona damakila, eta urdun esate'a: “Oi dek urausiya damakiyena!”

Urausiya (urausia): itsasoko olatuak, ur-azpirik gabe gelditzean, lehertzen diren guneak: *olatubat gora itte'ik ur-azpiyakin; baño onek fallatzen diyonian, brast! lertze'k, txui-txui, dana naastuba.*

Ur-axal: ur mehe, hondo gutxikoak: *bazuaz alakin, da ur aundin earki aurea ingo'zu; baño ur-axalea sartzen bazea, kostako zaizu aurea ittea ondua gertu dolako.*

Ur azik (ur hazik): urkargak: *goizian jeikita ur-gizonak usabiyoz beti erriyuai beituko zio, ta bein baño geyotan arrittuta auxa esango'ik: “Je, ainbeste ur iñ al du!? Azik zatoztik!”*

Urbetia (urbetea): marea betea:

– *Ordubik dittuk! Gaur urbetia noiz da?*

– *Oantxe laiste bie'ik! Gutxitzen asi'ttuk angulak!*

Ur bizik: marea bizik: *illargiyak, berrin da betian, ur bizik: bost erditan maria goiz ta atsalde, ta amaiketan bajamarra.*

Urdaburua: arrain motx xamarra, kolorez ilunantxa buru motzakín eta isats-gaina loriska: *Oriyoko "Ferra" zana, amaika arrapatutakua! Torretxoko playan neguba bazan'e, iya gerriañoko uretan sartu bajamarrian, da kordela jartze zun batetik bestea, geo urrungo bajamarrian jasotzeko. Urdaburu earrik arrapatze zun!*

Ur epel: bero eta hotzen tartekoa: *ara: zenbat eta ur-zulo aundiyaua ta ura epelo, negun.*

Ur-erdin: errioaren erdian: *uran eran ibilli bie'zunian, maria aunditan ur-ereditik ibiltze'a aixena ta ondona aize-olatuik ezpa'a, bintzat. Anguletan-e, naiz ta ala geatzen zalla izen, angulero beeziya baldi'ma, baya-kirten luziakikua eamango'u ur-ereditik aitzeko. Bi pondo bota bie'ia; ta, alare, bazterretik baño iru alako arrapatuko'u, iya beti.*

Uresilla: ikus erresola: *zenbat eta korrenta aundiyaua, bai gora, ta batez'e beera dijuanian zeozek enbazu itte baldin bayo -arbol batek, lur jausiyak eo matxoyak-, urdun uresilla izete'a kontrako aldetik.*

Korrentak lurra kentzen baizu, sartu balduak goraxio ez korrentak indarrik izeteko; uresilla formatze'a, an.

Ur gandu: ur arre: *ustez urak garbik daude, baño kalatze'un baya ezin pasa. Azpiko ur-karga koxkorak o tirañak ondua naste'ulako da oi, artaka saria zikinduz. Au ikustian, onela esate'a: "Urak au dek ganduba'kana!"*

Ur garbik: kutsatu gabeak: *gauz bat eroitze zaizu ureta, ta urdun esatea: "Ur garbik zaudek! Billatze'zkeo, oaintxe'pa garaya! Ur garbik zaudek!"*

Ur gazi: gatzadun ura: *zenbat eta itxaso aldeo, ur gaziya. Arraya, ixkira, amarra... zenbat eta ur gaziyaun, urdun da gorriyaua.*

Ur-geldik: urak korronterik ez: *erriyuak, alde'atetik ezpa bestetik, beti kanal-legia izete'u ta andik urak korrenta askoz aundiyaua'u. Konpaziyoa, Intxorreta parian -Itzauko alunian- ez da kanalik: aitan ura nola zabalo jute'an, urak geldiyo izete'ia.*

Ur geza: gatzik gabea: *zenbat eta ur gezaua, bai aingira ta bai angula, bel-tzaau eo berdeua. Ixkira ta amarra zenbat eta gezaun, urdun da txuiyaua: ur geza, makala; ur gaziya, biziya.*

Ur-giro: ur-garai edo denbora: *Ezpaldiko Balentin "Gaztiak" ala esate zun ondarreta jun nai izete zunian: "Ur-giruan zai niok ondarreta juteko". Etzun arrozoya faltik!*

Ur-gizon: errioan gizon aditua eta ibilia: *kolpe gutxi ta baliotsuk iñ oi dittu ur-gizonak. Izendu'ia Agiñan makiña't olako!*

URIBERRIKO ARRIPILLA (Uriberriko harripila): erriotoki izen bat, **Uriberriazpiko harripila:** oaiñ dala urte asko, amarretatik bat ez emen tzan urik erriyo ontan: Oriyatik Añorga emen tzun biria. Oni eantsi zitzayonian, Oria ibaya izena jarri emen tziyoten.

Uriberriko arripill'oi arkaitz punttuba da. Euste'yo gau t'eun datorren putzubai; baño ai dala, ai dala, okillak arbolai zulua bezela gastatuko'u oi're, naiz arriya izen. Ixkiretako ta anguletako oso ona, tokiya.

Ur illak (ur hilak): kuarterako mareak: illargiyak ibiltze'ttun gora-beerak! Illargi berrin da betian ezta ur-illik: bizik dia; baño illargi erdiya donian –erdi betia eo erdi utsa–, urdun ur-illak. Ur illetan maria askoz txikiyaua, bai gora ta bai beera. Ujala'nian, esate'a: “Ezto kuidoik, ur illak dia-ta!”.

Anguleta're alperrik jungo zea: ezta arri azpitik'e, ezta muittuko-ta!

Ur-ixkiña (ur-izkina): errio bazterra:

- Ze ingo'iuk gaur jai-atsaldian?
- Guazen ur-ixkiña, igari ikustea!

Ur-karga: euri-erauntsien bidez errioak hartzen duen beteka: oso kaltegarriya: korrenta aundik sortze'ttu. Beti nai eztuzuna ingo'izu: goyen arrapatutako zakar guztik nai eztezun tokin utzi ta nai eztezun tokitik kendu, alan muturrian sakar-pillak utzi, palizak atea, katiak eten... Oso ondo beiratzeezpayozu, alak aldeñ da bi puzka inda igual billatuko'zu.

Ur-kontra ibili: urararen kontra ibili: al ba'a ez ibili ur-kontra; daudenian, urausilletik ibili: urausillak aprobetxatu. Esateko: izetea Mapil aldetik korrenta beera, ta beste aldetik uresilla dolako, gora. Betik bazatoz, eta Mapillen geldittu nayian, aprobetxatu zazu urausilla, ta kalkulatu ondo gorakua erriyua trabesten asi aurretik; bestela, gaizki ibiliko zea: korrentak eamango zattu kupiri'pe. Eta, ya!, beste aldea arrimatzian, jarri ala aalik zuzenena ta muturra korrentai beira. Mantxo ibili, baño golpiak buruz eta zuzen emanez arrimatzeko. Urdun zea mariñel beezia eta aparta.

Ur lorik (ur lodik): ur likatua: askotan urak urdiñ-urdiñ, baño baya errez zikintzen, da urdun: “Ur lorik zaudek; ganduak meya zakak.”

Ur lorik (ur lodik): hondo handiko urak: agaika baator, eta polaña izkutatu zaik beera. Urdun esate'k: “Je!, ur lorik zaudek emen, arrayua! Iya polañak aldein xitxaian!”

Agiñan ur lorik esate'k; ez ur aundik.

Ur mantxuak (ur mantxoak): ur bareak, kalman: ezin gattuk eon baporian! Bota zaun gasoilla ura mantxotzeko! Iñork ezpazakiñ, orra jakitea eman: gasoillak ura asko kalmatze'u, mantxotze'u.

Ur miak (ur meheak): hondo gutxikoak: eztezu arrai aundiyik arrapatuko ur mian: txabaluak, arrai gorrik... eta zeorri ureta sartuta, ta ortako aurrena

ala ondo ta seguru utzita beti're. Artu ixkiapuba, ta polliki-polliki ibilli. Negu-ba baldi'ma, arri koxkorak muttuz, geo arrantzan itteko; angulak azpin eote baitia, ta arrayak angula nai izete'u.

Urolo (uroilo): egazti zangaluzea, moko sendo gorria eta luma ilunak ditue-na; errio, zingiretan eta bizi da: *uollua erriyo baztarretan ibiltze'a batetik bestea; ta zerbait ikusten ba'u, zator-zuluan buruba sartu igual, gordeta dolakuan. Xelebria, benetan, onen joera!*

Ur otzak (ur hotzak): tenperatura beherakoak: *elururakin, jelakin, neguko izo-tzakin... angula ezta axalea etortzen; ur otzetan azpiyo ibiltze'a.*

Urpe: ur azpi: *gustoko arbol bat bota ta azala kendu. Geo urpian ziri'atzuk sartu ta airi lotu bustiin eon dein. Askoz'e pitzatu-zallaua, urpian eondakua.*

Ur-putzu: ur-zulo: *maria jetxi, ta arrayak antxe gelditze'ia urak aldeinda txulou-netan. Batik bat orri esate zayo ur-putzuba.*

Presan gaikaldetik don "erreserbai"-re putzuba esate zayo. Baita errekan arri gañetik salto inda, azpikaldian itte'un xuluai're ur-putzu koxkorra esate zayo.

Ur-subia (ur-sugea): uretako sugea: *ara-onea ta bazterrik baztar ibiltze'k subia, arratoyak arrapatu nayian. Txarrekoik ezтик inguratuta're.*

Ur-tantak: *ala kalapetatzen ai zeanian, ezтик bier ur tantik; bestela, beunik etzaik peatuko.*

Urtsillo: Txardango handi bat: *urian sartu ezin gauzen bat learra dolako, ta urdun, naiz paliza, naiz eskallera eo beste zerbait izen, goortzeko emate xaixka bi aldetatik urtsilluak.*

Urtsillua da eur bat muturrian txardanguakin: sardeuna.

Ur ttikik: ur meheak: *"Sekuletan mariak ezтик iyotzen! Agaika in bierko'iu! Ur ttikik zaudek!*

Ur-txinparta: ur bixi-bixiak burbuiluka, saltoka bailiran: *karia erreka botatze'-kenian amorroya arrapatzeko, ur-txinparta earrak ateatze'ixkik.*

Ur-txirrikutuk (alako): alako zulokerrei azpialdetik egiten zaizken txuloak: *alak -urak erdia biltzeko- apropos indako txuluak izete'ttu zulokerretan: ur guztik toki'atea biltzeko, ondo txukatu dein.*

Ur-txoriya (ur-txoria): batzuk txikik eta beste'atzuk aundik izete'ia, kolore txui-illunekuak eta ego xabalak, eta batez'e erriyotik bizi'ia. Etorraldik ite'-ttue.

Ur-zikinak: ur kutsatuak: *urdiñ-urdiñ urak, eta arrayak tripaz gora. Naiz itxuraz ondo, kloro eo ingrientia bota yo, esateko, papelera batek.*

Ur-zorriya (ur-zorria): uretan bizi den xomoro ttiki bat, eltxoaren tamaina eta antzekoa: *izete'a eltxuan antzeko bitxo'at egoi'peia. Iñoiz-iñoiz angula biberota bota ta urrungo eunian angulak an, eskeleto. Ezta iruitzen angulak ezurra'unik, baño ur-zorriyak dotere asko apartatze'u: mamiya jan da ezurra ta buruba uzte'yo oso-osoik. Urdun anguleruak esate'ue: "Emen, biberu ontan, ur-zorrik zaudek!"*

Oso etsaya, ur-zorriya, angulentzako.

Ur-zulo: uretako zuloak: *errekak, beti ai ta ai, lurrai txoke ite'yonian, denboan poderiyoj jaten ai dik azpiya, ta artaka zulua itte'k.*

Utzialdiya (utzialdia): itxasoaren barealdia: *Oriyoko barran, arrantzale zarrak -alban- itsasaldea motorrakin, da itxoiñ itte'ue barra pasatzeakuan: utzial-diyen zai eote'ia.*

X

Xapal (harri): ikus txabal (harri): *arri xapala aidian earki jute'k ondo botata. Ortako arrikalaya ona bie'ik; arek zakik tiatzen.*

Xapo-amarra (apo-karramarroa): trapezio formakoa, berdea, eta aurreko hankak haginez hornituak dituena: *jateko bat'e ez tik xapo-amarrak. Oso uariy'ek, eta trabeska-trabeska ibiltze'k abildare earrakin. Estuasunik baldi ma'u, alturatik salto're bai, aballan.*

Xapo-arraiya (zapo-arraina): itsaspeko hondar eta loitan bizi dena, bizkarralde ilun eta sabelalde zurikoa, burua oso handia, biribila eta zapala, eta ahoa oso handia duena: *marian zai gaudela arrapatu izen giñin amazazpi kilo pasakua. Ezkiñin ezautzen, da, nola belaka-belaka izete'an, asi gattuk azaletik kendu ta kendu mamiya arrapatu arte. Ba... u'ek kuxidadia gurial: dana ondatu giñun! Orra zenbat genekin xapuen berri!*

Xartan: arraina ur-gainian saltoka:

- *I, an lupiya, xartan! Oi ixkira don siñali'ek!*
- *Bai; ikuste'it. Amu-usayai're elduko litxeke'k! Oik zakatek elera!*

Y

Yute: iledun oihala: *denboa'tian, ezuan plastikoik eta paperik, eta dana yutia: aingira ekartzeko're yutia ibiltze uan. Yutia zan, ondo're, alai juntak ixteko ibiltze zuen gaya.*

Z

Zaika: zaingabeko edo gutxiko zuhaitza. **Ur-izkinetako zumei buruz erabiltzen da, batez ere, hitz hau:** *zume zar adartsu'at erriyo aldea, txintxilika. Alako'atian, eroi t'antxe gelditze'a. Pillatzen-pillatzen jungo xaixka: eur zarrak, plastikuak, arto-zuztarrak... eta ikuste'anian abisu au emate'a: "Kontuz!, emen zaika zio!"*

Zakar (errioa): gogor, itsusia (errioa):

- *Ara, ala arindu be Marrotaldian etzeate pasako! Olatuba aundiya ta oso zakarra zio!*
- *Kalmalidiyik ez al diu'pa izengo?*
- *Kia! Ezta pentsatu're!*

Zakar: zabor:

- *Bai aundiya ezin dek ibilli, zakar asko zio!*
- *Goyen urak aundiyauek izengo'ttuan emen baño.*

Zaketz (zakatz): arrainak arnasa hartzeko organoa: *atun-buruba masalletik gora tia, ta zerra bezelako pilarmonika azaltze zayona da zaketza.*

Zaku (iutezko): iutezko ehunez egindako zorroa, handia eta sakona, eta ala barruan hamaika gauzako ibiltzen dena: *al dan lakarrena nai izetea, bai kirtena jelatze'anian iurtzitzeke... gauz askotako.*

Zanbulla (zanbuila): murgiltze:

- *Argi or zanbulla iñ, ur txikiya zio! eta! Nik eskapa earra in dit; eskubakin jo'it ondua, ta ebakiya!*
- *Lokatzetan, da ebakiya!? Ez, izaya eongo uan. Nolaka do ebakiya, gorka o trabeska?*
- *Trabeska.*
- *Urdun seuru izaya zala.*

Zanbullatu (zanbuilatu): murgildu: *nai ba'a besuak aurea luzatuta; nai ba'a besuak beera txintxilika diala; nai ba'a kokotez atzea, atzeaka; nai ba'a kanpana buelta emanez; eta alan bestaldetik ateatze'zkeo, bastante ona bie'u zanbullatzen.*

Zanga: hegazti igeri-oinduna, antzararen tamainakoa, kolerez zuria baina hego-muturrak beltzak, taldetan bizi dena, eta arraina, murgilduz, harra-patzen duena elikatzeko: zangak antzarran tamañako gorputza'u, ta arraya'u oso gustokua jateko; denbo'atian, etzan emengo eiza; baño gaur-gaur ikearri azaldu'a. Kayua bezela, au're erriyotik bizi'a.

Zapar: euri-jasa: gabian baldi'ma, eztezu lo lasai ingo ebi zapar aundiyakin, naiz erriyua kalma. "Ala" nola ote don pentsatuko'zu makiña bier.

Zapasalto: alde batetik galgatuz, gauzaren bat aideratzea edo altxatzea, koloka: zulokerrea ool bat bota zazu, ta ezta josten ura ustutzeko enbaazu itte'ulako. Urdun oso ondo ezpado asentatuba, ixkiñ'atetik kalkata besteatetik altxa ingo zaizu: oi da zapasaltuan zeolako.

Zapaterua (zapatari): ur gainean ibiltzen den zomorrotan bat: armiamen antzekua'ia. Ixkira ur azpin da zapaterua ur gañian berdintsu ibiltze'ia: beti aldamenka antxian, kolpia jotze'uela. Geyenetan ur-ixkiñan -euzkitan- ibiltze'ia; gutxitan ur-erdin. Eskuz arrapatzen zallak dir-dir aundiya'uelako. Arrapatzezkeo, bi eskuk ur azpia sartu beera xamar, geo esku-azpik alkar-tuta jarri goraka zorro'at iñez zapateruen parian, da polliki-polliki atea beti're arrapatze alde. Ortaka, bierba; bestela, zalla.

Zapla (alaren): tabloi antzeko egur bat, alari azpia emateko erabiltzen dena: alen azpia botatzen ai zeala, ool guztik zapla erretiatu bier izete'ue.

Zapla: zabal; ez kantoika: beiñ o beiñ, bateon bat busti nai'zunian, polaña altxa gora ta utzi eroitzen zaplan. Ateako'u zipristin earrik ondo jotze ma'u aralde antxian.

Zentralak (argi-zentralak): oain bestela gaude; baño gue aurreko garayai beira jarrita, izendu zuen bee ittekua.

Zian zentralak: Orbeldin, Errota-berrin eta Saltxipi Gaikaldian. Arozenak zun otan aintia: arek indako argiyakin bizi izete giñan Iberduero etorri arte.

Arozenak beste zentral bat in naya emen tzun Saikola erriberako auzko puntan, da baita eskatu're permisua Usurbilgo Ayuntamiento bai. Urdun Miel Errero "Komentzenekua" alkatte ta AntoniMai "Antonimaikua" kontze-jal, biyak agiñarrak.

Eun batian, Usurbildik Agiña zatoztin oñez zentral asunto onekin, da kontuk esan da esan, da itxoiñaldiya. Ta alako'atian batek:

- I, kontu onekin zenbat denboa pasatzen ai gea?
- Utziyok, zeoze erabakiko'iu-ta!

Ezpaldiberria allatu zianian, AntoniMai despeittu emen tzan Miel Erreroi esanez:

- Bueno, i, esanak esan, biyar azaldu Usurbilla!
- Bai, bai; an azalduko nok. -Miel Errerok-.

Iru ordu t'erdi: abittu ta eon, da abittu ta eon.

Ayuntamentua jun dia urrungo eunian, da:

- *“Erabaki deu, ba, zentralakin ze iñ” –esan emen tziyen sekretayo xarrai. Eta onek eantzun:*
- *Ez al dakizue eztola ezer itteik? Erriyua Mariñena ta kamiyua Diputazi-yuena. Eztakazue ze iñik!?*

Ara, nola izete'an: sekretayo xarrak, minutu erdin, dana ankaz gora bota!

Zerrazuya: behe-laino itxia: *alian zuazenian, ikuste'ztala zerrazuya oso itxu jartze ba'a, geldi aldiya iñ. Uren soñubak aitzen galazten baizu, polaña oin bete altxa, pala ixkiñaka jarri ta ondalkin kank! jo al dan indartsuna bestiai ayazteko. Segi mantxo-mantxo baztarrai iarriz, eta ontan ezin balitz, lenbizi-ko alunian utzi ta etxea. Zenbatten alunian uzte m'ezu, urrungo eunian ondoatuta igual atzeko amarrak askatuta.*

ZERRIZULO: Erriotoki izen bat, kamio aldetik Aldapa baserriaren azpialde-an dagoena: *aleruak Anguleta beera jun, da urrialdiya; ta urdun esate'ue: “Guazen gora!” Baño nola learra tapatu'bia don artian, zai eoteko partez bayetz proatu, baezpan'e, Zerrizulon!*

Ziaboga: ontzia biratzeko, alde bateko lagunek aurreaka eta beste aldeko-ek atzeraka arraun egitea: *“Iruarren ziaboga eman dik Agiñak onena. Or lau'at seundo kendu xaixkak Sanjuani: or irabazi'k estropa”.*

Zingira: aintzira: *erreka-muturra izen leike zingira, urteen poderiyoz ango korrentak zulatuta. Olaberrita aldian Mapilko Baleri zanak an arrapatze emen tzittun lupiyik aundiñak, zazpi librakuak-eta; oso zuzena baita erreka erriyoa ateatze'ana, ai dala, ai dala, zulatzen jun dalako.*

Laixter zingira asko beteta geatuko'ia; zeatik, Oriyoko barran eskollerak in dittuenetik gorako korrentak eta tirañak asko baretu'ialako; eta korrenta faltan zingirak betetzen jungo'ia.

Zintzarra (harri): *lear azpikaldiko urausilletan izete'a batez'e zintzarra: lear gaikakaldian beti arri larriyaua, azpikaldian baño.*

Ziplatu: birrindu: *ujal ondoenian beiratze'yozu erriberai, ta dana arrasatu; ta urdun esate'a: “Oi dek ziplatuba eman diyona erriberai!”.*

Zirak: jantzi irazgaitza edo ura pasatzen galerazten duena: *garai aitan, diru-bai baño're obeto beiratzen zitzayon, batez'e goikuai. Oliyua emanda jaso itte zian urrungoako; bestela, ausi itte zian-da.*

Ziya (zia): ziaboga, ontzia biratzeko ekintza:

- *I, oaingu au zenbaarren ziya'ue?*
- *Iruarrena ta azkenekua, da Agiña aurretik!*

Ziya (zia): ontzia gelditu, balaztatu: *bi ontzi alkar jotzea'ijuaztenian, esate'a: "i, ziya zak! Bestela, alkar joko'iu!"*.

Zokotia: (zokotea) alaren: alaren muturrean –barrualdetik– dijoan tabloiki bat, golpeei eusteko: *zuazenian alakin, da beti're zerbait jo bier b'ezu, muturra emate zayo alboka antxian; da urdun bee lana oi du: kolpiari eutsi.*

Zulokerrak: armazoiak: *ara: eur askokin in leike zulokerra; baño, oso ustelkorrak izete'ia: platanua, piñua, gaztaña, eukalitua... Aitz gijarra bier da, ta ortako metroko gerri-buelta ta bi luze bierko'u. Al ba'a sei urte leendik botia, ta ur azpin euzkiyak jotze'ztula urdindu arte; artaka etzayo pitzaurik, ez etenik itten. Onen-onena, garai'atian lurjausiyak gerritik okertu ta landare guziya bezela zerua beira berreun urtian eondakua; ta geo zerran kendu gizen-aurkiya: artaka gijarra geatze zayo. Ua da benetako zulokerra!*

Zuna: uretan bidea markatzeko buiak: *itxasuan iru ziabogeta baldi'ma estropa, oso bierrezkua'ia zunak. Jiraerako're zuna'ia –baliza izena'uena–.*

Zurumillua (zurumilua): zurrunbilua: *ezta beti toki'atian izeten zurumillua. Izen leike mariagora o mariabeera. Geyenian, aundiñak, urkargak sortze'-ttu: errio-bueltetan, zuaiza eroitako tokitan, zubi azpiko pillaretan... Tope ite'yolako.*

Zurumullua (zurumuilua): ikus zurumillua.

Zurrunbilla (zurrunbila): ikus zurumillua.

Zurrunbillua (zurrunbilua): ikus zurumillua.

**Esamoldeak,
esapide bereziak**



Hizkuntza bat lehorra da esaera zahar eta esamolderik gabe: gatz eta piperrik gabea. Herriaren arima isladatzen dute, beraren filosofia agertzen eta beraren bizimoldeak erakusten; ahozko literaturaren zatirik bikainenak eta adierazkorrenak gertatzen baitira. Hortaz, hizkuntza baten ezaugarri berezietakoak ditugu esaera zaharrak eta esapide bereziak. Halabaina, hemen azaltzen direnak edo bildutakoak, batez ere Aginagako gizajendeak erriorearen baitan edo inguruan –gaur oraindik– erabiltzen dituenak dira. Aginagak, erriotik at, baditu ahozko beste espresio paregabeak, eta mereziko luke bi atal hauen benetako ikerlan bat egitea.

Parentesi artean azalpena ematen da; eta letra etzanez dauden testuak, transkripzioetan agertutako edo aho-ahotik –zuzenean– jasotako adibideak dira.

Dena den, esamolde edo esapidearen aurretik, berauen izaera edo egoea agertzen da, mota desberdinetako bilketa eginez:

- (1) **Galtzorian dauden esapideak, gutxitan entzuten direnak eta jende helduari soilik entzuten zaizkionak.**
- (2) **Esapide guztiz bereziak, eta batez ere erriorearen baitan erabiltzen direnak.**
- (3) **Jende helduak, barra-barra; baina gazteak gero eta gutxiago erabiltzen dituenak**
- (1) **Abanten** (martxan, abian): *baporia an xitxakaten motor berriyakin, **abanten**.*
- (3) **Abisu eman** (ohartu, jakinarazi): *eta ikustian, **abisu au amatea**: “Kontuz, emen zaika zio!”*
- (1) **Aide jun** (azkar batean joan, ezkutatu): ***aide jun** emen tzian ain bromak eta txakoliñak!*
- (3) **Aide(r)atu** (urgaineratu): *ala ondoatu zaiuk eta **aideatzea** guaztik.*
- (3) **Aide(ra)kua izan** (berez, ur-gainea egoten dena): *arriya **aidekua** eztek, ondoa jute’k; eurra, **aidekua** dek.*
- (1) **A(g)intia izan** (jabego izan): *zian zentralak: Orbeldin, Errotaberrin eta Saltxipi gaikaldian. Arozenak zun **aintia** oitan.*
- (3) **Aixa** (errez): *ikusi’xkiu nola jute’ian angulak Saikolako presan paretian gora, **aixa’sko**.*

- (3) **Aize-punttuba jo** (haize pittin bat atera): **aize-punttuba joi'k** eta ostuak *asi'ttuk dantzan*.
- (1) **Akordatu** (konturatu): *alan katia ezpezu jaso ondo, an katiatuko zaizu uste gutxinian: etzea **akordatuko***.
- (3) **Ala arindu** (karga, pisua kendu): **ala arindu'**be Marrotaldian etzeate pasako. *Olatu aundiya ta zakarra zio.*
- (3) **Ala ate(r)a** (ala aideratu, urgaineratu): *atzo ondarreta jun, eta ala ondoatu. Urrungo eunian launtza eskantze zayo bate'ati esanez: "I, launduko al diak **ala ateatzen?**"*.
- (3) **Ala ate(r)a** (uretik lehorrera atera): *alak jariyua zakak eta **ateatzea** guaztik konpontzeko*.
- (3) **Ala bota** (lehorretik uretara bota): *gue etxeko ala konpondu ye eta gaur bertan **bota** bie'iu*.
- (1) **Ala etzana** (mutur makurra; ez jaikia): *ustez lengo plantillakin ala in diu, eta **etzana** atea zaiuk. Aurrekua jaikiyaua uan*.
- (1) **Ala-ezpain** (karel-gaina): *alak karga-karga inda ibiltze'ttuan, ura sartu ez sartu, alan **ezpañetaño***.
- (3) **Ala guztiz'e** (halere, halaz ere): **ala guztiz'e**, *nik enun ezautu barkuk itten*.
- (3) **Alan azpiya bota** (alari azpia egin, eman): *nai nitek lori xamar **alan azpiya botatzia**, ganauk ibilli bia'ixkit eta*.
- (1) **Alañoko** (hain, hainbesterainoko): *eun batian iru izuki arrapatuta, periorikuan a ze zalapartak! **Alañoko** famosua!*
- (1) **Ala-soñuk** (ala-aipuak edo aipamenak): *leengo **ala-soñuk** aspaldi jun tzian*.
- (1) **Alboka antxian** (saihetseran): *muturra emate zayo **alboka antxian***.
- (1) **Aldamenka** (saiheska, alboka): *ixkira ur azpin da zapaterua ur gañian berdintsu ibiltze'ia: beti **aldamenka** antxian, kolpia jotze'ula*.
- (3) **Alde aundiya izan** (desberdintasun handia izan): *baña **alde aundiya zio** urak zer korrenta daken*.
- (3) **Alde(g)itteko ondarrak** (hondarra kentzeko): *lapa itxasuan bertan, zaku lasai'atian astindu bier izete'a uretan **ondarrak aldeitteko***.
- (3) **Alde(r)a in** (aldera sartu, joan): *bado beste erreka't **Aya aldera itte'una***.

- (1) **Aldik izan** (olatuak eragindako goraldik): *ai aiz kalako ogei angula arrapa-tzen, da urrungan bost bakarrik. Ordun ire burabai itte'yok: **aldik dittuk**.*
- (3) **Aldin-aldin** (noizean behein, noizbehinka): *oaiñ ogei urte, **aldin-aldin**, toki-tan azaltze zan.*
- (1) **Alperrik galdu** (hondatu, kaltetu): *tankako koxkor bateatik ezta **alperrik galtzen**: euste'yo.*
- (1) **Alpertxuik jun** (alferrik samar joan): *baño anguleruak danak –Enaluzen ezpado– “gora **alpertxuik juti'ek**” esango'u.*
- (3) **Amarrak bota** (amarrez lotu edo amarratu): *“Alai **amarra't** geyo beike **bota** al diyozue?”*
- (1) **Ametittu** (onartu, kabittu, sartu): *alan azpiyak izete'u ool bana bi aldetan aitzakin indakua, ta erdin beste bat o bi **ametitze'ttun** zabalekuak.*
- (3) **Amorratuak** (oso, guztiz, arrunt): ***saiatu amorratuak** ittuban.*
- (1) **Amu-usayai eldu.** (amu hutsari heldu): *an lupiya xartan zabillek. **Amu-usa-yai're** elduko litxekek. Oik zakatek elera!*
- (1) **Anaya bee garaia etorri zanian** (adin batera etorri, hazi): *geo gue **anaya bee garaia etorri zanian** batea, ordun anayakin jute nitzan.*
- (3) **Angula gañian ibili** (angula ur-azalean ibili): *atoyakin junda azpitik baño axaletik angula geyo ateatze'anian, “**angula gañian zabillek**” esate'a.*
- (1) **Angulak jo** (angulak hasi erriogan): *“**angulak jo'ye**, baña eztek agiri: urai zerbait billatu zek. Oaiñ'e auskalo ze bota'yen!”*
- (2) **Angula ondo zio** (angula ondo harrapatzen ari): *beian angula gutxituta gora datorren bati galdetzen bayok: “ze mouz angula, **ondo al zio?**”; eta “ai leikek” eantzute baik, dana esan dik*
- (3) **Angulatoki berdiñena**: (erregularrena): *ondo asko zakiu **angulatoki berdi-ñena** nun dan: Saikolatik asi ta Latindei bitartian.*
- (1) **Anka-joko** (ziztu biziko korrika): *oaindik alako **anka jokoik!***
- (2) **Ankaz gora bota** (baliogabetu): *ara nola izetean: sekretayo xarrak minutu erdin **dana ankaz gora bota!***
- (3) **Antxetik** (ingurutik edo aldetik): ***lepo antxetik** sartuta, berriz, mutturra muttuz ibiliko'u, ta bizigorraua izete'a.*
- (1) **Antxian** (eran, moduan): *beti aldemenka **antxian** kolpia jotze'ula.*

(2) **Aparteko** (estra): *beti **aparteko** txanpona.*

(1) **Apiziyua** (zaletasuna): *attak osabagandik jaso zun arotzako **apiziyua**.*

(3) **Ara jotze'u arrayak** (hara joaten da arraina): *erriyuan ezin bizi ta iñun erreka garbiyik ba'a, **ara jotze'u** arrayak.*

(1) **Armatu** (sortu): *da baporía etortze baldi'mazan, **olatuba armatze** zin.*

(2) **Arrabez josita eote'ia** (arrabez beteta): *bai ixkira, bai amarrak **arrabez josita** eote'ia.*

(3) **Arrapatu: olatuba** (olatua hartu): *a ze olatuba **arrapatu'n**!*

(1) **Arraunketa zabala** (arraunketa luzea edo kolpe luzekoa): *arraun luziakín itte'a **arraunketa zabala**.*

(1) **Arrotu: urak** (hazi: urak): *ebiya asko itte ba'u, ura arrotze'a.*

(3) **Arta(ra)ka** (hartara): *eta **artaka** jakite'k salabardua utzitako tokiya.*

(2) **Artaldia itxas gañian** (itxas aparra ur gainean): *batzutan esatea: "**Artaldia zabillek itxas gañian**".*

(1) **Arte(r)añotsu** (gutxi gora-behera, gutxi-gehiago): *pasta itte zuen lekuba zan 1960 **arteañotsu**.*

(2) **Askakuak'e eman** (danak eman, harrapatutako angula guztiak eman): *"I, nun jarri biek? **Askakuak'e emango'ixkiu**!"*

(1) **Attu: usaia** (aditu, hartu, usaindu): *ixkira ezta sartzen salabarduan, eztulako **jana aitzen**.*

(3) **Attu** (entzun, aditu): *nik **attu nitxen** lengo zarrai.*

(1) **Attu** (bukatu, amaitu): *tokatu zaiak emen **angulak attu** ta Saikolan proatu.*

(2) **Atxurrakin baño geyo izan urakin** (lurlantzan baino gehiago izan arrantzan): *ok **atxurrakin baño geyo nok ni urakin**.*

(1) **Atzia: ontziyan** (popa, txopa): *oain esate zayok popa, baño berri'yek. Leno esate xitxayon **ontziyan** ipurdiya o **atzia**.*

(1) **...aurkik** (handinak edo gehienak): *txitxardin-askak bi sarealdi dittu: goikuak zakar aundi **aurkik** eta azpikua txiki **aurkik** biltzeko.*

(3) **Auzkalde(r)a** (beste aldera edo punta): *urez **auzkaldea** pasa eun guztiako.*

- (3) **Axaletik jun angula** (ur gainetik; ez hondotik): *egoazia, epel-epel, goibel, illargiyik ez, eta urak korrenta dakanian, **axal-axaletik** jute'k angula, bil-bil.*
- (1) **Ayazi** (alertatu, ohartu): *pala ixkiñaka jarri, ta ondalkin kank! jo -al dan indartsuna- bestiai **ayazteko**.*
- (1) **Azken eriyuan e(g)on** (hiltzeaz egon, azkenetan egon): *attak iltzeakuan, **azken eriyuan zeola** esan emen tziyen bee semiai.*
- (3) **Azpijanetan ibili** (azpilanetan edo azpikeriatan ibili): *Agiñan batzuk battuk xelebriak, beti **azpijanetan** ibiltzeko jenyua'uenak.*
- (1) **Bagan etorri** (olatua aprobetxatuz etorri): ***triñerua bagan zatorrek**. A ze olatuba arrapatu'n!*
- (2) **Bakoitzak be(r)e lanak** (bakoitzak bere bizipenak, ardurak): *nunbait aurreneko aldiz itxasbistan, da lio salla iruittu. Emen, **bakoitzak bee lanak!***
- (1) **Baliatu** (moldatu): *ontzi galantak, ur miak, eta ezin **baliatu!***
- (1) **Baorra izan** (arraunerako ezkerria izan edo arraun-pala eskubialdetik darimana): *gutxi dia, beez, **baorrak**; baño bi aldetatik iual-iual itte'unak izete'ia arraunian.*
- (3) **Barra asarre** (barra zakar): *gaur Oriyoko **barra asarre** izengo'ek.*
- (3) **Bateon bat** (baten bat, bat edo bat): ***bateon bat** busti nai'zunian.*
- (2) **Baya garbi** (kala egin eta angularik ez): *askotan gertatze'a anguletan, kala ta kala ta **baya garbi**.*
- (2) **Baya zuri** (kala egin, eta angula ondo harrapatzen ari): ***baya zuri** ta iñor inguratzen bazaik, etzakela kalik in aldeñ arte.*
- (3) **Baztarre(r)a bota aiziak** (baztarrera eramane haizeak: aiziak baztarrea *botata ibili* izandu giñun).
- (3) **Baztarrik baztar** (bazterretik bazterrera ibili): *Martin politta **baztarrik baztar** ibiltze'a arraya noiz ikusiko, arrapatzeko.*
- (3) **Be(r)atu** (bigundu, samurtu): *erropak ur epeletan **beatze** zittuen leenbizi.*
- (1) **Be(r)e garai bate(r)a etorri** (bere adinera etorri, hazi): *eta geo anaya **etorri** zanian bee **garai batea**.*
- (2) **Be(r)e patrikatik** (eg)in (berak ordaindu): *gastuk bee kontura itte xikiyen: **dana bee patrikatik**.*
- (1) **Begik belarrin dittuela** (belarritik ikusiko bailuten, erne betean): *erriyuan, zubigain batian pasatzeakuan, iriparia alkarri bultzaka, **begik belarrin dittuela**, larri-larri inda.*

- (3) **Be(g)ira jarri** (begiratu): *oain bestela gaude; baño gue aurreko garayai beira jarrita*, izendu zuen bee ittekua.
- (2) **Be(g)iratu diruba(r)i baño obeto** (ondo zaindu, ondo gorde): *garai aitan, dirubai baño obeto beirutzen zitzayon zira-trajiai*.
- (2) **Begi ta atzapar luze** (lapurra, ebaslea): *kontuz, urdun, begi ta atzapar luziekin*; *uste gutxinian eamango'izu-ta!*
- (1) **Beik'e** (bederik ere): *amarra't geyo beik'e bota al diyoze?*
- (1) **Belaunka ibili** (makurka, lauhankean ibili): *alian aizia eo olako giro'at danian-da, urdun atzetik aurea eo aurretik atzea pasatzeakuan, belaunka ibilli* biar izete uan: *makurtuta, lauankian*.
- (1) **Beltzatxiuna (beltzaxkarakoa)**: *muxarra'ek arrai xapal betxatxiuna*.
- (1) **Benik** (behinik, bederik): *pentsatu, oliyua benik* ekartzeko...
- (3) **Bero bustia** (sargoria, eranskorra): *bero busti* onekin erriyo baztarrian'e ezin dek aguantatu, *ta blai niok*.
- (3) **Bero ittua**: (haizerik gabea): *bero ittua* onekin etziok iñoa juteik; *aizeik etzabillek bat'e*.
- (2) **Beruena izan** (den baino gehiago adierazi): *Anttoniok iru kilo angula arrapatu'ttula esan zaiuk, baño orrek erdiya baño geyo beruena bazin*.
- (1) **Besati(r)aka** (ganadua uztarturik doanean, elkarri tiraka edo bultzaka): *iri-pariak erriyoko zubigain batea allaitu baño leno daki nun pasa bie'un, da urdun alkarri besatiaka o tiaka aste'ia*.
- (3) **Bestela egon** (egoera edo modu desberdinean egon): *oain bestela gaude*, *baño gue garaiko zentralai beira jarrita*, izendu zuen bee ittekua.
- (1) **Bil-bil** (pil-pil, borbor): *ego-aizia, epel, goibel eta urak korrenta dakanian, axal-axaletik jutek angula bil-bil*.
- (3) **Bildurrak airian** (beldurrak hartuta, jota): *estroposoka niek bildurrak airian*.
- (1) **Billatu** (hobetsi, nahi izan): *nik uste't garai'atian trumonada billatzen zala*.
- (1) **Billatu: andregayakin** (topo egin): *bein batez, andregayakin billatuta*.
- (1) **Billatu zerbait ura(r)i** (nabaritu, sumatu): *angulak jo'ye, baño eztek agiri; urai zerbait billatu zek*. *Auskalo ze bota'yen oaiñ'e!*
- (1) **Billauba** (bihurria): *gaur denboa ziero billauba* izen diu: *aiziak alde'atetik eta bestetik jotze zin*.

- (2) **Bi puntetan motxegi** (mugatuak garenaren adierazpena): *askotan gaittuk gu motxegi, **bi puntetan motxegi**.*
- (3) **Berrizko're**: (beste baterako ere): *txukun bildu amarrak **berrizko're**.*
- (3) **Bistako** (itxurako): *Oain, **bistako-bistako** beltza obia dek.*
- (3) **Biurriya: denboa** (txarra, zitala): *gaur denboa **biurriya** itte zin, da ez gatzik jun ondarreta.*
- (1) **Bizigorra** (biziraupen edo biziraun handikoa): *txitxaria amun lepo-antxetik sartuta muturra muttuz ibilliko'u, ta **bizigorraua izete'a**.*
- (1) **Bizimaña** (bizimodua): *baazpako **bizimaña** gaurkua!*
- (1) **Bizkarrez** (okerdura barrengo aldera edo bizkarra kanpo aldera daukana): ***palizak bizkarrez** kanpo aldea beti obeto, mariagorakuan alak eskallai ez eltzeko.*
- (1) **Borroka aundiya** (lehia handia): ***borroka aundiya** zioak angulakin.*
- (1) **Branka eman** (ontziaren punta eman): *korrenta aundiya ez eman kostau-ba, **eman branka**; aixo ibiliko aiz-ta.*
- (1) **Brillo** (itxura): *beste **brillo**'at izate'u orko ixkirak.*
- (3) **Brist-brast** (olatu-parrastaden soinu onomatopeikoa): *barran olatuk brist-brast goitik jotzen asi zian.*
- (1) **Brizta** (eg)in (mugimentu azkarra, dirdaizoa): *ikusi al dek arrayak **in dun brizta**? Oi dek muimentuba in duna!*
- (3) **Bueltaka-bueltaka** (ibilian-ibilian): ***bueltaka-bueltaka** urak ekarri.*
- (1) **Burutxot** (buruzko iraulketa edo erorketa): *urak erribera-baztarrei kendaualdik itte'ixka; eta ortako ona da belarrez osatutako metatxorro'at in, eta pixka't asentatze'anian irua't gizon sardiakin jun, da ara **burutxot** iñazi -oso-osuan- urai galazteko.*
- (3) **Dayola egon**: (zerbait jarioka edo dariola egon): ***beti dayola** dona da Txorkua.*
- (1) **Denbo(r)a jun** (denbora pasa): ***denboa jun** aala.*
- (1) **Deskuero santun** (halako ustekabea, halako hutsegitean): ***deskuero santun** beste'atekin txoke inda.*
- (1) **Despitxuba** (garraiobidea): *bei bat o ganauba pasatzeko, Mapiltik ibiltze zian: ortik zuen **despitxuba**, bee sarrera ta irteera, gauz oitako.*

- (1) **Despitzuba in** (ohartu, jakinaren gainean jarri): “Aizu, asko kosta zaigu *gue alunetik beste bat bialtzia, eta zuk’e zerbait pentsatu*”. **Despitzuba itte’yozu** abisu onekin.
- (3) **Dezentia** (handi samarra): *aurre-atzian ranpa bezela zin* **dezentia**.
- (1) **Dibertsiyua izan** (entretanimendua izan): *arrantzalien* **dibertsiyua izete zan, alban, lupita**.
- (1) **Dibujua** (errainua): *izarrak alunbratu itte’u ur-gañoa bee* **dibujua**.
- (1) **Dir-dir aundiya egin** (mugimentu azkarra edo bizia egin): *zapataruak arrapatzen zalla’ek* **dir-dir** aundiya’uelako.
- (2) **Diruba(r)i baño obeto be(g)iratu** (guztiz ondo zaindu edo gorde): *garai artan,* **dirubai baño obeto beiratze** zitzaion zira trajiai.
- (1) **Diskusiyua ekarri** (eztabaida sortu): *ayek, been artian,* **diskusiyua ekarri ziyen**.
- (1) **Earra** (pila, ugari): *baño bai olatuba ta tirriki-tarraka* **earra!**
- (3) **E(r)atsi** (eraitsi, jaitsi): *tenteka zeon tokitik* **eatsi** lurrea.
- (3) **Ebi-golpia** (euri-jasa, zaparrada): **ebi-golpia** aundiya zanian.
- (1) **Edadian jun** (zahartzen ari): **edadian baxitxien** ua’re-ta.
- (3) (Eg) **iñalak jo** (ahaleginak eman): **iñalak jota’re**, eztuzu ontziya zuzen *eamango*.
- (2) **Egi-usayik ez** (egia urrun, eta beti gezurretan): *ola beti, gauz guztitan,* **egi-usayik** eztuela.
- (3) **E(g)ualdi zikiña** (txarra): *ebiya ta elurra, ta* **eualdi ziero zikiña**.
- (1) (Eg) **in naya izan** (egiteko gogoia edo asmoa izan): *Arozenak beste zentral bat* **in naya emen tzun** Saikola erriberako auzko puntan.
- (1) **E(g)itura** (era, forma, modua): *earra uan aren arriya tiatzeko* **eltura**.
- (2) **E(g)uzki formakua** (borobila): *lear-arriya urak eta tirañak erriyuan dabilki-yen arri borobilla izete’a:* **euzki formakua** ta xabala jenealian.
- (1) **E(g)uzkiya ikusi bie’u** (eguzkia hartu behar du): *tapatuta eztu nai:* **euzkiya ikusi bie’u**.
- (3) **Eldu** (hozkatu): *aingirak* **eltze** yonian txitxare-kordai, itte baitu ta-ta-ta!, e?
- (1) **Elerik ez** (beita edo janari heltzeko gogorik ez arrainak): *askotan ikusi arraya, ta* **elerik ez**. *Urrunguan, berriz, janik gabeko amubai, golpe ta golpe.*

- (1) **Eltzekuak** (eg)**itteko ura** (janariak egosteko ura): **eltzekuak** eta **itteko** izate zan ura au.
- (1) **Eman** (esan, adierazi): *onen gañian auxe* **eman** nai dit.
- (3) **Enkallan ge(r)atu** (ur-ixkinan-edo, ontzia urik gabe geratu edo hondoa jo): *portu barrua sartze m'ezu, bajamarrian* **enkallan geatuko** zaizu.
- (3) **Epa!** (argi, kontuz): *epa!*, *angula berri'yek au!*
- (1) **E(r)antsi: leor aldea** (lehor aldera egin, joan): *gaikaldeaxio o azpikaldea-xio, beti're ala* **leor aldea eantsirik**. *Trabes; ez topez.*
- (3) **Errañuba** (islada): *aidian dijuan abioya o eaztiya earki ikuste'k ureko* **errañuban** bidez.
- (1) **Erreka-mutur** (erreka-aho): *erriyuan arraya ezin bizi, ta Iparrarrekako* **erreka-muturrea** asko jute'a urdun.
- (1) **Errematia eman** (behin-betiko bukatu, erabaki): *aspertu itte zea, ta ala-ko'atian zue burubai itte'yozu:* "**Emango zio'pa errematia!**".
- (1) **Erresola jayo** (erresola atera, sortu): *erriyuan, eozin tontorrek -enbazun baldin bado- bee azpikaldian* **jayotze'ik erresola**.
- (2) **Errespontsuk atea** (esaldi ironikoa; kandela gehiagi gastatzen duenarentzako adierazpena): "Ze ai aiz, Imanol, **errespontsuk ateatzen?**"
- (1) **Erretena** (eg)**in** (kanaltxo, ildaxka egin): *kalapeta-burni txorrotxa aurreneko* **erretena itteko** izete'a.
- (3) **Erreti(r)atu** (bildu): *alen azpiya ematen ai zeala, ool guztik zapla* **erretiatu** bier izete'ue.
- (1) **Erreziyo** (lantarteko mokadu bat): *geo baño ez al diu obe* **erreziyo** legia ittia?
- (1) **Erria!** (bota, luza): *erria, erria txikota!*
- (1) **Erriyo** (bare): *gaur Kontxako marka ausiko'yek; etzakatek aitzekiyik: itxa-sua erriyua-erriyua zeok.*
- (3) **Erriyo-buelta** (bihurgunea): *zurumulluak -aundinak- urkargak sortze'ttu: zuaitza eroitako tokitan,* **erriyo-bueltetan...**
- (3) **Erriyotik bizi** (mantendu edo mantenua erriyotik izan): *kayua bezela au're* **erriyotik bizi'a**.
- (1) **Errosayuan** (segidan): *lokarrin sartu dozena't o geyo txitxare,* **errosayuan**.

- (2) **Erroskilla moun** (borobilean): *ta burun zapi'at jarri **erroskilla moun**.*
- (3) **“Es ke”** (izan ere, zeren): *“**es ke**,” an arrapatu itte'k.*
- (1) **Esponjena** (eg)in: (harrotu, hanpatu): *salma arriyai peatuta eote'k eta esponjena itte'ik.*
- (1) **Estiorra izan** (arraunerako eskubia izan edo arraun-pala ezker aldetik daramana): *mutillik geyenak **izete'la estiorrak**.*
- (1) **Etsaya izan**: (kaltegarri izan): *oso etsaya, ur-zorriya anguletako.*
- (1) **Etzabillek makal** (urri, gutxi): *zapo-amarra bauan garai'atian pilla earrik; gaur'e **etzabillek makal**.*
- (3) **Etzana** (makurra, ez jaikia): *oaingo ala au ez al tzaiuk naiko **etzana** atea?*
- (1) **Etzan aundiyakin** (gainbehera handiakin): *tellatua, al dana, araldea eman **etzan aundiyakin**.*
- (2) **Etzin emango odolik** (izuikarazko egoera adierazteko esapidea): *kutxillua sartuta **etzin emango odolik**.*
- (1) **Euna muttu** (eguna urratu edo egunsentia hasi): *anguletan ai zeala **euna muttu zaizu**, ta artian maria betetzeko.*
- (1) **Euskiya ikusi bie'u** (Eguzkia hartu behar du): *karduak tapatuta eztu nai; **euskiya ikusi bie'u**.*
- (2) **Ez e(g)on orduko kontu(r)ik** (gaur bestela egon): *gaur ezto ondungo kontuik; gaur labadorak jate'ttu neke ta ibillerrak.*
- (2) **Ezta flana** (ez da biguna, xamurra): ***ezta flana**; baño bai leuna, fiña ta bixiya.*
- (2) **Eztittuzu billatuko bi** (gabe geratuko zara): *txikapala earra baldi ma'a, eaman etxea zorrekin; bestela, urruna **eztittuzu billatuko bi**.*
- (3) **Ezurretaño** (barru-barruraino): *sartu zitzayon ordun **ezurretaño** bildurra.*
- (3) **Fundamentuzko egualdiya** (itxurazko eguraldia): *ebi-ttantto okin **fundamentuzko egualdiyik** eztiu.*
- (3) **Fundatu** (sortu, jarri): *ligilla ordun **fundatu'an**.*
- (3) **Gajuak** (gaixoak): *makaña't olako pasako zittuen **gajuak**.*
- (1) **Galdu giñixkin** (kendu, utzi): *Patxik zin ala prepaatuba; beste danok **galdu giñixkin**.*
- (3) **Galerna-begiya** (enbataren punta edo muturra): *Anguletan aize-golpia ekartze'unian, au esate'a: “Aize-golpia! **Galerna-begiya** izengo'ek!”*

- (3) **Galernaren muturra** (galernaren begia): **galernak muturra** beltza zakarkik!
- (2) **Galtzak askatzeko larriya etorri** (kakagalea etorri): ta etorri zayo **galtzak askatzeko larriya**.
- (1) **Gaña** (hainbeste): *gabonetako gaña* ateatze'it oaindik'e.
- (1) **Gañetikan** (gainera, bestalde): *biundu itte uan ontziya, gañetikan*.
- (1) **Geldiantxi au** (geldi antze hau, geldi samartze hau): *uraren geldiantxi au aprobetxatze zan erriyuan goara jotzeko*.
- (1) **Geldittu: balantza** (kendu: balantza): *kuña sartze zayo, alde'atian o bes-tian, balantza gelditzeko*.
- (2) **Gerri-buelta: enborraren** (enborraren lodiera): *aitz giyarra bier da, ta orta-ko metroko gerri-buelta ta bi luze bierko'u*.
- (1) **Geyo eman: mariak** (gehiago utzi: mareak): *muellia arranpakikua obe karga-deskargako: mariak geyo emate'u*.
- (3) **Go(g)ortu ontziya** (balantza kendu, egonkortasuna eman): *jetxi ai kaela-tik, eta goortu zak ontziya!*
- (3) **Go(g)otik** (asko): *ala ekartzeko ta eamateko erain in bier gootik*.
- (2) **Goiko muturra arrapatu: angulei** (angulei aurea harrapatu): *bai; beti're maria datorren bezela angula muite'k, eta goiko muturra arrapatu nai izete zayok*.
- (3) **Gortu ontziya** (balantza kendu): *jetxi ai kaelatik, eta goortu zak ontziya*.
- (3) **Goxoa: katea** (leuna: katea): *bier izete'u katia lau-bost metrekoa, ta al dan goxona ta gabalnizatuba*.
- (1) **Goya izan** (altuera izan): *gabarrak goya zin-da*.
- (3) **I(g)arriz bazterra(r)i** (sumatuz, nabarituz): *zerrazuya danian, segi mantxo-mantxo baztarrai iarriz*.
- (1) **Ikasiya bie'u** (aritua, jarduna): *ur mian ezin in izetea polañian in. Ikasiya bie'u erremeyoi'pe*.
- (1) **Ikusi** (begiratu): *baporiakin arek ikuste zun*.
- (1) **Ikusi** (konturatu, ohartu): *kordela loitan sartuta jartze m'ezu, eztuzu ikusi-ko noiz eldu'yon*
- (1) **Il: tirañak, korrentak...** (indargabetu, leundu, bigundu): **tirañak** asko **il dia** Agiñan, ta erriyua zikintzen ai da.

- (1) **Illargin** (garesti): *oain, berriz, platerako antxua, illargin.*
- (1) **Illargiyakin izan** (ilargi betearekin edo berriarekin tokatu: **illargiyakin iza-te'ttuk** karnabalak beti.
- (1) **Indar beltza** (indar iraunkorra, aerobikoa): *arrauneako indar beltza onena: iraungo'una. Eztik baliyo indar bizin asi, ta geo pott ittiak.*
- (1) **Indar biziya** (bizia, baina iraumen gutxikoa, anaerobikoa): *ezautu'ixkiu sokatiran golpe bizikuak. Ok ona'ttuk, baño denboa gutxiako.*
- (1) **Indar aundiya izan ondarretak** (tira handia izan): *ordun ondarretak indar aundiya xitxakan.*
- (3) **Ipurdiko latzik artu** (ipurdiko min ederrik hartu): *makiñak ipurdiko latzit artze'k oitan.*
- (1) **Ipurdin** (azpian, behean): *ta ortako balduak jartze'ia ipurdin lurrai eusteko.*
- (1) **Ipurditik** (oinetik, behetik, azpitik): *ta askatu baporeko postiak ipurditik zubiya pasatzeatik.*
- (1) **Ipurdiya: ontziyan** (popa, txopa): *oain esate zayok popa, baño berri'yek; leno esate xitxayon ontziyan ipurdiya o atzia.*
- (1) **Iriki: korrentena** (korronte aldera jo): *ur-kargetan zabiltzanian alakin erri-yuan, sekula ez korrentena iriki.*
- (1) **Irikita ala billatu** (ura sartzen zaiola edo hartzen duela billatu): *iñoiz-iñoz ondarreta jutia pentsatze m'ezu, ala irikita billatuko'zu; urdun itte'a ondo-atu uraunditzeko.*
- (1) **Irrikaziyo** (gogo, irrika): *lgeldoa jute giñun estropa ikusteko irrikaziyo.*
- (1) **Irripa** (gainbeherako inklinazioa): *bueno!, oain ala muturrez al deu? Irripa aundiyakin ondoatze ezpa!*
- (2) **“Iru tokin bost karka, hartutako tokin deskarga”** (gehiegikeriaren adierazpena): *ua guztiya onekintxe konpaatuko nitek: “iru tokin bost karga, artutako tokin deskarga”.*
- (1) **Ittekua izan** (betebeharra, zeregina izan): *baño gue aurreko zentralai beira jarrita, izendu zuen bee ittekua.*
- (1) **Ittuan arrapatu** (inguraturik harrapatu): *kontuz kabliak ittuan arrapatu; bestela, beakin batea urea eroitzeko arriskuba galanta.*
- (1) **Itxasua ekarri** (olatua hasi): *estropan biarreneako –askotan, bintzat– itxasua ekartze'ik.*

- (2) **Itxasuak etzakak asarreik** (ez dago itxasorik, ez dago itxaso txarrik): *naiz aize-olatu pixka't badabillen, **itxasuak etzakak asarreik**.*
- (1) **Itxasua'nian** (itxaso txarra danian): *noiz jo ankekuak aintze'ik olatuba ondo aprobetxatzeko, **itxasua'nian**.*
- (1) **Itxuba** (argirik sartzen ez zaiona): *paolak iru aldeta kristala, ta **atzia itxuba**.*
- (1) **Itza artu: geroak** (agindu. nagusitu): *eta geroak ai du **itza artzen**.*
- (1) **Ixtingan** (norbait edo zerbait tenkan dagoen egoera): *norbait zerbatti tira-ka donian eultsi ezinik, beste'tek esate'yo: "Laundoko'it, mote, or **ixtingan** eon be!".*
- (3) **-ixtorik** (konturik, berririk): *ta iñor ez izan angula prepaatzen zakiñik, **angula-ixtorik** zakiñik.*
- (3) **Ixtoriya** (kontua): *eta orduko **ixtoriya** ala dek: eztula galtzen angulak.*
- (1) **Jakitxuba** (mamitsua): *andesa arrai oso earre'k; gerri-luzia ta **jakitsuba**.*
- (3) **Jangose** (jangogoz): *laiste jungo'ia billa **jangose**.*
- (1) **Jan: lurra** (eraman, kendu: lurra): *urak eztik barkatzen; kaskaka-kaskaka **lurra jan da jan** beti.*
- (1) **Jan: pintura** (hartu, zupatu: pintura): *ontziyak **pintura** asko ai dizu **jaten**.*
- (1) **Jaso** (hartu, erosi): *ba al dakik zenbat angula **jaso zuen** batian?*
- (1) **Jasota e(d)uki erriyuak** (gordeta eduki): *etzait iruitzen erriyuak **jasota eukiko'ttunik**.*
- (3) **Jata:** (jo eta): *tope inda or emate bayo, **jata** krak!*
- (1) **Jatorriya izan** (berezkoa, jatorrizkoa izan): *baxitxakan arek bee **jatorriya**.*
- (3) **Jelatu** (izoztu): *seittun **jelatze'k** angula.*
- (3) **Jeniyo bizikuak:** (izaera bizikoak, bizitasun handikoak): *an, ganbak bezela-kuak ateatze'ttuk ixkirak salabarduan; zirt-zart, **jeniyo bizikuak**.*
- (1) **Jitta** (forma): *eozin motor, batel o ontzik plantilla izete'u goiko **jitta** emateko're.*
- (2) **Jo ta ausin** (jo ta ke, jo ta su): *gaur, Euarritan, jendia jo ta ausin segan ai da.*
- (2) **Jungo'ek "apapa"** (beste mundura joango duk): *txapoik azpin artuta, bate'at jungo'ek **"apapa"**.*

- (1) **Juntatu** (osatu, lortu): *Balentin Perretzenekuak **juntatu zin** karretilla errueda bat gomazkuakin.*
- (1) **Juzgatu**: (kalkulatu, esan): *ixkiran arrautzak **ezto juzgatzeik**; ezto kontatzeik.*
- (3) **Kalma** (bare): *etxian lan asko ezpazan, da maria aundi ta **kalma**...*
- (1) **Kanpana-buelta eman** (itzulipurdi): *murgildu nai ba'a atzeaka, eo nai ba'a **kanpana-buelta** emanez.*
- (1) **Kanpo(r)a atea** (itxasora atera): *Oriyoko bertako zaarrak pentsatu're bai: "Oik eztittu'pa **ateako kanpoa**, e?"*
- (1) **Karratu** (garraiatu): *kamiyoa arriya otarka **karratuz**.*
- (3) **Kaskaka-kaskaka** (koskaka-koskaka): *urak eztik barkatzen; **kaskaka-kaskaka** lurra jan da jan beti.*
- (2) **Kelarra baño leorra(g)ua** (asko behar edo eskatzen duen zerbait): *ontzia't pintura asko ai dizu jaten, da urdun esate'zu: "Au **kelarra baño leorraua** zioik".*
- (3) **Kendu aldera e(g)on** (merke saldu edo kentze aldera saldu): *bapore zaar oik **kendu aldea** eote zian.*
- (1) **Klasi oi** (tamaina hori): *libratik gora eo orko **klasi oi** gustatzen zitzayon.*
- (1) **Kolpia jo** (bat bateko mugimendua egin): *zapateruak aldamenka antxia **kolpia jotze'ula**.*
- (3) **Konpondu** (moldatu): *saardoteitik eta lana ittetik eta, **konpondu** zian.*
- (1) **Konstruziyoaliak** (erakitzaileak): ***konstruziyoaliak** oso istimatuba'ue betelaneako.*
- (1) **Kontrabandua(r)i eman**: (aduanari deklaratu gabe pasa): *kontrabanduai emate xitxen **gabian**.*
- (3) **Kontuk ate(r)a** (pentsatu, kalkulatu): *eta ordun, etxetik **ateatze'ttuk kontu'boik**.*
- (3) **Kontuk jorratu** (kontu ugari erabili, astindu): ***jorratuko** zittuen ango ta emengo **kontuk**.*
- (1) **Korrentak il eo attu** (korrenta goxatu edo baretu): *maria jotze aldea, **korrentak il eo attu itte'ttuk**.*
- (1) **Kostera ona izen** (arrantzaldi ona egin): ***kostera ona izeteko**, asko esan nai du zein gizon dan lema sayatzeana gau t'egun.*

- (3) **Kurrixik, karraxik** (garrixiak, aldarriak): *txeria't-e bai, zubiya pasa ezinik. Ai kurruxik!*
- (1) **Larriya izan**: (kezka, estuasuna izan): *geo etxea abitzeko **larriya** genitxakan.*
- (1) **Larriya etorri** (premia, gogoa etorri): *ta etorri zayo galtzak askatzeko **larriya**.*
- (1) **Le(g)ar barrena** (legarraren beheko aldea): *lear barrenian arriya xiaua, beti, gaikaldian baño.*
- (1) **Le(g)ar goyena** (legarraren goiko aldea): *arriya askoz latzaua **lear goyenan** bekaldian baño.*
- (3) **Lege** (moduko, bezalako): ***muelle lege'at** bazan ondarra ustutzeko.*
- (3) **Leorre(r)a ate(r)a**: (uretik edo erriotik atera): *alan azpin goldiyua itte'k ta ontziya usteltze'ik. Ordun **leorrea atea** eta eskobilla latzakin pasa bier ize-te'ik.*
- (1) **Lepo-antxetik** (lepo aldetik): *txitaria **lepo-antxetik** sartuta, berriz, muttura muittuz ibiliko'a, ta bizigorraua izete'a.*
- (1) **Lodi** (asko): *askotan erriyuan **ebi-zaparra lodi ateatze'ula**.*
- (3) **Lur ariña** (lur hodartsua edo filtrazio azkarrakoa): *aldiartan **lur onak eta ariña'ia**.*
- (1) **Luxexoua eo motxexoua** (luzexkagoa edo motxaxkagoa): *taketa da **luxexoua o motxexoua**, segun zein tokitako bier dan.*
- (1) **Luzekua izen** (iraupen edo arnasa onekoa izan): ***arraunlaya luzeku'ek**; bestela, eztik baliyo*
- (3) **Manejatu** (erabili, gidatu): *ezin dit **manejatu** gabarra.*
- (1) **Makal** (ahul, bera): *arrapatu erriyotikan da seittun maniatzen ba'ek, angula **makala'ek**.*
- (1) **Makal** (urri, gutxi): *bauan garai'atian pilla earrik. Gaur'e etzabillek **makal**.*
- (1) **Makurra** (ez jaikia): *ala altxatxua atea zaiuk: **aurre-makurra**.*
- (1) **Makurtu** (okertu): *kandela biunak, eta **makurtu** itte'ttuan.*
- (3) **Mami** (jaki): *barguak ba'u bakallau antza **mami** irikiyakin.*
- (1) **Mami irikiya** (ez trinkoa): *barguak ba'u bakallau antza, mami **irikiyakin***

- (3) **Manejatu** (moldatu, egokitu): *eskerrak, basarritarrai! Ba, oik **manejatzen** **ziyen** biria, pixka't, urbiak ateata.*
- (3) **Mantendu** (hornitu): *erreka onek **mantendu** zun Agiña urez.*
- (3) **Maria altxa** (mareak gora egin): ***altxako** al du gaur **maria** ala botatzeko moun?*
- (3) **Maria aundiya** (mareagora handia): *etxian lan asko ezpazan, da **maria aundi** ta kalma.*
- (3) **Maria bizik:** (ur biziak edo goraldikoak): *illargi berrin da betian, **maria bizik.***
- (3) **Maria bukatu** (mareabehera hasi): *gaurko **maria bukatu'ek.***
- (3) **Mariaerdin** (marearen erdi garaia): ***mariaerdin** pasa bier izate'ik Oriyoko zubiya.*
- (3) **Maria galdu** (mareatea galdu): *abitu gaitezen auro; bestela, **maria galdu-ko'iuk**-eta.*
- (2) **Maria geldittu** (marea jiratzerakoan urak egiten duen geldiunea): *an **maria jirako'ik**, eta **geldituko'ttuk urak.***
- (3) **Maria ikuttu** (mareagora eman): *urak gora asita zaudek; **maria ikuttuta zio!***
- (3) **Maria jira** (mareagora edo behera hasten duen garaia): *gaur Latindein **maria jirako'ik** eta geldituko'ttuk urak.*
- (3) **Maria jo** (mareagora eman): *unuzkeo **maria jiria zio:** **maria joik!***
- (3) **Maria jun** (mareak alde egin, urak gutxitu): *Olaberrietan ala eunez kargatzen ai zeala, akordatu'be **maria jun.***
- (3) **Maria illak** (ur hilak edo kuarteterakoak): ***maria illak** kuartetakuak izete'ia.*
- (3) **Maria in** (marealdiko ekarraldia edo garraioa egin): *il bat berrogeita iru **maria indakua** bagenun.*
- (3) **Mariak aldein** (mareagorak alde egin): ***"Aldein zaiuk mariak;** beste jorna't itteko denboak ezttiu!*
- (3) **Mariak aldein** (mareak hiltzen ari): ***"Oaingo mariak aldein diye.** Lo itteko moun gattuk urrungo illargi arte!"*
- (3) **Mariak atzeatu** (urgorak atzeratu): ***mariak atzeatzen** dijuaztin bezala goizian euna argitzen zaizu, ta esate'zu: **"Mariak atzeatzen ai diye!"***

- (3) **Mariak aureo etorri** (urgorak aurreratu): *lengo illargin baño aureo* zatoztik *uraldi yotan mariak*.
- (3) **Mariak azi** (ur hiletatik gorakada egiten duen marea): *ilberatik ilberria mariak azten jute'ia*.
- (3) **Mariak bizitzen asi** (mareak indartzen hasi): **mariak** *kwarteratik iruarren eunea aste'ttuk bizitzen*, *normalian*.
- (3) **Mariak bukatu** (marea biziak edo ur biziak bukatu): *uraldi'yotako mariak bukatu'ttuk*.
- (3) **Mariak jun** (mareak atzeratu): *anguletan ai zeala euna muttu zaizu ta artian maria betetzeko, ta esate'a: "Oaingo mariak'e jun dittuk!"*
- (3) **Marian ibilli** (mareagorako urgeldiaz baliatu): *metabelarra osua ekarriko'iu maria aprobetxatuz: marian ibilli biarra zakau!*
- (3) **Marian sartu** (errioko edozein puntutan, mareagora ematean sartu): *oaindik asko falta'ik Upalategia marian sartzeko*.
- (3) **Marian zai** (marea igo zain): **marian zai** *eon bier, urak noiz iyoko!*
- (3) **Mariapunta jo** (mareagora eman): *karga itzaun alak; mariapunta jo'ik!*
- (1) **Maspillatu** (nahasi): *katia maspillatuta* kostako zaizu ondo jartzia.
- (3) **Materialak sartu** (eman): *askoz fiño indako materialak izete'ia: beste material batzuk sartze'ixke*.
- (1) **Mattiak** (zaleak): *agiñarrok beti izandu gattuk arraun-mattiak*.
- (3) **Metatxorrua** (tontor-pila): *gañekaldian in bier izete'u metatxorrua, zakarrez*.
- (1) **Miantxa** (meheaxka): *polain-astan eldulekuba miantxa bie'u*.
- (3) **Miatu** (arakatu, aztertu, begiratu): *bajamarrian ala flotian eongo zan tokiya miatze zan*.
- (1) **Milagros**: (txiripaz, zortez): *arkazi okerrak milagros* billatze zian.
- (3) **Mimo aundiz** (arretaz): **mimo aundiz** *kontuin biarreakua*.
- (3) **Mordoa** (asko): *Mapilko Patxi, Laxau aldian angula mordoa* arrapatze'una.
- (3) **Motor** (tamaina ez handiko urontzi mortorduna): *eozin motor*, *batel eo ontzik*.
- (1) **Muki** (angulak botatzen duen apar itxurako lirdinga): *nola muki* asko'un, *angula ondo garbittu bie'ik*.

- (3) **Murgil jo** (murgil egin): *urgizonak eztik sekulan esango murgil in tzak: **murgil “jo”** zak esate'ik.*
- (1) **Mutur** (errio, erreka... baten aho edo bokalea): *Agiñako erriyuan arrapatzé'an ixkira, txikiya ta motelau'ek Oriyoko **barra-muturrekua** baño.*
- (3) **Muttu**: (tokiz aldatu, mugitu): *geo in biar dek, berriz, **muttu** ta gaikaldea jun.*
- (1) **Muturra arrapatu, angulai** (aurrea harrapatu, angulei): *guazen azkar gora, angulai **muturra arrapatzea!***
- (1) **Nai likek!** (jakina baietz!, bai horixe!): *tontua, **nai likek!**, anguletan gaikaldian jartze'ana!*
- (1) **Nekatuba, angula** (tinkotasunik gabea, ahuldua): *angula arrapatu berri-tan **nekatuba** izate'k.*
- (1) **Ne(r)onen gain asi** (neronen kontura): *eta **neonen gain** asi nintzanian, amalau urte.*
- (1) **Neurriyaren eza(g)uera alakoa izan** (neurri-unitatea halakoa izan): *gutxi gorabeera, metro kubikota **du ezauera neurriyak.***
- (3) **Noizin-noizin** (noizik behin, noizbehinka): *kuartzak earrak ikuste'ia; eta noizin-noizin kuak kuak kuak, kantari.*
- (1) **Ogeitaka** (hogei eta tak): *battuan batzuk **ogeitaka** kontatu eziñik.*
- (3) **Olatu puska** (olatu dezente, nahiko olatu): ***olatu puska't** baita're baxitxon, an.*
- (1) **Ondo gorrin** (ur mehe eta hondo gogor edo garbikoak): *alakin baator **ondo gorrin** agaika, ta ustekabian zast! loyaldi batian sartze'k.*
- (3) **Ondo're** (hain justu ere): *yutia zan, **ondo're**, ala juntak ixteko ibiltze zuen gaya.*
- (1) **Ondua jo** (hondoa ukitu): *eskapa earra in dit. **Eskubakin jo'ik ondua**, ta ebakiya. Agiñan **ondua “jo”** esate'k; ez, “ikuttu”.*
- (1) **Oska ari** (deika ari): *aldiarta jun dittuk baarruna biltzea, ta zuen etxeukuak **oska ai dittuk** ala eske.*
- (2) **Ostuak dantzan asi** (hostoak mugitzen hasi): *aize-punttuba joi'k eta **ostuak asi'ttuk dantzan.***
- (3) **Ontziyan tripa** (ontziaren gerria): *atze-zabalak izete'ia ontzik; baño **tripa** baño zabalaua, ez*

- (3) **O(r)ain** (baina, hala ere): **oain**, *angula beltza bistako obia dek, e?*
- (1) **Ordaintze(r)a etorri** (iritsi, ailegatu): *alaka ondarra eun pezeta **ordaintzea etorri zan**.*
- (2) **Orri esate zayok esan** (hori da hitz egitea behar den bezala): *eta ondo itz ein tzin; orri esate zayok esan, orri esate zayok itz!*
- (3) **Ortxe-ortxe** (nonbait hor, nonbait han): *Mapillen **ortxe-ortxe** gaur urak jirako'ixkik.*
- (1) **Osatu** (sortu, sartu): *naiko trapalla **osatzen ai zin**.*
- (3) **Oserbatu** (konturatu): **oserbatze** *zunian kordela "ttak" jo'ula ondua.*
- (3) **Ostraerako kajoya** (depositua): *aundik jaso eta ttikik **ostraerako kajoyea** botatze zian azitzeko.*
- (1) **Parte pasatzen asi** (abisu ematen hasi): *urdun bateatek mazopa ikusi, ta bestiai **parte pasatzen asi uan**.*
- (1) **Partittu** (banatu): *ta ainbeste launen artian **partittu**.*
- (1) **Pasaa** (pasabidea, igarobidea): *an lana in bier, eta andik **pasaa** zuela.*
- (1) **Pazin egon** (bare-bare egon):
- Zertan zeok itxasua?
 - Mote, pazin
- (3) **...pe** (gabe "pe" biurtzen da aurreko hitzaren "k" konsonantearen erorke-taz): *dударик gabe = dudi'pe; eskurik gabe = eskui'pe.*
- (1) **Peatu** (erantsi, sartu): *jakin bier izete'a txitxaria **amubai** nundik **peatu**.*
- (1) **Peatu** (ordainetan eman, mendekatu): *etxixayon aaztuko, eta beak'e urrungo batian peatuko zin; ire txantxa etxixayon aztuko.*
- (2) **Pentsatu utsak** (pentsatzeak bakarrik): **pentsatu utsak'e** *eztakit ze ema-te'iten!*
- (3) **Pilla izan** (asko izan): *garai'atian **pilla uan** baztarretan txirla.*
- (3) **Plakua**, (mehea): *zenbat eta borobillaua ta **plakoua** nai izete zan, ur gañian obeto juteko txilipak itten arriya.*
- (1) **Platerako antxua** (Antxo nahasia, handi-ttikian): **Platerako** *antxua, illargin!*
- (1) **Politta** (dezentea): *biaje **politta** zio andik barra.*

- (3) **Portatu, ondo** (ondo erantzun): **ondo portatu zan** gabarra ua: 33 m3 ondar ekartze zittun.
- (3) **Postur'oi** (gutxi gora-behera, inguru hori): *banixkin amalau urte eo **postur'oi**.*
- (3) **Pott** (eg)in (amore eman, etsi): *eztik baliyo indar bizin asi, ta geo **pott ittiak**.*
- (3) **Presiso izan** (beharrezko, nahitaezko izan): **etzan presiso al(a)tokiya** bee etxe parian ittia.
- (2) **Preskatu'at artze(r)a jun** (igeri egitera edo bainatzera joan): *bero galanta, ta geo illunarrian preskatu'at artzea jute zan Agiñako jendia erriyoa traje bañukin.*
- (1) **Pro(b)atu** (ezagutu): *oain... **proatu** nun attona.*
- (3) **Profesionala izan** (ikasia, trebatua izan): *Arpidegiko Benito Aranburuk ala atzeaka dala pasatze zan uraizian, **profesionala zalako**.*
- (3) **Puntuba arrapatu** (lekua edo tokia harrapatu): *askotan ordu t'erdi leno **puntuba arrapatze'k**.*
- (1) **Puska'tian** (denbora dezentean, askoan): *ezin salduik **puska'tian** geatu zan.*
- (2) **Relikiya bezela kontuin** (oso ondo kontu egin edo gorde): *ontzi'yoik ta arraunak **relikiya bezela kontuitte zian**.*
- (1) **Sake** (entrama, apetitu): **sake** earrakin. *Je!, batzutan kalte earrak iñez!*
- (1) **Salida** (salmenta): *bazan **salida** urruti xamar eta ondarpilla mordoxka't itte genduna.*
- (3) **Seko** (zeharo, guztiz): *oain zaudek bayak **seko difeentia**k.*
- (3) **Senak eman** (senak eragin, agindu): *bee **senak emanda** ur zikina sumatze'unian, angula erriyuan zabal etortzea.*
- (3) **Sekoaldiya** (lehortea, lehorraldia): **sekoaldiya** don garayian, nik ezautu'et.
- (3) **Sikiera** (gutxienez, behinik behin): *baño gaur, **sikiera**, zeeze eskuartian geatu itte zaik.*
- (1) **Silbestria** (basokoa, larrekoa): *or ibiltze'ia antzar zaar oik, naiz **silbestriak** izen.*
- (1) **Suelto** (ugari, franko): *gatza **suelto** biar izate'u.*

- (3) **Sukaldeako ona** (jateko ona edo jangarria): *Lupiya **sukaldeako** oso **on**'ek.*
- (3) **Tankako** (kolpe, takateko): **tankako** koxkor bateatik ez da alperrik galtzen: *euste'yo.*
- (1) **Tanker'ortan** (gutxi gora-behera, inguru horretan): *baaa... **tanker'ortan**: 1950ko bueltan o amaikan; or izango'ek obretako asi giñala ondarrakin.*
- (1) **Tartia utzi** (txanda utzi, eman): *baño **tartia utzi** eziñik esan nai nuke, ondarra ustutzeakuan.*
- (1) **Terralak jate'u jela** (kendu): *erriyotik polaña ateata, ura goortu itte zayo jela gootik ai dunian. Terrarrala'nian, ordia, ezto kuidoik: **terralak jate'u.***
- (1) **Tipo orta** (modu horretara): *ta lau urtian ortxe ibilli giñun **tipo orta.***
- (1) **Ti(r)aka arraunian** (arraun-lanetan): *Patroya bat eta lau **tiaka.***
- (3) **Ti(r)atu** (tiran jarri): *eta metro ua bi doblan **tiatze'a.***
- (2) **Tirriki-tarraka** (urontziak olatuaren eraginez elkarren kontra atera oi duten hots onomatopeikoa): *portutan, olatuba; ta **tirriki-tarraka** earra ontzik, alkarren kontra.*
- (3) **Tokatu** (egokitu): *nai **tokatu** zaiak angulak emen, da Saikolan proatu.*
- (1) **Topez** (muturrez, aurrez): *leor aldea eantsirik: trabes; **ez topez.***
- (1) **Topez jo** (bete-betea jo): *Saikolan bezelaxe, urak **topez jotze'yo.***
- (1) **Trabestu** (zeharkatu): *kalkulatu ondo gorakua, erriyua **trabesten** asi aurretik.*
- (3) **Tripak beatu** (beherakoak edo sabelekoak eman): *baña ganauak jate ma'u, laxter iarriko yozu: tripa danak **beatze'ixka.***
- (1) **Tripaldia: alaren** (alaren gerri edo zabalerarik handiena): *alan gerriyai esate zayok **tripaldia.***
- (1) **Trumonada** (trumoigiroa, trumoikara): *nik ustet garai'atian **trumonada** billatze zala.*
- (3) **Ttak** (ukituaren onomatopeia): *oserbatze zunian, "**ttak**" jo'ula ondua.*
- (3) **Ttak jo** (ukitu): *oserbatze zunian, kordelak "**ttak**" jo'ula ondua.*
- (1) **Txandan xamar jarri** (dezente ko tarte eman jarri): *buya **txandan xamar** jartze m'ezu.*
- (1) **Txanpon** (diru): *etzan **txanponik** nai zaneako.*

- (1) **Txapon berriya** (txanpon edo diru estra, aparteko dirua): *txapon **berriya** ematen niyon nik.*
- (1) **Txaplanian bota** (xabal-xabal bota): ***txaplanian** aizia donian **botatze ba'a**, txilipa gutxi itte'a*
- (2) **“Txerrimunik ordañetan”** (nik gaur zuri, zuk bihar niri): ***txerrimu ñik** nola izete'ia **ordañetan...***
- (1) **Txibe(r)na** (eg)in **alak** (buelta eman edo jira egin): *bein batian, terrala ike-arriya zala, **alak txibena in** da etxe aldea.*
- (2) **Txinua bezela** (txanoa bezala): *uztayai, berriz, saria joste zayo etxeko **txinua bezela**.*
- (1) **-txiuna** (bi atzikiz osatua: xee+duna): *arraya **beltxatxiuna**.*
- (1) **Txorrotxo** (estuago): *geo ta **txorrotxo** mutur aldea dijuaztin oolak.*
- (1) **Txori-mukiya ez izan** (ez izan gutxi,): *ekartze zuen angula ezuan txori-mukiya. Zenbat angula!*
- (1) **-txu** (atzizkia=samar): *alpertxuik etorriko aiz.*
- (1) **Txupatu** (xurupatu): *ostraera tartian onenak billatu, txulua in ortzakin, ta aren barruko salda **txupatze** zun._*
- (2) **Txurruka-txurruka** (harria txilipartaka dijoanean, bukeran egin ohi duen ezin kontatuzko ugaritasunaren onomatopia): *gauza politte'k arriya xalto-ka bukaeran, uari-uari, **xurruka-xurruka**, errosayua itten!*
- (3) **Ujala** (uholdea): *an ikuste zian alak jasotzen, **ujalai** bildur.*
- (3) **Ujuba** (oihua): ***ujuba in**, iñor kontua dein.*
- (3) **Ura etorri** (marea etorri edo urak hazi): *auro ezpazabiltz, itte'a **ura etorri**; ta urdun lanik itteik ez.*
- (3) **Ura geldiyo izan** (urak korrontea gutxiago izan): *aitan ura nola zabalo jute'an, **ura geldiyo** izete'a*
- (3) **Ura(r)i eldu** (oratu): *arraunlaya goraxio o beraxio exei, **urai eltzeko** aldia bado*
- (3) **Urak alde(g)in** (mareak alde egin): ***urak aldeinda**, oain ze in bie'iu!?*
- (3) **Urak beera eman** (mareabehera eman): *urak behera emana izengo'ik.*
- (3) **Urak geldittu** (korrontek baretu): *gaur urak Mapillen gelditzia espero'it.*

- (3) **Urak aundiyauak izengo'ttuan emen baño** (euri gehiago egingo zian hemen baño): *erriyua ola datorreneako, goyen **urak aundiyauak izengo'ttuan emen baño**.*
- (3) **Urak artu** (ura sartu): *ba'ia, ordia, palka jarri'be jun, **urak artu**, ta ezin alla-tuik estropa galdutakuak.*
- (3) **Urak azi** (urak goratu): ***urak azi** zek. Gora geyo iña izengo'ik emen baño.*
- (3) **Urak etorri** (marea etorri edo urak hazi): *auro ezpazabiltz, itte'a **ura etorri**: urak eztu itxoitten.*
- (3) **Urak geldittu** (urkorronteak gelditu): *gaur Mapillen **urak gelditzia** espero'it.*
- (3) **Urak goxatu** (urak baretu): *gaur urak Saikola aldean **goxatuko'ixkik**.*
- (3) **Urak goxuak** (urak bareak): *erriyo erdin sekulako korrentak zaude-lako, baztarrea jo giñin **urak goxuak** arrapatzeko.*
- (1) **Urausilla** (urak zerbaitekin tope eginez, korronteak behera egin ordez gora egiten duen gunea): *al ba'a ez ibilli ur-kontra; daudenian **urausilletik** ibilli.*
- (3) **Urak jira** (mareagora edo behera hasi): ***urak jira'ixkik**. Itxas pikatub'ek eta aldein in bie'iu.*
- (1) **Urak jira** (mareak ur-karga hausten duen gunea): *gaurko kargakin Mapi-llen **urak jirako'ixkik**.*
- (3) **Urak lurra jan** (urak lurra kendu, eraman): *brankaletan arriya sayaskeran ikuste'k jenealian; **urak lurra jan** dulako agertze'ttuk.*
- (3) **Urak makaldu**: (ur-kargak gelditu): *unuzkeo uarteja juteko **urak makaldu** xamartu"xkik.*
- (3) **Urak moteldu** (ur biziak alde egin): *ur bizikin errex gora ta errex beera; baño urak iltze'ian bezela, esatea: "**Urak moteldu'ixkik!**"*
- (1) **Urausiya** (habaila, abiadura): *oain alak "fueraadabordakin" ibiltze'ttue batea ta bestea, eta bi aldetik olatuba utziz dijuanian, esate'zu: "Oi dek **urausiya** damakiña!" Ezta esaten "martxa".*
- (3) **Ur-betiak** (marea betea): *gaur, **ur-betia** noiz da?*
- (3) **Ur bizitan** (marea bizitan): *baña **ur bizitan** earki asko pasatze zan baztar aldetik isla.*
- (3) **Ur-erdin** (errio-erdin): *jarri ala, geldi-geldi, **ur-erdin**.*
- (3) **Urez ittota e(g)on** (urez beteta, estalita egon): *Errerueneko lurrak, azekik garbitze zittuen arte, oso onak; naiz-ta, oain **urez ittota eon**.*

- (3) **Ur-golpia le(g)untze'u:** (goxatu, baretzen du): *arranpak **ur-golpia leuntze'u**, ta denboa emate'izu lana itteko*
- (3) **Ur illak** (kuarterako mareak): ***ur illetan** maria askoz ttikiyaua; bai gora, bai bera.*
- (1) **Ur-ixkiñ** (errio-bazter): *ala leorrian, **ur-ixkiñian** gelditze'anian.*
- (1) **Ur-ixkiñekua izen** (errio inguruan-edo, bizi): ***ur-ixkiñekua izen**, da igari beste aldea pasa zan.*
- (1) **Ur lorik** (hondo handikoak): *"Je! **Ur lorik** zaudek emen! Arrayua! Iya pola-ñak aldein xitxaian!*
- (1) **Ur miak** (hondo gutxikoak): *eztezu arrayik arrapatuko **ur mian**.*
- (3) **Usabiyo** (ohitura, usadio): *goizian jekita, urgizonak **-usabiyoz-** beti erri-yuai beituco zio.*
- (2) **Usaya(r)i eldu** (edozer gauzari heldu): *alako elera sakatek! **Usayai're elduko** litxekek!*
- (2) **Utsik dator baya** (ezer gabe, angulik gabe): *kalatzen dute baña, **utsik dator baya**.*
- (1) **Utzialdiya** (barealdia): *Oriyoko arrantzaliak itxoin itte'ue barra pasatzea-kuan: **utzialdiyen zai** eote'ia.*
- (1) **Xabalian danian: angula** (urgaineratzen danean angula): *ixkira **xabalian danian**, lupiya ur-gañian saltoka ibiltze'a ua arrapatzen.*
- (1) **Xartan ibilli** (arraina ur gaineen saltoka ibili): *lupiya **xartan dabillen** tokin, ixkira don siñale.*
- (1) **Xos** (dirua): *etzan **xoxik** nai zaneako.*
- (3) **Zaar** (zakar): *izan'e korrenten kontrako **aize zaar** au.*
- (3) **Zaarrak izan** (aspaldikoak izan): *Alak, bintzat, **zaarrak ittuan** emen.*
- (2) **Zabal etorri angula** (bai bazterrean, bai erdian, igualtsu harrapatu angula): *ego-aize pil-pil eo ur-zikiña bezelako zerbait sumatze'unian, bee senak erainda erriyuan zabal etortzea angula.*
- (1) **Zaitu** (zelatatu): *erronka jo'be-re, earki asko **zaituko** zattu.*
- (3) **Zaitu** (begiratu, zaindu): *maria zaitu, ta urdun jokatze zian estropak.*
- (3) **Zanga-zanga** (hurrupatzearen onomatopeia): ***zanga-zanga** ta zupa-zupa ai zitzayon zañetik.*

- (1) **Zapasaltua** (alde batetik galgatuz, gauzaren bat aideratzea edo altxatzea, koloka): **zapasaltua** baldin bau, kuña sartze zayo alde'atian o bestian balantza gelditzeko.
- (1) **Zaplan jarri** (gainbeherako inklinazioz jarri): *an goarriya **zaplan** jartze zan.*
- (3) **Zarta-zarta** (elkar jotzen duten bi gauzen hotsa): **zarta-zarta!**, erropa garbitze zan.
- (1) **Zeatik ez, zeatik eze, zeatikan eze** (izan ere, zeren): **zeatik ez**, lupi ttikiyak etzun baliyo saltzeko.
- (1) **Zematxo** (zenbatxo, zenbat): **zematxo** angula, bertan botata
- (1) **Zerbiziyua izan**, (onura, probetxukoa izan): izuarrizko **zerbiziyua da** –eozergauzatako– aixkora ttikiya.
- (1) **Zerratu-zerratua** (itxi-itxia, trinkoa): *lan aundik emate'ttu terralak **zerratu-zerratu'anian**.*
- (1) **Zerrazuya oso itxu** (behelaino edo lainopera oso trinkoa, itxia): *alian zua-zenian, ikuste'ztala **zerrazuya oso itxu** jartze ba'a.*
- (1) **Zertxoko** (zer nolako, zenbateko): *iarri itte zayo **zertxoko** aballa ea-mate'un.*
- (2) **Zeru(r)a be(g)ira e(g)ondakua** (gora begira egondakoa): *landare guztiya bezela, eun urtian **zerua beira eondakua**.*
- (3) **Ziero** (guztiz, oso, zeharo): *eualdi **ziero** txarra.*
- (3) **Zirt-zart** (mugimendu azkar-biziaren onomatopeia): *Oriyoko barra-muturrian, ixkirak **zirt-zart!** saltoka ateatze'ttuk.*
- (1) **Ziyatu** (galgatu, frenatu): *bi ontzi alkar jotzea'ijuaztenian, esate'a: "**Ziya zak!** Bestela, alkar joko'iu!".*
- (1) **Zop!** (zoru edo lur bigunaren batean gauzaki batek –erortzean– atera ohi duen hots onomatepeikua): *beste aldian, zaika tartian, **zop!** sartze uan arriya ua.*
- (3) **Zorriya** (kume): *ixkirakumiai **zorriya** esate zayok: ixkirazorriya.*
- (1) **Zu(r)e buruba(r)i (eg)in** (zeure buruari esan): *aspertu itte zea, ta alako'a-tian **zue burubai ite'yozu:** "Emango zio'pa errematia!"*
- (3) **Zupa-zupa** (xurgartzearen onomatopeia): *izaya **zupa-zupa** ai zitzayon zañetik, lor-lori in arte.*

Kreditu grafikoak:

Aranburu Durandegi, Rafael: 111. or.

Aranburu Gaztañaga, Benito: 89. or.

Bereziartua Atxega, Maritere: 21. or.

Galarraga Huegun, Juan: 137. or.

Ikutza Aizpurua, Imanol: 39. or.

Kutxa Fototeka: 102. or.

Maioz Aizpurua, Francisco: 44, 101, 106, 127. or.

Maioz Pagola, Jose M^a: 54. or.

Pikabea Lizarreta, Joxe Antonio: 33, 63. or.

Pikabea Sarasola, Ebaristo: 47, 95. or.

Salsamendi Aduriz, Francisca: 31. or.

Tapia Aiestaran, Alejandro: liburuaren azala, 7, 51, 73, 91, 97, 112, 122, 155, 156, 157, 161, 162, 165, 179, 191, 193, 199, 206, 214, 215, 216, 226. or.

Zabala, Jose M^a: 213, 214. or.

Zapirain San Sebastian, Joxe: 119. or.

Aginaga. Errioko jarduerak eta bertako hiztegia

(Aginaga. Activities in the firth and local vocabulary)

277 or., 2005

ISBN: 84-8419-016-1

Copying of the summary page is authorised

Pikabea Aizpurua, Jabier (Zubiaurrenea, 6 – 2. C. 20170 Usurbil): **Aginaga. Errioko jarduerak eta bertako hiztegia** (Aginaga. Activities in the firth and local vocabulary) (Orig. eu)

In: *Aginaga. Errioko jarduerak eta bertako hiztegia*. 1-277

Abstract: This book has been divided into three parts. The first part is about the activities of the river and the close relationship that the people of Aginaga maintained with the river is shown, in times when they made their living from the river and when they made the river live. The second part provides a vocabulary that is as typical as it is rich, with names of places, plants, fish and birds. And finally, some peculiar, clear and appropriate expressions, which, from one century to another, have been orally transmitted.

Key Words: River. Fisheries. Transport of sands. Washing stones. Boat building. Pier. Events. Vocabulary.